

EUSKAL ADITZ JOKATUA:  
GERTAEREN GAINEKO IKUSPEGI  
SISTEMA (EDO TAM SISTEMA)

Ibon Coterón Agorria

Zuzendaria: Kepa Korta Carrión



eman ta zabal zazu

Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

2015



Logika, Ezagutza, Mintzaira eta Informazioaren institutua (ILCLI)

Laburpena

EUSKAL ADITZ JOKATUA:  
GERTAEREN GAINEKO  
IKUSPEGI SISTEMA (EDO  
*TAM* SISTEMA)

Euskal aditz jokaera oparoa eraikita dago marka morfologiko gutxiren gainean. Pertsona eta numero markaz kanpokoak tempus-aspektu-modu sistemari dagozkio. Hortaz, badaude gai morfologiko bi (hurbila eta urruna) eta beste zenbait hizki, zeinen esanahia azaldu beharra dagoen, hala nola *-n* atzizki polisemikoa (menderagailua izan daitekeena baina baita iraganaldiaren marka eta zenbait hortatiborena), eta berarekin oposizioan ager daitezkeenak (suposakarizko *ba-*, zentzu anitzeko *-(te)ke...*). Zenbait adizkik marka horietakoren bat behar dute gramatikalki zuzenak izateko, beste batzuek ez. Euskal tempus-aspektu-modu sistemaren azalpen egoki bat eman daiteke berau ulertuz gertaeren gaineko ikuspegi sistema bat gisa, Alan Kingek (1993) proposaturiko zentzuan. Horretarako baliatuko naiz egokitu ditudan pentsalari bion ekarpenez: Lars Johansonenaz (2000) aspektu-aldizkotasunaren inguruan eta Marvin Harek (1952, 1989, 2003...) hizketa egintzen teoriari egindakoaz.

## EDUKI TAULA

<b><i>Eduki taula</i></b> .....	<b><i>i</i></b>
<b><i>Taulen zerrenda</i></b> .....	<b><i>iv</i></b>
<b><i>Esker onak</i></b> .....	<b><i>vii</i></b>
<b><i>Laburdurak eta sinboloak</i></b> .....	<b><i>viii</i></b>
<b>0. Hitzaurrea: Ikerketa honen nondik norakoak</b> .....	<b>2</b>
0.1 Gertaeraren gaineko ikuspegi sistemaren denborazko osagaiak.....	6
0.1.1 Aditz aldia edo tempusa ( <i>tense</i> ) .....	6
0.1.2 Aspektuzkotasunaren osagaiak: aspektua eta ekintzazkotasuna .....	8
0.1.3 Denbora kontuetatik modu kontuetara .....	11
0.2 Gertaeraren gaineko ikuspegi sistemaren moduzko osagaiak: modalitatea eta modua .....	13
0.3 Gertaeraren gaineko ikuspegi sistemaren eskema orokorra .....	17
0.4 Euskal aditz jokatuaren morfologiako gertaera interesgarriak .....	18
0.5 Espero daitezkeen ondorioak .....	23
0.6 Txosten honen gidalerroak.....	24
<b>1 Ikerkuntza-gaiaren aurkezpena: euskara eta euskal aditza</b> .....	<b>25</b>
1.1 Euskara batuko aditz jokatu iragangaitzen paradigmak .....	30
1.1.1 Aditz trinkoen adibideak .....	30
1.1.2 Aditz laguntzaileak .....	34
1.2 Euskara batuko aditz jokatu iragankorren paradigmak.....	38
1.2.1 Aditz laguntzaileak .....	39
1.2.2 Laguntzaile iragankorren aginte adizkiak .....	42
1.3 Jokaera perifrastikoa eta aditz aspektuaren markak .....	44
1.3.1 Bertsio ofiziala .....	44
1.3.2 Euskal aspektuaren zenbait aurkezpen hizkuntzalaritza tipologikoan .....	46
1.4 Euskaltzaindiaren jarrera gorabeheratsua aditz moduaren inguruan .....	49
1.5 Euskal aditzaren zenbait trataera zahar .....	52
1.5.1 XVIII. mendeko abiapuntua: Larramendiren <i>El Imposible Vencido</i> (1729) .....	52
1.5.2 XIX. mendeko bizpahiru ikuspegi .....	52
1.6 Euskal adizkien Euskaltzaindiarenaz bestelako sailkapen berrixeagoak .....	56
1.6.1 Euskaltzaindia (1979): <i>Euskal Aditz Batua</i> .....	56
1.6.2 Lafitte (1944, 82008): <i>Grammaire Basque</i> .....	57
1.6.3 Omaechevarria (1959): <i>Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco</i> .....	63
1.7 Sailkapen anitzotatik ondorioak.....	66
<b>2 Kokatze modalerako eremu teorikoa: R. Marvin Harek hizketa egintzen teoriari egindako ekarpenen moldaera</b> .....	<b>69</b>
2.1 Hizketa Egintzen Teoriaren jatorria.....	69
2.2 Lokuzio/ilokuzio/perlokuzio bereizketa.....	69
2.3 Ikerketa honetan interesekoa den maila: linguistikoki adierazitako ilokuzio egintzen markatzaileak.....	72
2.3.1 Ilokuzio indarraren lehen eta bigarren markatzaileak .....	74
2.4 R. Marvin Hareren ekarpenak hizketa egintzen teoriari .....	75
2.4.1 “Tropiko” eta “neustiko” kontzeptuak .....	75
2.4.2 “Klistiko” eta “frastiko” kontzeptuak .....	77
2.4.3 Neustikoaren zentzu bi: hizketa egintzaren izenpe edo sinatzea eta frastikoaren asetzearekiko hitzmate edo konpromisoa .....	81

2.5	Trataera formalerako proposamenak.....	95
2.5.1	Aldaera klistikoen atzemate formala	96
2.5.2	Aldaera tropikoen atzemate formala	100
2.5.3	Aldaera neustikoen atzemate formala	101
<b>3</b>	<b>Gertaeren orientaziorako eremu teorikoa: Lars Johansonen</b>	
	<b>aspektu(-tempus) operatzaileen bertsio egokitua .....</b>	<b>104</b>
3.1	Aspektu, ekintzazkotasun eta aldizkotasunaren esparru bat.....	104
3.2	Ekintzazkotasunaren ezaugarritzea .....	105
3.3	Aspektu ikuspegi-operatzaileak .....	110
3.4	Aspektu ikuspegiaren inguruko kokaguneak eta euren arteko harremanen adierazpen formala.....	114
3.5	Denborazkotasunaren eta modalitatearen agerraldiak.....	124
3.6	Aurreikuspen ( <i>prospectivity</i> ) ikuspegia .....	135
3.7	Lehen orientazio puntuaren harremana $\pm$ INTRA eta $\pm$ AD operatzaileekin ....	142
3.8	Neutralizatzte eta fokalizatzea.....	146
<b>4</b>	<b>Euskal aditz aspektuaren berrikuspina aspektu(-tempus)</b>	
	<b>operatzaileen bertsio egokitan .....</b>	<b>151</b>
4.1	Euskal aditz jokatuaren aspektua Johansonen aburu.....	151
4.2	Euskal aditz aspektuaren berrikuspina.....	152
4.3	Aspektu-aldizkotasunaren ibilbide diakronikoa: ekintzazkotasunetik aspektura	181
<b>5</b>	<b>Euskal aditz jokatuak modu hizkiek bideratzen duten gertaeren</b>	
	<b>gaineko ikuspegia .....</b>	<b>205</b>
5.1	<i>Ba-</i> , <i>al-</i> (> <i>ai-</i> ), <i>-(te)ke</i> , <i>-n</i> , <i>-la</i> edo <i>bait-</i> hizkietakoren bat nahitaez eskatzen duten adizki sailak .....	206
5.2	Zenbait tasun morfologiko.....	206
5.3	[–deskr] balio tropikoaren gaineko baldintzak.....	209
5.4	Hitzemate neustikoaren balioen gaineko baldintzak .....	211
5.5	Ilokuzio indarraren izarion arteko harremanen arabera tasunak .....	213
5.6	Tasunon balioen egozpena adizki soilen kasuan .....	215
5.6.1	Zeintzuk diren adizki morfologikoki sinpleenak	215
5.6.2	[+deskr] balioko adizki soilen beste balioak	217
5.6.3	[–deskr] balioko adizki soilen beste balioak	219
5.7	Proposaturiko tasunen balioen egozpena adizki hizkidunen kasuan: <i>-la</i> , <i>-n</i> , <i>ba-</i> , <i>al-</i> (> <i>ai-</i> ), <i>-(te)ke</i> , eta <i>bait-</i> hizkien esanahia .....	223
5.7.1	<i>-la</i> atzizkidun aginterakoak	223
5.7.2	<i>-la</i> eta <i>-n</i> atzizkien erabilera agintera bat gauzatzeko aginterakoetan	230
5.7.3	<i>-la</i> eta <i>-n</i> atzizkien bestelako eransketak *EDIN eta *EZAN (EGIN) aditzetako formei	234
5.7.4	<i>-n</i> atzizkidun aginterakoak	236
5.7.5	Subjuntiboko <i>-n</i> hizkia	240
5.7.6	<i>bait-</i> aurrizkiaren zentzua	245
5.7.7	Iraganaldiko <i>-n</i> hizkia eta <i>-n</i> hizki konjuntiboa	247
5.7.8	Alegigunea eta alegiazkoa	254
5.7.9	<i>Ba-</i> eta <i>al-</i> (> <i>ai-</i> ) aurrizkien zentzua	257
5.7.10	<i>-(te)ke</i> atzizkiaren zentzua eta haren harremana <i>ahal/ezin</i> partikulekin	267
5.8	Euskal aditz moduen sailkapena haien aspektuaren eta balio neustiko, klistiko eta tropikoen arabera.....	288
<b>6</b>	<b>Emaizten laburpena.....</b>	<b>291</b>
6.1	Ekintzazkotasunetik aspektura.....	293
6.2	Hizkien esanahia .....	296
6.2.1	<i>-(te)ke</i> :	296
6.2.2	<i>Ba-</i>	297
6.2.3	<i>Al-</i> (> <i>ai-</i> )	297
6.2.4	<i>-n</i>	298

6.2.5	<i>Bait-</i>	299
6.2.6	<i>-la</i>	299
6.3	Euskararen modu-aspektu- <i>tempus</i> sistema.....	299
1	<b>Eranskina. Definizioen zerrenda.....</b>	<b>304</b>
2	<b>Eranskina. proposaturiko postulatuen zerrenda .....</b>	<b>313</b>
3	<b>Eranskina. ondorioztapen formalerako erabilitako arauak.....</b>	<b>322</b>
4	<b>Eranskina. ondorioztaturiko teoremen zerrenda.....</b>	<b>327</b>
5	<b>Eranskina. Euskal adizkien morfologiaren eta esanahiaren</b>	
	<b>ondorioztapen formala.....</b>	<b>359</b>
	A. Jokaera trinkoko zein perifrastikorako gai hurbileko adizkiak .....	359
	B. Gai urruneko adizkiak .....	378
	<b><i>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....</i></b>	<b>388</b>
	<b><i>Autoreen aurkibidea.....</i></b>	<b>394</b>

## TAULEN ZERRENDA

Zenbakia

Orrialdea

1. taula Aditz modu eta modalitatea, aspektua eta tempusa prozesuaren gaineko ikuspegi gisa. King (1993: 102).....	4
2. taula Gertaeren lokalizaziorako moduzko eta denborazko orientatzeen elkarrekintza.....	18
3. TAULA ETORRI (to come). Komuntadura NOR edo absolutiboarekin bakarrik duten adizkiak.....	31
4. TAULA JOAN (to go). Komuntadura NOR edo absolutiboarekin bakarrik duten adizkiak.....	31
5. TAULA IZAN (to be). Komuntadura NOR edo absolutiboarekin bakarrik duten adizkiak.....	34
6. taula *EDIN. Komuntadura NOR edo absolutiboarekin bakarrik duten adizkiak. ....	34
7. taula *EDUN (to have). Komuntadura NOR absolutiboa eta NORK ergatiboarekin bakarrik erakusten duten adizkiak.....	39
8. taula *EDUN (to have). Komuntadura 3. pertsonako NOR absolutiboarekin eta edozein pertsonatako NORK ergatiboarekin erakusten duten gai urruneko adizkiak.....	40
9. taula *EZAN. Komuntadura NOR absolutiboa eta NORK ergatiboarekin bakarrik erakusten duten adizkiak.....	41
10. taula *EZAN. Komuntadura 3. pertsonako NOR absolutiboarekin eta edozein pertsonatako NORK ergatiboarekin erakusten duten gai urruneko adizkiak. ....	41
11. taula *EZAN. Gai hurbileko lehen eta hirugarren pertsonako aginte adizkiak. ....	43
12. taula *EZAN. Gai hurbileko bigarren pertsonako aginte adizkiak.....	43
13. taula *EZAN. Gai urruneko hirugarren pertsonako aginte adizkiak.....	43
14. taula Adizki trinkoak dituzten euskal aditzen aspektua. Haase (1994: 3. taula).....	47
15. taula Adizki trinkorik ez duten euskal aditzen aspektua. Haase (1994: 2. taula).....	47
16. taula Euskal jokaera perifrastikoaren aspektua. Thieroff (2000: 273).....	47
17. taula Euskal aditz jokatuaren sailkapena Larramendiren (1729) arabera. ....	52
18. taula Euskal aditzaren moduak Astarloaren (1803, 1805) eta Zavalaren (1848) arabera.....	53
19. taula Euskal aditzaren aldiak Astarloaren arabera (1805).....	53
20. taula Indikatiboko forma lehenen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.....	54
21. taula Baldinerako formen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.....	55
22. taula Botiboko formen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.....	55
23. taula Ahalerako forma lehenen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.....	55
24. taula Baldintzapeko forma lehenen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.....	56
25. taula Subjuntiboko formen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.....	56
26. taula Lafitteren ( <sup>1</sup> 1944, <sup>8</sup> 2008) adizki sailkapena: jokaera trinkoko orainaldiko saila. ....	58
27. taula Lafitteren ( <sup>1</sup> 1944, <sup>8</sup> 2008) adizki sailkapena: jokaera trinkoko burutugabearen saila. ....	59
28. taula Lafitteren ( <sup>1</sup> 1944, <sup>8</sup> 2008) jokaera perifrastikoaren sailkapena: jokaera iragangaitza adibide gisa. ....	60
29. taula Omaechevarriaren (1959) “oinarrizko adizkien eskema” (gaztelaniaz jatorrizkoan).....	64
30. taula Hitzemate neustikoa: positio, quaestio/suppositio/optio eta presuppositio-a. ....	93
31. taula Tropiko eta egokitze norabide konbinaketak ilokuzio eginza mota desberdinetan.....	94
32. taula Frastiko, klistiko, tropiko eta neustiko bereizketen adibideak. ....	96
33. taula Lehen orientazio puntutiko denborazko aldentzea eta aldentze modala. ....	128
34. taula Morfologikoki markaturiko hiru eremuak eta modu-denbora harremanak. ....	131

35. taula Ustezko denbora lerroaren eta alegiazkotasunaren gurutzatzea.....	136
36. taula Adizki trinkorik ez duten euskal aditzen aspektua. Johanson (2000).....	151
37. taula Adizki trinkoak dituzten euskal aditzen aspektua. Johanson (2000).....	152
38. taula Euskal aditzen aspektuaren lehen berrikuspena (adizki trinkorik ez duten aditzen kasua).....	163
39. taula Euskal aditzen aspektuaren bigarren berrikuspena.....	170
40. taula XVI. mendeko euskararen aspektu sistema (gai urruneko jokaera perifrastikoa).....	187
41. taula Geroztiko euskararen aspektu sistema (gai urruneko jokaera perifrastikoa).....	187
42. taula XVI. mendeko euskarak adizki trinkoetan erakusten dituen ekintzazkotasun-aspektu loturak.....	190
43. taula Egungo euskarak adizki trinkoetan erakusten dituen ekintzazkotasun-aspektu loturak (behin-behinekoa).....	191
44. taula Egungo euskarak adizki trinkoetan erakusten dituen ekintzazkotasun-aspektu loturak.....	194
45. taula ZEZAN adizkiaren zentzua Leizarragaren Testamentu berria eta Axularren Gero idazkietan.....	201
46. taula Tropiko eta egokitze norabide konbinaketak ilokuzio egintza mota desberdinetan: zuzenkariak eta hitzemankariak.....	209
47. taula +SO ERAGILEA balioaren konbinaketak ±κDEP, ±FAR eta [+deskr] balioekin.....	248
48. taula *EZAN aditzaren zenbait adizkiren zentzua Leizarragaren Testamentu berria eta Axularren Gero idazkietan.....	287
49. taula Aditz moduen sailkapena dagozkien balio neustiko, klistiko eta tropikoen arabera.....	289
50. taula Aditz modu-aldi sailkapena.....	289
51. taula IZAN/*EDUN eta *EDIN/*EZAN (EGIN) aditzen asimetria.....	292
52. taula Ekintzazkotasun [+mom] tasunak dakarren modu defektibotasuna.....	292
53. taula Ekintzazkotasun [+t] tasunak adizki soiletan eragiten duen defektibotasuna. (1: XVI. mendeko euskara).....	293
54. taula Ekintzazkotasun [+t] tasunak adizki soiletan eragiten duen defektibotasuna. (2: Geroztiko euskara).....	293
55. taula Ekintzazkotasun [+t] tasunak adizki soiletan eragiten duen defektibotasuna. (3: Aspektu operatzaileekiko hartu-eman).....	296
56. taula [=49. taula] Aditz moduen sailkapena dagozkien balio neustiko, klistiko eta tropikoen arabera.....	300
57. taula [=50. taula] Aditz modu-aldi sailkapena.....	301
58. taula Morfologikoki markaturiko hiru eremuak eta modu-denbora harremanak.....	302
59. taula Gai hurbil guztien aldi-modu balioen ondorioztapena.....	359
60. taula Adizki soil guztien balioen ondorioztapena.....	360
61. taula Gai hurbileko adizki jokatu soilen balioen ondorioztapena (1: +INTRA baliokoak).....	361
62. taula Gai hurbileko adizki jokatu soilen balioen ondorioztapena (2: +AD baliokoek komun dutena).....	362
63. taula Gai hurbileko adizki jokatu soilen balioen ondorioztapena (3: +AD eta [+deskr] baliokoak).....	363
64. taula Gai hurbileko adizki jokatu soilen balioen ondorioztapena (4: +AD eta [-deskr] baliokoak).....	364
65. taula Gai hurbileko <+(te)ke> balioko adizki jokatu balioen ondorioztapena (1: +AD eta [-deskr] baliokoak).....	365
66. taula Gai hurbileko <+(te)ke> balioko adizki jokatu balioen ondorioztapena (2: +AD eta [+deskr] baliokoak).....	366
67. taula Gai hurbileko <+(te)ke> balioko adizki jokatu balioen ondorioztapena (3: +INTRA baliokoak).....	367
68. taula Gai hurbileko <+ba> balioko adizki jokatu balioen ondorioztapena.....	369

69. taula Gai hurbileko <+n> zein <+bait> eta <sup>+</sup> INTRA balioko adizki jokatu- balioen ondorioztapena.....	370
70. taula Gai hurbileko <+n> eta +AD balioko adizki jokatu- balioen ondorioztapena (1: -κDEP baliokoak).....	372
71. taula Gai hurbileko <+n> zein <+bait> eta +AD balioko adizki jokatu- balioen ondorioztapena (2: +κDEP).....	373
72. taula Gai hurbileko <+la> eta <sup>+</sup> INTRA balioko adizki jokatu- balioen ondorioztapena (1: +κDEP baliarena).....	375
73. taula Gai hurbileko <+la> eta +AD balioko adizki jokatu- balioen ondorioztapena (2: -κDEP).....	376
74. taula Gai hurbileko <+la> eta +AD balioko adizki jokatu- balioen ondorioztapena (2: [+κDEP).....	378
75. taula Gai urrun guztien aldi-modu balioen ondorioztapena.....	379
76. taula Gai urrun soilen aukera bien ondorioztapena.....	380
77. taula Gai urruneko <+al> balioko adizkien balioen ondorioztapena (1: guztiei komun zaiena).....	382
78. taula Gai urruneko <+al> balioko adizkien balioen ondorioztapena (2: <sup>+</sup> INTRA balioak gehitzen duena).....	383
79. taula Alegiguneko <+(te)ke> balioko eta beste hizkirik gabeko adizki jokatu- balioen ondorioztapena.....	384
80. taula Gai urruneko iraganaldiko adizki jokatu- balioen ondorioztapena.....	385
81. taula Gai urruneko iraganaldiko <sup>+</sup> INTRA balioko adizki jokatu- balioen ondorioztapena.....	386
82. taula Gai urruneko iraganaldiko +AD aspektuko adizki jokatu- balioen ondorioztapena. (1: -κDEP baliokoak.).....	386
83. taula Gai urruneko iraganaldiko +AD aspektuko adizki jokatu- balioen ondorioztapena. (2: +κDEP baliokoak.).....	387



## ESKER ONAK

Eskerrak eman nahi dizkiet zeharka edo meharka lan honetarako lagundu didaten/nauten guztiei; oro har, hemen jorraturiko jardungaiak lehenago ikertu dituzten autoreei, eta zehatzago nire jakintza- zein bizitza-ibilbidean inplikaturiko jendeari eta pertsoneri: gure arbasoei, zeini esker gauden hemen munduan leku bat betez; gure gurasoei, beste gauzen artean maitatzen irakatsi baitzidaten hizkuntza bat iragateko zoriona izan ez zidatena; gure nebarrebei, neronen zati bat direnak, baita haiengandik horrenbat ikasi baitut; nire irakasleei, ni ziotu eta irakasten jakin dutenak; nire ikas- nahiz lan-kideei, nire sen hiperkritikoa umorez jasateko gai ageri direnak; nire ikasleei, haien bizitasun gazteberrigarriatik; musika ibilaldietako nire lagunei, haiekin bizi baititut horrenbeste aldiune hunkigarri; nire lagunei, haiek gabe bizitza bidaia lar bakarkoia izango bailitzateke; nire ezkontz-ahaidegoari, zeinen laguntzaz dohaia baita gozatzea; eta, guztiaren gaineratik, nire emazteari, bere maitasun eta pazientziatik, eta gure semealabei, esperantza bat eskaintzen digutenak lur-/sut-alde honetan barrenako gure egonaldi iragankoitik haratago.

## LABURDURAK ETA SINBOLOAK

### Hizkuntza arteko glosetarakoak

1	1. pertsona
2	2. pertsona
3	3. pertsona
A	Aditz iragankor baten egile ( <i>agent</i> ) gisako argumentua
ABS	Absolutiboa
ATTEN	Baretzailea ( <i>attenuative</i> )
AUX	Laguntzailea ( <i>auxiliary</i> )
COMP	Menderagailua ( <i>complementizer</i> )
COMPL	Osagarritzkoa ( <i>completive</i> )
COND	Baldinera ( <i>conditional</i> )
DAT	Datiboa
ERG	Ergatiboa
FUT	Geroa ( <i>future</i> )
HORT	Hortatiboa
IMP	Agintera ( <i>imperative</i> )
IMPF	Burugabea ( <i>imperfect</i> )
IMPR	Inpertsionala ( <i>impersonal</i> )
IND	Indikatiboa
INESS	Inesiboa
INTR	Iragangaitza ( <i>intransitive</i> )
IRR	<i>Irrealis</i>
N	Ez- ( <i>non-</i> )
OPT	Optatiboa
P	Aditz iragankor baten jasale ( <i>patient</i> ) gisako argumentua
PL	Plurala
PRF	Burutua ( <i>perfect</i> )
PRS	Orainaldia ( <i>present</i> )
PST	Iraganaldia ( <i>past</i> )
S	Aditz iragangaitz baten “subjektua” ( <i>subject</i> )
SG	Singularra
TR	Iragankorra ( <i>transitive</i> )

### Sinbolo logiko-matematikoak

$\neg$	Lehen mailako logikako ukazioa (NOT)
$\wedge$	Lehen mailako logikako konjuntzioa (AND)
$\vee$	Lehen mailako logikako disjuntzio ahul edo inklusiboa (OR)
$\rightarrow$	Lehen mailako logikako baldintzatzailea (IF)
$\leftrightarrow$	Lehen mailako logikako bibaldintzatzailea (IFF)

$\leftrightarrow$	Lehen mailako logikako disjuntzio gogor edo esklusiboa (XOR)
	Lehen mailako logikako Shefferren marra (NAND)
$=_{\text{def}}$	Berdin definizioz
=	Ekuazio zeinua
$\neq$	Inekuazio zeinua
$\emptyset$	Multzo hutsa
$\cup$	Multzo teoriako bildura zeinua
$\cap$	Multzo teoriako ebakidura zeinua
$\subset$	Multzo teoriako inklusio sinboloa
$\not\subset$	Aurrekoaren ukazioa

#### Ohiko beste zenbait zeinu

* <i>Esapidea</i>	Esapide zein egitura agramatikala
? <i>Esapidea</i>	Gramatikaltasun aldetik zalantzazkoa den esapide zein egitura
?? <i>Esapidea</i>	Gramatikaltasun aldetik oso zalantzazkoa den esapide/egitura
# <i>Esapidea</i>	Semantikoki akastuna den esapide zein egitura
a ◦ b	(a eta b) egituren kateatzea

#### Lan honetan zehar definituak, ordena alfabetikoan<sup>1</sup>

[±FOC]	Aspektu ikuspegi fokalizatu/ez fokalizatua markatzeko operatzailea
[±ahal]	Gertaerak errotiko ahalerakotzat aurkezten diren/ez diren adierazpena
[±asmozkoa]	Gertaerak asmoaren eremukoak diren/ez diren adierazpena
[±deskr]	Balio tropikoa deskribakaria izatearen/ez izatearen adierazpena
[±dyn]	Gertaera dinamikoa dela/ez dela adierazteko aditz esaera
[±hom]	Gertaeraren muga erauzi dela (edo ez dela) adierazteko tasuna
[±irrealis]	Gertaera irrealizat aurkeztearen/ez aurkeztearen adierazpena
[±mom]	Gertaera mementozkoa dela/ez dela adierazteko aditz esaera
[±ser]	Gertaera sorta batean errepikatzen den/ez den

<sup>1</sup> Ikus, halaber, 1. eranskina.

	adierazpena
[±t]	Aldakuntzazko/ez-aldakuntzazko gertaera adierazteko aditz esaera
[±tf]	Aldakuntza gertaeraren bukaeran dagoela/ez dagoela adierazteko aditz esaera
[±ti]	Aldakuntza gertaeraren hasieran dagoela/ez dagoela adierazteko aditz esaera
[AHALERA]	[+ahal] balioaren modu edo modalitateari esateko laburdura
[AIERUERA]	Hitzemate neustikoa baretzearen modu edo modalitateari esateko laburdura
[ALEGIAZKOA]	Oraingunetik kanpo eta irreal gisako aurkezpenen ezaugarri modalari esateko laburdura
[OPTATIBOA]	Balio klistiko osoa mantenduz hitzemate neustikoa bertan beheratzearen modu edo modalitateari esateko laburdura
[BALDINERA]	Ondorio bati begira adierazitako hitzemate neustikoa bertan beheratzearen modu edo modalitateari esateko laburdura
[EG-INDIKATIBOA]	Euskal gramatikagintzan ohiko “indikatio” izendapena: +AD aspektua derrigortzen ez duten aditzei dagokie
[HORTATIBOA]	[–deskr] balio tropikoko adizkien moduari esateko laburdura
[INDIKATIBOA]	Errealizat aurkezturiko gertaeren moduari esateko etiketa
[KONJUNTIBOA]	Laburdura bat +κDEP balioaren konbinaketarako +AIPAMENA edo +SO ERAGILEA balioekin
[ONDORERA]	Laburdura bat apodosi gisako +BARETUA balioekin formen modu edo modalitateari esateko
[SUBJUNTIBOA]	Gerokotasuna eta gertaera barruko edo gertaerari loturiko ikuspegia duten +κDEP formen ezaugarriari esateko laburdura
α	Aspektu ikuspegia α itemean kokatuta dagoela adierazteko notazioa
(α)	α itemean ikuspegia kokaturik dagoen zein ez dagoen kasuetarako aplikagarria den notazioa.
+INTRA°	–INTRA item baten oposaketarik ez duten +INTRA itemak; baldin +INTRA <sup>NF</sup> badira, orduan mugabarruko ohiak ( <i>exintraterminals</i> ) ditugu
+POST°	–POST item baten oposaketarik ez duten +POST itemak; baldin +POST <sup>NF</sup> badira, orduan mugaondoko ohiak ( <i>expostterminals</i> ) ditugu
<±ari>	adizki jokatuak <i>-t(z)en motako partizipioa + ari + &lt;+IZAN&gt;</i> perifrasiaren barruraturik egotearen/ez egotearen indikazioa
<±(te)ke>	Adizkian <i>-(te)ke</i> hizkia agertzearen/ez agertzearen

	adierazpena
<±(tu)ko>	adizkia -(tu)ko motako partizipio batekin joatearen/ez joatearen indikazioa
<±*EDIN>	adizkia *EDIN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
<±*EDUN>	adizkia *EDUN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
<±*EZAN (EGIN)>	adizkia *EZAN (EGIN) aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
<±*IRON>	adizkia *IRON aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
<±ahal>	[±ahal] balioaren adierazpen lexikala (ahal eta ezin partikulen bidez, baita garai batetik hona *IRON eta EGIN aditzaren formen bidez ere)
<±a/ >	Adizkian a/ (> ai-) hizkia agertzearen/ez agertzearen adierazpena
<±b >	Alegiguneko hirugarren pertsonako adizki hortatiboen marka morfologikoaren agertzearen/ez agertzearen adierazpena
<±ba >	Adizkian ba- hizkia agertzearen/ez agertzearen adierazpena
<±bait >	Adizkian bait- hizkia agertzearen/ez agertzearen adierazpena
<±ez >	Adizkia ezezkoa izatearen marka morfologikoa agertzearen edo ez agertzearen adierazpena (“ez” partikulari lotua)
<±hizkiduna >	Adizkiak zenbait hizkitakoren bat txertatua izatearen/ez izatearen adierazpena
<±IZAN >	adizkia IZAN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
<±/ >	Alegiguneko hirugarren pertsonako adizki ezhortatiboen marka morfologikoaren agertzearen/ez agertzearen adierazpena
<±la >	Adizkian -la hizkia agertzearen/ez agertzearen adierazpena
<±n >	Adizkian -n hizkia agertzearen/ez agertzearen adierazpena
<±t(z)en >	adizkia -t(z)en motako partizipio batekin joatearen/ez joatearen indikazioa
<±tu >	adizkia -tu motako partizipio batekin joatearen/ez joatearen indikazioa
<±tua(k) >	adizkia -tua(k) / -turik / -tuta motako partizipio batekin joatearen/ez joatearen indikazioa
<±urruna >	Morfologikoki markaturiko gaia urruna/hurbila izatearen adierazpena
±κDEP	Adizkiaren klausulak erabilera dependentea izan behar duen/ez duen adierazpena (balio klistiko ez-oso/osoa atzemateko bidea sintaxi arazoetan sartu

	gabe)
$\pm\kappa$ DEP +N- OPERATZAILLEA	N-OPERATZAILLEA metaetiketari dagokion operatzaileak + $\kappa$ DEP balio klistikoa dakarrela edo ez dakarrela adierazteko notazioa
$\pm$ AD	Gertaera bere funtsezko mugatik bertatik ikusteari/ez ikusteari dagokion aspektu ikuspegia
$\pm$ AIPAMENA	Operatzaile bat zera adierazteko: beste esapide bat errepikatzen dela/ez dela edo hori sortzeko jarraibideak ematen direla/ez direla
$\pm$ BARETUA	Hitzemate neustiko baretuaren adierazpena edo horrelakoaren gabeziarena
$\pm$ FAR	Aditz gai morfologikoki urrunak eta hurbilak markaturiko $\pm$ PAST operatzaileari dagokion harreman bera
$\pm$ INTRA	Gertaera bere mugen barrutik ikusteari/ez ikusteari dagokion aspektu ikuspegia
$\pm$ INTRA	Gertaera bere mugen barrutik ikusteari/ez ikusteari dagokion aspektu ikuspegia, balio ez-markatua positiboa denean
$\pm$ PAST	Gertaeraren urruntasuna edo horren gabezia adierazteko operatzailea: gertaeraren lokalizazio (eta orientazio) puntua jatorrizko hizketaguneari dagokion orientazio puntutik aldentuta izatearen/ez izatearen arabera
$\pm$ POST	Gertaera bere funtsezko edo kasurako interesekoa den mugaren ondotik ikusteari/ez ikusteari dagokion aspektu ikuspegia
$\pm$ PRO	Gertaeraren gaineko ikuspegia aurreikusteari/ez aurreikusteari dagokion aspektu ikuspegia
$\pm$ SO ERAGILEA	Adierazitako gertaeraz hitzemate neustikoa esplizitatu egiten den/ez den adierazpena
$\pm$ SUB IUDICE	Hitzemate neustikoa bertan behera uztearen/ez uztearen adierazpena
ADIZKIA	Edozein adizkiri erreferitzeko metaetiketa.
ALEGIGUNEAN	Predikatu bat adierazteko gertaeraren gaineko ikuspegia (artezago edo zeharrago) lotuta dagoela jatorrizko hizketagunearen orientazio puntua baino lehenagokoa ez den eta (gai urrunaren bidez) morfologikoki markatua den O <sup>2V</sup> bigarren orientazio puntu bati
AURREKO_ABSOLU- TUA	Item bat hizketaguneari dagokion jatorrizko orientazio puntua baino lehenagokoa dela adierazteko predikatua
AURREKOA	Item bat beste bat baino lehenagokoa dela adierazteko predikatua
F	Aspektu ikuspegi fokalizatua
G	Gertaeraren kokagunea edo lokalizazioa
GEROKO_ABSOLU-	Hauetako bat adierazteko predikatua: hizketaguneari

TUA	dagokion jatorrizko orientazio puntua baino beranduagokoa dela edo (a) gertaera bat (edo haren faseetako bat), edo (b) gertaeraren gaineko aspektu ikuspegiaren kokagunea den orientazio puntua
GEROKOA	Hauetako bat adierazteko predikatua: a) gertaera bat edo haren faseetako bat orientazio puntua baino beranduagokoa dela; edo b) gertaeraren gaineko aspektu ikuspegiaren kokagunea den orientazio puntua beste orientazio puntu jatorrizkoago bat baino beranduagokoa dela
GERTAGARRIA	Zera adierazteko predikatua: aspektu ikuspegiaren kokagunea den orientazio puntua beste orientazio puntu jatorrizkoago bat baino beranduagokoa dela baita honetatik modalki aldendua ere
HF	Oso fokalizaturiko aspektu ikuspegia
IRAGANALDIAN	Predikatu bat adierazteko gertaeraren gaineko ikuspegia (artezago edo zeharrago) lotuta dagoela jatorrizko hizketagunearen orientazio puntua baino lehenagokoa den eta (gai urrunaren bidez) morfologikoki markatua den $O^{2P}$ bigarren orientazio puntu bati
N- OPERATZAILEA	TAM sistemako zenbait operatzailei (operatzaile “neustikoei”) erreferitzeko metaetiketa
I	Gertaera ibilbidearen kokagunea
L	Gertaeraren lokalizazio puntua zentzu zabalean (G, I edo M-rekin identifikagarria)
$L_A$	Ahalaren zein ezinaren lokalizazio puntua
$L^F$	Gutxi fokalizaturiko aspektu ikuspegia
M	Gertaera mugaren kokagunea
$M_{NF}^I$	gertaera mugaren ondoko egoera
O	Aspektu ikuspegi ez-fokalizatua
$O^M$	Orientazio puntua
ONDORENGOA	Morfologikoki markaturiko orientazio puntua
$O^{nS}$	Zera adierazteko predikatua: aspektu ikuspegiaren kokagunea den orientazio puntua beste orientazio puntu jatorrizkoago bat baino beranduagokoa dela, baina honetatik modalki aldendu gabe
$O^P, O^{2P}$	N-garren orientazio puntua hizketagune bat dela adierazteko notazioa
ORAINEKOA	Morfologikoki markaturiko iraganaldiaren orientazio puntua
ORAINGUNEAN	Oraineko gertaera kokaguneei aplikatzeko predikatua (jatorrizko orientazio puntuari artez ainguratu eta barrutik ikustatuenei)
$O^S, O^{1S}$	$\hat{O}$ orientazio puntua hizketaguneari lotuta dagoela adierazteko predikatua
$O^V, O^{2V}$	Hizketaguneari dagokion orientazio puntua
	Morfologikoki markaturiko alegigunearen orientazio

	puntua
$\alpha - \beta$	Kasu honetan erabiltzeko notazioa: zehaztu nahi ez denean $\alpha$ eta $\beta$ itemak (kokaguneak) aldentuta dauden ala ez
$\alpha \neq \beta$	$\alpha$ eta $\beta$ itemak (kokaguneak) desberdinak direla adierazteko notazioa
$\alpha = \beta$	$\alpha$ eta $\beta$ kokaguneak bat eta bera direla adierazteko notazioa (eta baldin $\alpha$ eta $\beta$ kategoria bereko itemak badira, biak orientazio puntuak, edo biak gertaera zein gertaera faseak, orduan kontzeptu identifikagarriak ere badirela)
$\alpha > \beta$	$\alpha$ eta $\beta$ itemak (kokaguneak) aldentuta daudela adierazteko notazioa (grafikoki esplizitatzen da honela haien artean ez dagoela inolako kointzidentziarik)
$\alpha, \beta, \gamma \dots$	Gertaeren, hauen faseen, baita orientazio puntuen kokaguneei erreferitzeko metaetiketak (G, O, M, I edo L-ren ordezkioak)
$\alpha^n$	$\alpha$ itema $n$ -garrena dela adierazteko notazioa
$\alpha^s$	$\alpha$ itema hizketagune bat dela adierazteko notazioa
$\beta \not> \alpha$ (edo $\alpha \not< \beta$ )	$\beta$ itema modalki aldentzen da $\alpha$ -tik (eta ez denboran)
$\beta < \alpha$	$\alpha$ eta $\beta$ itemen artean denbora ordena hau dago: $\beta$ lehenago, $\alpha$ ondoren



*“Of all grammatical subsystems, tense-aspect-modality is probably the most complex and frustrating to the linguist.”*

Talmy Givón: Syntax: a functional-typological introduction, volume  
I.

## 0. HITZAURREA: IKERKETA HONEN NONDIK NORAKOAK

Aditza ohiko kategoria gramatikala edo “perpausaren zatia” dugu. Berezitasun sintaktiko, semantiko eta morfologikoak ditu: perpausaren erdigune sintaktikoa osatzen du; ekintza, gertaera edo egoera (*izaera*) adierazten du; eta aldaera morfo-semantiko desberdinak jaso ditzake, bereziki bere forma jokatuetan —boza edo diatesia, modua, aldia, aspektua, pertsona, numeroa... —.

Semantika aldetik asumituko dut aditzek eta hauen inguruan egituraturiko predikatuek “gertaera” (*eventuality*<sup>2</sup>) bat errepresentatzen dutela oro har (zentzu gramatikal hutsa duten laguntzaileak ez badira). “Gertaera” (*eventuality*) horiek mota desberdinekoak izan daitezke:<sup>3</sup> mementozkoak (1) edo ez (2), aldaketa bat barneratuz (3) edo ez (4), dinamismo bat txertatuz (5) edo ez (6)...

(1) Eztanda egitea. (*To explode.*)

(2) Doktoregorako tesi bat idaztea. (*To write a Ph. D. Dissertation.*)

(3) Esertzea. (*To sit down.*)

(4) Esnaturik egotea. (*To be awake.*)

(5) Ibiltzea. (*To walk.*)

(6) Euskaldun izatea. (*To be Basque language speakers.*)

Gertaera horien gainean ezar daitezke ikuspegi desberdinak, beste adibideotan bezala:

---

<sup>2</sup> E. Bach (1981) lanean proposaturiko terminoa.

- (7) Puxikak eztanda egin lezake. (*The ballon could explode.*)
- (8) Doktoregorako tesi bat idazten ari naiz. (*I am writing a Ph. D. Dissertation.*)
- (9) Aitzendi eser! (*If only you sat down!*)
- (10) Egon esnaturik! (*Keep awake!*)
- (11) Luze ibili ginen. (*We walked a lot.*)
- (12) Euskaldunak izango al dira gure seme-alabak? (*Will our sons and daughters be Basque language speakers?*)

Horrelako ikuspegi dagozkie ohiko terminook: aditz modua (edo modalitatea), aspektua eta *tempusa* edo aldia. Hauek osatzen dute elkarreraginez beteriko eremu semantiko konplexu bat, “tempus-aspektu-modu sistema” (*tense-aspect-mood system*) zein “tempus-aspektu-modalitate sistema” (*tense-aspect-modality system*) —laburrago “TAM sistema” (*TAM system*)—. Hala ere, eremu semantiko horren banaketa alternatibo bat egin daiteke, argi ikusten datekeenez hurrengo orrialdeko koadroan (King 1993: 102. orrialdekoaren euskarapena).

Kingen eta Jendrascheken terminoen orde, —hurrenez hurren “prozesu ikuspegi” (*process perspective*) (King 1993: 93, 101 eta hurrengoak) eta “egoera ikuspegi” (*perspective situationnelle*) (Jendraschek 2007: 67)— proposatu nahi dut beste hau, orokorragoa delakoan: “gertaeren gaineko ikuspegia” edo, laburrago, “gertaera ikuspegia” (*eventuality perspective*). Funtsezko ideia da ezen aditz modu eta modalitateak, aspektuak eta tempusak komun dutela gertaeraren gaineko ikuspegiaren izariak izatea.

---

<sup>3</sup> Bereizketa hauei buruzko ikuspegi historiko eta orokor baterako ikusi Filip (1999).

PROZESU IKUSPEGIA	<i>Modua</i>	MODUA: mundu errealean ala irudimenezko mundu batean?	kontingentea (“if” and “when”) hipotetikoa (“suppose”) burutugabea (“would have”) optatiboa (“let it be!”) *erreala <sup>4</sup>	ERREFERENTZIA: “non” gertatzen da?
	<i>Tempusa [edo aldia]</i>	DENBORAREN INDIKAZIOA: “munduaren” alde “honetan” (orain) ala alde “hartan” (orduan)? (Baita DENBORA/ALDI ABSOLUTUA)	iragana (“was”) geroa (“will”) *oraina	
		DENBORA ERLAZIOA: Nola “erlazionatzen” garen <sup>5</sup> denboran prozesuarekin: gertatzen [balego] legez, dagoeneko gertatua legez edo gertatzekoa legez? (Baita DENBORA/ALDI ERLATIBOA)	burutua (“already”) prospektiboa (“going to”)	ORIENTAZIOA: nola begiratzen diogu?
	<i>Aspektua</i>	ASPEKTUA: nola “ikusten” dugun prozesua, i.e., gertaera oso bat gisa, abian dagoen prozesu gisa, zirkulu errekurtsiboa...?	mugatua progresiboa ohikoa estatiboa perfektiboa/erresultatiboa	
	<i>Modalitatea</i>	EPISTEMIKOA: zein probabilitate gradu lotzen dugu proposizioarekin?	ahalezkotasuna/ziurgabetasuna probabilitatea halabeharrezkotasuna/ziurtasuna ezinezkotasuna	
		EZ-EPISTEMIKOA: zein da subjektuaren ahala proposizioa gauzatzeko? (Baita modalitate DEONTIKOA, OROKORRA edo ERROTIKOA) <sup>6</sup>	ahalezkotasuna nahia beharra	

1. taula Aditz modu eta modalitatea, aspektua eta tempusa prozesuaren gaineko ikuspegi gisa. King (1993: 102)

<sup>4</sup> Izartxoaz Kingek adierazi nahi du horixe dela balio ez-markatua. Taula honetan bakarrik daude bi.

<sup>5</sup> Asumituko dut hizkuntza komunitateko kideok osatzen dugula Kingek buruan duen “gu” hau.

<sup>6</sup> Jendraschekek (2007: §§ 2.2.1.2-2.2.1.3), adibidez, hobesten du “errotiko modalitatea” (*modalité radicale, root modality*) izendapena: logikan ez bezala, hizkuntzaren ikergintzan interes puntua ez da izan modalitate aletikoa baizik eta bereizketa modalitate epistemikoaren (*uste/jakin*) eta deontikoaren artean (*beharra/eskubidea izan*). Baina modalitate deontikoa bakarrik da errotiko (*root*) modalitatearen azpimultzatzaile bat. Aletikotik eta epistemikotik bereizita, errotiko modalitate ez-markatu hau dugu adierazpide modalen erabilera nagusietan. Adibidez, errotiko ahalezkotasunari dagozkio subjektu baten “barruko” *gaitasuna*, kanpoko indar zehatz bati zor zaiona (*baimena*) zein kanpoko egoera zehaztugabeen mendeko *ahalmen zirkumstantziala*.

Koadroko bigarren zutabearen izendapen tradizionalak agertzen dira; hirugarren eta laugarrenean, hurrenez hurren, haien azalpenak eta adibide sorta ez exhaustiboak; azken zutabeak sailkatze eta izendapen alternatiboa aurkezten du. Kontzeptuok azaldu ahala ikusiko da ezen banaketa alternatiboan oinarriturik hobeto uler daitezkeela euskal aditz jokaera morfologikoki oparoak aurkezten dituen fenomenoak. Fenomeno hauen ikerketak berebiziko garrantzia du berez, ikergintza tipologikoan onartua delako gai hauetan joan beharra dagoela berriazko hizkuntzetatik ondorio orokorretara. Adibidez:

*“One of the key advances in typological research in tense, aspect and modality (hereafter TAM) is the recognition that these areas should be viewed not top-down, but bottom-up. That is, the basic units are not the TAM categories themselves but rather the language-specific categories, such as the English Progressive or the Russian Perfect.” (De Haan 2011: 446)*

Areago, euskara oso hizkuntza *sui generis* izanik, beretik interes handiko aurkikuntzak espero daitezke. Berauek balio dezakete hitzaurre honen aitzineko aipamenaren araberrako hizkuntzalariaren etsipena arintzeko, baina, batez ere, ikuspegi filosofiko batetik, argia jaurtitzeko errealitateaz dugun hizkuntza irakurketaren gainean. Ikertuko dena, nolabait, “errealitatearen gaineko euskal ikuspegia” izango da. Horretarako, ikerketa gaiaren kontzeptu nagusiak, koadrokoak, aurkezten hasiko naiz. Ondoren, euskal aditz jokaerak erakusten dituen fenomeno deigarrien adibideak mahairatuko ditut eta hitzaurre honen bukaerarako espero daitezkeen emaitzak eta lanaren plana agertuko dira.

## 0.1 Gertaeraren gaineko ikuspegi sistemaren denborazko osagaiak

Gertaera bera —edo horren gaineko bestelako ikuspegi bat (Johanson 2000: 34)<sup>7</sup>— denboran koka daiteke zenbait erreferentzi puntuekiko erlazioaren arabera. Erreferentzi edo orientazio puntu desberdinak ezar daitezke, baina horietako lehena kasuko hizketa egintzarena da. Honekiko harremanean gertaeraren kokatzea lortzeko baliabide desberdinak egon daitezke hizkuntza batean, denbora adizlagunak adibidez, baina horietako bat adizkiaren beraren zenbait marka morfologiko dira. 1. taulako Kingen proposamenaren arabera “aditz aldi” edo “tempusak” horrelako funtzio eta morfologi-marka bikote guztiak barneratzen dituzke. Denak ez dira berdinak, baina. Hona hemen oposizio desberdin bi:

(13) Etxean nago. (*I am at home.*) / Etxean nengoen. (*I was at home.*)

(14) Etxean nago. (*I am at home.*) / Etxean egon berri naiz. (*I've just been at home.*)

Oposizio desberdinoi dagokie 1. taulan agertu den Kingek proposaturiko bereizketa “aldi absolutuaren” (13) eta “aldi erlatiboaren” (14) artean.

Ikusten joango garenez, badaude arrazoi morfologiko eta semantikoak, horko “aldi erlatiboa” aspektupean sartzeko, tempus izendapenetik kanpo utziz, eta halaxe egingo dut nik; beraz, “tempusa” horko “aldi absoluturako” baino ez dut erabiliko.<sup>8</sup>

### 0.1.1 Aditz aldia edo tempusa (*tense*)

Erka ditzagun (13)-ko adibideak, hemen banaka errepikatuak:

(15) Etxean nago. (*I am at home.*)

---

<sup>7</sup> Autore horrek dioenez “*what a tense situates on the time-axis is the perspective on the event rather than the event itself*”. Ageri denez, pasarte honetan *event* terminoak zentzu orokorra du, gertaera (*eventuality*) terminoak antzeman nahi duena, hain zuzen.

<sup>8</sup> Halaber saihestuz eragin handiko zenbait gramatikatan egiten dena: modua ere “tempus” horren barruan sartzea. Bion arteko harreman estuak beste zerbait eskatzen du: kategoria zabalago batek biak besarka ditzala.

(16) Etxean nengoan. (*I was at home.*)

Norbaitek (15)-eko esaera dioenean, adierazten du haren “etxean egotea” indarrean dagoela esaldiaren (*utterance*) une berean. Aldiz, (16)-koa esatean, adierazitakoa beste zerbait da: erreferituriko gertaera indarrean zegoela esaldiaren una ez den eta berau baino lehenagokoa den une batean. Eskematikoki ipintzearren, biz  $O^S$  ( $O$  *orientation*-etik eta  $S$ , *speech*-etik) balizko hizketagunea eta  $O^P$  ( $P$  ingelesez “iragana” esan nahi duen *past* hitzetik) horren aurreko beste une hori. Halaber, errepresenta beza “<” zeinuak denborazko ordenatzea, konbentzio honen arabera:

(17) *Etiketa eta definizioa 1.*<sup>9</sup>

$\beta < \alpha$  :  $\beta$  eta  $\alpha$  (dena delako) itemak (gertaerak, gertaera faseak, orientazio puntuak...) aurkezten dira denborazko ordena honetan:  $\beta$  lehenago,  $\alpha$  ondoren.<sup>10</sup>

Zatikako ordena hertsia baten ezaugarriak ditu  $\beta < \alpha$  erlazioak: irreflexiboa eta iragankorra da.

(18) *TAM sistemako postulatua 1.*

$\neg(\alpha < \alpha)$ <sup>11</sup>

(19) *TAM sistemako postulatua 2.*

$((\alpha < \beta) \wedge (\beta < \gamma)) \rightarrow (\alpha < \gamma)$ <sup>12 13</sup>

Hori guztia kontuan harturik, goiko adibide bakoitzaren bidez adierazitakoa honela errepresenta daiteke, hurrenez hurren:

---

<sup>9</sup> Definizioez baliatuko naiz ahalik eta esplizituen azaltzeko erabiliko den lengoia formaleko esapideen esanahia. Definizioak eurak metalengoaiari dagozkio.

<sup>10</sup> Definizioan txertatu dut zein zentzutan erabiliko ditudan  $\beta$  eta  $\alpha$  zeinuak. Definizio esplizitua beranduago agertuko da, testuinguru aproposago batean.

<sup>11</sup> “ $\neg$ ” zeinua lehen mailako logikako ukazioarena da.

<sup>12</sup> “ $\wedge$ ” zeinua lehen mailako logikako konjuntzioarena da. Beraren bidez adierazten da lotzen dituen osagaietako guztiak ematen direla.

<sup>13</sup> “ $\rightarrow$ ” zeinua lehen mailako logikako baldintza materialarena da: aurreko osagaia emanez gero, bigarrena ere eman behar da. Halaber, bigarrena eman ezean, lehenengoa ere eragotzita dago.

(20)

Nire (=hiztunaren) etxean egotea <b>O<sup>s</sup></b>
--

(21)

Nire (=hiztunaren) etxean egotea <b>O<sup>p</sup></b>	<	<b>O<sup>s</sup></b>
--	---	----------------------

Adibideon arteko aldea aditz aldi edo tempusari dagokio. Honelakoak bereiztu behar dira haiekin konbinagarriak diren bestelako denborazko ikuspegietatik. Adibidez:

(22) Etxera heldu berri naiz. (*I've just arrived at home.*)

(23) Etxera heldu berri nintzen. (*I'd just arrived at home.*)

Eskematikoki eta hurrenez hurren:

(24)

Nire (=hiztunaren) etxera heltzea < **O<sup>s</sup>**

(25)

Nire (=hiztunaren) etxera heltzea < **O<sup>p</sup>** < **O<sup>s</sup>**

Asumituko dut tempusari dagokiola gertaera **O<sup>s</sup>**-ren edo **O<sup>p</sup>**-ren inguruan ainguratzea, eta, aldiz, inguru horietako batean zein bestean kokatuta, bestelako denborazko oposizioak aspektuari dagozkiola. Esandako legez, zentzu honetan ulertu behar da 1. taulan agertu den Kingek proposaturiko bereizketa “aldi absolutuaren” eta “aldi erlatiboaren” artean.

### 0.1.2 Aspektuzkotasunaren osagaiak: aspektua eta ekintzazkotasuna

Tempusekoez gaineko gertaeraren beste denborazko ezaugarriak “aspektuzkotasunari” (*aspectuality*) dagozkio, zentzu zabalean. Honen alderdiak ondo bereizturik aurki daitezke Olga Boriken doktoregorako tesian (2006):



### *Kanpoko edo ikuspegi gisako aspektua (aspektu gramatikala)*

Badago tradizio teoriko bat —agian zaharrena, gainera— zeinen arabera, aspektu kontuak aldiaren zehaztapenarekin elkartu egiten baitira —hortik gramatiketan ohikoak diren *simple past/past perfect* eta antzeko termino konposatuak, non hitz bat aldiaz ari den baina besteak aspektuari so egingo liokeen—. Honelako oposizio baten adibide baterako nahikoa dugu (16) eta (23) erkatzea. Borikekin batera (2006: 12) “ikuspegi gisako aspektuaz” (*viewpoint aspect*), “kanpoko aspektuaz” (*outer aspect*) edo “aspektu gramatikalez” (*grammatical aspect*) mintzo gaitzke. 1. taulako koadroan “denbora erlazioa” gelaxkari dagokio kontzeptu hau eta baten bati aplika badakioke besterik gabe “aspektu” izendapena, hauxe litzateke hautagairik onena. Segidan azalduko diren “aspektuzkotasunaren” beste alderdiak, aldiz, gertaera motei (*eventuality types*) dagozkie eta berariazko izendapen baten azpian ere jar daitezke: “ekintzazkotasuna” (*actionality*, alemanierako *Aktionsart* terminotik).

### *Aspektu lexikoa*

Kanpoko aspektu horretan hizkuntzek erakusten duten adierazgarritasunak, aski askea izanda ere, muga batzuk erakutsiko ditu —nolabaiteko defektibotasun bat— kasuko aditzak maila lexikoan duen esanahiaren arabera. “Aspektu lexikoaz” mintzo da hortaz. Kontzeptu hau argiago geratuko da ondokoa aztertu eta gero.

### *Barruko aspektua (aspektu teliko edo predikatiboa)*

Aurreko bien artean —eta honek aspektuaren konposizionaltasun bati seinalatzen dio (jorraketa konposizional baterako sarrera gisa ikusi Verkuyl (2001))—, kokatzen da “barruko”, “predikatuzko” edo “telikotasun aspektua” (*inner/predicational/telicity aspect*), zeinak aditz soilari ez baizik eta aditz sintagma edo predikatuari begiratzen dion.

Izenak izen, kontzeptuon zabalkuntzan eragin handikoa izan zen Vendler (1957). Hartan esandako legez, aditz aldiari legokiokeen iragana,

oraina eta geroaren arteko bereizketaz gain, denboraren inguruko bestelako desberdintasunek eragina dute aditzen erabileran. Zentzu horretan, eta ingeleserako, argumentuez inguraturiko aditzen artean —hots, *predikatuen artean*— bereiztu zituen denbora eskema banari legezkiekeen lau termino mota: jarduera terminoak (*activity terms*), buruketa terminoak (*accomplishment terms*), erdiespen terminoak (*achievement terms*) eta egoera terminoak (*state terms*). Termino gisako aurkezpen horren ondoren, Vendler zentzu berarekin mintzatuko zen ondokoez: *activities* (jarduerak), *accomplishments* (buruketak) —biok prozesutzat (*processes*) sailagarri—, *achievements* (erdiespenak) eta *states* (egoerak). Hona hemen bakoitzaren adibideak (jatorrizkoan gerundioan agertu ziren; infinitiboa neutroagoa iruditzen zait aspektuari begira): [*to*] *run* (korritu), [*to*] *draw a circle* (zirkulu bat marraztu), [*to*] *reach the top* (tontorra erdietsi), [*to*] *love* (maitatu).<sup>14</sup>

<sup>14</sup> Azpimarratzekoa da Vendlerren abiapuntua ez dagokiola ontologiari, baizik aditzen hizkuntza erabilerari. Beste zenbait autorek, aldiz, nire ustez beharrezkoa ez den konpromiso ontologikoa erakusten dute. Ikusi, adibidez, Van Valin & LaPollaren bereizketa hau:

“The system of lexical decomposition to be employed is based on the distinctions in Aktionsart (German for ‘form of action’) proposed originally in Vendler (1957 [...]) He argued that verbs and other predicating elements could be classified in terms of their inherent temporal properties, and proposed four basic classes: states, achievements, accomplishments and activities. Aktionsart, then, is the term we use for the inherent temporal properties of verbs. [...] Each of these Aktionsart types corresponds to one of four basic state-of-affairs types.

“[...] State-of-affairs type	Aktionsart type
“Situation	State
“Event	Achievement
“Process	Accomplishment
“Action	Activity” (Van Valin & LaPolla 1997: 91-92)

Honelako proposamenetan nahastu egiten dira denborazkotasun eta egilezkotasun (*agentivity*) irizpideak, Dowtyren (1979) ildotik. Horrexen aurka argudiatu dute zenbait autorek, hala nola Emmon Bachek (1981):

“There is a well-known typology that has its roots in Aristotle but has been brought into linguistic and philosophical thinking in recent times [...] It has to do with different kinds of sentences (or verb phrases) and the kinds of states-of-affairs that they describe. According to this view we need to contrast STATES, PROCESSES, and two kinds of events: PROTRACTED and INSTANTANEOUS (the latter correspond to Vendler’s ACCOMPLISHMENTS and ACHIEVEMENTS, respectively). [...] (You should note that these terms are not uniformly used in the literature.) There is another dimension which crosscuts these distinctions, in English at least, having to do with the notions of agentivity, volition, and the like.” (Bach 1981: 67)

Puntu honetan terminologia inola ere bateraturik ez dagoela erakustearren, koadro bat eskainiko dut aipaturiko autoreen terminologia konparatuz (erdian Vendlerrena):

Egitate-egoera mota (Van Valin & LaPolla)	Aktionsart mota	Egitate-egoera mota (E. Bach)
Situation	State	State
Event	Achievement	Instantaneous event

Lars Johanson jarraituz (2000: 59), uste dut komeni dela aspektu lexikoa aspektu predikatibo honen kasurik sinpleentzat kontsideratzea: autore horrek “ekintzazkotasun” edo *Aktionsarteko* kategoriak aplikatzen dizkie ekintzak (zentzu zabalean, nik “gertaerak” esango nuke) adierazteko balio dezaketen hizkuntza esapideei –“ekintza esare” (*action phrases*)–, hauetako sinpleena aditz lexema bat delarik. Garrantzizkoa da konturatzea nola argumentu semantikoak gehitu ahala, gertaera mota alda daitekeen –esaterako: *[to] draw ≈ [to] run, [to] run a mile ≈ [to] draw a circle*.

Euskal aditzaren analisirako erabiliko ditudan aspektu- (eta inoiz ere tempus-) -operatzaileak Johansonek proposaturikoak dira. Berariazko atal bat eskainiko diot beranduago haren eremu teorikoaren aurkezpenari. Horretan, ekintzazkotasunari eta aspektuari dagokiona bereiztu egingo dira, baita bion arteko harremanak adierazi ere. Oro har, ekintzazkotasun-aspektu bikotearen eremua 1. taulako azken zutabeko “orientazio” gelaxkarena izango da, ez 3. zutabeko “aspektuarena”.

### 0.1.3 Denbora kontuetatik modu kontuetara

Ikusten hasiak garenez eta aurrerantzean sakonago azalduko denez, euskal aditz jokatuaren sisteman baliabide morfologiko oso desberdin bi daude denborazko harremanak adierazteko: bat edonolako orientazio guneen inguruan aplika daiteke. Esaterako:

- (26) Bide honetatik ibiltzen naiz. (*I (use to) walk through this way.*)  
 Bide honetatik ibili naiz./Bide honetatik ibilia naiz. (*I walked through this way./I've walked through this way.*)  
 Bide honetatik ibiliko naiz. (*I'll walk through this way.*)

Beste baliabide morfologikoak, aldiz, orientazio gunea bera kasuko hizketagunetik iraganeko beste batera desplazatu dela adierazten du. Horretarako, berariazko gai morfologiko markatu bat erabiltzen da –“gai

---

Process	Accomplishment	Protracted event
Action	Activity	Process

urruna”, O<sup>S</sup>-tiko aldentzearen adierazgarri–, eta horri gehitzen zaio atzizki berezi bat adierazteko aldentze hori iraganaldirantz ematen dela, denbora errealean, eta ez bestelako (alegigune bateko) orientazio gune irreal edo birtual baterantz. Ondo ulertzen dateke adibide batez:

- (27) *Gai morfologiko hurbila*: Bide honetatik nabil. (*I walk/I'm walking through this way.*)  
*Gai morfologiko urruna*.  
(a) *Iraganaldikoa*: Bide honetatik nenbil. (*I walked/I was walking through this way.*)  
(b) *Alegigunekoa*: Bide honetatik nenbilke. (*I would walk through this way.*)

Gai morfologiko urrun honek erakusten du guztiz zentzuzkoa dela tempus eta modua zeregin beraren azpian bateratzea, 1. taulako “erreferentzia” gelaxkan bezala, edo nik hobetsiko dudan esapideaz baliatuz, gertaeraren *orientazio gune nagusiaren finkaketarako*.

Gertaeraren lokalizatzeko zehatzean parte hartzen dute finkaketa horrek (modua eta tempusa) eta bestelako orientazioek, denborazkoak (aspektua) zein moduzkoak (modalitatea). Gertaeraren lokalizazioa faktore guztion arteko elkarrekintzaren ondorioa da. Ageria da gertaera denboran kokatzeko kontuan hartu behar direla bai “aldi absolutua” edo tempusa bai “aldi erlatiboa” edo aspektua. Ez da horren ageria, eta sakon aztertu beharko dugu, horretan modalitate kontuek ere eragina dutela, hala nola moduari dagokion orientazio gunearen finkaketan ere baduten: ez da izango aditz modurik modalitate kontuetatik askea. Adibide batez argitzearren: (27)b-ko esapidean, gai urruneko *\*nenbil* osagaiari moduzko hizkiren bat gehitu behar zaio, bertako *-ke* dela beste bat dela, zeren eta bestela agramatikala bailitzateke. Areago, lan honetan defendatuko dut (27)a bezalakoetan ere, adizkia gramatikal (eta iraganaldiko) bihurtzeko balio duen atzizkia, moduzkoa dela izatez. Zuzen banago, “tempus” izendapena bera desbideragarria dateke, eta orientazio gune nagusia finkatzean *modu-tempus continuum* baten aurrean garateke.

## 0.2 Gertaeraren gaineko ikuspegi sistemaren moduzko osagaiak:

### modalitatea eta modua

Izan ere, aditz modua adizkien morfologian markaturiko beste eremu semantiko bati legokioke printzipioz, modalitatearenari. Kontzeptu hau logikakoa da izatez, eta ondokoen arteko bereizketak besarkatzen ditu adibidez: errealitatea, probabilitatea, posibilitatea, ezinezkotasuna, derrigorrezkotasuna, aukerazkotasuna, desiragarritasuna... Greziar antzinateko gramatikarrietatik hasita aditz modua lotu da gogoaren jarrerarekin, eta ildo horretatik jarraitu dute gramatika tradizionalak gaur egun arte. Ikuspegi horren arabera, modu indikatiboak adieraziko luke esaleak errealtzat jotzen duela esandakoa, beste modu guztiek (hizkuntzaz hizkuntza alda daitezkeenak) nolabaiteko irrealtasuna barruratuko luketen bitartean: optatiboak desira batena; aginterak agindu batena; subjuntiboak zalantzazko kutsu bat ekarriko luke... Gauzak, ziurrenik, askoz konplexuagoak dira: alde batetik, erreza da azalpen horren aurkako adibideak ekartzea; bestetik, pentsa daiteke horrelako azalpenak biribilean ari direla (adibidez, modu indikatiboa honakoa dateke, esandakoa errealtzat mahairatzen duena; baina erreal izatea bera modu indikatiboan adierazia litzateke); eta gainera, antzinateatik bertatik hasi ziren erabiltzen bestelako azalpen faktoreak —sintaktikoak (subjuntiboa menderakuntzari lotuta omen zegoen), pragmatikoak (mendeko pertsonekin baino ezin erabil zitezkeen agintera), semantiko eta morfologikoak (modu guztietan ezin ziren aurkitu aldi-aspektu guztiak)... —. Faktore sintaktiko, semantiko, pragmatiko eta morfologikoak batzen dira antzina-antzinatik datorren egiespen honetan: korrelazio bat dagoela aditz moduak eta perpaus mota, modu zein modalitateen artean.<sup>15</sup> Kasuan kasuko beste modalitateen artean, badirudi hizkuntza orotako esaldietan (*utterances*) aurki daitezkeela gutxienez hiru modalitate nagusiok: deklaratio edo predikatiboa, inperatio edo aginkarizkoa, eta galdekarizko edo itaunkarizkoa (Sadock & Zwicky 1985:

---

<sup>15</sup> Apolonio Diskolok berak II. mendean esan zuenez grezierazko indikatiboari “deklaratio” izendapena ere ematen zitzaion, eta “indikatiboa” izateari uzten zion baiespen esaldi batetik galderazko batera igarotzen zenean; hala ere, ez agintera, ez subjuntiboa ezin erabil daitezke galderetan, biek berariazko jokaera sintaktikoa izanik. Horrelako burutazioak nonahi aurki daitezke gramatika tradizionaletan.

160). Zentzuzkoa dirudi suposatzeak bakoitzaren ezaugarri formalak gramatikan daudela kodeturik, ezen perpaus (*sentence*) modalitateaz hitz egin daitekeen, hots esaldiari gramatika aldetik dagokionaz. Perpaus modalitateaz ari den arren, eta ez aditz moduz, interesekoa dugu Robert M. Harnishen ondoko aipamena, zeinetan modalitatearen inguruko konplexutasuna ezin hobeto agertzen baita:

*“Mood, as understood in this work, lies at the intersection of phonology, syntax, semantics and pragmatics. Mood is sentential form with a function. On the form side, sentences are described in terms of syntactic structure (including occasionally lexical items) and intonation. On the function side, sentences are described in terms of their literal and direct illocutionary force potential (pragmatics), and the notion of literality involves meaning (at least) what one’s sentence means (semantics). The study of mood (again, as here conceived) runs against the grain of much contemporary linguistics, which is predominately concerned with stating generalizations at a given level (phonological, morphological, syntactic, semantic).” (Harnish 1994: 407)*

Modalitatearen azalpenerako ez da nahikoa fonologia eta semantikari dagokien forma: funtzio komunikatiboaren aldaerak ezinbestekoak dira esaldi- (eta hortik perpaus-) -modalitateak definitzeko. Funtzio horren ikerketari ekiten dio, hain zuzen, hizketa egintzen teoriak (*Speech-Act Theory*). Hau, XX. mendeko hizkuntzaren filosofiaren garapen nagusietako bat dugu. Hari zor zaio ilokuzio indarraren kontzeptua, zeinak berebiziko garrantzia erakutsiko baitu euskal aditz modalitate aldaeren analisisian. Funtsezko ideia hau da: hitz egitea ez da mugatzen zerbait esatera, zerbait *egitea* ere bada, mota bat edo besteko egintza (*act*) bat gauzatzea (edo horren saiakera bat, bederen). Esandakoa “lokuzioa” bada, egindakoa “ilokuzioa” dugu. Esandako edukiaz

gain, buruturiko egintzaren mota zehazten duen ilokuzio indarra ere kontuan hartu behar da. Esaterako, eduki berdinez baieztape bat egitea, galdera bat egitea edo eskari bat egitea mota desberdineko egintzak (*acts*) izango lirateke, bakoitzak ilokuzio indar desberdin batekin. Ilokuzio indar hori faktore anitzek osatzen dute, aurrerago, dagokien atalean, azalduko ditudanak.

Perpaus modalitateaz esandakoak balio du aditz moduarentzat ere, eta ez soilik haien arteko harremanarengatik. Aditz modua jausten da morfologia,<sup>16</sup> sintaxia, semantika eta pragmatikaren ebakiduran. Modua funtziodun aditz forma da. Funtzioaren alde, zati batean behintzat, ilokuzio indarraren terminoetan azal daiteke: horixe da lan honen hasierako suposaketa. Izan ere, hizketa egintzen teorikoen artean topiko bat da ondoko ideia hau: teoriak bereizten dituen funtzio komunikatiboaren aldaeren indikatzaile pribilegiatua dela aditz modua.<sup>17</sup> Aditz modua nozio modal abstraktuen bidez azaldu beharrean, agian azken hauek argi daitezke aditz modu bakoitzaren hitzez hitzeko erabilerek barneratzen dutenari so eginez. Ikerketa hau burutu bitartean ikusi dudanez, programa hori neurri batean buru daiteke, baina ez osorik. Asumituko dut modu banaketa nagusia *realis/irrealis* bikotearena dela: errealtzat/irrealtzat aurkezturiko gertaeren artekoa. Hori jasotzeko, tasun semantiko bitar bat proposatuko dut, zeinen balio ez markatua (negatiboa) errealtasunari dagokion:

---

<sup>16</sup> Perpaus modalitatearentzat erabakiorra izan daitekeen intonazioak aditz modurako horren garrantzizkoa ez izanik, fonologiaren aipamenaren ordez nahikoa dugu morfologiarena. Euskal perpausaren intonazioaren eta sintaxiaren analisi baterako ikusi Coterón (2007a, 2007b, 2008).

<sup>17</sup> Adizkien sailkapenean aldia, aspektua eta modua erabili ohi diren arren, hizkuntzalaritza tipologikoaren beste ideia hau probetxuzkoa izango dugu: aditz moduaren ordez edo horrekin batera, zenbait hizkuntzatan hizki modalak erabiltzen dira. Hurrengo txataletan agertuko zaizkigun zenbait aurrizki zein atzizki interpretazio hori jaso dezakete. Nire puntua, hala ere, harago doa, hizki horien jatorrizko zentzua, moduzkoa den neurrian, ilokuzio indarraren terminoetan eman baitaiteke ene ustez, eta bestelakoa den neurrian, aspektuari dagokiola. Horrek argia jaurti dezake hizkuntzalaritza tipologikoan aurkituriko beste fenomeno batzuen gainean: batetik, askotan morfema berdinek bai modalitate epistemikoaren, bai deontikoaren irakurketak dituztela; bestetik, geroa adierazteko morfemek moduzko irakurketak ere badituztela edo izan dituztela. Tipologiaren puntu biotz ikusi De Haan (2006).

(28) *Etiketa eta definizioa 2.*  
 $\beta \not\prec \alpha$  (edo  $\alpha \not\prec \beta$ ) :  $\beta$ -ren  $\alpha$ -tiko (dena delako) aldentzea ez dagokio denboraren lerroari, baizik eta izari modal bati.<sup>18</sup>

(29) *Etiketa eta definizioa 3. (Behin-behinekoa.)*<sup>19</sup>  
(a1) [ $\pm$ irrealis] : gertaerak irreal edo errealtzat aurkeztearen adierazpena  
(a2) [+irrealis] =<sub>def</sub> (G  $\not\prec$  O)

Modalitatearen eremu semantiko zabaletik bakarrik dut interesekoa *realis/irrealis* banaketa horretan eragina duena, hots irrealtasunerako desplazamendua dakarrena. Hortaz, 1. taulako moduari atxikitako izaera “kontingentea”, “hipotetikoa”, “burutugabea”, “optatiboa” eta modalitate epistemikoari egotziriko ziurgabetasuna azal daitezke ilokuzio indarraren izari baten aldaera gisa. Aldaeron indikatzaileak —zenbait aspektu baldintzekin konbinaturik— zerari lotuta agertzen dira, errotiko ahalezkotasunari (ahalezkotasun ez-epistemikoari); baina hau ezin murrizt daiteke konbinatze horretara, eta ondorioz, haiekin batera, errotiko ahalezkotasuna sistema semantikoaren primitibotzat jo beharko da, eta irrealtasunaren osagaitzat:<sup>20</sup>

(30) *Etiketa eta definizioa 4.*  
[ $\pm$ ahal] : gertaerak errotiko ahalezkotzat (*as a root possibility*) aurkeztearen edo ez aurkeztearen adierazpena

(31) *TAM sistemako postulatua 3.*  
[+ahal]  $\rightarrow$  [+irrealis]

Honen hirugarren osagai primitibo bat onartuko dut: “asmozkotasuna” (zeinen alderdi bat derrigorrezkotasuna den):

---

<sup>18</sup> Arrazoi tipografiko eta bestelakoengatik, inoiz komeni dakiguke modalki aldentutako itema ezker aldean agertzea, inoiz eskuin aldean; edonola ere, aldentutakoa zeinuaren alde zabalduaren ondoan agertuko da.

<sup>19</sup> Tasun bitarrei dagozkien etiketa gehienak semantikoak izango dira eta parentesi karratuen artean agertuko dira. Balio morfologiko bitarrak angeludun parentesietan sartuko ditut. Bestalde, definizio honetako G eta O zeinuen erabilera erraz uler daiteke, nahiz haien definizio esplizitua beranduago egingo dudana, dagokion testuinguruan.

<sup>20</sup> Aldiz, ahalezkotasunarekin kontrastatzen den halabeharrezkotasunak izaera errealeko gertaerak ezaugarritzen ditu eta nire analisisetatik kanpo utziko dut.



(32) *Etiketa eta definizioa 5.*  
[±asmozkoa] : gertaerak asmoaren eremukoak izatearen edo ez izatearen adierazpena

(33) *TAM sistemako postulatua 4.*  
[+asmozkoa] → [+irrealis]

Aurreko kasuan bezala, ezaugarri hau onartu behar zaie zenbait adizki moduri (agintera eta helburuzko subjuntiboa bereziki), zeintzuk berriro ere korrelazioan agertzen baitira aspektuaren eta ilokuzio indarraren zenbait baliorekin.

### **0.3 Gertaeren gaineko ikuspegi sistemaren eskema orokorra**

Laburbilduz esan daiteke modalitatea, aspektuzkotasuna eta aldizkotasuna eremu semantiko zabalak direla besteak beste aditzaren morfologian ere agertzen direnak, aditz modu, aspektu eta aldiaren akzidente gramatikaletan. Nozio zabal bakoitza bere aldetik uler badaiteke ere, aditz mailakook elkar eraginean baino ezin daitezke ondo uler. Horren onarpenaren froga dugu TAM sistemaren kontzeptua bera. Areago, horrelakoen ikerkuntza behetik gora bideratzen denean, hizkuntza zehatzetik kontzeptu orokorretara, argi geratzen dateke gauza bat dela kontzeptualki bereiztea modua eta modalitatea, aspektua eta aldia eta beste gauza bat haien hizkuntza adierazpenak banatuta agertzea. Ez dago horrelako zerbaiten bermerik eta izan ere, euskal aditz morfosemantikak erakusten du izari horien arteko elkarrekintza sakon bat. Hauxe delakoan nago, nire lan hau burutu ondoren:

L o k a l i z a z i o a			L o k a l i z a z i o a
Moduzko orientazioa <small>(modu-modalitateak: abalezkotasuna, asmozkotasuna eta ilokuzio indararen aldaerak)</small>	<i>Irrealis</i>  <i>Realis</i> <small>(ustezko denbora errealaren lerroa barru)</small>		
↑ ↕		Denborazko orientazioa <small>(ekintzazkotasuna+aspektua eta aldia edo tempusa)</small>	

2. taula Gertaeren lokalizaziorako moduzko eta denborazko orientatzeen elkarrekintza.

Taula honetan era dinamikoagoan aurkezten dira 1. taulako osagaiak. Gertaeren lokalizazioa, eta ustezko denbora errealaren lerroa bera ere, elkarrekintzan dauden norabide bietako orientazioen emaitza dira: moduzko orientazioa eta denborazko orientazioa. Hauen analisia garatuko dut lan honetan. Ondorioz euskal aditz jokatuaren aldaera morfologikoez ohikoa dena baino azalpen egokiago bat jasoko dute.

Hortaz, nolako fenomenoak azaltzeko asmoa dudan jakiteko, has gaitzen entzuten euskarak esan behar diguna.

#### 0.4 Euskal aditz jokatuaren morfologiako gertaera interesgarriak

Euskal aditz jokatuaren morfologian aurkitzen diren gertaera interesgarrienak defektibotasunarekin dute zerikusia. Izan ere, oso gutxi dira forma soilean gramatikalak diren adizkiak. Adizki gehienek aurrizki edo atzizkiren bat behar dute gramatikaltasuna eskuratzeko. Horretarako balio duten hizkiek, hauek dira funtsean:

1. Suposaketa adierazten duen *ba-* aurrizkia:<sup>21</sup>

<sup>21</sup> Horretatik hurbil dago arkaikoa izan arren dialektoren batean geratzen den *al-* (> *ai-*) aukerakarizko edo optatiboa:

Aitzina gazteago!  
 Ai-tzina-Ø                      gazte-ago!

- (34) Gazteago bazina...  
 Gazte-ago ba-zina-Ø...  
 Young-er if- S.2.NPRS.be-NPST<sup>22</sup>  
 'If you were younger...'

2. Horren ondoriorako erabiltzen den eta, oro har, ziurtasun txikiagoa adierazten duen *-ke* atzizkia:

- (35) Barre egingo genuke.  
 Barre egin-go gen-Ø-u-ke-Ø.  
 laugh do-FUT A.1PL.NPRS-P.3SG-TR.AUX-COND-NPST  
 'We would laugh.'

- (36) Barre egin genezake.  
 Barre egin-Ø gen-Ø-eza-ke-Ø.  
 laugh do-NFUT.NIMPF A.1PL.NPRS-P.3SG-TR.AUX.NIND-COND-NPST  
 'We would/could laugh.'

3. Funtzio anitzak dituen *-n* atzizkia:

3.1. Iraganaldiko marka:

- (37) Gazteago zinen.  
 Gazte-ago zin-en.  
 Young-er S.2.NPRS.be-PST  
 'You were younger.'

- (38) Barre egin genuen.  
 Barre egin gen-Ø-u-en.  
 laugh do.PRF A.1PL.NPRS-P.3SG-TR.AUX-PST  
 'We laughed.'

3.2. "Subjuntiboko" adizkiak osatzeko:<sup>23</sup>

---

OPT- S.2.NPRS.be-NPST *young-er*  
 'If only you were younger!'

<sup>22</sup> Ez dut adierazi bigarren pertsona hau pluralekoa edo singularrekoa den zeren morfologikoki pluralekoa baita baina semantikoki singularrekoa. Berdin jokatuko dut aurrerantzean.

<sup>23</sup> Euskararen gramatiketan erabilitako etiketak, hemengo "subjuntiboko" hau bezala, behin-behinean erabiliko ditut nire analisisen harira aditz moduen berrikuspenari ekin artean.

- (39) Gazteago izan zaitezzen nahi du.  
 Gazte-ago izan-Ø zaitez-en nahi d-Ø-u-Ø.  
*Young-er be-NFUT.NIMPF S.2.PRS.INTR.AUX.NIND-COMP want PRS-P.3SG-*  
 AUX.TR-A.3SG  
 ‘S/he wants you to be younger.’

### 3.3. Lehen pertsonako “aginte adizkiak” —edo nahiago bada “hortatiboak”— egiteko:

- (40) Abia gaitezen!  
 Abia-Ø gaitez-en!  
*Depart-NFUT.NIMPF S.1PL.PRS.INTR.AUX.NIND-IMP/HORT*  
 ‘Let’s depart!’

- (41) Goazen!  
 G-oa-z-en!  
*S.1PL.PRS-go-PL-IMP/HORT*  
 ‘Let’s go!’

### 3.4. Menderagailu gisa:<sup>24</sup>

- (42) Bertantxe sortu liran gisan.<sup>25</sup>  
 Bertan-txe sor-tu lira-n gisa-n.  
*There-just sprung up-PRF S.3PL.IRR.INTR.AUX-COMP as-INNESS*  
 ‘As if they had sprung up just (from) there.’

## 4. Eta osagarritzko *-la* atzizkia, bereziki hirugarren pertsonako orainaldiko aginte adizkiek eskatzen dutena:

- (43) Sar dadila!  
 Sar-Ø dadi-la!  
*Come.ALL-NFUT.NIMPF S.3SG.PRS.INTR.AUX.NIND-COMPL*  
 ‘Let him/her (come) in!’

Oro har, horrelako hizkiren bat behar dute orainaldikoak ez diren adizkiek, alde batetik, eta indikatibokoak ez direnek bestetik, salbuespen esanguratsu batzuekin:

<sup>24</sup> Izan ere, euskarazko menderagailu gehienak honen eratorriak dira, kasuren bat edo beste gehituz. Esaterako, inesiboa itsatsiz lortzen da *where/when* zentzuko *-nean* menderagailua.

<sup>25</sup> Orixeren *Quito-n arrebarekin* idazlanetik hartua.

1. Bigarren pertsonari zuzenduriko aginte adizkiek ez dute itsatsitako hizkirik behar eta, areago, haietatik bakarrik onartzen dute *-ke* hizkia,<sup>26</sup> zeinak agindu edo eskea baretzen duen:

(44) Har ezazu!  
 Har-Ø                      Ø-eza-zu!  
*Take*-NFUT.NIMPF    P.3SG-TR.AUX.NIND-A.2  
 'Take it!'

(45) Har ezakezu!  
 Har-Ø                      Ø-eza-ke-zu!  
*Take*-NFUT.NIMPF    P.3SG-TR.AUX.NIND-ATTEN-A.2  
 'Take it, if you want to!'

2. Berdin gertatzen da hirugarren pertsonari zuzendutako aginte adizki batzuekin, zeintzuek berariazko modu marka baten ondoren orainaldikoak ez diren formen ezaugarriak baitituzte:

(46) Sar bitez!  
 Sar-Ø                      bitez!  
*Come*.ALL-NFUT.NIMPF    IMP.S.3PL.NPRS.INTR.AUX  
 'Let them (come) in!'

(47) Sar bitezke.  
 Sar-Ø                      bitez-ke.  
*Come*.ALL-NFUT.NIMPF    IMP.S.3PL.NPRS.INTR.AUX-ATTEN  
 'Let them (come) in, if they wanted to.'

3. Alderantziz, alegiazko formek *ba-* edo *-ke* hizkiez horniturik joan ohi diren arren, zenbait dialektotan onargarriak dira edo izan dira (adibideak literatura testu zaharretan ere aurki daitezke) *-ke* hizkidunen pareko forma soilak.<sup>27</sup>

Hiru salbuespenotan esandakoez gain, indikatiboko orainaldiko adizkiek ere ez dute inolako hizkiren beharrik, jaso ahal dituzten arren.

---

<sup>26</sup> Eta ezezko aginte adizkietarako, edo aginte errepikatueterako *-la* atzizkia ere bai.



IZAN/\*EDUN sailekoa izanik (\**ba...-ke*, *ba...-n*) edo \*EDIN/\*EZAN sailekoa (*ba...-ke*, \**ba...-n*).

Konbinagarritasun mugatu horrek adierazten du *ba-*, *-ke*, *-n* eta *-la*<sup>29</sup> izari semantiko berari dagozkiola. Hauxe ilokuzio indarraren beste dimentsio bat dela defendatuko dut. Dimentsio hori zein ote den, aurrerago aurkituko du irakurleak, dagokion atalean. Honaino espero dut haren jakin mina piztu izana: jatorrizko zentzu ber batek azal ahal baditza *ba-*, *-ke*, *-la* eta *-n* hizkiaren anitzak, horrek garrantzizko ondorioak lekartzake bai filosofikoak, bai gramatikaren ulertzerakoak ere.

## 0.5 Espero daitezkeen ondorioak

Iragan urrunaren adierazpena, bereziki, eratorritako zerbait bezala agertuko litzateke. Ilokuzio indarraren izari horrek adieraz dezake iragan urrunaren nozioak zer duen komun alegiazkotasunarekin eta zer ez.<sup>30</sup> Argitze hori interesekoa dateke bai filosofiarako, bai hizkuntzalaritzarako ere. Euskararen berariazko mailari dagokionean, balio dezake ulertzeko zein zentzu aurki daitezkeen egun euskal adizkiak sailkatzeko erabiltzen den hiru aldien banaketan (oraina, iragana eta alegiazkoa). Oinarri morfologikoa argi badago ere, zalantzan jar daiteke hor hiru *aldi* bereizten ari izatea (alegiazkoa modua dela, eta ez aldia, pentsa genezake<sup>31</sup>). Uste dut lan honek erakutsiko duela sailkatze egokiago batek erabili beharko dituela bestelako primitibo semantiko batzuk, moduzko eta denborazko orientazio izarrietan zeharrekoak. Hauen

---

<sup>29</sup> Hau ere suposakarizko *ba-* hizkiarekin bateraezina baita.

<sup>30</sup> Aski ezaguna da haien arteko harremana paradoxikoa dela: alde batetik iraganari *realis* etiketa semantikoa atxikitzen zaio eskuarki, alegiazkoa *irrealis* den bitartean; hala ere, hizkuntza askotan —euskara barru— morfologikoki berdinak edo antzekoak izaten dira eta orainaldiko formatatik bereziak.

<sup>31</sup> Iraganaldiko alegiazko adizkiak izateak berresten du ideia hori:

Barre	egingo	genukeen.
Barre	egin-go	gen-Ø-u-ke-en.
<i>Laugh</i>	<i>do-FUT</i>	A.1PL.NPRS-P.3SG-TR.AUX-COND-PST

*'We would have laughed.'*

elkarrekintzak azal ditzake zenbait fenomeno arazotsu, hala nola geroaren interpretazio posible biak (erreala/irrealaren den zerbait gisa).

## **0.6 Txosten honen gidalerroak**

Hitzazurre honek lanaren ekarpena aurkeztea izan du helburu. Horri esker irakurlearen interesa ere suspertu izana espero dut. Horrela izan bada, gusturago jo ezakezu aurrerago irakurtzen. Euskara eta haren aditz morfologia izango dira lehen ataleko gaiak. Bigarren eta hirugarrenean aurkeztuko dut gertaera ikuspegiaren sistemaren analisirako erabiliko dudaren eremu teorikoa, hurrenez hurren zenbait aldaketak proposatuz R. Marvin Hareren hizketa egintzen teoriari egindako ekarpenei eta Lars Johansonek garaturiko aspektu(-tempus) operatzaileen sisteman. Honen arabera, laugarren atalean euskal aditz aspektuaren berrikuspena egingo da. Bosgarrenean euskal aditz jokatuak hizki modalek bideratzen duten gertaeren gaineko ikuspegia azalduko da. Azken atalean guztiaren sintesia eskainiko dut, zenbait eranskinetarako lagaz emaitzen ondorioztapen sistematikoa.



1 IKERKUNTZA-GAIAREN AURKEZPENA: EUSKARA ETA  
EUSKAL ADITZA

Europako sartaldean bizirik dirauen hizkuntza aurreindoeuroparra dugu euskara. Autore eta garaien arabera sei edo zazpi dialekto (euskalki) historiko bereizten dira, horietako batzuek XVI. mendetik abiatzen den tradizio literario usua dutela.<sup>32</sup> Horrez gain, azkenengo mende erdi eskasean, gutxi gorabehera, “batua” (*unificatum*) izeneko *koiné* bat garatu eta ezarri egin da.

Diaspora txiki batez aparte, hiztun gehienak mendebaldar Pirinioetako albo bietan kokatzen dira, politika mailan banaketa handia dutela, Estatu bietan (Frantziar eta Espaniarrean) eta hiru Administrazio dezentralizatuagotan (Euskal Autonomi Erkidegoa, Nafar Foru Komunitatea eta Mendebaldar Pirinioetako Departamentuaren barruan). Hauetako azkenean ez du inolako ofizialtasunik, aurrekoan bakarrik zonalde mugatu batean, eta koofiziala da lehenengoan. Eusko Jaurlaritzaren azken inkesta soziolinguistikoak (*V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011*, 2013) ez du ezta kontuan hartzen ere euskaldun elebakarren existentziaren aukera; estatistikarako guztiok gara elebidun osoak, elebidun hartzaileak (euskaraz ulertu bai baina hitz egiteko gai ez direnak) edo erdaldun elebakarrak.

Elebidun osoen kopurua %32koa da Euskal Autonomi Erkidegoan, lurralde historiko bakoitzean honela sailkaturik: gipuzkoarren %49,9a (300.000 hiztun), bizkaitarren %25,4a (254.000 hiztun) eta arabarren %16,8a (46.000 hiztun). Nafarroan, kopuru hori %11,7ra jaisten da (63.000 hiztun). Pirinioetako ipar-ekialdera 51.000 elebidun oso daude, populazioaren %21,4a.

---

<sup>32</sup> Sailkapen oso erabili batean errolda daitezke: Bizkaiera, Gipuzkera, Goi-Nafarrera, Behe-Nafarrera, Lapurtera, Zuberera eta (dagoeneko hiztunik ez duen) Erronkariera.

Nire ikerketari dagokionez merezi du konturatzea inguruko erdaren presio handia ez dela berria. Mendeetan zehar latinaren eta erromantze desberdinen eragina jaso du euskarak ez bakarrik bere muga soziolinguistikoetan, baizik eta hizkuntzan bertan ere. Hala ere, mailegu anitz izan arren, ondokoetatik arras hizkuntza eredu desberdina eskaintzen du euskarak, eta horrek intereseko ikerketa gai bihurtzen du. Bestek beste, hona hemen berezitasun nabarmenenak:

1. Hasteko, eta dagoeneko aurreratu den legez, hizkuntza aurreindoeuropar isolatua dugu.
2. Indoeuropar hizkuntza akusatiboan ordez, izaera ergatiboa du, hots, kasu neutro berberaz (absolutiboa) markatzen ditu aditz iragangaitzen “subjektua” eta iragankorren “objektua”, bietatik bereiztuz aditz iragankorren “subjektua”, ergatibo izeneko kasu marka daramana.<sup>33</sup>
3. Ondoko hizkuntzek ez bezala, euskarak ez du preposiziorik; horien ordez posposizioen erabilera usua egiten du, horrek hitzen ordenan duen eraginarekin.
4. Halaber, kasu marken erabilera derrigorrezkoa da esaldiak gramatikalki izan daitezkeen. Egoera honek ez du zerikusirik gaztelania, frantsesera edo ingelesekoarekin, zeinetan kasua zenbait izenorderen ezaugarri fosildua baino ez den.
5. Aditz jokatuak komunztadura erakusten du kasu horietako ez bakar batekin, hizkuntza indoeuroparretan legez, baizik eta —aukerak zabalik

---

<sup>33</sup> “Subjektua” eta “objektua” hitzak horrela idatzi ditut, kaxotx artean, dagozkien kontzeptuen jatorria hizkuntza indoeuropar akusatiboan prozeduran aurki daitekeelako. Izan ere, “objektua” kasu akusatiboaz bereizten den aditz iragankorren argumentua dugu, aditz guztien “subjektuari” nominatiboa datzekiolarik. Bestelako banaketa egiten duten hizkuntza ergatiboetan, euskara barru, noziook ez daude justifikatuta *prima facie*. Gramatikari gehienak, dena den, erosoago daude horiekin, munduan zehar gailendu den gramatikagintza ereduak baitira. Horregatik garatu dira argudiaketa sotilak defendatzeko euskararen (eta beste hizkuntzen) ergatibotasuna morfologi mailara mugatzen dela, sintaktikoki besteak bezain hizkuntza akusatiboa izanik. Arrazoiketa horien kritikarako ikusi Coterón (2007a: 41-52).

daude— bat, bi edo hirurekin. Kasuok dira: absolutiboa, ergatiboa eta datiboa.<sup>34</sup> Beste izendapen hau ere jasotzen dute: NOR (*who.ABS*) edo ZER (*what.ABS*), NORK (*who.ERG*) edo ZERK (*what.ERG*), eta NORI (*who.DAT*) edo ZERI (*what.DAT*). Kasuon agerpenaren arabera, aditz jokatuaren formak laster ikusiko ditugun lau paradigmata batean sar daitezke, NOR, NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK. Azken bion ordeztan, NORK-NOR eta NORK-NOR-NORI ordenako zenbait adizki aurki daitezke. Horretarako, beste baldintzen artean,<sup>35</sup> hau bete behar da: NOR kasuari dagokion pertsona 3.a izatea. Honek, marka berezirik ez izanik, hutsune bat lagatzen du adizki hasieran, NORK kasuari dagozkionek betetzekoa.

6. Aditz pertsona markak, beraz, 1. eta 2. pertsonakoak dira, printzipioz. Hortaz, hona hemen “*Royal Society of the Basque Language*” edo “*Real Academia de la Lengua Vasca*” den Euskaltzaindiaren adierazpen ezin laburrago bat:<sup>36</sup>

*“Marka horiek adizki hasieran dandelarik, honela gauzatzen dira*

*euskaraz:*

*ni* = *N-*

*hi* = *H-*

*gu* = *G-*

*zu* = *Z-*

*zuek* = *Z-*

<sup>34</sup> Bestelako zentzua dute pertsona markek adizkien erabilera alokutiboan. Horretan, hizketa egintzaren entzulea adizkian barneratzen da nolabait. Nire ikergunetik kanpo utziko dut, gertaeraren gaineko ikuspegi sistemarekin zerikusituzenik ez baitu eta behar ez dugun konplexutasunetan murgilduko baikintuzke. Xehetasun bat seinalatzea, dena den, baliozkoa izango dugu: adizki alokutiboak bakarrik erabil daitezke aditz nagusi gisa, ez perpaus menderatuaren aditz bezala.

<sup>35</sup> Adizkiak ez izatea orainaldikoak ezta aginterakoak ere.

<sup>36</sup> Ordena honetan agertuko dira: 1S, 2S, 1PL, 2 (morfoloikoki pluralekoa baina semantikoki singularrekoa den 2. pertsona; ikusi 22. oin-oharra), eta 2PL.

*(Ez da esan beharrik zuek bigarren pertsonak pluralgilea ere eskatzen*

*duela: z edo te, geroago ikusiko denez)*

*Markak adizkiaren azkenean direlarik, ordea, honako hau dugu:*

*ni = -T*

*hi = -K/N(A)*

*gu = -GU*

*zu = -ZU*

*zuek = -ZU+e*

*([...] e hori ez da berez pertsona marka, pluralaren marka baizik)."*

*(Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: § 11.4)*

Hala ere, NORI kasua dela eta, hirugarren pertsonak ezaugarri bi agertzen ditu, -O- singularrerako eta -E- pluralean. Euskaltzaindiaren arabera numero oposizioa besterik ez dago hor:

*"Nola azaldu orduan ondoko adizki hauen arteko desberdintasuna:*

*diogu/diegu; dio/diote, e.a. Badirudi hor gertatzen den*

*kontrakotasuna ez dela pertsonarena, numeroarena baizik".*

*(Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 251)*

Dena den, numero kontrakotasuna izateak ez luke ezkutatu beharko beste gertaera hau: NORI kasurako bederen, hirugarren pertsonak marka esplizitu bat jasotzen duela, eta pluralekoa beste postuetan numero hori adierazteko marka bera bada ere, singularrekoa berariazko marka bat dela.

7. Pertsona marka horiek aditz erroaren alde batean edo bestean agertzen dira euskal aditz jokatueta. (Laguntzaile hutsetatik kanpo) aditz guztiek izan dezakete jokaera perifrastiko bat, baina jokaera sinpleko aditzen zerrenda mugatua da. Zerrenda horretan sartu behar dira, nola ez, aditz

laguntzaileak: IZAN eta \*EDIN iragangaitzak alde batetik, \*EDUN eta \*EZAN (EGIN mendebaldeko euskaran) bestetik. Hauetatik, bakarrik IZAN (*to be*), \*EDUN (*to have*) eta EGIN (*to do*) aditzek dute berezko esanahi lexikoa, beste biak laguntzaile hutsak dira.<sup>37</sup> Aditz laguntzaileez gain, ondokoak omen dira trinko gisa erabilienak (ikusi Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 327): EGON (*to be, to stay*), ETORRI (*to come*), IBILI (*to walk*), JOAN (*to go*), JARRAIKI (*to follow, to continue*), EDUKI (*to have*), EKARRI (*to bring*), ERABILI (*to use*), ERAMAN (*to carry*) —bizkaieraz EROAN—, \*IO edo ESAN (*to say*) —ERRAN ekialdeko dialektoetan— IRITZI (*to have an opinion about*), IHARDUN<sup>38</sup> (*to be doing something*), IRUDI (*to look like*) eta JAKIN (*to know*).<sup>39</sup>

8. Pertsona markez eta aditz erroaz gain, zenbait hizkik laguntzen dute adizki jokatuak osatzen. Segidan ikusiko ditugu aditz trinko eta laguntzaileen paradigmatan. Lan honetan agerraraziko denez, hizki horiek gertaeraren lokalizatzerako balio dute, moduzko zein denborazko orientazioaren bitartez.
9. Intereseko beste fenomeno bat jokaera perifrastikoari dagokio: \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) alde batetik eta IZAN eta \*EDUN bestetik, aspektu marka desberdineko aditzen laguntzaile gisa aritzen dira. Aditz paradigmak ikusi ondoren aztertuko dut gai hori.

Hona hemen, beraz, euskara batuaren zenbait aditz trinko eta laguntzaileen paradigmak eta sailkapenerako irizpide estandarrak. Hauen laburpena Euskaltzaindiako Gramatika Batzordearen zenbait lanetan aurki daiteke (1993: 13. eta 14. kapituluak, 15.a aginte adizkietarako; ikusi baita 1987, eta laguntzaileen paradigmatarako Euskaltzaindiaren 78. arauaren

---

<sup>37</sup> Egungo euskaran behintzat. Aspaldiko euskaran badaude \*EDIN aditzaren erabilera soilak zeinetan, *bilakatu* (*to become*) esan nahi duen.

<sup>38</sup> Egungo ortografi arauai jarraituz gero, “JARDUN”.

<sup>39</sup> Zerrenda osoago baterako ikusi *Euskal Aditz Batua* (Euskaltzaindia 1979) eta *EGLU II* (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1987).

1997ko berrikuspena, Euskaltzaindia 1997an). Hiru aldi bereizten dituzte —oraina, iragana eta alegiazkoa (ez oraina ez iragana ez dena)—<sup>40</sup> eta modu bi: [+ahala] (*[+possible]*) eta [-ahala] (*[-possible]*). Horretaz gain, adizki batzuk “agintera” etiketapean sartzen dira. Horren eta tauletan agertzen ez diren beste etiketa batzuen beharraz (“indikatioa”, “subjuntioa”...) aurrerago arduratuko naiz, gai hori nire analisisen harira etorri ahala. Paradigmen aurkezpenean aditz iragangaitzetatik hasiko naiz, iragankorrekin bukatzeko eta komunztadura kasu gutxienak erakusten dituztenetara mugatuko naiz, NORI edo datiboaren sarrerak lekartzakeen konplikazioetan sartu barik, ezta jokaera alokutiboarenetan ere, ezen gertaeraren gaineko ikuspegi sistemari ezer berezirik gehitzen ez baitiote.

## 1.1 Euskara batuko aditz jokatu iragangaitzen paradigmak

### 1.1.1 Aditz trinkoen adibideak

Arestian zerrendaturiko jokaera trinkoa duten aditzetako adibide bi mahairatuko ditut. Paradigmetan, ohikoa denez, ondoko ordenan agertuko dira pertsonak: 1S, 2S, 3S, 1PL, 2, 2PL, 3PL. Lehen eta bigarren pertsonen dagozkien adizki hasierako ezaugarriak hizki larriaz agertzen dira Euskaltzaindiaren jatorrizko koadroetan, hemen bezalaxe, baina horrelakorik ez dago hirugarren pertsonako adizkietan. Hona hemen arrazoia:

*“Morfologia aldetik nabiko arrazoi garbiak daude hortaz hirugarren pertsonari dagokion marka zero dela pentsatzeko: d-, z- eta l- tempus edo aldiaren markak izango lirateke.” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 250)*

---

<sup>40</sup> Gramatika estrukturalistaren tradizioari jarraituz, banaketa hori [ $\pm$ oraina,  $\pm$ iragana] tasun abstraktuen balio hauei dagokiela suposatzen dute: oraina [+oraina, -iragana]; iragana [-oraina, +iragana]; eta alegiazkoa [-oraina, -iragana].

ETORRI NOR					
ALDIA →		ORAINA	IRAGANA	ALEGIAZKOA	AGINTERA
MODUA ↓	ni hi hura	Nator Hator dator	Nentorren Hentorren zetorren	-Nentor -Hentor -letor	Nator- Hator betor/[dator-] <sup>[41]</sup>
-AHALA	gu zu zuek haiek	Gatoz Zatoz Zatozte datoz	Gentozen Zentozen Zentozten zetozen	-Gentoz -Zentoz -Zentozte -letoz	Gatoz- Zatoz Zatozte betoz/[datoz-]
+AHALA	ni hi hura gu zu zuek haiek	Natorke Hatorke datorke Gatozke Zatozke Zatozkete datozke	Nentorkeen Hentorkeen zetorkeen Gentozkeen Zentozkeen Zentozketen zetozkeen	Nentorke Hentorke letorke Gentozke Zentozke Zentozkete letozke	[42]

3. taula ETORRI (to come). Komunizadura NOR edo absolutiboarekin bakarrik duten adizkiak.

JOAN NOR					
ALDIA →		ORAINA	IRAGANA	ALEGIAZKOA	AGINTERA
MODUA ↓	ni hi hura	Noa Hoa doa	Nindoan Hindoan zihoan	-Nindoa -Hindoa -lihoa	Noa- Hoa Bihoa/[doa-] <sup>[41]</sup>
-AHALA	gu zu zuek haiek	Goaz Zoaz Zoazte doaz	Gindoazen Zindoazen Zindoazten zihoazen	-Gindoaz -Zindoaz -Zindoazte -lihoaz	Goaz- Zoaz Zoazte Bihoaz/[doaz-]
+AHALA	ni hi hura gu zu zuek haiek	Noake Hoake doake Goazke Zoazke Zoazkete doazke	Nindoakeen Hindoakeen zihoakeen Gindoazkeen Zindoazkeen Zindoazketen zihoazkeen	Nindoake Hindoake lihoake Gindoazke Zindoazke Zindoazkete lihoazke	[42]

4. taula JOAN (to go). Komunizadura NOR edo absolutiboarekin bakarrik duten adizkiak.

Beste zutabeek ez bezala, aginterakoak morfologi batasun eza erakusten du: bigarren pertsonako adizkiak gramatikalak dira dauden bezala;

<sup>41</sup> Euskaltzaindiaren paradigmatan agertu ez arren, osagarritzko *-la* duten adizkiak erabil daitezke hirugarren pertsonari zuzenduriko aginterarako (*datorrela*, *datozela* eta hurrengo paradigmatan antzekoak):

“En vascuence se hace ahora generalmente distinción entre «betor» = «venga usted» (2.ª persona respetuosa) y «datorrela» = «venga él» (yusivo), no existiendo por tanto, propiamente hablando, más imperativo que el de segunda persona. Antes se recurría también frecuentemente al subjuntivo [sic] para la tercera persona, como en Mendiburu: «Betor (=datorrela) zeru onetatik... bebil gurekin... eraman gaitzan (= gaitzala) bere ondoren; ta sar gaitzan (= gaitzala) berekin batean... zeruan».” Omaechevarria (1959: 45)

<sup>42</sup> Erabilera urrikoak izan arren, badaude *-ke* hizkidun agente adizkiak. Luzeago hitz egingo dut horietaz laguntzaileen paradigmatik mahairatutakoan.

hirugarren pertsonakoetan egoera bi ematen dira, gramatikalak dira *b-* hizkiaz hasitakoak,<sup>43</sup> baina beharrezkoa da atzizki baten eranspena (osagarritzko *-la* eskuarki, inoiz *-n*) *d-* hasitakoak aginte adizki bihurtzeko, eta lehen pertsonakoek *-n* eskatzen dute bukaeran:

*“Lehen pertsonako formak dira salbuespen horretan, -eN [...] hartzen baitute maiz, nahiz eta -eLA-rekin ere eman daitezkeen, batez ere ezetzka daudenean:*

*([...]) a. Nagoen isilik!*<sup>[44]</sup>

*b. Has gaitezen lanean.*

*c. Ez nadin gebiegi luza!*

*d. Ez gaitezen engaina” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1999: 143)*

Horretaz gain, paradigmatan ageri denez, “iragana” eta “alegiatzkoa” gisa etiketaturiko adizkiek komun dute zenbait ezaugarri morfologiko, “oraina” etiketapeko adizkiek ez bezala. Azkenotan pertsona markak (*N-*, *H-*, *G-*, *Z-*) , eta aktualtasun markatzat jo daitekeena (*d-*)<sup>45</sup> zuzenean lotzen dira aditz erroarekin, edo (azken hau kontsonantez hasten bada) *-a-* loturazko ertizkiaren bitartez. R. M. Azkuek (1924, 1931) morfologi gai (*thema*) “hurbil” gisa izendatuko zuen. “Iragana” eta “alegiatzkoa” formak (eta hirugarren pertsonako *b-* markaz hasitako aginterakoak ere), berriz, gai “urrunak” ditugu. Hauetan, loturazko *-a-* hori desagertua da *-e-* (batzuetan *-i-*) baten mesederako,

---

<sup>43</sup> Hala ere, morfologia aldetik hauek eta bigarren pertsonakoek alde nabarmenak erakusten dituzte. Beherago azalduko dira.

<sup>44</sup> Bakarrik lehen adibide hau dugu aditz trinko batena, ondokoak laguntzaileak izanik. Ikusiko denez, aditz erroa baino ez da aldatzen paradigma batzuetatik besteetara.

<sup>45</sup> Aurrerago aztertuko beharko dut marka horren zentzua aktualtasun horretara mugatzen denetz, baina mementoz nahikoa dugu ideia horrekin.



zeina aditz erroari artez loturik ager baitaiteke<sup>46</sup> (hirugarren pertsonetan, kasu) edo *-n-* bat dela medio (lehen eta bigarren pertsonekin<sup>47</sup>). Komun dutenez aparte, gai urruneko “iragana” eta “alegiatzkoa” honengatik bereizten dira: hasteko, lehenengoan *-n* bat dagoelako adizki bukaeran; beste alde bat hirugarren pertsonetako adizkien hasieran agertzen den modu-aldi markan datza, *z̃-* iraganeko formetarako (Ø- mendebaldeko euskaran: *ebilen...*), *l-* alegiazkoetarako; horretaz gain, iraganeko adizkiak gramatikalak dira dauden bezala, [+ahala] tasuneko alegiazkoak (hots *-ke* hizkidunak) ere bai, baina [-ahala] baliokio (*-ke* gabeko) alegiazkoek, paradigmaman gidoi bat aurretik daramatenek, aurrizkiren bat behar dute onargarriak izateko,<sup>48</sup> hortxe agertzen diren bezala agramatikalak izanik. Gramatikal bihurtzen dituen aurrizkirik erabiliena baldintzazko *ba-* (*ij̃*) dugu:

- (50) \*nentor, \*hentor, \*letor, \*gentoz, \*zentoz, \*zentozte, \*letoz  
 Banentor, bahentor, baletor, bagentoz, bazentoz, bazentozte, baletoz

Baina gramatikal bihurtzearen ondorio bera dakar beste aurrizki batek, *al-* (> *ai-*)<sup>49</sup> optatibo edo aukerakarizko arkaikoak, zubereran oraingoz bizirik dagoena.<sup>50</sup>

<sup>46</sup> Ohiko azalpenetan aditz izenari lehen eta azken letrak kenduz isolatzen da aditz erroa (*egon* > *-go-*, *ibili* > *-bil-*, *etorri* > *-tor-*, *joan* > *-oa-*, *izan* > *-z̃a-*...). Hala ere, hasierako letra hori berori berragertzen da gai urruneko adizkietan (kontuan harturik *ibili* aditzaren forma arkaikoa *ebili* zela).

<sup>47</sup> Hala ere, herri hizkeran *-n-* hori ez da beti agertzen: *triste neguen* [= *nengoen*] *lehenago* ('before, I was sad') (Bilintx poetaren bertso ospetsuan bezala).

<sup>48</sup> Inoiz ere atzizki bat, baina horretara nire analisiak garatzeko orduan itzuliko naiz.

<sup>49</sup> “>” zeinuaz adierazi nahi da lehenengo formatik bigarrena ateratzen dela, kasu honetan aldaketa fonologikoen bidez. Inoiz, 46. oin-oharrean esaterako, zeinu bera zentzu zabalago batean erabiliko dut, forma bateko zati bat isolatzeko.

<sup>50</sup> (50)-eko adizkien analogoak sortzean agertzen diren fenomeno fonologikoengatik balirudike aurrizkia *ait-* dela. Asumituko dut itxura hori zor zaiola *bait-* aurrizkiarekiko analogiari.

## 1.1.2 Aditz laguntzaileak

IZAN NOR					
ALDIA →		ORAINA	IRAGANA	ALEGIAZKOA	AGINTERA <sup>51</sup>
MODUA ↓	ni	Naiz	Nintzen	-Nintz	Naiz-
	hi	Haiz	Hintzen	-Hintz	Haiz-
-AHALA	hura	da	zen <sup>52</sup>	-litz	Biz/[da-] <sup>[41]</sup>
	gu	Gara	Ginen	-Gina	Gara-
	zu	Zara	Zinen	-Zina	Zara-
	zuek	Zarete	Zineten	-Zinate	Zarete
	haiek	dira	ziren	-lira	Bira/[dira-]
+AHALA	ni	Naizateke	Nintzatekeen	Nintzateke	[ <sup>42</sup> ]
	hi	Haizateke	Hintzatekeen	Hintzateke	
	hura	dateke	zatekeen	litzateke	
	gu	Garateke	Ginatekeen	Ginateke	
	zu	Zarateke	Zinatekeen	Zinateke	
	zuek	Zaretekete	Zinateketen	Zinatekete	
	haiek	dirateke	ziratekeen	lirateke	

5. taula IZAN (to be). Komunztadura NOR edo absolutiboarekin bakarrik duten adizkiak.

*EDIN NOR					
ALDIA →		ORAINA	IRAGANA	ALEGIAZKOA	AGINTERA
MODUA ↓	ni	-Nadi-	Nendin	-Nendi	Nadi-
	hi	-Hadi-	Hendin	-Hendi	Hadi-
-AHALA	hura	-dadi-	zedin	-ledi	Gaitez-
	gu	-Gaitez-	Gintezzen	-Gintez	bedi/[dadi-] <sup>[41]</sup>
	zu	-Zaitez-	Zintezzen	-Zintez	Zaitez
	zuek	-Zaitezte-	Zintezten	-Zintezte	Zaitezte
	haiek	-daitez-	zitezen	-litez	bitez/[daitez-]
+AHALA	ni	Naiteke	Nintekeen	Ninteke	[ <sup>53</sup> ]
	hi	Haiteke	Hintekeen	Hinteke	
	hura	daiteke	zitekeen	liteke	
	gu	Gaitezke	Gintezkeen	Gintezke	
	zu	Zaitezke	Zintezkeen	Zintezke	
	zuek	Zaitezkete	Zintezketen	Zintezkete	
	haiek	daitezke	zitezkeen	litezke	

6. taula \*EDIN. Komunztadura NOR edo absolutiboarekin bakarrik duten adizkiak.

<sup>51</sup> Zutabe honetako adizkiak aginterakoak dira aditz trinko gisa erabiliz gero, ez —printzipioz— laguntzaile gisa, baina badago salbuespeneko erabilera bat ezezko aginduetan:

“Behe-Nafarreraz *izan* aditz laguntzaile obizkua lehenago aipatu ditugun berez agintekeraszko ez diren [?] ezezko aginduetan aditz laguntzaile gisa erabiltzen da:

([...]) *ez hizala jin!* (= ez badila jin!)

([...]) *ez hizala horrela mintza!* (= ez badila horrela mintza!).” Euskaltzaindia, *Gramatika Batzordea* (1987: 361).

<sup>52</sup> Zutabe honetako adizki gehienek (paradigma honetan eta trinkoenetan) *-an* bukaera erakusten dute mendebaldeko euskarari: *nintzan, hintzan, zan...* Azken forma honetan, *-za-* aditz erroari iraganeko *-n* marka gehituko litzaioke. Hipotesi baten arabera, hirugarren pertsonako iraganeko formek aditz guztietan erakusten duten hasierako *z-* hortik hedatua zatekeen analogiaz. Aditz iragankorren paradigmatik ikustean itzuliko naiz ideia horretara.

<sup>53</sup> Euskara baturako onartu ez diren arren, egon badaude *-ke* hizkiez hornituriko aginte adizkiak, Omachevarriak (1959) gogorarazi zuenez:

Aditz laguntzaile biokin, [+ahala] tasunaren marka *-teke* da, beste aditz guztietako *-ke* ezagunaren orde. Honen arrazoa iluna da oso —faktore diakroniko ezezagunak dirateke jokoan— eta, arazoak ez metatzearren, segidan aipatuko ditudan autoreek bezala *-ke* hizkiaren alomorfoztat joko dut *-teke* hau (eta honek barruratzen duen eta zubereraz IZAN eta \*EDIN-eko adizkietan bizirik dirauen *-te* hizkia):

*“Le basque dispose d’une catégorie flexionnelle particulière dont le signe distinctif est le suffixe -ke qui a un allomorphe -teke.” (Jendraschek 2007: 149)*

*“Nous ne pouvons, ici, rechercher si -ke et -te ont toujours existé l’un et l’autre ou si l’existence de deux suffixes -te et -ke résulte de transformations phonétiques. En tout cas, dès le XVI<sup>e</sup> siècle, les deux suffixes ont exactement la même valeur.” (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980 : 446)*

Ohar hori eginda, igaro naiteke paradigmatako beste xehetasunak azaltzera. Adizki trinkoen kasuan bezalaxe, alegiazkoaren zutabeetako goiko aldean agertzen diren formak agramatikalak dira *ba-* edo *al-* (> *ai-*) aurritziez lagundurik egon ezean. Trinkoekin urriagoa bazen ere, aditz laguntzaileekin errezago aurkitzen da erabilera bat tradizio literario zaharrean (ondoko aipamena 1643ko klasiko batetik aterata dago), zeinen arabera hirugarren aurritzki batek ere balio baitezake horrelakoak gramatikal bilakatzeko,

---

*“El Decisional no tiene más formas propias que las de segunda y tercera persona, en función de imperativo o yusivo y concesivo o deprecativo: «bar(tu) zak», «ikus(i) bezu», «eraman zazu», «sar(tu) bedi», etc. Admite también dos matices: normal o actual («eraman zazu», «sar(tu) bedi») y mitigado o eventual («eraman ezakezu», «sar(tu) beiteke»).” Omaechevarria (1959: 26)*

Txillardegi & Aurrekoetxeak (<sup>1</sup>1983, <sup>2</sup>1987: 53) ondokoak zerrendatzen dituzte bizkaierarako: *adike*, *bedike*, *zaitkez*, *zaitkeez*, *beitekez*.

Euskaltzaindiak “geroaldiko agintekeratza” jotzen ditu horrelakoak:

*“[...] moduari dagokionez markatuak badira ere, ez daramate adizkiok -ke morfema. Hala ere, aipa dezagun euskaru zaharrean bazela geroaldiko halako agintekera bat, bizkaituntzan desagertu egin zaiguna (“Pallardiza bigunari egioke ihesa, guztiz ere ez desira lagunaren esosa”).” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 378)*

testuinguru gehienetan (menderakuntzazko) *-n* atzizkiaren baliokidea den *bait-* aurrizkia:<sup>54</sup>

“*Eta abiatu zen berehala oiñez, untzirik eta xaluparik edo batelik gabe, leiborrean izan bailliꝯ [= bailitꝯ] bezala*” (Axular, Gero<sup>55</sup>: § 87)<sup>56</sup>

Sarri aurkitzen ahal dugu literatura *corpus* klasikoan *bait-* aurrizki hau iraganaren zutabeko adizkiekin, perpauis menderatuak egiteko (erlatibozkoak, kausazkoak,<sup>57</sup> kontsekutiboak...). Halaber, egitura berdinetan aurkitzen ahal dugu orainaren zutabeko adizkiekin, hauetako [–ahala] baliokoak gramatikal bilakatu. Izan ere paradigmotan ondokoa iruditzen zait ezaugarriak azpimagarriena, alegiazkoaren zutabeko goialdeko adizkiekin antzerako zerbait gertatzen dela \*EDIN laguntzailearen orainaren zutabean ere: dauden bezala

<sup>54</sup> Testuinguru gehienetan, baina zenbait salbuespenekin edo: Euskaltzaindiaren aburu, zehar galderatarako *-n* erabiltzen da, ez *bait-*.

<sup>55</sup> Literatura *corpus* klasikoa formatu digitalean kontsulta eta jaits daiteke klasikoen gordailutik: <<http://klasikoak.armiarma.com/>>

<sup>56</sup> Aipaturiko erabileran, ikusten denez, *bait...* *bezala* agertzen da arruntagotzat jo daitekeen *ba...* *bezala* (*as if...*) esapidearen orde. Lehenengo egitura, nire ustez, bigarrean somatzen omen zen gabezia sintaktiko bat gainditzeko erabiltzen hasi zatekeen. Kontuan hartzekoa da *bezala* erkatzailearen aurrean doan aditz jokatuak *-n* menderagailua behar duela bukaeran, egitura hipotetiko hauetan izan ezik. (Baina gai hau lotuta dago 48. oin-oharrekoarekin, eta nire analisisen garapenerako atzeratuko dut.) *Bait...*-*bezala* egituran *ba-* suposakariaren antzeko *-n* menderagailuaren baliokide batez baliatzea izan zatekeen asmoa. Azpimarratzekoa da autore modernoagoak okerki interpretatu bide zutela mekanismo hau eta menderagailu bikoitzaz hornituriko *bait...*-*n* egituraz baliatzen hasi zirela, hor ezabaezina zen *bezala* hitza desagertaraziz. Irizpide onez Euskaltzaindiak gaitzetsi du erabilera hori.

<sup>57</sup> Kausazkotzat jo dezakegu preskribakarizko *albait-* > *albeit-* aurrizki arkaikoan agertzen den *bait-* hizkia ere:

“*Dechepare [=Etxepare] et Liçarrague [=Leizarraga] emploient des formes qui contiennent [...] le préfixe albait-, albeit- : elles servent à exprimer un commandement, une prescription. Ces formes, que nous appellerons formes de prescriptif, et qui ont disparu de la langue, paraissent, au premier abord, avoir le même sens que les formes d’impératif. [...] Toutefois “Dechepare et Liçarrague n’emploient nulle part le prescriptif pour exprimer un ordre dont l’exécution n’est subordonnée à aucune condition et doit avoir lieu immédiatement.” (Lafon 1944, 21980 : 491)*

Ondoko adibidetik, zeinetan *al* (= *ahal*) eta *bait-* banandurik agertzen diren, iradoki daiteke egitura horren jatorria eta zentzua:

“*Obra hauk harrizzen die Etsaia gehienik, Hautan beraz al baitadi Hi treba maizkiekienik.*” (These works stop The Enemy [Devil] most, As far as you can, Practise these.) (Joanes Etxeberri, *Elizara erabiltzeko liburua*.) Badirudi aditz oinak betetzen duela hor aginterako funtzioa, eta *albait-* esapideak “*ahal denez*” (*as it is possible*) edo “*ahal delarik*” esan nahi duela.

agramatikalak dira adizkiok (azken zutabeen gidoiez ez inguraturik aginterakoekin —*hadi*, *zaitzez*, *zaitezte*— bat datozenak salbu). Gramatikalak izateko zerbaiten atxikipena behar dute. Esan berriko *bait-* menderagailuaz gain, *ba-* (eta *al-* > *ai-*) aurrizkiek ere balio dute adizkiok gramatikal bilakatzeko: *banadi*...

Aurrizkietatik atzizkietara igaroz, paradigmaman bertan agertzen da adizkiok gramatikal bihurtzeko atzizkietako bat: [+ahala] balioko formek duten *-ke* atzizkia. Horrez gain, egungo euskaran, *-la* eta *-n* atzizkiak erants dakizkieke, aurrenak hirugarren pertsonako aginte adizkiak sortzeko, atzenak lehen pertsonakoak eta pertsona guztietako “subjuntiboko” formak.<sup>58</sup> Izan ere, horrelako itsasketek subjuntibokoak izatera eraman ditzakete edozein aditzetako adizkiak:

*“Zernahi gisaz, ohartxo bat egin beharra da hemen: nadin edo dezadan bezalako adizkiak esaldi menderatuetan bakarrik ageri dira, subjuntiboaren kutsuarekin. Hala ere, nekez esan dezakegu nadin adizkia, esaterako, izan aditzaren subjuntiboa denik, aditz honek (eta berdin \*edun-ek ere) bai baitu bere subjuntiboa, nabiz gehienetan forma ibartuetan edo literatura pasarteetan bakarrik agertzen duen: dena dela, dugun edan, Jainkoak diela, e.a.” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 267)*

Azkenik, menderagailu gisan erabilia ere *-n* atzizkiak eusten dio adizkiok gramatikal bihurtzeko funtzioari, helburua, desioa eta antzekoak adierazteko balio duten osagarritzko perpaus menderatuetan. XVII. mendera arte aurkitzen ahal dira menderakuntzazko *-n* hizkitik eratorritakoen

<sup>58</sup> Egungo euskaran subjuntiboko forma horiek (gehienbat) helburuzko esaldi menderatuetako aditz gisa erabiltzen dira. Aurreko mendeetako literaturan *-nzat/-ntzat* (COMP<sub>for</sub>) bukaeraz baliatzen ziren helburuzko kutsu hori adierazteko. Aldaketa horren arrazoiaz geroago mintzatuko naiz.

erabilerak: *dadinean, nadino...*<sup>59</sup> Horrelakoen artean erabiler luzea izandako bakarra hau dugu: (58. oin-oharrean aipaturiko) helburua adierazteko *-ntzat* (COMP.*for*) lotura. Erabiler zaharron eta egungoen arteko aldearen arrazoia beranduago ikertuko dut. Mementoz nahikoa dugu azpimarratzea adizkiok gramatikal bihurtzeko balio bera erakusten dutela egungo euskaran ondoko hizkiek: *ba-, al-* (> *ai-*), *-ke, -n*, eta *-la*.<sup>60</sup> Honetatik garrantzizko aieru bat iradoki daiteke: orain arte ikusitako (eta aurrerago ikusiko diren) paradigmatako adizki gehienek zerrenda horretako aurrizki zein atzizkiren bat behar dute gramatikalak izateko, salbuespen bakarrak dira aginterako zenbait forma (bigarren pertsonakoak eta gai urruneko hirugarrenekoak) eta trinkoen eta (aditz iragangaitzeara mugatzen bagara) IZAN aditzaren “oraina” zutabeko [-ahala] multzokoak. Hizkiren bat behar izateak berdin aplikatzen zaie \*EDIN aditzen forma guztiei eta beste aditzetako gai urrunekoei. Paradigmatiko itxurak ezkutatu egin du antz hau, baina “iragana” zutabekoak ez dira gehiegi bereizten “alegiatzko” zutabekoetatik: kasu batean *-n* da eskatzen den marka,<sup>61</sup> besteetan *ba-* edo *-ke* delarik. Egoera berdina da aditz iragankorren kasuan, baina paradigmak konplexueagoak dira, bi kasuekiko komunztadura erakusten baitute (gutxienez), NOR absolutibo eta NORK ergatiboarekin.

## 1.2 Euskara batuko aditz jokatu iragankorren paradigmak

Aditz iragankorren paradigma guztiek egitura berdina dute, batetik bestera gehienbat aldatzen dira aditz erroa eta absolutibo pluralaren marka morfologikoa (*-it-, -tza-, -zki...*). Bestalde, absolutiboa hirugarren pertsonakoa duten gai urruneko adizkietan, ergatiboari dagozkion lehen eta bigarren pertsonako markak adizki hasieran agertzeraz igarotzen dira. Hirugarrenekoak

<sup>59</sup> Hortik aurrera oso autore gutxien lanetan irakur daiteke horrelakorik. Argi dago autore klasikoak ereduzat hartzen zituztela.

<sup>60</sup> Aurrerago aztertuko den aldaketa diakroniko sakonengatik, *buit-* aurrizkiak galduta leukake egungo euskaran antzinakoan bazuen funtzio hau.

<sup>61</sup> Azpieuskalki batean (hego nafarrera garaian) izan ezik, zeinetan *-n* atzizkia iraganaldiko pertsona guztietan falta baita. Jauskera hori ohikoa zen aspaldiko bizkaieran ere.

ẓ- batez hasten dira euskara batuan eta euskalki gehienetan (*ẓekarren, ẓeraman, ẓuen...*), baina bizkaieran marka hutsa mantendu da (*ekarren, eroan, euan > eban...*). Gertaerok funtsa ematen diote lehenago aipaturiko hipotesi hari zeinen arabera iraganeko hirugarren pertsonen -ẓ marka analogiaz hedatuko baitzen aditz guztietara IZAN aditzaren *ẓen/ ẓan* formatik.

Xalotasunari begira, laguntzaileen paradigmak baino ez ditut mahairatuko oraingoan, eta aginte adizki iragankorren ihardukaria hurrengo txatalera arte atzeratuko dut.

### 1.2.1 Aditz laguntzaileak

*EDUN																			
NOR - NORK																			
ALDIA →	ORAINA				IRAGANA				ALEGIAZKOA										
MODUA ↓	NOR		NORK		NOR		NORK		NOR		NORK								
-AHALA	Na	u		T	Nind	u		T	N	-Nind	u		T						
	Ha	u		K/N	Hind	u		K/N	N	-Hind	u		K/N						
	d	u		∅	(*)			∅	eN	(*)			∅						
	Ga	it	u		GU	Gint	u		GU	N	-Gint	u		GU					
	Za	it	u		ZU	Zint	u		ZU	N	-Zint	u		ZU					
	Za	it	u	z <sup>62</sup>	te	ZUe	Zint	u	z	te	ZUe	N	-Zint	u	z	te	ZUe		
	d	it	u	(z)	TE	(*)	(z)		TE	N	(*)	(z)		TE					
+AHALA	Na	u	ke	T	Nind	u	ke	T	N	Nind	u	ke	T						
	Ha	u	ke	K/N	Hind	u	ke	K/N	N	Hind	u	ke	K/N						
	d	u	ke	∅	(*)			∅	eN	(*)			∅						
	Ga	it	u	z	ke	GU	Gint	u	z	ke	GU	N	Gint	u	z	ke	GU		
	Za	it	u	z	ke	ZU	Zint	u	z	ke	ZU	N	Zint	u	z	ke	ZU		
	Za	it	u	z	ke	te	ZUe	Zint	u	z	ke	te	ZUe	N	Zint	u	z	ke	te
	d	it	u	z	ke	TE	(*)	(z)		TE	N	(*)	(z)		TE				

7. taula \*EDUN (to have). Komunizadura NOR absolutiboa eta NORK ergatiboarekin bakarrik erakusten duten adizkiak.

Tauletatik sortzen diren adizkiak zuzenki ondorioztatzeko kontuan hartu behar da pertsona bereko NOR eta NORK ezin konbina daitezkeela, desberdinak izan daitezkeen hirugarrenaren kasuan izan ezik. Ez dira zuzenak, beraz, *\*hauk* ezta ere *\*naugu* edo horrelakoak.

<sup>62</sup> Paradigma honetan eta ondokoan -ẓ- hauen xedea da *-tute-* eta *-tuke-* kakofonia saihestea.

Horrez gain, singularreko lehen eta bigarren pertsona marken ondoren kontsonante bat datorrenean *-a-* bat txertatu eta zenbait aldaketa fonologiko egotzi behar da: T + N > DaN; K+N > aN.

Izartxoia agertu da gai urrunean NOR kasua hirugarren pertsonakoa denean; lehen esandako arrazoiarengatik (ergatiboaren pertsona markak adizki hasieran agertzea) aparteko paradigmatan garatu ohi dira horiek:

*EDUN											
NORK - NOR											
ALDIA →	ORAINA			IRAGANA			ALEGIAZKOA				
MODUA ↓	NOR	NORK	NORK NOR			NORK NOR					
-AHALA			N	(it)	u		eN	-N	(it)	u	
			H	(it)	u		eN	-H	(it)	u	
			z	(it)	u		eN	-l	(it)	u	
			Gen	(it)	u		eN	-Gen	(it)	u	
			Zen	(it)	u		eN	-Zen	(it)	u	
			Zen	(it)	u	(z)	te	N	-Zen	(it)	u (z) te
+AHALA			z	(it)	u	(z)	te	N	-l	(it)	u (z) te
			N	(it)	u	(z)	ke	eN	N	(it)	u (z) ke
			H	(it)	u	(z)	ke	eN	H	(it)	u (z) ke
			z	(it)	u	(z)	ke	eN	l	(it)	u (z) ke
			Gen	(it)	u	(z)	ke	eN	Gen	(it)	u (z) ke
			Zen	(it)	u	(z)	ke	eN	Zen	(it)	u (z) ke
		Zen	(it)	u	(z)	ke	te	N	Zen	(it)	u (z) ke te
		z	(it)	u	(z)	ke	te	N	l	(it)	u (z) ke te

8. taula \*EDUN (to have). Komunitadura 3. pertsonako NOR absolutiboarekin eta edozein pertsonatako NORK ergatiboarekin erakusten duten gai urruneko adizkiak.



*EZAN														
NOR - NORK														
ALDIA →	ORAINA				IRAGANA				ALEGIAZKOA					
MODUA ↓	NOR		NORK		NOR		NORK		NOR					
-AHALA	-N(a/) <sup>63</sup>	(/e) <sup>64</sup> za	T	-	Nint	za	T	N	-Nint	za	T			
	-H(a/)	(/e)za	K/N	-	Hint	za	K/N	N	-Hint	za	K/N			
	-d	eza	Ø	-	(*)		Ø	eN	(*)		Ø			
	-Ga	it za	GU	-	Gint	za	GU	N	-Gint	za	GU			
	-Za	it za	ZU	-	Zint	za	ZU	N	-Zint	za	ZU			
	-Za	it za	te ZUe	-	Zint	za	te ZUe	N	-Zint	za	te ZUe			
+AHALA	-d	it za	TE	-	(*)		TE	N	(*)		TE			
	Na	(/e)za	ke	T	Nint	za	ke	T	N	Nint	za	ke	T	
	Ha	(/e)za	ke	K/N	Hint	za	ke	K/N	N	Hint	za	ke	K/N	
	d	eza	ke	Ø	(*)		Ø	eN	(*)		Ø			
	Ga	it za	ke	GU	Gint	za	ke	GU	N	Gint	za	z	ke	GU
	Za	it za	ke	ZU	Zint	za	ke	ZU	N	Zint	za	z	ke	ZU
Za	it za	ke	te ZUe	Zint	za	ke	te ZUe	N	Zint	za	z	ke	te ZUe	
d	it za	ke	TE	(*)		TE	N	(*)		TE				

9. taula \*EZAN. Komunitadura NOR absolutiboa eta NORK ergatiboarekin bakarrik erakusten duten adizkiak.

\*EDUNekin bezalaxe, orainaldikoak ez diren hirugarren pertsonako NOR kasuari dagozkion paradigmak, aparte garatu ohi dira. Hona hemen:

*EZAN														
NORK - NOR														
ALDIA →	ORAINA				IRAGANA				ALEGIAZKOA					
MODUA ↓	NOR		NORK		NORK		NOR		NORK					
-AHALA					N	(it/)	(/e)za	N	-N	(it/)	(e)za			
					H	(it/)	(/e)za	N	-H	(it/)	(e)za			
					z	(it/)	(/e)za	N	-l	(it/)	(e)za			
					Gen	(it/)	(/e)za	N	-Gen	(it/)	(e)za			
					Zen	(it/)	(/e)za	N	-Zen	(it/)	(e)za			
					Zen	(it/)	(/e)za	te	N	-Zen	(it/)	(e)za	te	
+AHALA					z	(it/)	(/e)za	te	N	-l	(it/)	(e)za	te	
					N	(it/)	(/e)za	ke	eN	N	(it/)	(/e)za	ke	
					H	(it/)	(/e)za	ke	eN	H	(it/)	(/e)za	ke	
					z	(it/)	(/e)za	ke	eN	l	(it/)	(/e)za	ke	
					Gen	(it/)	(/e)za	ke	eN	Gen	(it/)	(/e)za	ke	
					Zen	(it/)	(/e)za	ke	eN	Zen	(it/)	(/e)za	ke	
				Zen	(it/)	(/e)za	ke	te	N	Zen	(it/)	(/e)za	ke	te
				z	(it/)	(/e)za	ke	te	N	l	(it/)	(/e)za	ke	te

10. taula \*EZAN. Komunitadura 3. pertsonako NOR absolutiboarekin eta edozein pertsonatako NORK ergatiboarekin erakusten duten gai urruneko adizkiak.

<sup>63</sup> Euskara batuan paradigma honetan 1. Eta 2. pertsonako marken ondoren loturazko *-a-* doan arren, zenbait euskalki zaharretan erroko *-e-* mantentzen da: *nezazun...*

<sup>64</sup> Erroaren zatia den *-e-* hau gutxitan mantentzen da. Ezabatzen dute bai orainaldiko *-a-* loturazkoak, bai pluraleko *-it-* markak, bai gai urruneko pertsona marka silabikoek (*nen- > nin-...*). Hori dela eta, mantenduko ez duten adizkien lerroetan, ez dut ezta parentesi artean ere ipini.

## 1.2.2 Laguntzaile iragankorren aginte adizkiak

Aurrekoetan bezala, aditz iragankorren lehen pertsonako aginte adizkiak gai hurbilekoak dira eta *-n* atzizkia behar dute bukaeran; hirugarren pertsonakoen artean aukera bi agertzen dira berriz ere, gai hurbilekoek, aktualtasun *d-* markaz hasitakoek, *-la* hizkiaren beharra erakusten dute, inoiz (forma ihartuetan) *-n*:

*“Hain zuzen, atzizki hauekin [-n, -la] joan daitezke beste laguntzaile batzu ere. Hori da zenbait adizki iharturekin gertatzen datekeena. Gure sailkapena "forman" oinarritzen da hortaz. Kontu bera dugu adizki ihartu batzutan ere, "subjuntibo zabar" edo deituekin,<sup>[65]</sup> eta formaz bestelako berezitasun gabe agertzen zaizkigumetan: **dugun edan, dena dela (dena den), dugun ttanttatto bana, Jainkoak dagizula (edo dizula) egunon, datorrela, dagoela, on dagizula, on dizula, bejon dizula, Gabon Jainkoak diela, dugun otoitz egin, e.a.**” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1987: 138)*

Hirugarren pertsonako bestelako aginte adizkiek nahikoa dute berariazko *b-* marka hasieran eramatea, baina adizkiok, beste aginte adizkiak ez bezala, gai urrunekoak dira eta, printzipioz, hirugarren pertsonakoak dira bai NORK, bai NOR kasuen komunztaduran.<sup>66</sup>

Azkenik, bigarren pertsonari zuzendutako aginte adizkiak (gai hurbilekoak direnak) guztiz biluzik agertzen dira, hau da, horietan 3. pertsonako NOR absolutiboaren marka hutsa (pluralean *-it-*) ez du inolako

---

<sup>65</sup> Aurrerago defendatuko dut aipamen honetako adibideak eta hauen antzekoak ez direla “subjuntiboko” formak, aginterakoak baizik.

<sup>66</sup> Ekialdeko zenbait euskalkitan, prozedura hori hedatu egin da analogiaz NOR kasuko edozein pertsonako adizkiak sortzeko: *benezu* (= *nažala*)... Ikusi Lafitte (1944, 82008: § 554)

modu markak ezkututzen, ezta beste paradigmetakoko *d-* aktualtasun markak ere.<sup>67</sup> Hona hemen \*EZAN laguntzailearen aginte adizkiak sortzeko paradigmak:

*EZAN NOR - NORK						
H(a)-				-T-	}	
d-				-Ø-		
Z(a)-	-it/-	}	-(/e)za-	-GU-	}	
Z(a)-	-it/-					
d-	-it/-			-te-		
				-TE-		
					-n/-la	

11. taula \*EZAN. Gai hurbileko lehen eta birugarren pertsonako aginte adizkiak.

*EZAN NOR - NORK					
N(a)-					-K/N
Ø-		}			
G(a)-	-it/-			-(/e)za-	-ZU
					-ZUE
Ø-	-it/-				

12. taula \*EZAN. Gai hurbileko bigarren pertsonako aginte adizkiak.

*EZAN NORK - NOR					
b-		}			-Ø
				-(/e)za-	
b-	-it/-				-TE-

13. taula \*EZAN. Gai urruneko birugarren pertsonako aginte adizkiak.<sup>68</sup>

<sup>67</sup> Dena den, 2. pertsonari zuzendutako ezezko aginduak bestelako molde honetan erabiliagoak izan dira: *ez dezazula...* (= *ez ezazu...*).

Erroa egokiro ordezkatzuz gero, beste aditzetako aginte adizkiak sor daitezke, adibidez:

*“Beste honako adizkiok ere (-za- ez baizik -u- erro dutenok) ontzat eman ditugu. Ikus, euk, eun, beu, euzu, euzue, beute. Eta \*ituk, \*itun, bitu, \*ituzu, \*ituzue, \*bituzte.” (Euskaltzaindia 1997: 542)*

Honenbestez ikusiak ditugu behar adinako adizki paradigmak. Ondoko txatalean jokaera perifrastikoan aditz laguntzaileek duten erabilera jorratuko da.

### 1.3 Jokaera perifrastikoa eta aditz aspektuaren markak

#### 1.3.1 Bertsio ofiziala

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak (1993: 254) oso era errazean adierazi ditu jokaera perifrastikoaren aldaerak:

*“Ikus ditzagun honako adibideok:*

*[...] ekarri du*

*[...] ekartzen du*

*[...] ekarriko du*

*[...] ekar dezake*

*“Lau adibide horien artean, lehenbiziko hiruretan aspektuaren marka ageri da (-i, -tzen, -iko) aditzoinari atxikia, eta azkenekoan ez da inolako markarik. Gainera, lehenbiziko hirurek adizki laguntzaile bera daramate (du), eta azkenak beste bat desberdina (dezake).*

---

<sup>68</sup> Ikusi 66. oin-oharra.

*Berehala azalduko da zer esan nahi duen horrek.*” (*Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 254*)

Aspektu markak honakoak dira:

1. Burutua: *-tu/-du, -i, eta -Ø* zenbait aditzetan (aditzoina honela bukatzen bada: *-n, -o, -a*). Azpimarratzekoa da bizkaieraz \*EDIN eta (\*EZAN-en ordeztu erabiltzen den) EGIN laguntzaileekin doan aditz izenak bukaera hauek erakusten dituela, eta ez aditz oina beste euskalkietan bezala.
2. Burutugabea: *-tzen, -ten, eta bizkaieraz -etan* ere bai.
3. Geroa: *-ko/-go, -(r)en*, baita bien konbinaketa ere, *-(r)enko*.

Hona hemen aginduriko azalpena marka horien esanahiaz:

*“Zertarako erabiltzen du hizkuntzak [sic] aspektu marka hau? Badirudi hiztunak adierazi nahi duen prozesuaren berri ematen duela kategoria honetaz baliaturik. Horrela etorri da esaten denean aditzak adierazten duen egoera, prozesu, ekintza edo dena delakoa<sup>[69]</sup> burututzat, amaitutzat jotzen da. Aldiz, prozesu hori hasi bai baina burutu gabe dagoelarik etortzen da edo halako zerbaitez esango da. Azkenik, prozesua gertakizun baldin bada etorriko da dugu hiztunak aukeratzen duena. Hortxe daude, hortaz, hiru markak: burutua (etorri), burutugabea (etortzen), eta geroa (etorriko).”*  
*(Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 254-255)*

---

<sup>69</sup> “Gertaera” (*eventuality*) esango genuke, sarrerako atalean aurkezturiko terminoa erabiliz.

Hiru marka horiek edo euren gabezia edozein aldirekin konbina daitezkeela esan eta gero, [ $\pm$ burutu,  $\pm$ gero] tasun abstraktuen ondoko balioen emaitzatzat jotzen dituzte: burutua [+burutu, -gero], burutugabea [-burutu, -gero], geroa [-burutu, +gero], markabakoari tasun hauek aplikatzen ez omen zaizkion bitartean.

Nire ustez argi dago gauza bat dela aspektu marka morfologiko espliziturik ez izatea eta beste bat semantikoki aspekturik ez izatea.<sup>70</sup> Ikusitako oposiziotik iradoki daiteke aspektua badagoela *aditz oina* + \*EDIN/\*EZAN *laguntzailea* egituran, eta hori atzemateko gai ez izanik, [ $\pm$ burutu,  $\pm$ gero] tasunak ez direla nahikoak aspektuaren analisi semantikorako. Eremita teorikoaren aurkezpena garatu arte itxaron beharko du nire bertsioak. Hartan berrikusiko dudan planteamenduarekin erlazionaturiko azalpen alternatibo bi mahairatuko ditut hemen bitartean.

### 1.3.2 Euskal aspektuaren zenbait aurkezpen hizkuntzalaritza tipologikoan

Gure inguru hurbilenetik aldenduz, kontuan hartzekoak diren aurkezpen bi ekarriko ditut hona. Lehena Martin Haaserena (1994) dugu, zeina oinarritzen baita bereziki Lafitteren (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008) eta Lafonen (<sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980) lanetan. Euskal aditzaren aspektua, haren ustez, ondoko koadroetan jasotakoa da, lehena adizki trinkoak dituzten aditzetarako, eta bigarrena horrelakoak falta dituztenetarako:

---

<sup>70</sup> Izan ere, Euskaltzaindiak berak horixe defendatzen du adizki trinkoen kasurako (adizki trinkoen aspektua geroago aztertu beharreko puntua denez, ezabatuko dut aipamenetik horretaz defendatzen duten jarrerari dagokiona):

*“Lehen esan baldin bada ere adizki trinkoetan ez dela aspektu markarik, badirudi dator, dakar, dabil, doa eta balako adizkiak [...] zerbaiti lotzen dizkiogula (bala nola etorriko da, adibidez, geroari lotzen diogun. Adizki trinkoek [...] markatzen dutela esan dezakegu hortaz, Hori dela eta, etorri da adizkian aspektua aditz nagusian markatua den*

	present	past
synthetical constr.	simple present (aspectually neutral)	simple past <sup>[71]</sup>
analytical constr.: inessive verbal noun <sup>72</sup>	present progressive (habitual)	imperfective past <sup>[73]</sup>
participle <sup>74</sup>	present perfect	perfective past
participle + <i>ko</i> (-en) <sup>75</sup>	future	future of the past
participle + a(k), (+ -rik/-ta)	resultative	pluperfect

14. taula Adizki trinkoak dituzten euskal aditzzen aspektua. Haase (1994: 3. taula)

	present auxiliary	past auxiliary
inessive verbal noun	simple present (aspectually neutral)	imperfective past
participle	present perfect	perfective past
participle + <i>ko</i> (-en) <sup>75</sup>	future	future of the past
participle + a(k), (+ -rik/-ta)	resultative	pluperfect

15. taula Adizki trinkorik ez duten euskal aditzzen aspektua. Haase (1994: 2. taula)

Hortik abiatuta, Rolf Thieroffek (2000) beste bertsio hau eskaintzen digu, adizki trinkoak dituzten aditzak albo batera utzirik:

	unmarked for perfectivity non-past	past/imperfect	aoist
unmarked	kantatzen du	kantatzen zuen	kantatu zuen
anterior	kantatu du	kantatua zuen	
future	kantatuko du	kantatuko zuen	

16. taula Euskal jokaera perifrastikoaren aspektua. Thieroff (2000: 273)

*bezala, dator adizkian ere aspektu [...] edo dagoela esanen dugu, marka jakinik ez den arren.* (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 268-269)

<sup>71</sup> Hau ere aspektualki neutrala, (Haase 1994: § 4).

<sup>72</sup> Euskaltzaindiaren aburuko burutugabearen *-t(z)en* marka.

<sup>73</sup> “The ‘imperfective’ aspect means that the viewpoint of the speaker is inside the action whereas the perfective aspect is an action seen from the outside.” (Raible 1990: 195)

<sup>74</sup> Aditz oinari Euskaltzaindiaren aburuko burutuaren markak gehituz lortzen dena: *-tu, -du, -i, -Ø*.

<sup>75</sup> Euskaltzaindiaren aburuko geroaren markak partizipioari eransten zaizkio, ez aditz oinari. Hau egia da ikuspegi morfoloigiko batetik, baina arrazoiak huski morfoloigikoak dirateke eta ez semantikoak: nolabaiteko debekua dagoke *-ko/-r(en)* atzizkia zuzenki itsasteko kontsonantez bukatutako aditz oin bati, kontsonante hori *-n* ez bada. Ez dugu alde aurretik suposatu behar semantika aldetik ere partizipioaren esanahia konposizionalki barruratu behar denik *-tuko, -iko* eta antzeko formadun adierazpideetan. “Participle + *ko* (-en)” idatzi beharrean, agian zuzenagoa dateke “aditz oina + (-tu/-i)ko/(r)en”.

Thieroffek berak seinalatzen duenez, Haaseren *imperfective past* eta *perfective past* bat datoz, hurrenez hurren, haren *imperfect* eta *aoristekin*. Autorearen xedea da erakustea morfologikoki konposatuak izan arren, horrelako formak ez dutela zertan semantikoki ere konposatuak izan. Hortik dator analisi bien arteko aldea: Thieroffen ustez, itxuraz antzekoak izan arren *partizipioa* + (-a /-ak) + *laguntzailea* egiturak oso zentzu desberdina du orainaldiko eta lehenaldiko laguntzaileekin:

*“The bare participle has quite different meanings in collocation with the present and past auxiliary, and the same is true for the participle + -a(k) construction.” (Thieroff 2000: 273)*

Hala ere, autoreak ez du adibiderik mahairatzen bere tesiaren defentsarako.<sup>76</sup> Badirudi Thieroffek azken ondorioetara ekarri duela Haaseren ideia hau:

*“Thus, the formal opposition between verbal noun and participle distinguishes imperfective and perfective aspect in the past, whereas in the present tense is used for distinguishing simple present and perfect. This is summarized in the following table: [haren 1. taula, 2.eko (hemengo 15. taulako) lehen bi herrenkadak dakartzana.]*

*“The perfective/imperfective distinction is the same as in Romance languages.” (Haase 1994: § 1.2.2)*

Datu enpirikoetan baino, Haasek egindako erromantzeekiko berdinketan datza Thieroffen analisisa. Dependentsia bera ikusten dut beste analisi batean,

---

<sup>76</sup> Hona hemen nire aburuko bat:

Oraingoz ez du egin/egina. (*(S)He has not done it yet.*)

Ordurako ez zuen <sup>?</sup>egin/egina. (*(S)He had not done it yet.*)

Hala ere, nire susmoa da horrelakoetan aldea ez zaiola zor egitura horiei baizik eta beste zerbaiti. Beranduago itzuliko naiz puntu honetara.



Lars Johansonenean (2000), zeinak lagunduko digun erromantzeetako aspektu alde horiek egokiro ulertzen. Analisi horren ondoren berraztertu ahalko dugu euskararen aspektu oposizioak horien baliokide hutsak diren ala ez. Horrek, baina, esan bezala, itxaron beharko du eremu teorikoa azaldu arte, oraingoz dagokiguna euskal aditzaren hasierako aurkezpena bukatzea da. Hortaz, aztertu beharra dago zergatik orain arteko azalpenetan horren gutxi agertu zaigun aditz moduaren inguruan.

#### 1.4 Euskaltzaindiaren jarrera gorabeheratsua aditz moduaren inguruan

Aurreko txataletako koadroetan erakutsi denez, Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen azalpenetan desagertuta daude ohiko modu izendapenak, “indikatio”, “subjuntio” eta horrelakoak. Horren ordez, +AHALA eta -AHALA moduez mintzo dira, inoiz (*Aditz laguntzaile batua* izeneko lanean adibidez) +KE eta -KE bezala ere ezaugarrituak. Haien asmoa da, ahal den neurrian, deskribapena irizpide formaletan, hots morfologikoetan, oinarritzea. Asmo hori, hala ere, ezin ase daiteke “agintera” bezalako kategoria bat erabili den mementotik. Kategoria hori semantikoa izateaz gain, ikusia dugu euskal aginte adizkiek ez dutela erakusten inolako batasun morfologikorik. Hala eta guztiz ere, forma anitz horiek aginterakotzat jo direnez gero, eskubidea dugu galdetzeko zein etiketapetan sartu behar liritekeen gainontzekoak: “agintera” izendapena modu batena izan da gramatikagintzaren usadioan, “indikatio”, “subjuntio” eta horrelakoei kontrajarria. Koadroetan agertu ez arren, Euskaltzaindiak morfologikoki indikatibokotzat jo ditu nonbaiten aginteraz bestekoak (-*ke* hizkiaz ez hornituak behintzat), nahiz eta batzuen “kutsua” subjuntibokoa izan:

*[...] forma aldetik, etorri naiz, etor nadin, ikusi dut, ikus dezadan adizkietan ageri diren aditz laguntzaileak indikatiboko adizkiak dira denak, nabiz, esan dugun legez, aditz laguntzaile desberdinei dagozkien. Zernahi gisaz, ohartxo bat egin beharra da*

*hemen: nadin edo dezadan bezalako adizkiak esaldi menderatuetan bakarrik ageri dira, subjuntiboaren kutsuarekin. Hala ere, nekez esan dezakegu nadin adizkia, esaterako, izan aditzaren subjuntiboa denik, aditz honek (eta berdin \*edun-ek ere) bai baitu bere subjuntiboa, nabiz gehienetan forma ihartuetan edo literatura pasarteetan bakarrik agertzen duen: dena dela, dugun edan, Jainkoak diela, e.a.”*  
*(Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 266-267)*

Adierazpena ilun samarra bada ere, uste dut honela ulertu behar dela aipamen hori: morfologikoki indikatibokoetatik bereiztu ez arren (honen arrazoi diakronikoak ikustekoak ditugu aurrerago), \*EDIN eta \*EZAN (zein EGIN) aditzen *-n* atzizkidun adizkiak, gaur egun subjuntibokoak lirateke.<sup>77</sup> Beste zenbait lekutan mintzo dira interpretazio honen alde:

*“Orain arte adizkien forma bakarrik izan dugu kontuan eta forma horretan oinarriturik ez dugu beharrezkotzat jo “subjuntibo” eta horrelako izenak erabiltzea. Hala ere, gure bideari jarraituz gero, zenbait adizkiren deitzeko --zenbait forma deitzeko, alegia-- nabikoa burubauste izango ditugu. Adibidez, **etor dadin** bezalako adizki bat honelatsu deitu beharko genuke: "etorri aditzaren aspektu gabeko **\*edin** oraina ez-ahalezkoa". Hau, agian, nabaste iturri izan liteke. Horregatik, zenbaitetan, eroso gerta daitekeelakoan subjuntibo hitza ere erabiliko dugu. Deitura hori **-dadi-** edo **-deza-** laguntzaileen saillekoentzat gordeko dugu, bereziki **-n** edo **-la** atzizkia ez hornitua doanean”. (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1987, 138)*

Bestelako aditzekin ere, atzizkiok subjuntiboko formak era ditzakete, esandako legez hauek ihartuzat jo daitezkeen arren; gogoratu:

*“Kontu bera dugu adizki ibartu batzutan ere, "subjuntibo zabar" edo deituekin, eta formaꝥ bestelako berezitasun gabe agertzen zaiꝥkigunetan: dugun edan, dena dela, dugun ttanttatto bana (herri kantua), Jainkoak dagizula (edo dizula) egunon, datorrela, dagoela, on dagizula, on dizula, bejon dizula, Gabon Jainkoak diela, dugun otoitz egin, e.a.” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1987, 138)*

Nahiz eta atal honetako paradigmetan ez agertu, argi dago “subjuntibo” (eta “indikativo”) deiturak leku bat behar duela, aginterarekin batera, euskal adizkien analisisian.<sup>78</sup> Tradizio luze batek oinarritzen du hori, eta gainbegirada bat emango diot ondoko txatalean, zeinetan XVIII. eta XIX. mendeko zenbait autorek proposaturiko sailkapenak agertuko diren. Segidan, garai hurbilagoetako beste sailkapen batzuk mahairatuko ditut, erakustearren alde batetik zenbait gramatkarik bestelako modu izendapenak erabili dituztela txatal honetan adibide gisa agertu diren adizkietarako, eta bestetik, gainontzeko hizkien bidez sorturikoek ere jaso dituztela berariazko izendapenak. Komeni da horren berri izatea gertaera ikuspegiaren sistematizazioari ekin aurretik.

---

<sup>77</sup> Eta segidan esango denez *-(e)la* atzizkidunak ere bai.

<sup>78</sup> Geroztiko lanetan (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1999, adibidez) +SUBJ eta –SUBJ tasun batez ere baliatu dira, zenbait perpaus menderatuek eskatzen duten adizki mota zehazteko. Norabide honetan argudiatua zuen, esaterako, P. Goenagak (1997).

## 1.5 Euskal aditzaren zenbait trataera zahar

### 1.5.1 XVIII. mendeko abiapuntua: Larramendiren *El Impossible Vencido* (1729)

Euskal gramatikagintzaren lehen urratsak liburu horretan aurki daitezke. Autoreak ohiko ikuspegiari jarraitu zion eta suposatutzat joko zuen euskaraz ere hiru boz (diatesi) daudela: aktiboa, pasiboa eta neutroa (1729: 43). Jokaera erregularra perifrastikoa da (*compuesta*, 1729: 45), irregularra trinkoa den bitartean (*simple*, 1729: 46). Haren ustez, gaztelaniako jokaera konposatua euskararenaren imitazioz sortu zen (1729: 48). Onartzen du euskararako, beraz, aspektu-aldien bidezko ohiko sailkapena. Hona hemen jokaera perifrastikoaren taula bat, kanpoan utziz berak “modu infinitiboaren” pean sartu zuena:

Aldiak → Moduak ↓	Orainaldia	Iraganaldia										Geroaldia		
Agintera	--	--										<i>Jan ezác</i> [=ezake]		
Indikatiboa	<i>Jaten det</i> [=dut]	Burutugabea	Burutua					Pluskuanperfektua					Burutugabea	Burutua
			Hurbila			Urruna								
		<i>Jaten núen</i>	<i>Jan det</i> [=dut]			<i>Jan núen</i>		<i>Jan-izán núen</i>					<i>Jango det</i>	<i>Jan-izango det</i>
Optatibo edo subjuntiboa	<i>Jan dezadán/ dezadala</i>	Burutua	Burutugabea <sup>79</sup>					Pluskuanperfektua					Baldinerakoa	
			Absolutua			Baldinerakoa		Absolutua		Baldinerakoa				
			1	2	3	1	3	1	2	1	2	3		
			--	<i>Jangó nuqué</i> [=nu-ke]	<i>Jangó núen</i>	<i>Jan nezán / nezalá</i>	<i>Jaten banú</i>	<i>Jan ba-nezú</i>	<i>Jan-izangó núque</i>	<i>Jan-izangó núen</i>	<i>Jan-izán banú</i>	<i>Jan-izán banuen</i>		<i>Jan-izán banezú</i>

17. taula Euskal aditz jokatuaren sailkapena Larramendiren (1729) arabera.

Larramendiren oihartzuna ukaezina da ondorengo autoreen lanetan.

### 1.5.2 XIX. mendeko bizpahiru ikuspegi

Euskal aditzaren ikergintzan zalantzezina da Juan Mateo Zavalaren (1848) *El Verbo Regular Vascongado del Dialecto Vizcaíno* idazkiaren eragina. Gauza askotan Astarloaren (1803) *Apología de la lengua bascongada* lanari jarraitzen dio, autore beraren (1805) *Discursos filosóficos* tamalez ezagutu ez zituela.

<sup>79</sup> Kontuan hartu indikatibotik optatibora burutugabearen eta burutuaren lekuak trukatuta agertzen direla taula larregi zabal ez dadin.

Biek bereizten dituzte hiru boz: aktiboa, pasiboa eta mistoa edo neutroa. Moduak hamaika dira Astarloaren aburu, Zavalak zortzira murrizten dituela. Hona hemen zerrenda biak, dagozkien markak adieraziz (Gómez López 2008tik hartua eta euskaratua):

ASTARLOA	EZAUGARRIAK (DF)	ZABALA [sic]	EZAUGARRIAK
infinitekua	o	infinitekua	tempus, num., perts. ez
indikatiua edo aktuala	tempus, num., perts.	indikatiua	baiespen hutsa
ohikua	oi/eruan [=ohi/eroan]	ohikua	yoan [=joan], eroan (B), izan
ahalera	al/eguin [=ahal/egin]	ahalera	eguin (+ -ke)
borondatekua	nai [=nahi], gura		
beharrekua	biar [=behar]		
halabeharrekua	eraso, eraguin [=eragin]		
agintera	eguin + -o	agintera	eguin
subjuntibua	eguin + -n	subjuntibua	eguin + -la, -keala, -n
optatiua	-que [=ke]	optatiua	-ko al
penitindarioa	ba-		
		baldinera	ba-, -ke(an)

18. taula Enskal aditzaren moduak Astarloaren (1803, 1805) eta Zavalaren (1848) arabera

Zavalak hiru aldi onartzen ditu (orainaldia, iraganaldia eta geroaldia) baina haren ustez hiru harreman hauek ere kontuan hartu behar dira: aldiberekotasuna, aurrekotasuna eta ondorengotasuna.<sup>80</sup> Ikuspegi bien konbinaketatik berrogei “*tensø*” sortzen dira (burutu eta burutugabeak...), Larramendiri jarraituz eta Azkueren adizki galdetegien oinarria eskainiz.

Hortaz, Astarloaren ikuspegia (1805), indikatiboari dagokionean, beste taula honetan laburbiltzen da (hau ere Gómez López 2008tik hartua eta euskaratua):

	ORAINALDIA (-ten)	IRAGANALDIA (-o)	GEROALDIA (-go)
ERREALA (-o)	il-ten dot	il dot	il-go dot
APOSTROFIKOA (-n)	il-ten neban	il neban	il-go neban

19. taula Enskal aditzaren aldiak Astarloaren arabera (1805)

XIX. mendeko hirugarren lan baten trataera mahairatuko dut, Emmanuel Inchausperen 1858ko *Le Verbe Basque*. Bozak bi hauetara mugatzen ditu: iragangaitza eta iragankorra. Zazpi modu bereizten ditu: indikatiboa, agintera, subjuntiboa, botiboa, baldinera, baldintzapekoa eta

<sup>80</sup> Aplikatzeko orduan, dena den, bereizketa hau erabiltzen du iraganeko eta ahalarako geroaldia dela eta: hurbila eta urruna.

ahalera (1858: 2). Infinitiboa aditz izentzat jotzen du (1858: 3). Haren aburu hiru forma mota desberdindu behar dira: forma “lehenak edo kapitalak” (*premières ou capitales*, perpau nagusikoak), “gubernatuak” (*régies*, perpau menderatukoak) eta “intzidentziakoak” (*d’incidence*). Azken hauek *bait*-aurrizkidunak dira. Gubernatuen artean *-la* atzizkidunak dira “forma gobernatu positiboak” (*formes régies positives*) eta *-n* hizkidunak “forma gobernatu eskisitiboak” (*formes régies exclusives*). “Subjuntiboa”, izatez, “modu gobernatu optatiboa” da. Denborazko ezaugarriak direla eta, konbinaketa asko sortzen dira jokaera perifrastikoa, aginteran izan ezik. Hona hemen indikatiboko forma lehenei dagozkienak:<sup>81</sup>

Aditz laguntzailearen aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
Jokaera perifrastikoko aspektu-aldiak		
Orainaldia	Iragan burutugabea	Oraineko geroaldia
<i>Gáltzen da/ du</i>	<i>Gáltzen zen/ zían [=zuen]</i>	<i>Gáltzen date/ dúke</i>
Burutua	Iragan burutua	Geroaldi burutua
<i>Gáldu da/ du</i>	<i>Gáldu zen/ zían</i>	<i>Gáldu date/ dúke</i>
Burutu absolutua	Iragan burutu absolutua	Geroaldi burutu absolutua
<i>Gáldurik da/ du</i>	<i>Gáldurik zen/ zían</i>	<i>Gáldurik date/ dúke</i>
Lehenagoko burutua	Lehenagoko iragana	Lehenagoko geroaldia
<i>Gáldu izán da/ ukbén du</i>	<i>Gáldu izan zen/ úkben zían</i>	<i>Gáldu izan date/ úkben dúke</i>
Lehenagoko burutu absolutua	Lehenagoko iragan absolutua	Lehenagoko geroaldi absolutua
<i>Gáldurik izán da/ ukbén du</i>	<i>Gáldurik izan zen/ ukben zían</i>	<i>Gáldurik izan date/ úkben dúke</i>
Orainaldi propositibo edo gerokoa	Iragan propositibo edo gerokoa	= <i>Gáldu zítekian/ gáldu zúkian</i>
<i>Gálduren da/ du</i>	<i>Gálduren/ gálduko zen/ zían</i>	
Burutu propositiboa edo gerokoa	Lehenagoko iragan propositiboa (gutxi erabilia)	= <i>Gáldu izan zítekian/ úkben zúkian</i>
<i>Gáldu izánen da/ ukbénen du</i>	<i>Gáldu izánen zen/ ukbénen zían</i>	
Burutu propositibo edo geroko absolutua	Iragan propositibo absolutua	= <i>Gáldurik izan zítekian</i>
<i>Gáldurik izánen da/ ukbénen du</i>	<i>Gáldurik izánen zen/ ukbénen zían</i>	

20. taula Indikatiboko forma lehenen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.

Baldinera eta botiboan bereiztu behar dira \*EDIN eta \*EZAN aditzen formak, geroaldikoak, eta beste aditzenak, zeinetan orainaldia, burutua, burutu absolutua eta —“lehenagoko burutu absolutuaren” ordez— pluskuanperfektua (*jóanik izan bálitz*) agertzen diren.

<sup>81</sup> Kontuan hartu behar da Inchauspek emandako formak zubererakoak direla.

Aditz laguntzailearen aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
Jokaera perifrastikoko aspektu-aldiak		
Orainaldia	Iragan burutugabea	Geroaldia
<i>Gáltzen bálitz/ bálu</i>	<i>Gáltzen bazén/ bazían</i>	<i>Gál balédi/ baléza</i>
Burutua	Iraganeko burutua	--
<i>Gáldu bálitz/ bálu</i>	<i>Gáldu bazén/ bazían</i>	--
Burutu absolutua	Iraganeko burutu absolutua	--
<i>Gáldurik bálitz/ bálu</i>	<i>Gáldurik bazén/ bazían</i>	--
Pluskuanperfektu (absolutua)	Iraganeko pluskuanperfektu absolutua	--
<i>Gáldurik izán bálitz/ ukhén bálu</i>	<i>Gáldurik izán bazén/ ukhén bazían</i>	--

21. taula Baldinerako formen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.

Aditz laguntzailearen aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
Jokaera perifrastikoko aspektu-aldiak		
Orainaldia	--	Geroaldia
<i>Áilitz/ áilu gáltzen</i>	--	<i>Áilédi/ áiléza gal</i>
Burutua	--	--
<i>Áilitz/ áilu gáldu</i>	--	--
Burutu absolutua	--	--
<i>Áilitz/ áilu gáldurik</i>	--	--
Pluskuanperfektua	--	--
<i>Áilitz/ áilu izán gáldurik</i>	--	--

22. taula Botiboko formen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.

Ahaleran, orainaldi eta geroaldia bat datoz (*jóan dáite*); horrez gain, burutua eta burutu absolutua daude. Iraganaldian hauexek dagozkie: iraganaldia, lehenagoko iraganaldia eta iraganaldi absolutua.

Aditz laguntzailearen aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
Jokaera perifrastikoko aspektu-aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
<i>Gal dáite/ dezáke</i>	<i>Gal záitekian/ zezakian</i>	<i>Gal dáite/ dezáke</i>
Burutua	Lehenagoko iragana	--
<i>Gáldu izán dáite/ úkhen dezáke</i>	<i>Gáldu izán záitekian/ úkhen zezakian</i>	--
Burutu absolutua	Iragan absolutua	--
<i>Gáldurik izán dáite/ úkhen dezáke</i>	<i>Gáldurik izán záitekian/ úkhen zezakian</i>	--

23. taula Ahalerako forma lehenen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.

Antzekoa da egoera baldintzapekoan, alde txikiokin:

Aditz laguntzailearen aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
Jokaera perifrastikoko aspektu-aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
<i>Gáltzen lizáte/ líke</i>	<i>Gáltzen zátékian/ zúkian</i>	<i>Gal léite/ lezáke</i>
Burutua	Iragan burutua	--
<i>Gáldu lizáte/ líke</i>	<i>Gáldu zátékian/ zúkian</i>	--
Burutu absolutua	Iragan absolutua	--
<i>Gáldurik lizáte/ líke</i>	<i>Gáldurik zátékian/ zúkian</i>	--
Lehenagoko burutua	Lehenagoko iragana	(Lehenagoko) geroaldi absolutua
<i>Gáldu izan lizáte/ úkben líke</i>	<i>Gáldu izan zátékian/ úkben zúkian</i>	<i>Gáldurik izan léite/ úkben lezáke</i>
Lehenagoko burutu absolutua	Lehenagoko iragan absolutua	--
<i>Gáldurik izan lizáte/ úkben líke</i>	<i>Gáldurik izan zátékian/ úkben zúkian</i>	--

24. taula Baldintzapeko forma lehenen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.

Aginteran, esan bezala, ez du aldi bereizketarik ezartzen.<sup>82</sup>

Subjuntiboan bai, lerrootan zehar:

Aditz laguntzailearen aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
Jokaera perifrastikoko aspektu-aldiak		
Orainaldia	Iraganaldia	Geroaldia
<i>Gal dádin/ dézan</i>	<i>Gal lédin/ lézan/ zédin/ zézan</i>	
Orainaldi zein burutu absolutua	Iragan absolutua	--
<i>Gáldurik izan dádin/ úkben dézan</i>	<i>Gáldurik izan lédin/ úkben lézan/ zédin/ zézan</i>	--
--	Lehenagoko iragana	--
--	<i>Gáldu zátékian/ zúkian</i>	--
--	Lehenagoko iragan absolutua	--
--	<i>Gáldurik izan zátékian/ úkben zúkian</i>	--

25. taula Subjuntiboko formen sailkapena Inchauspere (1858) arabera.

## 1.6 Euskal adizkien Euskaltzaindiarenaz bestelako sailkapen berrixeagoak

### 1.6.1 Euskaltzaindia (1979): *Euskal Aditz Batua*

Argitalpen hori Euskaltzaindiak eskatu arren, taulen gaineko izendapenak Txillardegiri zor zaizkio. Sailkapena ez da oso sistematikoa, baina baliagarria da konturatzeko adizkien eta euren funtzioen aniztasunaz. Hona hemen erabilitako etiketen zerrenda (parentesi artean koadro bakoitzeko lehen adizki iragangaitza txertatuko dut):



- Indikatiboazko orainaldia (*nai̯z*) eta lehenaldia (*nint̯zen*).
- Baldintza (*banint̯z*).
- Ondorioa, I (*nint̯zateke*) eta II (*nint̯zatekeen*).
- Ahalezkoa: berehalakoa (*nait̯eke*), gerokoa (*nint̯eke*) eta iraganerakoa (*nint̯ekeen*).
- Subjuntiboazko orainaldia (*nadin*) eta lehenaldia (*nendin*).
- Agintaldia (*hadi*).
- Ahalezko baldintzak: hurbila (*banadi*) eta urruna (*banendi*).
- Geroaldi arkaikoa (*nai̯zateke*).

### 1.6.2 Lafitte (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008): *Grammaire Basque*

Lafitteren sailkapena oso sistematikoa dugu baita interes handikoa ere. Lehendabiziko banaketa albo batera utzita —hiru ahotsena (*voix*): nominatiboa, datiboa eta familiar-tekoa (*familière*)<sup>83</sup>—, honelako bereizketak proposatzen ditu jokaera trinkorako:

- Sail (*série*) bi: orainaldikoa (*du présent*) eta burutugabearena (*de l'imparfait*).<sup>84</sup>
- Gradu (*degré*) bi sail horietako bakoitzean: positiboa (*positif*) eta potentziala (*potentiel*). Azken hau *-ke* hizkidun adizkiak osatzen dute, hots, Euskaltzaindiaren +AHALA “moduaren” ordezkia dugu.

---

<sup>82</sup> Bereizketa bakarra honelakoan artean ezartzen da: *gal hádi/ bézak* eta *gáldurik iz̯an hádi/ úkhen bézak*.

<sup>83</sup> Hurrenez hurren, egungo terminoetan, NOR zein NOR-NORK sailekoak, NORI txertatzen dutenak eta jokaera alokutibokoak.

<sup>84</sup> Azkuerekin batera, gai hurbil eta urrun gisa bereiztu ditugunak.

“Chacun des temps comporte deux **degrés** : le degré **positif**, qui n’aucune caractéristique, et le degré **potentiel**, caractérisé par le suffixe **-ke** : ce degré indique que l’action est considérée comme possible, probable, future ou (à l’éventuel) conditionnelle.” (Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 417)

- Orainaldiko sailean eta gradu bietan, lau modu bereizten dira: indikatiboa (*indicatif*), konjuntiboa (*conjonctif*), osagarrizkoa (*complétif*) eta agintera (*impératif*):<sup>85</sup>

		INDIKATIBOA	KONJUNTIBOA	OSAGARRIZKOA	AGINTERA
ORAINALDIKO SAILA	GRADU POSITIBOA	du gare	duen garen	duela garela	bu garen
	GRADU POTENTZIALA	duke garatezke	dukeen garatezken	dukeela garatezkela	buke

26. taula Lafitteren (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008) adizki sailkapena: jokaera trinkoko orainaldiko saila.<sup>86</sup>

- Burutugabearen sailean, modu-aldi bereizketa hau eskaini zaigu: alegiazkoa (*éventuel*) alde batetik, eta iragana (*passé*) bestetik.
- Iragan horri dagokio denborazko burutugabea (*imparfait temporel*), haren gradu bietan (positibo eta potentziala) eta hiru moduetan (indikatiboa, konjuntiboa, osagarrizkoa).
- Alegiazkoaren gradu positiboan “burutugabe modala” (*imparfait modal*) dukegu (*ba-* aurizkidun adizkien alegiazko baldinerari dagokiona), eta dagozkien modu konjuntiboko zein osagarrizko *-n* eta *-la* atzizkidunak.

<sup>85</sup> Hurrenez hurren gure adizki soilak, *-n* hizkidunak, *-la* atzizkidunak eta aginterakoak.

<sup>86</sup> Koadro laburtu honetan bakarrik txertatu ditut UKAN (= \*EDUN) aditzaren 3SG eta IZAN aditzaren 1PL *lapurterazko* adizkiak.

- Alegiazkoaren gradu potentzialean baldintzapekoa (*conditionnel*) dukegu, orainaldiko zein geroaldiko esanahiarekin (*présent ou futur*) baita dagozkien modu konjuntibo zein osagarrizkoan ere.

		ALEGIAZKOA			IRAGANA	
BURUTUGABEAREN SAILA		BURUTUGABE MODALA	BURUTUGABE MODALAREN KONJUNTIBOA	BURUTUGABE MODALAREN OSAGARRIZKOA	DENBORAZKO BURUTUGABEA (INDIKATIBO-KONJUNTIBOA)	DENBORAZKO BURUTUGABEA (OSAGARRIZKOA)
	GRADU POSITIBOA	balu bagine	luen	luela	zuen ginen	zuela ginela
	GRADU POTENTZIALA	(ORAINALDIKO ZEIN GEROALDIKO) BALDINTZAPEKOA	(ORAINALDIKO ZEIN GEROALDIKO) BALDINTZAPEKOA-AREN KONJUNTIBOA	(ORAINALDIKO ZEIN GEROALDIKO) BALDINTZAPEKOA-AREN OSAGARRIZKOA	zukeen ginetezken	zukeela ginetezkela
	luke ginetezke	lukeen ginetezken	lukeela ginetezkela			

27. taula Lafitteren (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008) adizki sailkapena: jokaera trinkoko burutugabearen saila. <sup>(86)</sup>

Lafittek berak dioenez, *luen* (eta *luela*) bezalako erabilera urri-urria da. Adibideetara joz gero ez dugu aurkituko alderik *lukeen* edo *balu* bezalakoekin. Horien alomorfoztat joz gero, aditz sistema osoa errazago azal daiteke ene ustez.

Jokaera perifrastikora igarota, eta ondoko koadroan ikus daitekeenez (adibidea iragangaitzen jokaerarena da), berehala aurki daitezke gehiketa samar eta aldaketaren bat —“iragan modala” (*passé modal*) lehenagoko “burutugabe modalaren” ordez—:

ALDI ETA MODUAK	INDIKATIBOA		KONJUNTIBOA		OSAGARRIZKOA	
	POSITIBOA	AIERUZKO POTENTZIALA	POSITIBOA	AIERUZKO POTENTZIALA	POSITIBOA	AIERUZKO POTENTZIALA
Orainaldia	galtzen da	— dateke	— den	— dateken	— dela	— datekela
Burutugabea	galtzen zen	— zateken	— zen	— zateken	— zela	— zatekela
Geroaldia	galduko da	— dateke	— den	— dateken	— dela	— datekela
Iraganaren geroaldia	galduko zen	— zateken	— zen	— zateken	— zela	— zatekela
Iragan hurbila	galdu da	— dateke	— den	— dateken	— dela	— datekela
Iragan urruna	galdu zen	— zateken	— zen	— zateken	— zela	— zatekela
Burutua	galdua da	— dateke	— den	— dateken	— dela	— datekela
Pluskuanperfektua	galdua zen	— zateken	— zen	— zateken	— zela	— zatekela
Iragan hurbil gainkonposatua	galdu izan da	— dateke	— den	— dateken	— dela	— datekela
Iragan urrun gainkonposatua	galdu izan zen	— zateken	— zen	— zateken	— zela	— zatekela
Burutu gainkonposatua	galdua izan da	— dateke	— den	— dateken	— dela	— datekela
Pluskuanperfektu gainkonposatua	galdua izan zen	— zateken	— zen	— zateken	— zela	— zatekela

	FORMA ARKAIKOAK	POSIBILITATEKO POTENTZIALA	SUBJUNTIBOA	POSIBILITATEKO POTENTZIALA	SUBJUNTIBOKO OSAGARRIZKOA	POSIBILITATEZKO POTENTZIALA	AGINTERA
Orainaldi aoristikoa	gal badadi	— diteke	— dadin	— diteken	— dadila	— ditekela	— bedi
Iragan aoristikoa	gal zadin	— ziteken	— zadin	— ziteken	— zadila	— zitekela	
	IRAGAN MODALA	BALDINTZAPEKOA	SUBJUNTIBO MODALA	BALDINTZAPEKOA-REN KONJUNTIBOA	SUBJUNTIBO MODALAREN OSAGARRIZKOA	BALDINTZAPEKOA-REN OSAGARRIZKOA	BOTIBOA (ARKAIKOA)
Geroaldiko alegiazkoa	gal baledi	— liteke	— ledin	— liteken	— ledila	— litekela	ailedi gal
Orainaldiko alegiazkoa	galtzen balitz	— lizateke	(urria)	— lizateken	(urria)	— lizatekela	ailitz galtzen
Iraganeko alegiazkoa	galdu balitz	— lizateke		— lizateken		— lizatekela	ailitz galdu
Alegiazko burutua	galdua balitz	— lizateke		— lizateken		— lizatekela	ailitz galdua
Iraganeko alegiazko gainkonposatua	galdu izan balitz	— lizateke		— lizateken		— lizatekela	ailitz galdu izan
Alegiazko burutu gainkonposatua	galdua izan balitz	— lizateke		— lizateken		— lizatekela	ailitz galdua izan
Antzinako geroaldiko alegiazkoa	galduko balitz	— lizateke		— lizateken		— lizateke	ailitz galduko

28. taula Lafitteren (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008) jokoera perifrastikoaren sailkapena: jokoera iragangaitza adibide gisa.

Koadrokoei gehitu behar zaizkie suposakaria (*suppositif*), kausatiboa (*causatif*) eta galdekarizkoa (*interrogatif*), *ba-*, *bait-* eta *-a* hizkiek itsatsirik lortzen direnak, hurrenez hurren.

Horrez gain eta aspektu-aldi etiketak alboratuta, jokaera trinkoaren koadroetan somatzen ez ziren modu izendapen asko agertu zaizkigu oraingoan:

- Aieruzko potentziala (*potentiel conjectural*) eta posibilitateko potentzialaren (*potentiel de possibilité*) arteko bereizketa.<sup>87</sup>
- *Al-* (> *ai-*) aurrizkiaren bidez lorturiko botibo arkaikoa.<sup>88</sup>
- Eta subjuntiboa bere aldaerekin —subjuntiboaren osagarritzkoa (*complétif du subjonctive*), subjuntibo modala (*subjonctive modale*) eta honen osagarritzkoa (*complétif du subjonctive modale*) ere—.

Aurreko kasuetan legez, jokaera trinkoko zenbait formak ere kutsu subjuntiboari dagokion erabilera bat jaso dezakete, baina aldea argiagoa da jokaera perifrastikoan:

*‘Le conjonctif des verbes fortes est parfois employé avec une valeur de subjonctif.*

*‘Ex. : gauden Eskualdun, restons basques; dagon ala doan, zer zaiku, qui’l reste ou qui’l s’en aille, qu’est-ce que cela nous fait? zer nahi den, quoi qui’l en soit.*

*‘On préfère en général avoir recours à la conjugaison périphrastique, où les distinctions entre subjonctif et conjonctif ordinaire mettent plus de*

---

<sup>87</sup> Jokaera trinkoan esanahi biok agertu arren, dagozkien adizkiak forma berekoak dira.

<sup>88</sup> Jokaera trinkoan agerpen are urriagokoa dena.

*clar[i]té.” (Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 749)*

Horregatik, Lafittek proposatzen du subjuntibo izendapena murriztea *aditz oina gebi \*EDIN eta \*EZAN aditz-en hizkidun bidezko* perifrasiari esateko:

*“Nous appelons **subjunctif** en grammaire basque le conjonctif construit avec les auxiliaires **dadi** eta **deza** accompagnant l’infinitif radical. Il présente l’action comme régie par une volonté.” (Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 748)*

Argi dago, beraz, hemendik atera dela Euskaltzaindiak azken aldian subjuntiboaz harturiko jarrera; gogoratu:

*“Horregatik, zenbaitetan, eroso gerta daitekeelakoan subjuntibo hitza ere erabiliko dugu. Deitura hori **-dadi-** edo **-deza-** laguntzaileen sailekoentzat gordeko dugu, bereziki **-n** edo **-la** atzizkia hornitua doanean.” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1987, 138)*

Konjuntiboaren (eta osagarrizkoaren) erabilera berezi bat izanik, argi dago ikuspegi honen arabera subjuntiboa esaldi menderatuetan baino ez dela agertuko:

*“Nolanahi ere, subjuntibo deiturak subordinazio kontzeptuarekin du erlazioa. Omaechevarria ongi ohartu zen horretaz. Hark moduen artean “intencional” izenekoa sartu zuen: “El intencional, llamado también subjuntivo por la principal de sus funciones, utiliza respectivamente los radicales “-edi-” y “-eza-” con la forma nominal del verbo aspectualmente neutra o indefinida, para significar intención, finalidad, deseo y otros matices semejantes, generalmente en oración*

*subjuntiva o subordinada*". (Omaechevarria 1959: 25)." (Goenaga 1997: 112)

Aipaturiko Omaechevarriaren beraren sailkapena ikusiko dugu azkenik.

### 1.6.3 Omaechevarria (1959): *Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*

Aurrekoaren sistematizazio mailatik hurbil eta interes berekoa dugu Omaechevarriaren jorraketa (ondoko orrialdean).

Hor ikus daitekeenez, Omaechevarriak erabilitako sailkatze irizpideak honako hauek ditugu:

- Sei modu: hiru IZAN eta \*EDUN aditzen jokaera perifrastikorako —erreal (*real*) edo indikatiboa, aieruera (*conjetural*), irreal (*irreal*)—, eta beste hiru \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzenerako —ahalera (*potencial*), asmoera (*intencional*) eta erabakiera (*decisional*)—.
- Lehenengo hiruei egotz dakiekeen hiru aspektu: burutua (*perfecto*), burutugabea (*imperfecto*) eta burutzekoa (*perficiendo*).
- Banaketa horren ordez, ahalera eta asmoerarako beste hau aurkitzen dugu —gai hurbil eta urrunekoei dagokiena: aktuala (*actual*) *versus* alegiazkoa (*virtual*)—. <sup>89</sup>
- Eta hau erabakiera dela eta: arrunta (*normal*) *versus* baretua (*mitigado*). <sup>90</sup>

---

<sup>89</sup> Morfologikoki alde berdina dago aieruera eta irrealaren artean, baina paralelismo hau ilunduta dago eskeman.

<sup>90</sup> Hurrenez hurren gure gai urruneko aginterako adizki soilekin eta *-(te)ke* hizkidunekin bat datozenak.

MODU- AK	ASPEKTUAK			ALDIAK		MODALITA- TEAK	
	BURU- TUA	BURU- GABEA	BURU- TZEKOA	ORAINA	IRAGANA	SUPOSA- KARIA	OPTA- TIBOA
ERREALA	<u>SARTU</u>	<u>SARTZEN</u>	<u>SARTUKO</u>	DA DU	ZAN ZUEN	(SARTUKO) BADA BADU	ALDA ALDU
		<u>SARTZEN</u>		DATEKE DUKE	<b>ZATEKEAN</b> (ZITZAKEAN) ZUKEAN	Aieruera jo daiteke arkaiko eta iraungitzat, adibideak falta ez badira ere, baita iraganekoak ere, ekialdeko dialektoetan.	
IRREALA	SARTU perfektua ez da erabiltzen suposakariko edo optatiboko iragana adierazteko baina.	<u>SARTZEN</u>	<u>SARTUKO</u>	LITZAKE LUKE	<b>ZITZAKEAN</b> ZUKEAN	BALITZ BALU	(Zuberera) AILITZ AILU
				LIZALA (Liranak) LUELA (Lutenak)	Irrealeko "ke" gabeko adizkiak, bizkaierazko "ke" gabeko ahalerazkoekin erkarriak ("ezin lei") ez datoz paradigma arruntetan, baina aurkitzen dira Mendiburun, etab...		
ASMOERA	AKTUALA		<u>SAR(TU)</u>	DEDIN DEZAN	ZEDIN ZEZAN	BADADI BADEZA	Zubereratik kanpo suposakaria erabiltzen da optatibo irreal eta ahalerazko gisa
	ALEGIAZKOA			LEDIN LEZAN		BALEDI BALEZA	(Zubereraz) AILEDI AILEZA
AHALERA	AKTUALA			DITEKE DEZAKE	<b>ZITEKEAN</b> <b>ZEZAKEAN</b>	Bestelako modalitateak dira, bakoitzaren aurrizkiak ezaugarrituak: <i>ezetzkoa</i> (ez), <i>itaunkari</i> edo <i>zalantzazkoa</i> (ote, ete), <i>narraziozko</i> edo <i>aipamenezkoa</i> (omen, ei), <i>iritziakoa</i> (bide), <i>ohikoa</i> (oi), etab.	
	ALEGIAZKOA			LITEKE LEZAKE			
ERABAKI- ERA	ARRUNTA		BEDI BEZA	Erabakieraren funtzio desberdinak dira <i>agintera</i> (zoaz), <i>jusibo</i> edo <i>kontzesiboa</i> (betor, egin beza), <i>kobortatibo</i> edo <i>konatiboa</i> (goazen), <i>deprekatibo</i> edo <i>baimenezkoa</i> (datorrela, egin dezala); baina bakarrik <i>aginterak</i> eta <i>kontzesiboak</i> dute berariazko adierazpen morfoloikoa.			
	BARETUA		BITEKE BEZAKE				

29. taula Omaechevarriaren (1959) "oinarriazko adizkien eskema" (gaztelaniaz jatorrizkoan).



- Aldi bi: oraina (*presente*) eta iragana (*pasado*). Azken honek ez du aplikaziorik erabakieran, ezta asmoerako eta ahalerako alegiazkoetan ere.<sup>91</sup>
- Eta, azkenik, “modalitate” nagusi bi: suposakaria (*supositiva*) eta optatiboa (*optativa*). Hauek morfologikoki onargarri bihurtzen dute zenbait adizki. Horrelakorik ez dute lortzen beste modalitate xumeagoek —ezezkoa (*negativa*), itaunkari (*interrogativa*) edo zalantzazkoa (*dubitativa*), narraziozko (*narrativa*) edo aipamenezkoa (*citativa*), iritzizkoa (*opinativa*) eta ohikoa (*consuetudinaria*)—. Eskemak ezkututzen du modalitate nagusi bi horiek ez daukatela konbinatzerik ez erabakierarekin ezta *-ke* hizkidun adizkiekin ere.<sup>92</sup>

Modu eta modalitate inflazio galanta agertuagatik, desagertuak zaizkigu agintera eta subjuntibo bezalako ohiko moduak. Lehenengoa erabakieraren *erabileretako* bat baino ez da,<sup>93</sup> autorearen ustez; bigarrena asmoeraren funtzio bati dagokio, gogoratu:

*“El intencional, llamado también subjuntivo por la principal de sus funciones, utiliza respectivamente los radicales “-edi-” y “-eza-” con la forma nominal del verbo aspectualmente neutra o indefinida, para*

<sup>91</sup> Bateriaezintasun biotatik, lehena arrazoi pragmatikoei zor zaie (ezin agindu/eskatu daiteke dagoeneko iragan dena); bigarrenak erakusten du alegiazkoak eta iraganak eremu semantiko ber bat banatzen dutela.

<sup>92</sup> Hau da, errearen, irrealaren eta asmoeraren suposakariak (eta aukerakariak) agertu zaizkigu, baina ez aieruera eta ahalerarenak. Hala ere, beste pasarteren batean (1959: 49) Omaechevarria “ahaleraren suposakariak” (*supositivo del potencial*) mintzo da. Honek agerian uzten du, eskemak desitxuratu arren, ezin ahantz daitekeela “asmoerak” eta “ahalerak” komun dutena (ezta “errealak” eta “aieruerak” konpartitzen dutena ere).

<sup>93</sup> Esanguratsua da koadroak azken gelaxkan dakarrena:

*“Erabakieraren funtzio desberdinak dira agintera (goaz), jusibo edo kontzesiboa (betor, egin beza), kohortatibo edo konatiboa (goazen), deprekatibo edo baimenezkoa (datorrela, egin dezala); baina bakarrik aginterak eta kontzesiboak dute berariazko adierazpen morfologikoa.”*

Hau azpimarratuko nuke nik: *goazen* bezalako “kohortatiboko” adizkiak, asmoerakoen ( $\approx$  subjuntibokoen) morfologia bera izan arren, beste modu batekoak direla.

*significar intención, finalidad, deseo y otros matices semejantes, generalmente en oración subjuntiva o subordinada*". (Omaechevarria 1959: 25)

### 1.7 Sailkapen anitzotatiko ondorioak

Horren sailkapen desberdinek zerbait erakusten badute hauxe dateke: faktore askoren joko baten aurrean gaudela. Gainera, badirudi hauek argiago ager daitezkeela jokaera perifrastikoan trinkoan baino, besterik gabe lehenengoan laguntzaile sorta biren dikotomia ezaguna dugulako (IZAN eta \*EDUN alde batetik, \*EDIN eta \*EZAN zein EGIN bestetik). Mahairatu ditudan azken sailkapen biak bat datoz dikotomia horri funtsezko paper bat onartzean; horri zor zaizkio:

1. Ondokoen arteko bereizketa: aieruera edo aieruzko potentziala (IZAN/\*EDUN + *ke*) eta ahalera edo posibilitateko potentziala (\*EDIN/\*EZAN *nabiz* EGIN + *ke*). (Argitzekoa dukegu banaketa horretan nola sartzten datekeen "geroaldi arkaikoaren" fenomeno.)
2. Konjuntibo hutsaren (IZAN/\*EDUN + *n*) eta subjuntiboa, asmoera edo kohortatiboaren (\*EDIN/\*EZAN *nabiz* EGIN + *n*) artekoa, baita osagarrizko hutsaren (IZAN/\*EDUN + *la*) eta subjuntiboko osagarrizkoaren edo deprekatiboaren (\*EDIN/\*EZAN *nabiz* EGIN + *la*) artekoa ere.<sup>94</sup>
3. Eta aginterak edo erabakierak (jokaera trinkotik kanpo) \*EDIN/\*EZAN (EGIN) saila eskatzea. Areago, aditz hauetako adizki soilak modu horri dagozkio, IZAN/\*EDUN sailekoak indikatibokoak diren bitartean.

---

<sup>94</sup> Aurreko txataletan ikusitako autoreen terminoak erabili ditut hemen, aurrerago berrikusi beharko badira ere.

Ikusten denez, modu bereizketa guztien azpian dago laguntzaile sorta bien eta zenbait hizkiren agerpena edo agerpen eza. Aipaturiko hizkiez gain, suposakarizko *ba-* eta *al-* (> *ai-*) aukerakarizkoak konplexutasuna handitzen dute.<sup>95</sup> Faktore bakoitzari dagokiona dugu aztertu beharrekoa. P. Goenagak eginak ditu hemen mahairatu ditudan burutazioen antzekoak:

*“Jakina, bai potentzial deitzen dugunak, bai subjuntibo deitzen dugunak, bai badadi/baledi saileko baldintzakoeke, denek dute erro bera eta, agian, zilegi izan liteke denek amankomunean zerbait dutela pentsatzea, nahiz eta ez dagoen erabat argi zer izan litekeen. Kontua da, denetan, adizkiak berezko edukia izango duela -nahiz eta garbiegi ez jakin zein den. Horrezaz gainera, aurrizkiek eta atzizkiek beste zerbait erantsiko liokete adizki horri. Zerbait hori moduarekin zerikusia duena izan daiteke edo, agian, beste zerbaitekin izango du zerikusia.” (Goenaga 1997: 112, 2. oin-oharra)*

Horrelako susmoei erantzuna emateko gertu nago:

1. Aurrizkiek eta atzizkiek gehitzen dutena badu zerikusia moduarekin, (ondoko atalean aurkeztu beharreko) ilokuzio indarraren izari baten (izari neustikoaren) balio desberdinen markatzailek dira hain zuzen, baina aspektu faktore diakronikoak ere kontuan hartu behar dira.
2. Iluna omen den adizkien “berezko edukian” ere, modu eta aspektu kontuak nahastuta daude: ikusi behar dugunez, ekintzazkotasunaren araberrako bereizketa primitiboa aspektu sistema batean gauzatuko zen, zeina modu gisako berrinterpretazio bat jasoko baitzuen geroago. Modu bereizketa hori, hizketa egintzen teoriaren terminoetan, ilokuzio

---

<sup>95</sup> Gainontzeko konplexutasunak zeretik datoz, gai hurbil eta urrunaren bereizketatik.

indarraren beste izari bati (izari tropikoari) dagokio, baina soilik sartzen da jokoan aurreko izariaren (izari neustikoaren) zenbait baliorekin, besteekin jatorrizko aspektu bereizketak bere horretan jarraitzen du.

Nire puntuok garatzera igaroko naiz hurrengo ataletan, eremu teorikoa azaldu ahala.

## 2 KOKATZE MODALERAKO EREMU TEORIKOA: R. MARVIN HAREK HIZKETA EGINTZEN TEORIARI EGINDAKO EKARPENEN MOLDAERA

### 2.1 Hizketa Egintzen Teoriaren jatorria

Funtsean, hizketa egintzen teoria sortu zen hizkuntza giza ekintza gisa ulertzeko saiakeratik. Ideia hau XX. mendeko erdialdean loratu zen indar bereziz.<sup>96</sup> Garai horretako “bigarren” Wittgensteinek (1953), “esanahia erabilera da” leoa izango zenaren aitzindari gisa, nabarmendu zuen hizkuntza jokoak zenbatezinak (*countless*) direla. Bere aldetik, John L. Austinek (<sup>0</sup>1955, <sup>1</sup>1962, <sup>2</sup>1975) aldarrikatu zuen hitzez ez dela egiten bakarrik gauzak esan, baizik eta egintzak burutu (argudiatu, konbentzitu, eskatu, prometituta, agindu, galdetu, ezkondu...), egintzok badituztelarik arrakasta zein zapuzketa, zorioneko<sup>97</sup> nahiz zoritxarreko baldintzak egiazkoa edo faltsua izatetik desberdinak: zein zentzutan izan litezke “egiazkoak” galdera edo agindu bat?<sup>98</sup>

### 2.2 Lokuzio/ilokuzio/perlokuzio bereizketa

Austinen ustez, horrelako hitzen bidezko egintzetan bereiztu behar dira:

---

<sup>96</sup> Sarrera honen asmorako ez digu merezi horren aurreko aztarnak arakatzea, egon badaude ere.

<sup>97</sup> Austinek askotan erabiltzen ditu “zorion” (*felicity, happiness*) eta “zoritxar” (*infelicity, unhappiness*) terminoak, askoz urriago “arrakasta” (*success*) kontzeptua. Hala ere, argi dago bereizketa bat: zenbait zoritxarrek (ahozkaturiko hitzak edo esalea bera desegokiak izatea, adibidez) ekar dezakete egintzaren buruketa bera ez gertatzea, haren arrakastadun gauzatzea ere bertan behera utziz, non esan genezakeen egintzak huts egin duela (*misfire*); bestelako zoritxar batzuek, aldiz, egintzaren buruketaren ondoren etor daitezke, prozeduraren gehiegizko erabilera bat (*abuse*) direlarik, hala nola betetzeko asmorik gabe egindako promesa bat, edo portaera zakarraz jarraituriko harrera adeitsu edo “ongi etorri” bat.

<sup>98</sup> Bestelako kontua da ea benetako galdera edo agindu baten aurrean gauden. Horretarako arrakasta baldintzak bete behar dira.

1. *Esan egiten dena: lokuzio egintza (locutionary act, an act of saying something)*. Igorpen bat burutu: zenbait hots igorri,<sup>99</sup> zeintzuk hizkuntza baten gramatikaren arabera zenbait hitz baitira nolabaiteko molde batean,<sup>100</sup> eta berauek igorri nolabaiteko –gutxi gorabehera zehazturiko– “esanahi” batekin, hau da, nolabaiteko zentzu eta erreferentziarekin (egintza retikoa,<sup>101</sup> *rhetic act*).
2. Hori esatean (*in locution*) egin egiten dena: *ilokuzio egintza (illocutionary act, an act in saying something)*. Adibidez: galdera bat egin edo horrelako bati erantzun, nolabaiteko informazioa eman, ebazpen bat edo asmo bat aldarrikatu, eskari edo agindu bat egin... Ilokuzio egintza ezin buru daiteke entzulegoak hala onartu ezean (*uptake*).
3. Esatearen bitartez (*per locution*) lortu edo eragin egiten dena: *perlokuzio egintza nabiz efektua (perlocutionary act, what we bring about or achieve by saying something)*:<sup>102</sup> konbentzitu, bultzatu, geldiarazi...

Austinek berak zioenez (<sup>0</sup>1955, <sup>1</sup>1962, <sup>2</sup>1975: 94-95), bere ikerketan lokuzio eta perlokuzio egintzen gaineko interesa zeharkakoa zen, hain zuzen ere horiek argiro bereiztu ahal izateko berebiziko interesa merezi zioten ilokuzio egintzetatik, eta hauek –edo “ilokuzio indarren doktrinak” (*the doctrine of ‘illocutionary forces’*, *ibid.* 99)– jaso dute arreta nagusia ondoko hizketa egintzen teoriaran. Bertsiro hedatuena John R. Searleri zor zaio, (1969 & 1975, besteak beste), eta Daniel Vandervekenekin batera teoriaren formalizazio bat ere eskaini digu (1985).<sup>103</sup>

---

<sup>99</sup> Hizkuntzaren erabilera idatzia albo batera utziz azalpenaren argitasunari begira. Hots horien igorpena maila zehatz bateko egintza bat da, egintza fonetiko (*phonetic act*).

<sup>100</sup> Intonazioa barru. Hitzen igorpena egintza fatikoa da (*phatic act*).

<sup>101</sup> “Erretorika” hitzaren erro beretik.

<sup>102</sup> *Perlocutionary act* terminoa erabili zuen arren, Austinentzat perlokuzioa esatearen ondoko efektu bat da norbaiten pentsamendu, ekintza zein sentimenduen gainean. Norbait hori entzulea izango da eskuarki, baina hiztuna ere izan daiteke edo beste norbait (Austin <sup>0</sup>1955, <sup>1</sup>1962, <sup>2</sup>1975: 101).

<sup>103</sup> Halaber, ikusi Vanderveken (1988, 1990, 1991).

Nolatan izan dezakegu interesekoa giza ekintzaren ikerketa eremu hori euskal aditzaren analisi semantiko honetarako? Searlek berak dioenez, ilokuzio egintzen eta perpausen esanahiaren ikerketa bat eta bera dirateke ikuspegi desberdin bitatik:

*“Since every meaningful sentence in virtue of its meaning can be used to perform a particular speech act (or range of speech acts), and since every possible speech act can in principle be given an exact formulation in a sentence or sentences (assuming an appropriate context of utterance), the study of the meanings of sentences and the study of speech acts are not two independent studies but one study from two different points of view.”*

*(Searle 1969: 18)*

Atal honetan ikusiko denez, euskal aditzaren interpretaziorako balia gaitzke ilokuzio indarren teoriaren zenbait emaitzez, beti ere dagokigun ikuspegiari argiro eutsiz: dagokigun ikerketa semantikoa da, ez giza ekintzaren gainean teorizatzearena.

Horri begira, hizketa egintzen teoriako bertsio ezagunenetik, Searlerenetik, funtsezko kontzeptu hau baino ez dut jasoko: ilokuzio xedearena (*illocutionary point*), zeinak ilokuzio egintza mota bakoitza definitzen baitu.<sup>104</sup> Adibidez:

*“The point or purpose of an order can be specified by saying that it is an attempt to get the hearer to do something. The point or purpose of a description is that it is a representation (true or false, accurate or inaccurate) of how something is. The point or purpose of a promise is that*

*it is an undertaking of an obligation by the speaker to do something.”*

*(Searle 1975: § II.1)*

Izan ere, egintzaren berezko baldintza (*essential feature, essential condition*) honetan datza: esaldia xede horren buruketatzat onartua izatean.<sup>105</sup>

Ilokuzio egintzaren berezko xedearekin erlazionaturik dago ilokuzio indarraren beste osagai nagusietako bat, Searleren aburu: mundua eta proposizio edukiaren arteko “egokitze norabidea”. Lau omen dira aukerak: hitzak bat datoz (edo ez) munduarekin (baieskarien mota, *assertives*); mundua egokitzen zaie (edo ez) hitzei (zuzenkari eta hitzemankarien motak, *directives & commissives*); egokitzapena (emanetz gero) elkarrekikoa da (aldarrikariak, *declarations*) edo hutsa (adierazkarien motako ilokuzio egintzak, *expressives*). Ondoko eztabaidan agertuko diren aipamenak ulertzeari begira, komeni da honen jakinean egotea, nahiz eta “egokitze norabidearen” kontzeptu honen orde, beste batez baliatuko naizen.

### **2.3 Ikerketa honetan interesekoa den maila: linguistikoki adierazitako ilokuzio egintzaren markatzaileak**

Austinek eta Searlek eremu teoriko berri bat eraiki zuten, eta enpresa horretan berebiziko garrantzia zuen ilokuzio egintzen existentzia aldarrikatzeak. Berdina esan behar da Bach & Harnishen (1979) saiakeraren bezalakoez, zinetan hizketa egintzen eskema bat (*SAS* edo *Speech Act Schema*) ikertzen baita azaltzearen nola hitzunek egindako igorpenetatik entzuleek ondoriozta dezaketen gauzatzen ari den ilokuzio egintza. Autore horien proposamenean,

---

<sup>104</sup> Horren arabera ilokuzio egintza (mota) bakoitzak izango du lorpen modu berezi bat, zeinak bizkortasun (*strength, puissance*) graduak onartzen dituen (horrela bereizten da, esaterako, ziurtatze bat aieru batetik).

<sup>105</sup> Ideia hau jasotzeko Searle baliatu zen Paul Griceren (1957, 1968, 1969) “esanahi asmo” edo “M-intention” delako kontzeptuaren berrikuspen batez. Horrelako asmo bat burukaria da (*reflexive*): entzulearengan efekturen bat lortzeko asmoa, asmoaz berataz haren konturatzearen bitartez. Ideia da horrelako erreflexibotasunak balio dezakeela jasotzeko Austinen entzunlegoaren aldetiko onarpena (*uptake*).



bide horretako urrats anitzen artean azpimarra daiteke *hitzez hitzekotasunaren auresuposaketa* (*Presumption of Literalness*), hau da, ondorioztapenaren ezinbesteko urrats bat da zehaztea ahal den neurrian zein ilokuzio egintza gauzatuko litzatekeen hiztuna hitzez hitz (eta komunikazio asmoz) mintzatzen arituz gero. Horri esaten diote “zehaztea hitzez hitzeko ilokuzio indarraren potentziala” (*determining literal illocutionary force potential*). Horretarako bete behar dira zenbait bateragarritasun baldintza (*Compatibility Conditions*) *esan* egiten den eta *egin* egiten denaren artean.

Ikerketa honen helburua, ilokuzio indarrari dagokionean, oso bestelakoa da: hizketa egintzen teoriak baliatuz euskal aditzak erakusten dituen zenbait ezaugarri morfologikoren esanahia argitzea. Ez dagokigu, beraz, *esan* egiten denetik ondorioztatzea zer *egin* egiten den (benetako gauzapean batean) ezta zer *egin* egingo litzatekeen (balizko kasu abstraktuetan), baizik eta alderantzizkoa: kontuan hartuta marka morfologiko hau edo bestea txertatzen duten esapideek balio dutela honelako edo bestelako ilokuzio egintza gauzatzen ari dela adierazteko, zein ote da marka horien esanahia?

Aditz morfologiaren zati baten azalpenerako kontuan hartu behar duguna (baliabide gisa, ez ikerketaren objektu gisa) ez dira benetan gauzaturiko ilokuzio egintzak, hitzez hitzekoak izanik ere, baizik eta balizko ilokuzio egintzak, *testuinguru faktoreen abstrakzioa eginda* gauzatuko liratekeenak:

*“There is clearly a distinction here to be drawn, between the illocutionary act linguistically indicated and the illocutionary act actually performed [...]”*. (Récanati 1980: 210)

Bereizketa hau beharrezkoa da desberdintzeko hitzez hitzeko diren eta ez diren ilokuzio egintzak eta beraz, linguistikoki seinaturiko ilokuzio

egintzaren kontzeptu hau identifika dezakegu hitzez hitzeko ilokuzio indarraren potentzialarenarekin.<sup>106</sup>

### 2.3.1 Ilokuzio indarraren lehen eta bigarren markatzaileak

Ilokuzio indarra markatzeko balio duten hitzen artean, komeni da gainerako bereizketa bat egitea bestelako funtzio semantikoa dutenen eta ez dutenen artean, bigarren eta lehen markatzaileak, hurrenez hurren:

*“The meaning of a primary indicator consists entirely in its indicating, when uttered as part of a sentence, which illocutionary act is performed in this utterance. Its indicating function is its meaning, whereas the meaning of a secondary indicator cannot be reduced to its indicating function.”*

*(Récantati 1980: 211)*

Bigarren markatzaile tipikoak gauzatze aditzak (*performative verbs*) ditugu. Bestelako (agian “lehen”) markatzaileen adibideak ditugu perpau modalitatea edo mota, intonazioa eta neurri batean aditz modua,<sup>107</sup> eta honi esker ilokuzio indarren teoria egokia da aditz modu eta modalitate kontuen ikerketarako. Kontzepturik egokienak aurkituko ditugu segidan aztertuko dugun autorearen proposamen emankorren artean.

---

<sup>106</sup> Benetan gauzaturiko “hitzez hitzeko” ilokuzio egintzetatik bereizita. Izan ere, erabil daitezkeen adibideak ez dira inoiz *benetan gauzaturiko* hizketa egintzenak, hitzez hitzekoak edo ez, baizik eta gauzatutzat joko lirakekeenak testuingururen bat guztiz zehaztuz gero. Hala ere, axola diguna ez da testuinguru baten edo bestearen ekarpena, baizik eta esapidearena.

<sup>107</sup> Searlek zuhurki diosku hau ingelesaren kasurako:

*“Illocutionary force indicating devices in English include at least: word order, stress, intonation contour, punctuation, the mood of the verb, and the so-called performative [...] verbs.” (Searle 1969: 30)*

Baina fenomeno orokorragoa da:

*“The mood of the verb, word order, intonation, and punctuation signs are the most common illocutionary force makers in actual natural languages.” (Vanderveken 1990: 197)*

## 2.4 R. Marvin Hareren ekarpenak hizketa egintzen teoriari

### 2.4.1 “Tropiko” eta “neustiko” kontzeptuak

Gehienbat etika eta zuzenbidearen filosofiaz arduratu bazen ere, hizketa egintzen teoriarako ekarpen interesgarriak aurki daitezke R. Marvin Hareren lanean (1952, 1970, 1989, besteak beste). Bereizketarik garrantzizkoena ezarrita dago berak (grezierazko etimologiez baliatuta) “tropiko” (*tropic* nahiz *tropics*<sup>108</sup>) eta “neustiko” (*neustic*<sup>109</sup>) izendatu zituenen artean: lehena da (erabilitako perpausen) “modu zeinu bat”, bigarrena “sinatze edo izenpetze zeinua”. Baiespen bat eta agindu baten arteko aldea tropiko kontu bat da; norberak egindako baiespenaren eta beste norbaiten hitzak errepikatzearen artekoan neustikoa da kontua. Hona hemen Hareren beraren azalpen argi bana:

*“I shall call the sign of mood the tropic. That mood is, or can be, part of meaning is evident from the fact that the Latin expressions ‘i’ and ‘ibis’ (‘Go’ and ‘You are going to go’) have different logical implications [...]: the latter implies that you are going to leave this place; the former does not, because a command is not a prediction of its own fulfilment.” (Hare 2003: 8-9)*

*“[...] the neustic or sign of subscription to a speech act by a speaker or writer.” (Hare 2003: 9)*

Aldea esplizituki agertuko zaigu ondokoan:

*“The next sign I shall discuss is much more controversial, namely the sign of assertion. [...] I mean by ‘assertion’ here not ‘assertion as opposed to*

---

<sup>108</sup> “[...] ‘tropics’, from the Greek word for grammatical mood.” (Hare 1989: 25)

<sup>109</sup> “[...] ‘neustic’, from the Greek word meaning ‘to nod assent’”. (Hare 1989: 25)

*commanding, etc.’; the sign of assertion in that sense would be a mood-sign or tropic. Nor do I mean ‘assertion as opposed to negation or denial’. [...] I mean ‘assertion as opposed to merely supposing, entertaining or the like’. [...] Because the word ‘assertion’ can be confusing I propose now to abandon it and speak instead of a sign of subscription. [...] As a shorter term for ‘sign of subscription’, I propose to use my old word ‘neustic’, from the Greek word meaning ‘to nod assent’; I hope that this paper will purge the word of its former disgraceful ambiguity.” (Hare 1989: 25)*

Hareren kontzeptuak ahalik eta argien gera daitezten, ez dut hemen mahairatuko haien ibilbide historiko korapilatsua. Hala ere, uste dut autorearen asmoa ez zela bete eta goiko aipamen horretan bertan ere bestelako anbiguotasun bat ezkututzen dela. “Neustiko” kontzeptu honek, beraz, analisi sakonago bat eskatzen du.

Hasteko, azpimarratu nahi dut tropikoa eta neustikoa argiro bereiztearen garrantzia; horri esker aditz jokatu oro (txertaturiko klausula batekoa izanik ere) izango da ilokuzio indarraren markatzailea:

*“There is the problem, which has been discussed in the literature, of whether only whole sentences have tropics or moods, or whether subordinate clauses too must, or can, have them. I think that the discussions would have been clearer if neustics had been distinguished from tropics.<sup>[...]</sup> This removes the main temptation to saying that subordinate clauses cannot have tropics, namely that nobody is subscribing to them. That is just a confusion. It seems fairly obvious that at least some subordinate clauses have tropics, though not neustics; for example commands in oratio obliqua.” (Hare 1989: 35)*

Puntu honetan baliagarriagoa dugu Hareren bidea Searlerena baino. Azken honentzat, ilokuzio indar osoa bakarrik adierazten da perpaus oso baten esaldiaren bitartez.<sup>110</sup> Baina orduan, txertaturiko klausuletako aditz moduak ezin jaso dezake azalpen egoki bat ilokuzio indar markatzaile gisa. Arazoa desagertu egiten da Hareren bereizketa aplikatu bezain pronto.

Tropikoaren adierazpen linguistikoa bidera daiteke ilokuzio indarraren lehen zein bigarren indikatzaileen bitartez. Aditz moduaren ikerketan, jakina, interesa lehenengoetara mugatzen da, baina garrantziko puntua da aditz moduren bat duen edozein klausulatan dagoela indikazio hori (beste kontu bat da ea ilokuzio xedeak horren erdiraketa dakarrenetz).

#### 2.4.2 “Klistiko” eta “frastiko” kontzeptuak

Kontzeptu bion aurkezpenarekin osorik izango dugu Harek perpausen eta hizketa egintzen analisirako proposaturiko tetralogia:

*“The articulation of sentences, or the speech acts that they express, has to distinguish at least four functions [...]. The first is the mood, already mentioned. I shall call the sign of mood the tropic. [...] Next we have to distinguish the content of the speech act (for example what in particular is being stated to be the case, or commanded to be made the case). Thus the commands ‘Open the door’ and ‘Shut the window’ have the same tropic but different phrastics [...]*

*The remaining two functions [...] would be expressed [...] by the clistic, or sign of completeness, of the sentence, and the neustic or sign of subscription to a speech act by a speaker or writer.” (Hare 2003: 8-9)*

---

<sup>110</sup> Arrazoia argi dago Hareren bereizketari esker: bakarrik orduan egongo litzateke ilokuzio egintza bat sinatua edo izenpetua (*subscribed*) izatekoa. Orduantxe egongo da ilokuzio xederen bat (*illocutionary point*), ilokuzio egintza mota bakoitza definitzen duena.

Kontzeptu biotako bigarrenetik hasiko naiz, “klistikotik”, azalpen laburragoa behar duelako eta berau beharrezkoa izango delako “frastikoaren” ulerpen oso baterako.

*“I now come to the third and last particle on my list, which I shall call the sign of completeness or clistic, from the Greek word for ‘to close’. The commonest clistic in ordinary language is the full stop, but this has other uses too”. (Hare 1989: 31-32)*

Klistikoak, honenbestez, mezuaren bukaera adieraziko luke, geroagoko gehiketak eragotziz, notario baten errubrikaren antzera.<sup>111</sup>

“Frastikoaren” kontzeptura igaroz, txatal honetako lehen aipamenetik ondoriozta daitekeenez, hura ez da gehiegi aldentzen ezagunagoa datekeen Searleren “proposizio eduki” kontzeptutik,<sup>112</sup> hizketa egintzaren “edukia” osatuz, haren etimologiak ere adierazten duenez:

*“Phrastic’ is derived from a Greek word meaning ‘to point out or indicate’ ”. (Hare 1952: § 2.1)*

Aldeak alde, kontzeptu eremu honetan ere,<sup>113</sup> “frastikoa” izango litzateke bestelako zeinuak edo funtzioak (tropikoa, neustikoa eta klistikoa) kendu eta gero gelditzen den hondarra:

*“We need to ask what is left of the sentence if we subtract the tropic,*

---

<sup>111</sup> Hare (1989) zalantzan ibili zen beste funtzio bat klistikoan edo frastikoan sartzeaz. Hasiera batean mintzo zen “fregear estiloko klistiko” batez: perpausaren osagaien lotura edo kateatzaren zeinua. Artikuluaren bukaera aldera, aldiz, eta frastikoa *item* solteen multzo hutsa bihur ez zedin, iradoki zuen hobe izan zitekeela bestelako bide bat izatea perpausak artikulatzeko, hitz bakoitzaren txertatze inguru posibleak zehaztuz.

<sup>112</sup> Searleren teorian hura zeinari ilokuzio indarra aplikatzen zaion, eta beraz ilokuzio indarretik kanpoko hondarra.

<sup>113</sup> Ikusi aurreko oin-oharra.

*neustic and clistic. In earlier writings I called this the phrastic. [...]*

*“A phrastic, then, would consist of an articulate combination of words, such than by adding to it a tropic we could give it a mood, and by adding a neustic we could subscribe to what was said in it. It would be required that the phrastic was complete in one sense of that expression; it would have to be such that it ‘made sense’ after a tropic and a neustic were added to it.” (Hare 1989: 34-35)<sup>114</sup>*

Harek bide hau eskaintzen du hizkuntza naturaleko esapideen bidez frastikoa adierazteko:

*“These two sentences would correspond to the normal English[:]*

*Shut the door.*

*You are going to shut the door.*

*We shall need technical terms for referring to these different parts of sentences. The terms adopted in my article<sup>115</sup> are not altogether satisfactory, and therefore I shall coin entirely new words. I shall call the part of the sentence that is common to both moods (‘Your shutting the door in the immediate future’) the phrastic”. (Hare 1952: § 2.1)*

Aditzaren nominalizazioen batek, desberdina hizkuntzaren arabera, balio dezake, beraz, frastikoa isolatzeko. Ingeleseko adibidean gerundibo baten bidez adierazi dena (“*your shutting the door...*”) aditz izen batez esango genuke

---

<sup>114</sup> Ostera ere Hare zalantzatsu agertzen da klistiko eta neustikoaren gehiketa ordenaz. Azkenean, dena den, badirudi zuzenagotzat jo zuela sinatze neustikoa esandakoaren osotasunaren markaren ondoren gehitzea.

<sup>115</sup> Hare (1949) artikulua ari da.

euskaraz (“zure atearen ixtea...”) edo infinitibo batez gaztelaniaz (“*tu cerrar la puerta*”). Aditz jokaera desagertzean, akabo tropikoa (edo Searleren teoriaren terminoetara hurbilduz, “linguistikoki kodeturiko egokitzapenaren norabidea (eduki) frastikoaren eta munduaren artean”). Hau Searlek berak seinatzen duen puntua da, adierazkarizko ilokuzio egintzez ari denean, ingelesez gehienbat gerundiboko egiturak eskatzen dituztenak (hots, *congratulations on winning the race* nahiz *I congratulate you on winning the race* eta ez \**congratulations that you won the race* ezta \* *I congratulate you that you won the race*):

“[...] *the explanation of the obligatory gerundive is that there is no direction of fit.*” (Searle 1975: 364)

Azken txatal biotako kontzeptuez baliaturik honela azter daiteke aipamenaren aurreko adibidea: hiztunak sinatzen duen ilokuzio egintza bigarren indikatzaileen bidez adierazita dator (*congratulations* nahiz *I congratulate you* zatietan), bakarrik horri aplikatzen zaio neustikoa eta ez haren mendeko osagarriari (*your winning the race*). Azken esapide honek Harek frastiko bat isolatzeko proposatzen duen forma du, tropikorik gabekoa eta, esan berri denez kasu honetan neustikorik gabekoa ere bai. Hala ere, adibideko *erabileran* erreferentzi egintza bat gauzatzeko balio du, hortik auresuposatzea<sup>116</sup> haren erreferentzia eman egiten dela:

“*Notice that in expressives there is no direction of fit. In performing an expressive, the speaker is neither trying to get the world to match the words nor the words to match the world, rather the truth of the expressed proposition is presupposed.*” (Searle 1975: 356-357)

Ikusten ari garenez, Hareren kontzeptuek balio dute gai honetan ideia bereziak izateko. Uste dut, hala ere, komeni dela Hareren “neustikoaren”

---

<sup>116</sup> Jakina denez, auresuposatze (*presupposition*) kontzeptua funtsezko bihurtu zen Strawsonen –(1950)-ko artikuluan eta bereziki (1964)-koan– garaturiko erreferentzi esapideen analitiko aurrera.



kontzeptuaren ulerkeran sakontzea. Ikusiko denez, neustikoak badu aplikazioa ilokuzio egintzaren beraren sinatzetik harago. Ondoko txatalean argudiatuko dut horren alde.

### **2.4.3 Neustikoaren zentzu bi: hizketa egintzaren izenpe edo sinatzea eta frastikoaren asetzearekiko hitzmate edo konpromisoa**

Orain arte ikusitakoaren arabera, Harek definitu zuen funtzio neustikoa gauzatzen ari datekeen hizketa egintzaren sinatze gisa, gogoratu:

*“[...] the neustic or sign of subscription to a speech act by a speaker or writer.” (Hare 2003: 9)*

Sinatze hori berori ere, nolabaiteko hizketa egintza bat da, ez gogo egoera edo gogo egintzaren bat:

*“[...] I am using ‘subscribe’ as a word, not for a mental act or state, but for the performance of some kind of speech act or act of communication. Obviously my signing of a cheque is not a mental act, and does not even need to be accompanied by one in order to signify my subscription.” (Hare 1989: 27)*

Honenbestez, “sinatze neustikoaz” mintzo daiteke, ilokuzio egintza bat gauzatzearekin batera burutu behar den beste hizketa egintza hori zeinen bidez hiztunak bere burua ilokuzio egintza huraxeren gauzatzearekin konprometitzen duen. Sinatze neustiko hau banaezina zaio ilokuzio egintzaren gauzatzeari: ilokuzio egintzarik izango bada, sinatze neustikoa beharrezkoa da. Bestela esanda, horrelako sinatze neustikoaren gabezia ageria bada bertan

behera geldituko da ilokuzio egintza. Halakoetan, nolabait, ilokuziorako beharrezkoa den komunikazio auresuposaketa<sup>117</sup> zapuzturik geratzen dateke:

*“Indeed, it is possible (if the communicative presumption is not in effect) for S [speaker, gure H edo hiztuna] to be performing no illocutionary act at all.” (Bach & Harnish 1979: 34)*

Horixe gerta daiteke norbaitek hizkuntza bateko esapideak ahoskera praktikatzeko asmoaz igortzen dituenean, adibidez. Harerekin bat eginez, esango nuke horrelako erabilerak *mimesi* kasuak direla:

*“This I shall call mimesis. It consists in the use of expressions which are, by convention, signs for performing a certain speech act, but not performing it in earnest.” (Hare 1989: 29)*

Aipameneko autoreak mahairaturiko mimesi adibidea, aktoreek ez dituztela benetan sinatzen antzeslan batean “gauzaturiko” ilokuzio egintzak, oso bestelakoa da, dena den. Horrelakoetan, nire ustez, ez sinatze neustikoa ez komunikazio auresuposaketa ez dira desagertu, eta ilokuzio egintzak gauzatu egin dira bai, baina fikzioan. Hots, horrelakoetan sinatze neustikoa ez zaio atxiki behar aktoreari (hiztunari), baizik eta pertsonaiari (komunikatzaileari):<sup>118</sup>

*“Very roughly, the speaker is the person who utters the sentence, and the communicator is the person, real or fictitious, to whom is (or may be) attributed the illocutionary act whose performance is indicated.” (Récanati 1987: 234)*

---

<sup>117</sup> Honela itzuliko dut Bach & Harnishen (1979) *communicative presumption* kontzeptua: hizkuntza komunitateko kideen arteko elkarrekiko ustea haietako batek zerbait esaten dionean *L* hizkuntzan beste kide *E* bati, ezagutgarri den ilokuzio asmoren batekin egiten duela.

<sup>118</sup> Hiztuna eta komunikatzailearen arteko bereizketaz edo “polifoniaz” ikusi Ducrot & al. (1980: 44-45) edota Récanati (1987: 234-235).

Sinatze neustikoa, ilokuzio egintzaren erantzunkizuna hartzea den neurrian, komunikatzaileari dagokion zerbait da:

*“Saying something is, for the speaker, communicating to the hearer the meaning of the utterance. This meaning consists in a set of indications relative to the illocutionary act that is supposed to be performed by the utterance. The ‘communicator’ is the person who has the responsibility for this illocutionary act.” (Récana 1987: 235)*

Hareren ustez, sinatze neustikoa bertan behera uzten duten beste mekanismoak ez lirateke izango mimesi kasuak, baizik eta bestelako zerbait:

*“Such non-serious, mimetic uses of language are to be distinguished from a quite different class of cases in which subscription is withheld, namely those in which expressions that, if isolated, would signify subscription to something, sometimes do not do so because they are embedded inside other expressions. Whether embedding always has this effect is disputed.<sup>[119]</sup> The most obvious examples are the embedded sentences contained in conditional clauses, ‘that’-clauses (in some contexts), disjuncts, sentences in quotation marks, and the like. Such non-subscription is obviously different from the mimetic kind.” (Hare 1989: 29)*

Nire ustez, aldiz, kasuotako batzuk ere (kakotx arteko zein *-la* klausulen bidezko aipamenenak bederen) azal daitezke hiztun/komunikatzaile bereizketaren bidez. Besteak (baldintzazko zein disjuntzio klausulak, adibidez)

---

<sup>119</sup> Aurrerago defendatuko dut horrelako zenbaitetan funtzio neustikoa ez dela bertan behera gelditzen, eta hori garrantzizkoa izango da nire ikerketa honetarako.

uste dut benetan dagozkiola fenomeno desberdin bati, zeinak balioko baitit erakusteko funtzio neustikoak beste esanahi bat ere baduela (kontzeptuaren jatorri historikoan atzeman nahi zena). Horri ekingo diot segidan, jatorri historiko hori gogora ekarriz.

Hare bera (1970: 20) esplizitua da esanez bere kontzeptuek funtzio neustiko eta tropikoaz jatorria dutela Fregeren ( $\vdash$ ) baiespen zeinuaren funtzio biak atzeman nahian.<sup>120</sup> Tropikoak jaso du modu indikatiboa eta aginte moduaren arteko aldea. Neustikoa ez da mugatuko igorpen “serioak” “ez-serioetatik” bereiztera. Balio behar luke atzemateko Fregeren analisisetako beste zenbait ideia sakon. Albora dezagun tropikoari zor zaion aldea eta har ditzagun soilik modu indikatiboko esapideak. Fregek, haren 1918-1919ko “Der Gedanke” artikuluko ospetsuan (aurrerantzean Frege 1956) baiespen (kategoriko) bat eta (bai/ez) galdera bat kontsideratzen ditu.<sup>121</sup> Hauxe da biek komun dutena: bietan “pentsamendu” (*Gedanke*) bat adierazten da, hots, (izari tropikoan) munduarekin egokigaita den frastikoa duen objektu intentsional bat. Bion arteko aldea beste zerbaiti zor zaio: adierazi egin daiteke pensamendu bat berau *egiazkotzat proposatu* gabe. *Egiazkotzat proposatze* honek bereizten du baiespena galderatik, zeinetan hura desagertua den.

Haren etorri fregearra kontuan harturik, espero zitekeen neusi kontzeptuak “egiazkotzat proposatze” hau atzematea. Izan ere, badago hizketa egintzaren teorikoren bat horrela interpretatu duena, hauxe Harek definituriko sinatze neustikoaren baliokidea balitz bezala:

---

<sup>120</sup> Aipamenak nahas dezake irakurlea, autorearen terminologiaren erabilera oso aldagarria izan zelako, hasieran *neustiko* hitzak *tropikoa* ere barruratzen zuelarik. Oin-oharrea jartzea egokiagoa iruditu zait:

“There is, however, an important distinction to be made here which Russell did not make, and which, although I made it in some earlier unpublished work [Hare (1950)], I omitted to make when I took over the Frege-Russell device [nik azpimarratua] in The Language of Morals [Hare 1952] (Ch. 2). In that book, I used a particle called the neustic, which did two jobs, one of them that of the Frege-Russell assertion sign (which itself has two functions, corresponding to the two strokes of Frege’s sign; but we need not complicate the present issue by bringing in that distinction); the other job that my neustic did was that of a sign of mood to differentiate imperatives and indicatives. I now think that, in the supposed interests of simplicity, I sinned against the light by blurring the distinction between sign of mood and sign of subscription.” (Hare 1970: 20)

*“The neustic expresses the speaker’s “subscription” to the proposition he expresses in a certain mood (i.e., his actual performance of the type of illocutionary act indicated by the tropic).” (Récanati 1987: 262)*

Baina, nire ustez, argi dago kontzeptu desberdin bi direla ilokuzio egintzaren buruketaren “sinatze neustikoa” (goiko aipamenean parentesiaren barruan adierazia) eta frastiko zein proposizio edukiaren asetzearekiko hitzmate edo konpromisoa (parentesitik kanpokoa).<sup>122</sup>

Historikoki kontzeptu biok daude justifikaturik eta biak beharko ditugu, baina kontzeptuen argitasunak eskatzen du bereizita mantentzea. Ondorioz, “sinatze” eta “hitzemate” neustikoez mintzatuko naiz, hurrenez hurren. Bigarrena jokoan sartuko da kasuko ilokuzio egintzaren xedean frastikoaren asetzea erdiratuta badago (Searleren adierazkariak kanpoan uzteko bidea zabalduz). Honenbestez hitzmate neustikorako baldintza nahiko bat ezarri berri dut, baina ikusteke dago beharrezko baldintza ere den ala ez, hots, inolako hitzmate neustikoaz mintza daitekeenetz auresuposaturiko frastikoen kasuetan. Arazo hori beste honen kasu berezi bat da: ea txertaturiko (*embedded*) esapide guztiek galtzen duten ala ez euren funtzio neustikoa. Hareren azken aipamenean irakurri dugu hori ihardukari eztabaidatua dela. Segidan emango dut nire ikuspuntua.

Hasteko, bai Fregek, baita ondoren Whitehead eta Russellek (<sup>1</sup>1910-1913, <sup>2</sup>1957) ere argi utzi zuten baiespen edo teorema zeinua soilik aplikatzen zitzaiola atzetik zetorren esapide osoari. Horrek garrantzia handia zuen logikaren teorema egokiro interpretatzeko: hauek beti izango dira logikaren lokailuen bidez konposaturiko esapideak (hala nola “p edo ez p”, edo “baldin p orduan p”), baina bakarrik dira logikoak euren osotasunean harturik. Argi

---

<sup>121</sup> Gramatikaren termino hutsetan zera esan daiteke: zenbait erabilera metafrastikoez kanpo (entzundakoa ziurtatzekoak), itaunkarizko modalitateak aditz modu indikatiboa eskatzen duela.

<sup>122</sup> Récanati zuzen balego, adibidez, ilokuzio egintzen teoria ezinduta legoke galdera (ez erretorikoak) azaltzeko.

dago hitzmate neustikoa dela kontua hor eta esapide osoari atxikitzen zaiola, ez haren zatiei isolamenduan.<sup>123</sup> Horrek, halaber, argi uzten du Hareren ardura ere, txertaturiko esapideen neustikoaz aritzean, hitzmate neustikoa zela eta ez sinatze neustiko soil. Horrelako adibide bi zetozen Hareren azken aipamen horretan: disjuntzio batez loturiko klausulak eta baldintzazkoak. Lehenengo kasuan argi dago esaleak (termino hau erabiliko dut aurrerantzean hiztuna/komunikatzaile bitartasuna besarkatzeko) ez duela bermatzen perpaus isolatu baten zein bestearen egia (orokorrigo, asetzea), baizik eta bien disjuntzioarena (bata asetzen ez bada, bestea bai, agian biak disjuntzio ahularen kasuan). Baina azter dezagun baldintza-ondorio baiesperen baten kasua. Hau da esalearen hitzmatea: ondorioaren asetzearekiko, baldintzarena eman ez gero (hau eman ezean, logikarien aburu, gerta liteke ondorioarena esalearen hitzmatea gezurtaturik suertatu gabe, baina hori bitxia izango litzateke benetako komunikazio egoera batean, zeinetan koskara datorren informazioa —*relevant information*— ematen dela suposatzen baita<sup>124</sup>). Esan daiteke esaleak ez duela baldintzaren asetzearekiko konpromisorik hartzen eta baduela hartzen ondorioarenarekin, baina era baldintzatuan, *baldintzapean*. Merezi du konturatzek baldintza eta ondorioa gauza daitezkeela sorta bateko ilokuzio egintza desberdinen bidez, adibidez:

- (51) —Demagun ilargian gaudela.  
—Kasu horretan gure pisua sei bider txikiagoa izango litzateke, gutxi gorabehera.

Baldintza-ondorio edo protasi-apodosi egituraren bidez hizkuntzek hornitzen gaituzte horrelako ilokuzio egintzak trinkoago adierazteko, esaldi bakar batean:

- (52) —Ilargian bageunde gure pisua sei bider txikiagoa izango litzateke, gutxi gorabehera.

---

<sup>123</sup> Konjuntzio logikoak loturiko osagaiak ez badira, behintzat.

<sup>124</sup> Komunikazio egintzak bideratzen dituzten arauak (*maxims*) eta pertinentzia (*relevance*) kontzeptuak ikusi Griceren (1967, 1975) —(1989)-an berrargitaratua— eta Sperber & Wilson (1986, 1995).

Uste dut hitzmate neustikoaren kontuaz erabaki berdinak hartu behar direla adibide biotan. Lehentxeago aurreratua dut nire proposamena: apodosiaren bidez edo balizko kasu batean kokatuz egindako baiespenean baldintzapeko hitzmate neustikoa dugu, protasiaren erabileran edo suposatzearen kasuan hitzmate neustikoa bertan behera gelditzen den bitartean.

Ondorioz, suposatzeari ere egotz dakioke lehenago galderez esandakoa: bietan gauzatzen da komunikazio egintza bat, ilokuzio egintza bat, bietan dago indarrean sinatze neustikoa, beraz; baina bietan laga da bertan behera frastikoaren asetzearekiko hitzmate neustikoa, kasu batean ondorioak ateratzearen, bestean asetze horretazko informazioa ondoren eman dadin. Kasu bakoitzak berriazko markatzaileak ditu; agian ez da kasuala suposatzearen marka tipikoa morfematikoa izatea eta galderena (hizkuntza gehienetan, ez guztietan) intonaziozkoa. Hau, nolabait, egintza xaloagotzat jo daiteke, hitzmate neustikoaren parentesi artean jartzea, besterik gabe. Tropikoak hortxe jarraitzen duenez (indikatioa; bestelako aditz moduak bakarrik ager daitezke galderetan entzundakoa ziurtatzeko erabilera metafrastikoetan), informazioaren eskea parentesi artean jartze horren konbentziozko inplikatura<sup>125</sup> bat izan zitekeen hizkuntzaren fase oso primitibo batean (geroztik linguistikoki kodetutzat jo daitekeen arren). Suposatzea zerbait konplexuagoa da: frastikoaren asetzea (egia azken finean, galderetan bezalaxe suposatzeak modu indikatiboa eskatzen baitu) *epoche* baten mendean jarri ordez, kontuan hartua izan dadin proposatzen da. Frastikoaren egiaz, esaleak ez du bere hitza ematen; beste zerbait egiten du: egia hori aukera bezala mahairatu. Egintza bakoitzaren indikatzaileen jatorrien inguruko espekulazioez aparte, analisi honek argia jaurti dezake auresuposatzearen egintza gainean. Horren aurretik, dena den, laburbilduko ditut txatal honetan orain arte luzaturiko proposamenak.

---

<sup>125</sup> Solas inplikaturak eta inplikatura konbentzionalen kontzeptuez ikusi Grice (1967, 1975).

Hitzemate neustikoaren kontzeptua oso baliagarria suerta dakiguke gradu kontu bat dela konturatuz gero: mailarik baxuenean galderetan agertzen den bertan beheraketa dagoke; maila berean, baina klistiko ez osoaren marka bereiziaz lagunduta,<sup>126</sup> aurki dezakegu suposatzea (frastikoaren asetzeta kontuan hartzeko aukera posible gisa mahairatzea); aukera (logikoki<sup>127</sup>) posible hori klistiko osoarekin agertuz gero, hots ondorioz adierazi gabe baina hala ere galdera bat luzatu barik, interpretatzen dateke esalearen desira (edo damu) baten adierazpenaren aurrean gaudela. Hiru kasuetan frastikoa asetzat jo beharrean, *sub iudice*, irizpean ipintzen da, erantzun bati begira, ondorio bati begira, edo bere horretan (beste ezeri begiratu barik), hurrenez hurren. Maila bat gorago dakegu baldintza (beharbada implizitu) baten mendean egindako hitzemate neustiko baretua (euskaraz aditz jokatuari *-ke* hizkia gehituz seinalatua batzuetan, edo horren pareko bide batez, nahitaez baldintza implizitua bada); eskalaren goiko aldean koka daiteke berezko hitzemate neustiko arrunta:

(53) *Hitzemate neustikoaren graduen adibideak:*<sup>128</sup>

- |   |   |
|---|---|
| 1. <i>Berezko edo neutroa:</i>  | Mendira joan nintzen./Har ezazu.<br>(‘I went to the mountain’./ ‘Take it’)                                  |
| 2. <i>Abuldu edo baretua:</i>   | Mendira joan nintzatekeen./Har ezakezu.<br>(‘I would have gone to the mountain.’/ ‘Take it (if you want.)’) |
| 3.a <i>Bertan beberatua (a):</i>  |   |
| Sub iudice <i>jartzeta, ondorio bati begira</i><br>( <i>klistiko ez osoa</i> ): | Mendira joan banintz...<br>(‘If I had gone to the mountain’)  |
| 3.b <i>Bertan beberatua (b):</i>  |   |
| Sub iudice <i>jartzeta, erantzun bati begira:</i>                               | Mendira joan (al) nintzen?<br>(‘Did I go to the mountain?’)   |
| 3.b <i>Bertan beberatua (c):</i> <sup>129</sup>                                 |   |
| Sub iudice <i>jartzeta, bere horretan, beste</i>                                |   |

<sup>126</sup> Txatal honetako adibideetan argi ikus daiteke hau: suposatua ez da inoiz esandako *guztia*, ondorioren bat izaten du.

<sup>127</sup> Beharbada ez posiblea metafisikoki, esaterako iraganari erreferitua bada.

<sup>128</sup> Searle eta Vandervekenen teoriarik, mailaketa honetatik hurbilena (baina ez zehazki baliokidea, ikusi 130. oin-oharra) hau dateke: adierazitako gogo egoeren bizkortasun graduena. Hala ere, baduke eragina ilokuzio egintzaren aurkezpenaren bizkortasun graduan ere, (eta agian ilokuzio egintzaren “estiloan”).

<sup>129</sup> Bertan beheratuon arteko aldea, Searleren teoriako terminoetan, diskurtsoaren gainontzekoarekiko harremanei dagokie.



*ezeri begiratu gabe:*

Ainintz mendira joan(en)!/ Ainendi mendira  
joan!  
(*If (only) I went to the mountain!*)

Itaun daiteke, puntu honetan, ea ez ote dagoen hortik goragoko mailarik, hots, ea onartu behar ez den hitzmate neustiko indartu bat, ondoko adibideetako esapideen aldea azalduko lukeena:

- (54) a) Mendira joan nintzen. (*I went to the mountain.*)  
b) Mendira joan nintzen, zinez! (*I went to the mountain, truly.*)

Nire ustez, bigarren esapideak —bai intonazio esklamatiboari, bai “zinez” lexemari esker— balio dezake indartsuago adierazteko esalearen konpromisoa gauzatzen ari den ilokuzio egintzarekiko, hots, sinatze neustiko indartu bat adierazteko,<sup>130</sup> eta *ondorioz*, (ilokuzio xedeak frastikoaren asetzea erdiratzen duenean) esalearen hitzmate neustiko indartua ere bai. Antzeko adibideak eskain daitezke zuzenkarietarako:

- (55) a) Sar zaitez. (*Come in.*)  
b) Sar zaitez, behingoz! (*Just come in, at once!*)

Zuzenkari zein hitzemankarien, alde batetik, eta baieskarien arteko aldea ez dagokio izari neustikoari, baizik eta tropikoari. Jakina, ez da berdina konprometitzea, erantzunkizuna hartzea, frastikoaren asetzearen baiespenarekin eta haren hizketa egintzaren ondorio gisako burutzearekin (berdin da buruketaren ardura zeini egozten zaion, entzuleari edo esaleari, hau gauzatzen dituen zuzenkarizko hizketa egintzen ondorioen erantzulea baita).

Esandako alde tropiko hori jasoteko, esan genezake baieskarietan frastikoa hizketa egintzaz aparte ase/aseko den *propositio* gisa aurkezten dela, zuzenkari eta hitzemankarietan, aldiz, hizketa egintzaren ondorioko *propositum*

---

<sup>130</sup> Sinatze neustikoaren graduak dirateke, nolabait, Searleren teoriako gogo-egoeren adierazpen bizkortasun mailak. Dena den, gogo-egoeren adierazpen hori zerbait eratorria delakoan nago. Horren aurretik *esalearen hizketa egintzaren gauzatze bizkortasun gradua* dukegu.

gisa. Biak, *propositio*-a eta *propositum*-a jausten dira *positio* kategoriaren pean, positiboki (*positum*) adierazitako berezko konpromiso neutroarena.

Maila horren azpian bereiztua dut *sub iudice* jartzearena. Beste ezeri begiratu gabe eginez gero, desira edo damu baten adierazpena dukegu, esalearen aukera (*optio*) litekeenarena; erantzun bat lortzeari begira egiten bada, galdera (*quaestio*) baten aurrean gaude; ondorio bat iradokitzeari begira eginez gero suposatze (*suppositio*) bat dugu.

Aztertzeke dugu balizko beste maila bat, auresuposatzeari (*presuppositio*) dagokiona, aurreko biekiko harremanean nonbaiten kokatu beharko litzatekeena (ez datza frastikoaren asetzearekiko konpromisoa positiboki ezartzean, ezta kontuan hartzeko aukera gisa zein informazioa emateko gaitzat ipintzean, baizik eta bermatutzat jotzean —*to take it for granted*—).

Nire ikerketa honen helburuetarako nahikoa dut kontuan hartzea Strawsonen jatorrizko “auresuposatze” nozioa, haren (1964)-ko artikuluan garatua erreferentzia identifikatzailea egiteko erabiltzen diren esapideen funtzioa azaldu nahian. Funtsezko bereizketa da auresuposatua (*presupposed*) eta baietsiaren (*asserted*) artekoa, baina badakigu “baiespen” termino anbiguoaren orde zehatzagoa dela funtzio neustikoaren “sinatze” eta “hitzemateaz” mintzatzea. Beraz, lan honetan zehar ikusitako terminoetan, aldea datzake auresuposatuaren eta neustikoki hitzemandakoaren artean.<sup>131</sup> Erreferentzia identifikatzaile bat egitea ez da objektu horren existentziaren baiespen bat:

*“The distinction between identifying reference and uniquely existential assertion is something quite undeniable. The sense in which the existence of something answering to a definite description used for the purpose of*

---

<sup>131</sup> Geroago finduko dut aldearen *behin-behineko* azalpen hau.

*identifying reference, and its distinguishability by an audience from anything else, is presupposed and not asserted in an utterance containing such an expression, so used, stands absolutely firm". (Strawson 1964; <sup>1</sup>1971, <sup>2</sup>2004: 64)*

Gai honetako bere aurreko artikulu ospetsuan (Strawson 1950), autoreak ez zuen erabili “auresuposatze” terminoa, baizik eta “inplikatzearena” (*implying*):

*“Now, whenever a man uses any expression the presumption is that he thinks he is using it correctly: so when he uses the expression “the such-and-such”, in a uniquely referring way, the presumption is that he thinks both that there is some individual of that species, and that the context of use will sufficiently determine which one he has in mind. To use the word “the” in this way is then to imply (in the relevant sense of “imply”) that the existential conditions described by Russell are fulfilled.”*  
*(Strawson 1950: 332)*

Bestela esanda, esapide bat erabiltzea erreferentzia identifikatzailea egiteko ez da existentzia baiespen bat egitea, baina badakar (*implies*) berarekin horrelako baten asetzea:

*“[...] a uniquely existential assertion is implied, but not entailed, by the use of expressions in the uniquely referring way.” (Strawson 1950: 332)*

Argi dago: erreferentzia egitean existentzia baiespen bat *egiten* ez bada ere, erabileragatik beragatik esaleak bere burua konprometitzen du horrelako baiespen baten bidez adieraz litekeen frastikoaren asetzearekiko. Horrekiko hitzmate neustikoa hortxe dago, nahiz eta —bilatzen den helburu nagusia ez izanik— bigarren maila batean, foko nagusitik kanpo, nolabait esatearren. Izan

ere, Strawsonen aburu (1964), erreferentzia identifikatzailea egiteko erabilitako esapide akastuna topikoan badago, ilokuzio egintzak porrot egiten du haren egiaren (orokorrago, asetzearen) kontua jokoan sartu aurretik, baina esapide bera topikoan egon ezean, hots fokoan<sup>132</sup> egonez gero, esandakoa (baiespenen kasuan) faltsua dela esan daiteke.<sup>133</sup>

Historikoki erabilitako terminologiak erraz desbidera gintzake puntu honetan. Ohiko baiespen/auresuposatze banaketa ez da egokia, erreferentzialki erabilitako esapideen auresuposatzeak ez baitu bakarrik eragina baieskarizko ilokuzio egintzen zorionean:

- (56) Frantziako erregea burusoila da. (*The king of France is bald.*)  
Frantziako erregea burusoila al da? (*Is the king of France bald?*)  
Frantziako erregea ekarridazue! (*Bring the king of France to me!*)

Kontuan harturik neusiaren kontzeptuaren jatorri historikoa, egokiagotzat jo liteke beste banaketa hau: hitzimate neustikoa/auresuposatzea. Baina azken honek oraingoz gehiegi sinplifikatuko luke ihardukaria. Nire ikuspegia argiago garatu ahal izateko, proposamen terminologiko bat luzatuko dut. Ikusi dugu hitzimate neustikoa bertan behera gera daitekeela modu desberdinetan, haietako bat suposatzea (*suppositio*) delarik. Izen bat behar dugu bertan behera gelditu ez den hitzimate neustikorako. Latineko erro etimologiko berdinez baliatuz, *positio* (“ezarpena”) terminoa erabiliko dut. Nire puntua hau da: *suppositio*-aren (suposatze) eta *positio*-aren arteko aldea hitzimate neustikoaren gradukoa dela, baina *presuppositio* (auresuposatze) eta *positio*-aren artekoa besarkadura kontua dela. Honekin esan nahi dut biotan adierazten dela hitzimate neustikoa, baina

---

<sup>132</sup> “Fokoan” esan beharrean zehatzago izango litzateke esatea “*rbeman*” edo “*ergonean*”, baina “foko” hitzaz errezago ulertuko da intuitiboki zer esan nahi den. “Topikoa” edo hura zertaz mintzatzen ari den esateko ohiko beste izendapena “*thema*” da. Topiko edo *thema* ez den guztia “*rbema*” edo “*ergon*” izenaz ezagutzen da; honen barruan dago fokoa, inoiz koestentsiboak izanik. Bereizketa hauetaz ikusi Coterón (2007b).

<sup>133</sup> Geroztik, ez dira gutxi izan proposamen teorikoak zeinetan topikoa/fokoa banaketaren ordeztan auresuposatzea/fokoa zatiketa defendatu den. Ikusi Heusinger (1999) ikuspegi historiko baterako, eta fokoaren ulerkeraren egoki baterako Lambrecht (1996).

bakarrik ezarritakoa kokatzen dela ilokuzio xedearen erdigunean, auresuposatua periferian gelditzen dela, dagoeneko onartutzat joa. Eskematikoki adieraztearren:

ILOKUZIO XEDEAREN →	ERDIGUNEAN	PERIFERIAN
HITZEMATE NEUSTIKOAREN GRADUA ↓		
(Ez bertan beheratua): Berezkoa baino altuagoa Berezkoa Baretua	<i>Positio</i> -a (ezarpena: tropikoaren arabera <i>propositio</i> edo <i>propositum</i> -a)	<i>Presuppositio</i> -a (auresuposatzea)
Bertan beheratua: <i>sub iudice</i> jarrita	<i>Quaestio</i> -a (galdera: erantzun bati begira)  <i>Suppositio</i> -a (suposatzea: ondorio bat iradokitzeari begira. Klistiko ez osoa eskatzen du)  <i>Optio</i> -a (esalearen aukera litekeenaren adierazpena)	

30. taula     *Hitzemate neustikoa: positio, quaestio/suppositio/optio eta presuppositio-a.*

Kontzeptu bereizketa hau, aurrerago ikusiko denez, balio handikoa izango dugu euskal aditzaren morfosintaxiaren ulertzerako, izan ere marka morfologiko ber bat (-n) agertzen baita positiboki ezarritako hitzemate neustikoa adierazten duten klausula nagusiko zenbait aditzetan eta auresuposatzea dakarten klausula menderatuetako aditzetan.

Bestalde, azpimarratzekoa da koadroan proposaturiko galderen interpretazioa. Horren arabera informazioa eskatzeko bidea hau izango litzateke: bertan behera lagatzea frastikoarekiko hitzemate neustikoa. Hori uler daiteke erantzuteko eskaritzat (kasu arruntean) edo ez (galdera erretorikoen kasuan).<sup>134</sup> Horrek esan nahi du itaunkarizko perpaus motak bideratzen dituen

<sup>134</sup> Azken hauen azalpen alternatibo bat dateke kontsideratzea halakoetan hitzemate neustikoaren bertan beheraketaren marka agertu arren, ulertu egiten dela horren benetako adierazpenik ez dela egin.

ilokuzio egintza desberdinen ilokuzio xedeek komun duten minimoan erdiratu egiten dela frastikoaren asetzaren kontua. Baieskarien kasuan bezalaxe, eta zuzenkarienean ez bezala, asetze hori ez dago hitzunaren zein entzulearen (edo hobeto esanik, polifonia kasuak barruraturaz, esalearen zein jasolearen) esku. Baieskarien kasuan, hala ere, asetzea kontu enpirikoa da; galderena, aldiz, elkarrekintza eta elkarreragin sozialari dagokio, zuzenkariekin gertatzen den bezalaxe, non frastikoarena ezezik ilokuzio egintzaren asetzea ere jokoan sartzen den. Hau da, ilokuzio xedearen arabera, tropiko eta egokitze norabide desberdinok dituzkegu:

ILOKUZIO EGINTZAREN EZAUGARRIAK →	ILOKUZIO XEDEA	ILOKUZIO XEDEAK ERDIRATURIKO TROPIKOA (FRASTIKOA-MUNDUA EGOKITZAPENA)	ILOKUZIO EGINTZAREN ASETZEA DAKARKEENA
(LINGUISTIKOKI ETA HITZEZ HITZ ADIERAZITAKO...) ↓			
Baieskariak	Mundua frastikoaren araberkoa <i>dela</i> ezarri	Frastikoa munduarekin	
<i>Bai/ez</i> galderak (ez erretorikoak)	Jasoleak frastikoaren eta munduaren arteko egokitzeapena ezartzea	Frastikoa munduarekin	Jasolearen ondoko ilokuzio egintza bat
<i>Wh-</i> galderak (ez erretorikoak)	Jasoleak munduarekin egokitzen den frastikoa osatzea		Jasolearen ondoko ilokuzio egintza bat
Zuzenkariak	Jasolea frastikoaren arabera <i>jokatze</i> ko <i>konpromisoan jarri</i>	Mundua frastikoarekin	Mundua hitzekin batera dezan (jasolearen) ondoko ekintza bat
Hitzemankariak	Esalea frastikoaren arabera <i>jokatze</i> ko <i>konpromisoa hartu</i>	Mundua frastikoarekin	Mundua hitzekin batera dezan (esalearen) ondoko ekintza bat
Aldarrikariak (gauzatzeko aditzen orainaldiko indikatiboko lehen pertsonako adizkien bidezkoak)	Esalea mundua frastikoaren arabera ezartzen ari dela ezarri	Mundua frastikoarekin (ilokuzio indarraren bigarren indikatzaileen esanahia kontuan hartuta)  (Frastikoa munduarekin lehen indikatzaileetara mugatuz gero)	Egintzaren eta bere ondorioen gizarte onarpena
Adierazkariak	Esalearen adierazpen bat egin (aurreuposaturiko) frastikoa dela eta		

31. taula Tropiko eta egokitze norabide konbinaketak ilokuzio egintza mota desberdinetan.

Sinatze neustikoa buruturiko ilokuzio egintza guztiei suposatzen zaien bitartean, hitzmate neustikoa bakarrik sartzen da jokoan ilokuzio xedeak frastikoaren asetzearen ihardukaria erdiratzen duenean.<sup>135</sup> Sorburu bera dute sinatze eta hitzmate neustikoen artean ez bereiztearen akatsak eta egokitze norabidearen funtzio biak ez desberdintzearenak. (Bide batez, tropikoak ez bezala, ilokuzio egintzaren beraren asetzeari dagokion egokitze norabideak bakarrik du balio bat, mundua hitzekikoa.)

## 2.5 Trataera formalerako proposamenak

Orain arte ikusitako faktoreok, honelako eskema baten arabera ordena daitezke:

$$(57) v(\tau(\kappa(\varphi)))$$

v: neustikoa  
 $\tau$ : tropikoa  
 $\kappa$ : klistikoa  
 $\varphi$ : frastikoa

Zenbait adibidez balia gaitzke termino bakoitzaren ekarpen teorikoa argi eta garbi uzteko.

---

<sup>135</sup> Eta orduan, balio klistikoaren arabera, frastiko horrekiko hitzmatea erdigunekoa edota periferiakoa izan daiteke

LINGUISTIKOKI ADIERAZITAKOAREN IZARIAK →	φ FRASTIKOA	κ KLISTIKOA	τ TROPIKOA	ν NEUSTIKOA
(ADIERAZPIDEA...) ↓				
that you are awake	your being awake	Ez osoa	Frastikoa munduarekin (ez erdiratua) ⇐	⇐ Indargabetua
			Frastikoa munduarekin (erdiratua) ⇐	Indarrean: berezko edo neutroa, periferiakoa
you to be awake	your being awake	Ez osoa	Mundua frastikoarekin (ez erdiratua) ⇐	Indarrean: berezko edo neutroa, periferiakoa
You are awake	your being awake	Osoa	Frastikoa munduarekin	Indarrean: berezko edo neutroa, erdigunekoa
You, be awake!	your being awake	Osoa	Mundua frastikoarekin	Indarrean: berezko edo neutroa, erdigunekoa
Are you awake?	your being awake	Osoa	Frastikoa munduarekin	Indarrean: bertan beheratua (erantzun bati begira), erdigunekoa
Who is awake?	whose being awake	Osoa	Frastikoa munduarekin (erdiratua: frastikoko argumenturen baten balioa zehaztea)	Indarrean: bertan beheratua (erantzun bati begira), erdigunekoa
If only you were awake!	your being awake	Osoa	Frastikoa munduarekin	Indarrean: bertan beheratua, erdigunekoa
If you are/were awake, (then...)	your being awake	Ez osoa	Frastikoa munduarekin	Indarrean: bertan beheratua (ondorio bati begira), periferiakoa

32. taula Frastiko, klistiko, tropiko eta neustiko bereizketen adibideak.

Segidan, taula honetako ilokuzio indarraren osagaien jorraketa formalerako proposamentak luzatuko ditut. Batzuetarako operatzaileez baliatuko naiz, besteetarako tasun bitarrez. Azkenon balioen gainean aurrekoen eragiketa gauza daiteke.

### 2.5.1 Aldaera klistikoen atzemate formala

Adizkiak mota desberdineko klausuletan ager daitezke: batzuen hitzez hitzeko erabilerak mezu osoak adierazteko balio dezakete inolako aurretestuigururik gabe (*out of the blue*), beste batzuenak ez. Lehenengo balioa ez markatutzat



joaz, klistikoaren balio oso horri “ez zatikoa” esan dakioke, eta markatuari “zatikoa”.

Kontzeptuok semantikoak diren arren, badute korrelazio bat gertaera sintaktikoekin: lehenengo motako klausulak bat datoz, gutxi gorabehera, perpaus nagusi edo independentekin; bigarrenak, perpaus menderatuekin, baina baita protasi-apodosi periodoko lehenarekin ere. Hala ere, arazo sintaktikoak alboratzearen,  $\kappa$  balio klistikoa (ez-zatikoa/zatikoa) jaso dezakegu operatzaile baten bidez zeinak era berean adieraziko dukeen ea adizkia barruratzen duten klausulek *erabilera independentea* izan dezaketen (balio negatibo ez markatua jasoz) edo *erabilera dependentea* izan behar duten (balio positibo markatua egotziz).<sup>136</sup> Honela:

(58) *Etiketa eta definizioa 6.*

$\pm\kappa$ DEP : adizkia dagoen klausularen erabilera dependentea edo independentea izatearen adierazpena, eta balio klistikoa, hurrenez hurren, zatikoa edo ez-zatikoa (osoa).

Ikusten joango denez, arrazoi desberdinak daudeke  $+\kappa$ DEP balio klistiko markaturako. Izan ere, berau ez da inoiz agertuko operatzaile (“neustiko”) bati edo besteri loturik ez bada. Operatzaile horiek guztiak definitu bitartean, puntu hori formalki adierazteko **N-OPERATZAILA** metaetiketa batez baliatuko naiz:

(59) *Etiketa eta definizioa 7.*

**N-OPERATZAILA**: TAM sistemako zenbait operatzaile (operatzaile “neustikoei”) erreferitzeko metaetiketa

Eta ondoko notazio *sui generis* honek balioko digu adierazteko  $+\kappa$ DEP balio klistikoaren dependentzia horrelako operatzaile neustikoekiko:

(60)  $^{+\kappa$ DEP **+N-OPERATZAILA**

---

<sup>136</sup> Operatzaile honen balioa negatiboa izango da, adibidez, *joan dadila* bezalako agintera batean, nahiz eta sintaxi batek edo bestek horrelako perpausa menderatu gisa eratorri.

Edo, operatzaileak balio klistikoaren aldaerarik ez dakarrenean:

$$(61) \text{ }^{-\kappa\text{DEP}} \text{ }^{+\text{N-OPERATZAILEA}}$$

Defini dezadan esplizituki, beraz, notazio hori:

$$(62) \text{ Etiqueta eta definizioa 8.}$$
$$\text{ }^{\pm\kappa\text{DEP}} \text{ }^{+\text{N-OPERATZAILEA}}: \text{ operatzaile neustikoren batek } +\kappa\text{DEP} \text{ balio}$$
$$\text{ klistikoa dakarrela edo ez dakarrela adierazteko}$$
$$\text{ notazioa}$$

$+\kappa\text{DEP}$  balioa dakarketen operatzaileak argi zehaztuko dira aurreraxeago. Inoiz  $+\kappa\text{DEP}$  notazioa erabil daiteke, guztiz zehaztuta utzi gabe zein den balio hori dakarkeen  $\text{N-OPERATZAILEA}$ :

$$(63) \text{ TAM sistemako postulatua 5.}$$
$$\text{ }^{+\kappa\text{DEP}} \text{ }^{+\text{N-OPERATZAILEA}} \rightarrow +\kappa\text{DEP}$$

Halaber:

$$(64) \text{ TAM sistemako postulatua 6.}$$
$$\text{ }^{\pm\kappa\text{DEP}} \text{ }^{+\text{N-OPERATZAILEA}} \rightarrow \text{ }^{+\text{N-OPERATZAILEA}}$$

Ikusten joango garenez hiru izango dira  $+\kappa\text{DEP}$  balioa dakarketen horrelako operatzaileak:

$$(65) \text{ TAM sistemako postulatua 7. (Behin-behinekoa.)}$$
$$+\kappa\text{DEP} \leftrightarrow$$
$$(\text{ }^{+\kappa\text{DEP}} \text{ }^{+\text{N-OPERATZAILEA1}} \vee \text{ }^{+\kappa\text{DEP}} \text{ }^{+\text{N-OPERATZAILEA2}} \vee$$
$$\text{ }^{+\kappa\text{DEP}} \text{ }^{+\text{N-OPERATZAILEA3}}) \text{ }^{137}$$

Zehatzago izanik, kasu bakoitzean horietako bakar bati zor ahalko zaio  $+\kappa\text{DEP}$  balioa:

---

<sup>137</sup> “ $\leftrightarrow$ ” zeinua lehen mailako logikako bibaldintzatzailearena da: lotzen dituen alde biak batera eman behar dira (edo ez eman). “ $\vee$ ” zeinua, bere aldetik, lehen mailako logikako disjuntzio ahularena da. Beraren bidez adierazten da lotzen dituen osagaietako bat *gutzienez* ematen dela.

$$(66) \text{ TAM sistemako postulatua 8.} \\ \neg(+\kappa\text{DEP } +\text{N-OPERATZAILEA1} \wedge +\kappa\text{DEP } +\text{N-OPERATZAILEA2})$$

Postulatu bion konbinaketa adierazteko baliatuko naiz disjuntzio gogor edo esklusiboaren (XOR lokailuaren) bertsio poliadiko batez (zera adieraziz, lokailuaren ondoko zerrendako argumentu bat ematen dela eta soilik bat):

$$(67) \text{ Etiketa eta definizioa 9.} \\ \text{XOR}(A, B, C) =_{\text{def}} (A \vee B \vee C) \wedge \neg(A \wedge B) \wedge \neg(A \wedge C) \wedge \neg(B \wedge C)$$

Honela:

$$(68) \text{ TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 1. (Behin-behinekoa.)}^{138} \\ +\kappa\text{DEP} \leftrightarrow \\ \text{XOR}(+\kappa\text{DEP } +\text{N-OPERATZAILEA1}, +\text{N-OPERATZAILEA2}, \\ +\text{N-OPERATZAILEA3})$$

Izan ere, N-OPERATZAILE bat beste bati aplikatzen zaionean, bakarrik azken aplikaziokoak dakarke  $+\kappa\text{DEP}$  balioa:

$$(69) \text{ TAM sistemako postulatua 9.} \\ +\text{N-OPERATZAILEA1}(+\text{N-OPERATZAILEA2}(\dots)) \rightarrow \\ \pm\kappa\text{DEP } +\text{N-OPERATZAILEA1}(\neg\kappa\text{DEP } +\text{N-OPERATZAILEA2}(\dots))$$

Hain zuzen, horixe da kasua adizki batean adierazpena duen N-OPERATZAILEA bakarra ez den bakoitzean:

$$(70) \text{ TAM sistemako postulatua 10.} \\ (+\text{N-OPERATZAILEA1} \wedge +\text{N-OPERATZAILEA2}) \leftrightarrow \\ (+\text{N-OPERATZAILEA1}(+\text{N-OPERATZAILEA2}(\dots)) \vee \\ +\text{N-OPERATZAILEA2}(+\text{N-OPERATZAILEA1}(\dots)))$$

Honenbestez defini daitezke  $+\kappa\text{DEP } +\text{N-OPERATZAILEA}$  eta  $\neg\kappa\text{DEP } +\text{N-OPERATZAILEA}$  adierazpideen ukazioak:

---

<sup>138</sup> 4. eranskinerako lagako dut esplizitatzea zein postulatutatik ondorioztatzen den teorema bakoitza. Erabili beharreko arauak 3. eranskinean ikus daitezke. Gehienbat ondorioztatze naturalari dagozkio (Modus Ponens, Modus Tollens...), lokailu konbinazioen arteko baliokidetzak barruraturaz.

(71) *Etiketa eta definizioak 10.-11.*

$$\begin{aligned} & \neg(+^{\text{KDEP}} +\text{N-OPERATZAILEA}) =_{\text{def}} \\ & (\text{--}^{\text{KDEP}} +\text{N-OPERATZAILEA} \vee \text{--N-OPERATZAILEA}) \\ & \neg(\text{--}^{\text{KDEP}} +\text{N-OPERATZAILEA1}) =_{\text{def}} \\ & \neg(+\text{N-OPERATZAILEA2}(+\text{N-OPERATZAILEA1})) \wedge \\ & (+^{\text{KDEP}} +\text{N-OPERATZAILEA1} \vee \text{--N-OPERATZAILEA1}) \end{aligned}$$

## 2.5.2 Aldaera tropikoen atzemate formala

Tropikoaren kontzeptuak balio behar digu edozein aditz moduren azalpenerako. Horregatik, ez zaizkigu komeni Hareren tropiko bien izendapenak: indikatiboa eta agintera. Horren ordez, kontzeptu zabalago batez baliatuko naiz: frastikoaren eta errealitatearen arteko harremana errepresentazio edo deskribapen batena izan ala ez. Eskuarki munduko hizkuntzetan agente adizkiak morfologikoki sinpleagoak direnez (Sadock & Zwicky 1985: 159),  $[\pm\text{deskr}]$  tasun semantiko bat erabiliko dut, non balio markatua  $[\text{+deskr}]$  izango den. Areago, ikerketagunea aditz morfologia eta honen interpretazioa dudanez, indikatze linguistikoa ilokuzio indarraren lehen indikatzaileetara mugatuko dut.

(72) *Etiketa eta definizioa 12.*

Tropikoari dagokion tasun bitarra:  $[\pm\text{deskr}]$

$[\text{+deskr}]$ : ilokuzio indarraren lehen indikatzaileek linguistikoki kodeturiko  
“frastikoa munduarekiko” egokitzapen norabidea

$[\text{--deskr}]$ : ilokuzio indarraren lehen indikatzaileek linguistikoki kodeturiko  
“mundua frastikoarekiko” egokitzapen norabidea

Jakina,  $[\text{--deskr}]$  balioak  $[\text{+asmozkoa}]$  balioa barneratzen du, eta ondorioz eremu irrealari dagokio:

(73) *TAM sistemako postulatua 11.*

$[\text{--deskr}] \rightarrow [\text{+asmozkoa}]$

(74) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 2.*

$[\text{--deskr}] \rightarrow [\text{+irrealis}]$

Izan ere,  $[\text{+asmozkoa}]$  balioaren zentzua zehaztearren, berarekin batera bi aukerotako bat eman behar da:

- (75) TAM sistemako postulatua 12.  
[+asmozkoa] → ([-deskr] ∨ +κDEP)

### 2.5.3 Aldaera neustikoen atzemate formala

Azkenik, euskal adizkien azalpenerako bazter dezakegu gehienbat perpaus modalitateari dagokion hitzemate neustikoaren gradu indartua, baina kontuan hartu beharko ditugu haren bertan beheraketa —zehazkiago honi diskurtso harreman berezia gehitzen dizkion *sub iudice* jartzea—, gradu baretua eta berezko gradu neutroa:

1. Hitzemate neustiko baretuaren/ez baretuaren markatzat operatzaile bitar bat proposatuko dut:  $\pm$ BARETUA. Balio positiboa dugu markatua, negatiboak bakarrik adierazten du positiboa ematen ez dela. Guztiz zehatza izatearren, notazioan ikusarazi beharko litzateke horrelako operatzaile neustikoak bestelako balioen multzoari aplikatzen zaizkiola, honelako zerbait idatziz: +BARETUA(*bestelako balioen multzoa*). Hala ere, gutxitan izan beharko dugu horren esplizituak (gehienbat operatzaile neustikoen elkarreragina markatzeko).
2. Balio neustikoen metaketari begira, komeni zaigu beste operatzaile bat,  $\pm$ SUB IUDICE, hitzemate neustikoa gorde egiten dela/ez dela adierazteko, frastikoa irizpean (*sub iudice*) jarritz, edo ez. Eragiketa hau aurreko hitzemate neustikorik gabeko frastikoaren gainean ezar daiteke (*banu...*) edo gradu neutroko (*banuen...*) zein baretuko (*banuke...*) esapideen gainean. Hau da, irizpean ipintzea funtzio arteza izan daiteke edo metafrastikoa, aldeztu aurretik era neutroan (inoiz baretuan) adierazitakoaren gainean. Eraitza antzekoa da: irizpean jarri bezain pronto, aurreko hitzemate neustikoa bertan behera gelditzen da, hots ezin egin daitezke gauza biak batera, frastiko bera era neutro zein baretuan adierazi eta irizpean jarri; hau da, ezin gauza daiteke batera hitzematearen gordetzea eta gordetze eza. Irizpean jartzen denean, aukera desberdinak zabaltzen dira: ondoko diskurtso berezi bat bila daiteke (erantzun bat, ondorio bat) edo ez (desira zein damu baten adierazpena...)

3. Aurreko balio biak negatiboak direnean berezko gradu neutroa dukegu. Sarritan honek ez du behar marka morfologiko espliziturik, baina inoiz badu horrelako baten beharra. Marka horretaz eta dagokion balio semantikoaz aurrerago mintzatuko naiz. Izan ere, hitzmate neustiko baretua kodetzen duten adizkiei ere atxiki dakieke.

Formalago:

(76) *Etiketa eta definizioa 13.*

±BARETUA : emandako hitzmate neustiko baretuaren adierazpena edo horrelakoaren gabeziarena

Eta:

(77) *Etiketa eta definizioa 14.*

±SUB IUDICE : frastikoaren asetzearekiko hitzmate neustikoa gorde (edo ez) eta irizpean jartzearen (edo ez jartzearen) adierazpena

Operatzaileon balio positiboak nekez konbinatzen dira, baina salbuespen bat onartu beharrean gaude, lehena bigarrenari metafrastikoki aplikatzen zaionean. Adibidez:

(78) –Berandu dateke.

–Berandu badateke...

Horrelakoen adierazpen formalerako ohikoa den notazio honetaz baliatuko naiz:

(79) +SUB IUDICE(+BARETUA)

Horrelako aplikazio metafrastikoen bidez konbina badaitezke ere, alboratu beharra dago alderantzizkoa, +BARETUA operatzaileak ez baitu onartzen zentzu metafrastikorik:

(80) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 3.*<sup>139</sup>  
 $\neg(+BARETUA(+SUB IUDICE))$

Horrekin lotuta bide dago ondoko puntua: bakarrik zentzu metafrastikoko operatzaileak ekar dezaketela berekin +κDEP balio klistikoa. Baina ez daude horretara beharturik. Hala ere, balio hori (positiboa edo negatiboa) zehaztuta izan behar dute:

(81) *TAM sistemako postulatua 13.*  
 $+N-OPERATZAILERA \leftrightarrow$   
 $(^{-κDEP} +N-OPERATZAILERA \vee +κDEP +N-OPERATZAILERA)$

Besteak beste, horixe da +SUB IUDICE operatzailearen kasua:

(82) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 4.*  
 $+SUB IUDICE \leftrightarrow (^{-κDEP} +SUB IUDICE \vee +κDEP +SUB IUDICE)$

Hala ere, beste zenbait operatzaile neustikok ez bezala, beste bati gaineratuta, operatzaile honek beti eskatzen du +κDEP balio klistikoa:

(83) *TAM sistemako postulatua 14.*  
 $\neg(^{-κDEP} +SUB IUDICE(+N-OPERATZAILERA))$

Hitzaurrean aurreratu zenez, izari neustikoaren aldaerek irrealtasunerako desplazamendua dakarte:

(84) *TAM sistemako postulatua 15.*  
 $(+BARETUA \vee +SUB IUDICE) \rightarrow [+irrealis]$

Burututzat joko dut, honenbestez, ilokuzio indarraren aldaerei zor zaizkion faktore modalen jorrraketarako eremu teoriakoaren aurkezpena. Hurrengo atalean gertaerekiko orientatzea jorrratzekoa mahairatuko dut eta ondokoetan helduko da guztiaren aplikazioa euskal aditz jokatuaren analisirako.

---

<sup>139</sup> Teorema hau postulatu orokorrago batetik ondorioztatuko da, aurrerago ikusiko denez.

### 3 GERTAEREN ORIENTAZIORAKO EREMU TEORIKOA: LARS JOHANSONEN ASPEKTU(-TEMPUS) OPERATZAILEEN BERTSIO EGOKITUA

Lars Johansonek berriazko eremu teoriko bat proposatu zuen haren doktoregorako tesian turkieraren aspektua jorratu zuenean (Johanson 1971). Aurkezpen berriago eta eskuragarriago bat, ingelesez dagoelako, Johanson (2000) dugu. Horren azalpen laburra emango dut segidan, zenbait egokitzapen proposatuz euskal aditz aspektuaren analisirako eta jorraketa formal baterako eremu teoriko horri dagozkion eta erabiliko ditudan operatzaile eta tasun bitarrak esplizituki zerrendatuz. Ondoko atalean, proposamen horiek euskal aditz aspektuaren analisisian aplikatuko ditut.

#### 3.1 Aspektu, ekintzazkotasun eta aldizkotasunaren esparru bat

Johansonek proposaturiko eremu teorikoan aspektu-aldizkotasuna ulertzen da izari anitzeko hizkuntza-kontzeptu espazio bat gisa, zeinak aspektua, ekintzazkotasuna (*actionality*, *Aktionsart*) eta aldizkotasuna besarkatzen dituen.<sup>140</sup>

*“Aspectotemporality is conceived of as a pluri-dimensional space of linguistic concepts comprising aspect, actionality, and temporality.”*  
*(Johanson 2000: 30)*

---

<sup>140</sup> Berehala ikusiko denez proposamen hori oso aldunduta dago aldia funtsezkoagotzat jotzen dutenetatik, hala nola Reichenbach (1947/1966).



Eremu horretan, hasierako onarpena dugu ezen bereizketa multzo mugatu bat nahikoa dela Europako hizkuntzen aspektu-tempus kontuak deskribatzeko (Johanson 2000: 28-29). Aspektuari dagokionean, gertaera ikuspegia hiru izari nagusitan zehar ezarriko da:

*“The material available contains a great number of verbal categories representing different ways of conceptualizing and envisaging events<sup>[141]</sup> in three dimensions of aspectual terminality.” (Johanson 2000: 29)*

Gertaeren gaineko hiru ikuspegi-izari horien aurretik, komeni da gertaeren euren ezaugarriak aurkeztea.

### **3.2 Ekintzazkotasunaren ezaugarritzea**

Ekintzazkotasunaren joraketarako, ohiko telikotasun (*telicity*) kontzeptuaren ordeztu (gogoratu § 0.1.2 txatalean esandakoa) Johanson baliatzen da aldakuntzazkotasun (*transformativity*) kontzeptuaz. Hau aplikatzen zaie ekintza esareei (gertaerak adierazteko hizkuntza adierazpenak, zeinen osagai minimoa aditz lexema bat den), lehena gertaeren euren ezaugarrietarako gorde daitezkeen bitartean:

*“On the other hand, transformativity is not tantamount to telicity. The terms transformative and nontransformative refer to properties of actional phrases, whereas the terms telic and atelic will be reserved for properties of the actions themselves.” (Johanson 2000: 29)*

Izan ere, ez digu axola gertaeren denborazko izaera ontologikoak, baizik eta haien gaineko kontzeptualizatzeko. Adibide batez esatearren: lehertzea (*to explode*) mementoazko aldakuntza gisa ulertzen da, nahiz eta fisikaren ikuspegitik horren mementoazkoa ez izan.

Gertaera batek hiru fase nagusi omen ditu (Johanson 2000: 29): hasiera bat (lehen muga, *terminus initialis, initium*), garapen bat (*cursus*), eta bukaera bat (bigarren muga, *terminus finalis, finis*). Fase posibleon deigarritasun edo azpimarratze aldeetatik datoz ekintzazkotasun edukiarenak:

*“The following categorization covers relevant phase distinctions in a variety of European languages.*

IPS <sup>[142]</sup> category	The actional content is conceptualized
<i>Transformative</i> [+ <i>t</i> ]	<i>as implying transformation</i>
<i>Finitransformative</i>	<i>as implying final transformation</i>
[+ <i>mom</i> ]	<i>without a salient cursus</i>
[– <i>mom</i> ]	<i>with a salient cursus</i>
<i>Initiotransformative</i>	<i>as implying initial transformation</i>
<i>Nontransformative</i> [– <i>t</i> ]	<i>without transformation</i>
[+ <i>dyn</i> ]	<i>as dynamic</i>
[– <i>dyn</i> ]	<i>as static.”</i> (Johanson 2000: 58) <sup>143</sup>


Eskematikoki esatearren:

<sup>141</sup> Termino hau nik sarreran proposaturiko “gertaera” (*eventuality*) terminoaren baliokidetzat jo dezakegu.

<sup>142</sup> “*Internal Phase Structure*”.

<sup>143</sup> Aipameneko zerrendan barneraturik dago garrantzizko lotura kontzeptual hau: mementozkotasuna bateraezina dela aldakuntzazkotasun ezarekin, formalki:

(85)




Kontzeptuok ulertu behar dira tasun (*features*) semantiko bitar gisa, balio positiboa markatua eta negatiboa berezkoa izanik. Esplizituki jasoko ditut aparteko definizioetan:


(86) *Etiketak eta definizioak 15.-19.*

- [±t] : aldakuntzazkotasunaren edo haren gabeziaren adierazpena
- [±ti] : aldakuntza hasierako muga izanaren edo ez izanaren adierazpena
- [±tf] : aldakuntza bukaerako muga izanaren edo ez izanaren adierazpena
- [±mom] : gertaeraren mementozkotasunaren (edo kontrakoaren) adierazpena
- [±dyn] : gertaeraren dinamismoaren (edo kontrakoaren) adierazpena

Grafikoki, (Johanson 2000: 59): <sup>144</sup>



Edo, zehatzago, ene ustez:



Azken lerroko eskemen azalpena hau da (Johanson 2000: 64): eraldaketa gabekoek (*nontransformatives*), funtsezko mugarik ez izanik ere,

---

[+mom] | [-t], “|” zeinu logikoak bateraezintasuna adierazten duela, edo zehatzago, bi argumentuak ez direla batera ematen.

<sup>144</sup> Marra horizontalek garapena (*cursus*) errepresentatzen dute. ⊗ sinboloak funtsezko muga (*crucial limit*) bat adierazten du, eta × sinboloak kasurako interesekoa datekeen muga bat (*relevant limit*).

badute interesekoa datekeen muga bat (*relevant limit*) *aspektu kontuetarako*, eta muga hori hasierakoa da. Adibidez, [+t] eta [-t] balioko ekintza esaerek, [+tf] baliokoek ez bezala, onartzen dituzte honelako aspektu jokoak: *has V-ed and is still V-ing*. Test horren euskaratze hurbilena (aldeak badaude ere) honelakoa dateke: *A-tu da/du eta oraingoz ba-A/A-t(z)en ari da*. Esaterako:<sup>145</sup>

- (89) [+tf] #Etorri da eta oraingoz etortzen ari da. (*#(S)he/it has come and (s)he/it is still coming.*)  
 [+ti] Aurrera joan da eta oraingoz joaten ari da. (*(S)he/it has gone forward and (s)he/it is still going forward.*)  
 [-t] Ibili da eta oraingoz ibiltzen ari da. (*(S)he/it has walked and it is still walking.*)

Hala ere, horrelako “intereseko” muga bakarrik aktibatzen da mugari so egiten dioten aspektu operatzaileen eraginpean. Ondorioz, komeni da eskura izatea muga hori gabeko errepresentazio eskematikoa.

Ekintzazkotasunaren eta aspektuaren artean horrelako harreman sistematikoak aurki badaitezke ere, Johansonen ikuspegian funtsezkoa da ulertzea bakoitzak fenomeno desberdinak atzematen dituela. Aspektuaren berariazko funtzioan sartu aurretik, esan beharra dago zenbait igarobide daudela [-t] eta [+t] balioen artean, “berkategorizatze” (*recategorization*) izeneko prozesu konposizional baten bidez:

*“The compositional process or recategorization starts from the syntactic-semantic minimum of a verb in its most concrete and quantitatively simple sense and proceeds to account for the actional effects of more abstract and quantitatively complex readings in successively expanding syntagms containing various obligatory and facultative complements.”*

<sup>145</sup> Test horrekin beste hau konbina daiteke [-t] balioko ekintza esaerak [+t] baliokoetatik bereizteko: lehenengoekin *-no* edo *-n artean* esapideek ez dute zentzua aldatzen (*bitartean, while*) nahiz eta jokaeraren aspektua halaxe egin; bigarrenekin zentzu desberdin bi eskuratzen dira kasuotan (*bitartean, while / arte, until*). Adibidez:

*Han egon nintzeno.* (≈*Han nengoeno.* =Han egon nintzen bitartean.) (*While I stayed there.*): [-t].

(Johanson 2000: 66)

[+t] baliotik [-t] baliora igarotzeko bide nagusia sortatzea (*serialization*) da (gertaera bakar baten zenbatezko berrinterpretatze bat), alderantzizko bide nagusia mugatzea (*limitation*) den bitartean. Adibide pare batez erraz uler daiteke:

- (90) *English: sit* [-t]  $\Rightarrow$  *sit down* [-t] + [+lim] = [+tf]  
*English: wake up* [+tf]  $\Rightarrow$  *wake up every day* [+tf] + [+ser] = [-t]

Grafikoki eta hurrenez hurren:

- (91) [-t]: x-----| + [+lim]:  $\otimes$  = [+tf]: |----- $\otimes$   
[+tf]: |----- $\otimes$  + [+ser]: ... + |----- $\otimes$  + |----- $\otimes$  + ... =  
= [-t]: x-... + |-- $\otimes$  + |-- $\otimes$  + |-- $\otimes$  + ... --|

Nire azalpenetan erabiliko dut [ $\pm$ ser] tasun semantiko bitar bat:

- (92) *Etiketa eta definizioa 20.*  
[ $\pm$ ser] : gertaera sorta batean sartzen den/ez den adierazpena

Horrez gain, badago beste pasabide semantiko bat [+t] baliotik [-t] baliora, zeinari Johansonek “homogeneizatzeko” (*HOM(ogeneization)*) esaten dion, eta gertaeraren errepikatzea seinatu barik, haren muga ezabatzen duena. Berak ez dakar hurbileko hizkuntzen adibiderik, baina aurrerago ikusiko denez, kontzeptu honek balioko digu antzinako euskarako fenomeno semantiko bat ulertzeko.

- (93) *Etiketa eta definizioa 21.*  
[ $\pm$ hom] : gertaeraren muga erauzi dela (edo ez dela) adierazteko tasuna

---

*Hara joan nintzeno.* (=Hara joan nintzen arte.) (*‘Until I went there.’*)  $\neq$  *Hara nindoano.* (=Hara nindoan artean.) (*‘While I went/was going there.’*): [+t].

### 3.3 Aspektu ikuspegi-operatzaileak

Aspektuaren funtzioa da ikuspegi bat edo beste ezartzea ekintzazkotasun edukiaren gainean. Ikuspegiok hiru izariri dagozkio: gertaera ikustearena bere mugen barruan (edo ez), bere intereseko muga igaro ondoren (edo ez) edo mugaren erdiespenean bertan (edo ez).

*“The distinctions are based on the following three notions:*

*“Intraterminality, envisaging the event within its limits, intra terminos.*

*“Postterminality, envisaging the event after the transgression of its relevant limit, post terminum.*

*“Adterminality, envisaging the event in the attainment of its relevant limit, ad terminum.” (Johanson 2000: 29)*

Honelako oposizio sistema bat proposatzen da, beraz:

(94) *intraterminality vs. nonintraterminality*  
*postterminality vs. nonpostterminality*  
*adterminality vs. nonadterminality*

Izariok formalki jasotzeko balio bitarreko hiru aspektu operatzaile erabiltzen ditu Johansonek: ±INTRA, ±POST eta ±AD.

Tradizio luze bati jarraituz, operatzaileak aukeratuta daude balio positiboak markatuak izateko eta negatiboak berezkoak edo ez-markatuak (Johanson 2000: 33). Azken hauek, ondorioz, zentzu desberdin bi eskura ditzakete: balio positiboaren ukazioarena eta harekiko neutraltasunarena (*ibid.*).

Europar hizkuntzetan, oposaketarik zabalena lehenengoa da: *intraterminality vs. nonintraterminality*, —erromantze guztietan aurkitzen da, adibidez—. +INTRA ikuspegia, arestiko aipamenak zioenez, honetan datza:

gertaera bere mugen artetik ikustean. Ikuskera hau, adierazten dute, esaterako, inperfektu eta progresiboak:

(95) Ingelesa: *is writing, was writing*  
Gaztelania: *está escribiendo, escribía*

–INTRA balioaz, aldiz, kanpotik begiratzen zaio gertaerari, hala nola aoristo edo mugagebetan (*indefinites*):

(96) Ingelesa: *wrote*  
Gaztelania: *escribió*

–INTRA itemak, ibilbidea antzemateko ezindurik, iraganekotzat interpretatzen dira printzipioz (Johanson 2000: 77).

Mugen ondoko ikuspegiak (*postterminality*) esan nahi du intereseko muga igarota begiratzen zaiola gertaerari (ez muga horretan bertan). +POST balioaz arreta gunea intereseko muga horren ondoko egoera bat da. –POST balioaz, ez da kontuan hartzen honelako ikuspegi bat. Eskuarki +POST itemek ez dute balio narrazioa aurrera eramateko, aldiz, zentzu “diagnostikoa” dute, hots denbora guneko egoeraren deskribaketarako.<sup>146</sup> Alderantzikoa esan behar da –POST itenez. +POST balioaren adibideak dira “perfektu” izendapena jaso ohi dutenak:

(97) Ingelesa: *has written, had written*  
Gaztelania: *(ya) ha escrito, (ya) había escrito, hubo escrito*

Aoristoak, aldiz, –POST baliokoak dira:<sup>147</sup>

(98) Ingelesa: *wrote*  
Gaztelania: *escribió*

---

<sup>146</sup> Kontzeptu honen gainean argi gehiago jaurtiko da aurrerago, bai atal honetan baita hurrengoan ere.

<sup>147</sup> Kontuan hartu behar da aspektu sistema bakoitzean aoristoa, baldin badago, nolako itemei kontrajartzen zaien, +INTRA edo +POST baliokoei.

Mugan bertako ikuspegiari (*adterminality*) dagokion oposaketa,  $\pm AD$ , hizkuntzalariek onartu ohi duten perfektibo/inperfektibo bereizketaren kasu bereziei dagokie, hala nola eslaviar hizkuntzetakoa:

- (99) Errusiera:  
 +AD: *napisal pis'ma* (wrote (a whole) letter)  
 -AD: *pisal pis'ma* (wrote letter)

Definizioak esplizituki aparte jartzearen:

- (100) *Etiketak eta definizioak 22.-24.* <sup>148</sup>  
 $\pm INTRA$  : mugetatik barruko ikuspegia (*intraterminal*) zein haren kontrakoa adierazten duen operatzailea, (balio negatiboa ez-markatua denean) <sup>149</sup>  
 $\pm POST$  : gertaeraren ondoko ikuspegia (*postterminal*) zein haren kontrakoa adierazten duen operatzailea  
 $\pm AD$  : gertaeraren mugako ikuspegia (*adterminal*) zein haren kontrakoa adierazten duen operatzailea

Hona hemen balio positibo hauetako bakoitzaren eta ekintzazkotasun eduki desberdinen konbinaketan adibide bana (Johansonek ugari dakartza):

- (101) +POST:  
 [+tf] *Classical Greek: gégraptai* ('is [already] written')  
 [+ti] *English: has hidden*  
 [-t] *German: ist geliebt* ('is loved')

- (102) +INTRA:  
 [+tf] *Modern Greek (Imperfect): péthene* ('was dying, was close to death') <sup>150</sup>  
 [+ti] *Modern Greek: katalávene* ('understood (=was aware of)')  
 [-t] *Modern Greek: éghrafe gbrámata* ('wrote/was writing letters')

<sup>148</sup> Aspektu operatzaileok, operatzaileak diren neurrian, beste balio semantiko bitarrek ez bezala ("tasunek"), aplikazio errekurtsiboa izan dezakete. Bereiztearen, lehenak ez dira parentesi karratuen artean idazten.

<sup>149</sup> Geroago ikusiko da zehaztapen honen arrazoia.

<sup>150</sup> Adibide honek erakusten duenez zenbait hizkuntzatan  $+INTRA \times [tf, +mom]$  eserak onartzen dira (azken finean, Johansonen ustez (2000: *passim*) ekintzazkotasuna eta aspektuaren arteko konbinaketak *emankortasun/antzutasun* (fertility/infertility) kontu bat dira-eta), *beti ere zentzu berezi batekin*, zeina euskarari aurkitzen ez baitugu:

"It may seem that intraterminality is incompatible with momentaneous finittransformatives [...] There appears to be little need for  $+INTRA \times [tf, +mom]$ , an inside view of an actional content consisting of a limit alone, without a salient cursus to look into. The combination  $+INTRA \times [tf, +mom]$  is nevertheless used, referring to the time immediately before the crucial limit of which the action consists." (Johanson 2000: 149)



- (103) +AD:  
 [+tf] Russian perfectives: razbudit ('waken')  
 [+ti] Russian: opersja na stol ('leant over the table')  
 [-t] \*

Azken izartxoak erakusten du konbinaketa teoriko guztiak ez direla benetan gauzagarriak, izan ere +AD operatzailea konbinazina da [-t] balioko aditzekin (Johanson 2000: 165-166). Formalki jasotzearen:

- (104) TAM sistemako postulatua 16.  
 +AD | [-t]<sup>151</sup>

Euskarari begira, lehenengo itxuraz horrelako balioen konbinaketak diratekeenak, [+ti] gisa berrinterpretatu behar dira:

- (105) TAM sistemako postulatua 17.  
 +AD × \*[-t] > [+ti]

Hona hemen aurreko konbinaketen adierazpen grafikoa (Johanson 2000: 146) ("^" sinboloak ikuspuntua markatzen du eta bere inguruko puntuek haren kokapenerako eremu posiblea; argitasunari begira "|" marra bertikala gehitu da gertaeraren muga ez-funtsezko zein ez-interesekoan eta inoiz ibilbidea parentesi artean sartu da [+tf, ±mom] balioak jasotzeko):

(106)

	Postterminality	Intraterminality	Adterminality
[+tf]	( -----)⊗ ^.....	-----⊗ ^..... <sup>(152)</sup>	( -----)⊗ ^
[+ti]	⊗-----  ^.....	⊗-----  ^.....	⊗-----  ^
[-t]	×-----  ^.....	×-----  <sup>(153)</sup> ^.....	[*]

<sup>151</sup> "|" zeinua dela eta, gogoan izan 143. oin-oharrean esandakoa.

<sup>152</sup> Ikusi 150. oin-oharra.

<sup>153</sup> ±INTRA × [-t] balioen konbinaketetan ez dago ez funtsezko ez (aspektu kontuetarako) intereseko mugarik, aspektu ikuspegiak balizko muga horri begiratzen ez baitio. Ondorioz, gertaeraren errepresentazioa honelako zerbaiteira muga liteke: |-----|. Hala ere, xehetasun honek ez duke garrantzi handirik eta Johansonen eskemetan ez da agertzen.

Johansonek ez digu eskaini balio negatiboentzako eskemarik, baina ondoriozta ditzakegu balio positiboek kanpokoak haien artean banatuz. Horrez gain, kontuan hartu behar da balio negatiboekin gertaera analizatu gabeko osotasun gisa ikustaten da (Johanson 2000: 77, 105, 166-167). Honelako zerbait:  $|-\otimes$ ,  $\otimes-$  eta  $\times-$ . Hona hemen emaitzak:

(107)

	Nonpostterminality	Nonintraterminality	Nonadterminality
[+tf]	$( -\otimes)$ ^.....	$( -\otimes)$ .....^.....	$( -\otimes)$ .....^.....
[+ti]	$\otimes-$ ^.....	$\otimes-$ .....^.....	$\otimes-$ .....^.....
[-t]	$\times-$ ^.....	$\times-$ .....^.....	$\times-$ .....^.....

### 3.4 Aspektu ikuspegiaren inguruko kokaguneak eta euren arteko harremanen adierazpen formala

Aspektu ikuspegia, hala ere, zenbait kokagunerekiko erlazioan ezarri behar da:

*“Aspects are relational in the sense that they present events by relating their limits to some point of view, an orientation point, abbreviated O.*

*Expressed in localistic terms, such points of view can be situated inside or outside the global event.” (Johanson 2000: 29)*

Bereiztu behar dira, beraz, O orientazio puntua eta gertaera bere mugekin —hobeto esanik, *gertaeraren eta bere osagaien* (kasuan kasu ibilbidea eta mugak) *kokagunea*—. Izan ere, hitzaurrean mahairatu zenez, bai nire lan honetan bai Johansonen saiakeran argitu nahi dena gertaeraren lokalizazioa da. Hau oso modu orokorrean definitzen du Johansonek (2000: 108) gertaeraren gauzatze denbora gisa (*the time of event’s realization*), eta berataz mintzatzeko L laburduraz baliatzen da. Honek zehaztapen handiagoxea behar du: izan ere, lokalizazio hori zabalagoa edo hertsiaagoa izan daiteke, gertaera osoa barruratuz edo ez, eta aspektu operatzailearen arabera bat etor daiteke edo ez O orientazio

puntuarekin. Zehatzago izatearren, L horren ordezt (berau Johansonen azalpenak ulertzeko inoiz beharrezkoa badukegu ere), bereiztu egingo ditut ibilbidearen kokagunea (I), mugaren kokagunea (M) eta gertaera osoarena (G). Horrez gain, nire trataeran kokagune edo lokalizazio horiek ez dira gauzatuko bakarrik denborazko izarian baizik eta moduzkoan ere bai. Segidan, *Johansonen lana bedaturaz*, hasiko naiz kontzeptuok formalki jasotzen helburu biokin: eremu teoriko honetako ideiak formula esplizituetan adierazi ahal izatea, eta gertaeraren orientazio puntuekiko lokalizazioa grafikoki errepresentatu ahal izatea. Ekimen horren zati bat gisa formalki esplizitatuko ditut denbora-modu *continuum* hori ezaugarritzen duten zenbait erlazio.

(108) *Etiketak eta definizioak 25.-29.*

- (a1) G : aditz esaldiaren (*verbal phrase*) bidez adierazitako gertaeraren kokagunea edo lokalizazioa
- (a2)  $G =_{\text{def}} I \cup M$ <sup>154</sup>
- (b) O : orientazio puntua
- (c) M<sup>155</sup> : gertaeraren funtsezko zein intereseko mugaren kokagunea
- (d) I : gertaera ibilbidearen kokagunea
- (e) L : gertaeraren lokalizazio puntua Johansonek erabiltzen duen zentzu zabalean, hemengo G, M edo I-rekin identifikagarria

Honelako kokagunei buruzko baieztapen orokorrak egiteko zenbait metaetiketaz balia gaitzke:

(109) *Etiketa eta definizioa 30.*

$\alpha, \beta, \gamma, \dots$  : edozein G, O, M, I edo L-ren ordeztoko metaetiketak

Aspektu ikuspegia beti dago kokaturik O orientazio puntu batean, zeina erdigune deiktiko bat gisa uler baitaiteke, hura zeini erreferitzen zaizkion ingeleseko *just* adizlaguna bezalakoak (Johanson 2000: 34). Lehen (*primary*) orientazio puntua hizketa egintzarena da, laburdura batez O<sup>S</sup> (O *orientation*-etik eta S, *speech*-etik), oraingo mundua edo *nunc*. Hona hemen puntu horretara ainguraturiko gertaeren adierazpideen adibide bat:

<sup>154</sup> Multzo teoriako bildura kontzeptuaz ezar dezakegu, definizio honetan legez, gertaeraren lokalizazioak barruratzen dituela haren ibilbide eta mugarena.

<sup>155</sup> Gertaera mugaren laburdura gisa Johansonek \*E notazioa erabiltzen du.

(110) Oraintxe heldu naiz./Heldu berri naiz. (*I've just arrived.*)

Kontrakoaren indikaziorik egon ezean, ulertu egiten da O orientazio puntua O<sup>S</sup> dela. Hala ere testuinguruari begira intereseko (*relevant*) orientazio puntua bigarren (*secondary*) bat izan daiteke, O<sup>2</sup>, *tunc* (*orduan*); adibidez:

(111) Orduan hasi zen. (*It began then.*)

Beranduago harreman bat ezarri ahalko dugu lehen eta bigarren orientazio puntuen kontzeptuon eta euskal aditz morfologiako *gai hurbil/gai urrun* banaketaren artean:

(112) *Gai hurbila: lehen orientazio puntua, O<sup>S</sup>: nago, dakar, zatoz...*  
*Gai urruna: bigarren orientazio puntua, O<sup>2</sup>: nengoen, zekarren, betor...*

Horretarako, hala ere, bide luzetsua falta zaigu. Aurretik zenbait zehaztapen egin beharrekoak dira, O<sup>S</sup> eta O<sup>2</sup> notazioen zentzua finkatzetik hasita:

(113) *Etiketa eta definizioa 31.*  
 $\alpha^n$  :  $\alpha$  itema bere kategoriako  $n$ -garrena da,  $n$  goi-indizea zenbaki bat izanik

(114) *Etiketa eta definizioa 32.*  
 $\alpha^S$  :  $\alpha$  itema S hizketagune bat da

Jarraian, horren gainean esandakoa formalki jasoz. Hasteko, ikuspegiaren kokagunea orientazio puntu batean dagoela:

(115) *Etiketa eta definizioa 33.*  
 $\hat{\alpha}$  : aspektu ikuspegia  $\alpha$  itemean dago kokaturik

(116) *TAM sistemako postulatua 18.*  
 $\hat{\alpha} \rightarrow \hat{O}$

Inoiz, formula orokorragoak behar direnean —bai item batean ikuspegia kokatuta dagoen, bai ikuspegia hor kokatuta ez dagoen kasuetarako—, “ $\hat{\alpha}$ ” zeinua parentesi artean idatziko da:

(117) *Etiketa eta definizioa 34.*

$(\alpha)$ :  $\alpha$  itemean ikuspegia kokaturik dagoen zein ez dagoen kasuetarako aplikagarria den notazioa

Multzo teoriako ohiko notazioaz baliaturik formalago adieraz daitezke eremu teoriko honetako puntuak.<sup>156</sup> Honela adieraziko dut item biren kointzidentzia (zaticakoa edo osoa), zentzu zabal batean erabiliz “ $\emptyset$ ” multzo hutsaren sinboloa eta “ $\cap$ ” multzo teoriako ebakiduraren zeinua:

$$(118) \quad \alpha \cap \beta \neq \emptyset$$

Eta honela haien kointzidentzia eza:

$$(119) \quad \alpha \cap \beta = \emptyset$$
<sup>157</sup>

Zeina ezinbestekotzat joko dudana  $\alpha < \beta$  harremana definitua izan dadin item biren artean:<sup>158</sup>

(120) *TAM sistemako postulatu 19.*

$$(\alpha < \beta) \rightarrow (\alpha \cap \beta = \emptyset)$$

Kointzidentzia harremana, bere aldetik, erreflexibo eta simetrikoa da:

(121) *TAM sistemako postulatu 20.*

$$\alpha \cap \alpha \neq \emptyset$$

(122) *TAM sistemako postulatu 21.*

$$(\alpha \cap \beta \neq \emptyset) \rightarrow (\beta \cap \alpha \neq \emptyset)$$

---

<sup>156</sup> Honelako esplizitate formalik ez dago jatorrizko bertsioan, Johansonenean.

<sup>157</sup> Klaseen logikako ohiko irakurketa atxiki behar zaie “=” eta “ $\neq$ ” zeinuen: “berdin” eta “ezberdin”. Berdintzat edo ezberdintzat jotakoa lokalizazioak edo kokaguneak dira. Berdintzat jotako kokagune bi, izatez, kokagune bat eta bakarra dira, ikuspegi estentsional batetik behintzat (horrez gain, kokaguneari so egiteko kontzeptuak kategoria berekoak badira, biak badira orientazio puntuak, adibidez, edo biak badira gertaerak edo gertaera faseak, orduan, itxuraz desberdinak diren kontzeptuak ere identifikagarriak dira).

<sup>158</sup> Baieztapen hau hertsiegia badateke ere bestelako testuinguruetan (denboraren trater formal oso bat, adibidez), egokia da elkarrekiko harremanean jartzeko bereiztu ditugun itemak (O eta L, hots G, M, edo I).

Kointzidentzia eza, aldiz, irreflexiboa (kointzidentzia erreflexiboa den heinean) eta simetrikoa:

$$(123) \quad \text{TAM sistemako postulatua 22.} \\ (\alpha \cap \beta = \emptyset) \rightarrow (\beta \cap \alpha = \emptyset)$$

Kointzidentzia mota bat dugu inklusioa:

$$(124) \quad \text{TAM sistemako postulatua 23.} \\ (\alpha \subset \beta) \rightarrow (\beta \cap \alpha \neq \emptyset)$$

Inklusioaz esan beharra dago, harreman irreflexiboa eta iragankorra dela.

$$(125) \quad \text{TAM sistemako postulatua 24.} \\ \alpha \not\subset \alpha$$

$$(126) \quad \text{TAM sistemako postulatua 25.} \\ (\alpha \subset \beta) \wedge (\beta \subset \gamma) \rightarrow (\alpha \subset \gamma)$$

Eta ondorioz, asimetrikoa ere bai:

$$(127) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 5.} \\ (\alpha \subset \beta) \rightarrow (\beta \not\subset \alpha)$$

Esan beharra dago, halaber, inklusio harremanak zatikako ordena hertsiki bat ezartzen duela, baina  $\alpha < \beta$  erlazioak ez bezala kointzidentzia inplikatzeko duela:

$$(128) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 6.} \\ ((\beta \subset \alpha) \vee (\alpha \subset \beta)) \rightarrow (\alpha \cap \beta \neq \emptyset)^{159}$$

Areago, bestelako kointzidentziak ere iragaten ditu:

$$(129) \quad \text{TAM sistemako postulatua 26.} \\ ((\alpha \cap \beta \neq \emptyset) \wedge (\beta \subset \gamma)) \rightarrow (\alpha \cap \gamma \neq \emptyset)$$

---

<sup>159</sup> Baldintzako aukera biek batera gertatzerik ez badute ere.

Baita kointzidentzia ezak ere bai:

$$(130) \quad \text{TAM sistemako postulatua 27.} \\ ((\alpha \cap \beta = \emptyset) \wedge (\gamma \subset \beta)) \rightarrow (\alpha \cap \gamma = \emptyset)$$

Esan dezadan, azkenik, bildura batek bere osagaiak barruratzen dituela, bildura hori haietako batekin identifikatzen ez bada:

$$(131) \quad \text{TAM sistemako postulatua 28.} \\ (\alpha \subset (\alpha \cup \beta)) \vee (\alpha = (\alpha \cup \beta))^{160}$$

Proposaturiko notazioaz baliaturik adieraz daiteke, +AD eta +INTRA balioko ikuspegiaren kokaguneak funtsezko mugan bertan zein ibilbidearen barruan daudela, hurrenez hurren:

$$(132) \quad \text{TAM sistemako postulatua 29.} \\ (\hat{O} \cap M \neq \emptyset) \leftrightarrow +AD$$

$$(133) \quad \text{TAM sistemako postulatua 30.} \\ +INTRA \rightarrow (\hat{O} \subset I)^{161}$$

Eta hortik:

$$(134) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 7.} \\ +INTRA \rightarrow (\hat{O} \cap I \neq \emptyset)$$

Kasu biotan bermatuta dago kointzidentzia gertaera kokagunearen eta  $\hat{O}$  orientazio puntuaren artean:

$$(135) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 8.} \\ (+AD \vee +INTRA) \rightarrow (\hat{O} \cap G \neq \emptyset)$$

---

<sup>160</sup> Azken identifikazioarako ez da beharrezkoa  $\beta$  elementu neutroa izatea, nahikoa da  $\alpha$  barruan kokaturik egotea.

<sup>161</sup> Implikazio hau ezarri ahal izateko berrinterpretatu beharra dago zenbait hizkuntzatan onargarria den +INTRA  $\times$  [+tf, +mom] konbinazioa: asunituko dut [+mom] balioa alderatu egiten dela horrelakoetan eta aspektu ikuspegiak ibilbide bat inposatzen duela.

Izan ere:<sup>162</sup>

$$(136) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 9.} \\ (I \subset G) \vee (I = G)$$

$$(137) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 10.} \\ (M \subset G) \vee (M = G)$$

Honenbestez, zenbait errepresentazio grafiko argiago ematen has gaitzke, adibidez:

$$(138) \quad \text{Etxean nago. (} \dot{I} \text{ am at home. )} \\ +\text{INTRA} \times [-t] \\ \times \text{-----} | \\ \text{.....}\dot{O}\text{.....}$$

Jakina, gertaeraren muga eta haren ibilbidea derrigortuta daude ez kointziditzera:

$$(139) \quad \text{TAM sistemako postulatua 31.} \\ M \cap I = \emptyset$$

Ondorioz:

$$(140) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 11.} \\ +\text{AD} \rightarrow (\dot{O} \not\subset I)$$

Eta:

$$(141) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 12.} \\ +\text{INTRA} \rightarrow (\dot{O} \cap M = \emptyset)$$

+INTRA eta +AD operatzaileen definizioan barruratuta zegoen bateraezintasuna ondoriozta dezakegu orain formalki:

---

<sup>162</sup> Ondoko teorema bietan asunituko dut esandakoak balio duela baita I edo M-rik bereizten ez denean



(142) *TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 13.*  
 +AD | +INTRA

+POST operatzailearekin aspektu ikuspegiaren kokagunea gertaeraren mugatik kanpo dago, muga horren ondoko egoeran hain zuzen, non orientazio puntuaren eta gertaeraren arteko loturak bere horretan dirauen. Hori adieraztarren proposatuko dut berariazko notazio hau:

(143) *Etiketa eta definizioa 35.*  
 $M \triangleleft P$  : gertaera mugaren ondoko egoera

Eta berataz baliaturik:

(144) *TAM sistemako postulatu 32.*  
 +POST  $\rightarrow (\hat{O} \subset M \triangleleft P)$

Segidan, formalki adieraziko dut lehen orientazio puntua kasuko hizketagune bat dela:

(145) *TAM sistemako postulatu 33.*  
 $O^1 \rightarrow O^S$

Hala ere, proposatu dudan notazioak atzeman dezake beste kasu bat —hura zeinetan  $n$ -garren orientazio puntua ere hizketagune bat den (kasukoaz beste bat, jakina)—:

(146) *Etiketa eta definizioa 36.*  
 $O^{nS} \stackrel{\text{def}}{=} O^n \wedge O^S: (O^n = O^S)$  <sup>163</sup>

Halakoak bateraezinak dira gertaeraren funtsezko mugarekin:<sup>164</sup>

ere; jakina denez, notazioaren multzo teoriako terminoetan formulotako inklusio harremanak bere horretan dirau baita I edo M hutsak izanik ere.

<sup>163</sup> Ohiko denez, definizio barruko “bi puntuek” adierazten dute beraien aurreko itemak euren ondoko ezaugarria duela. Azken berdintze honen zentzua egokiro ulertzeko, kontuan hartu hurrengo definizioa, baita 157. oin-oharra ere.

<sup>164</sup> Garrantzizko ideia hau § 3.7 txatlean aztertuko dut sakon.

$$(147) \quad \text{TAM sistemako postulatua 34.} \\ O^S \cap M = \emptyset$$

Postulatu honen eta +AD operatzailearen konbinazioak behartuko gaitu ikuspegia  $O^{1S}$ -z bestelako  $O^2$  orientazio puntu batean kokatzera. Laster ikusiko ditugu honen inplikazioak, baina notazio eta ideia orokorrago batzuk aurkeztu beharra dago lehenik.

Definizioz,  $O^2$  eta  $O^1$  (hots  $O^{1S}$ ) edo, orokorrago,  $O^{n+1}$  eta  $O^n$  desberdinak dira eta elkarrengandik aldentuta daude espazio semantiko konplexu batean. Hori grafikoki zein formulatan adieraztearren definituko ditut beste zenbait zeinu, honainokoen arteko harremani dagozkienak:

- (148) *Etiketak eta definizioak 37-41.*
- (a)  $\alpha = \beta$  :  $\alpha$  eta  $\beta$  bat datoz, hots kokagune berdina adierazten dute (eta baldin kategoria bereko itemak badira, biak orientazio puntuak, edo biak gertaera zein gertaera faseak, orduan kontzeptu identifikagarriak ere badira).
  - (b)  $\alpha \neq \beta$  :  $\alpha$  eta  $\beta$  desberdinak dira.
  - (c2)  $\alpha >< \beta$  :  $\alpha$  eta  $\beta$  elkarrengandik disoziatuak edo aldentuta daude, nola edo hala (grafikoki esplizitatzen da honela haien artean ez dagoela inolako kointzidentziarik).
  - (d)  $\alpha - \beta$  : ez da zehazten  $\alpha$  eta  $\beta$  disoziatuak dauden, desberdinak izanik, ala ez.
  - (e)  $(\alpha -) \beta - \gamma =_{\text{def}} (\alpha - \beta) \wedge (\beta - \gamma)$

Jakina, honelako notazio erabakiek zenbait aurreonarren barneratzen dute; adibidez, bakarrik desberdinak diren itemak ager daitezke aldentuta, hots, aldentutakoak desberdinak izan behar dira:

$$(149) \quad \text{TAM sistemako postulatua 35.} \\ (\alpha >< \beta) \rightarrow (\alpha \neq \beta)$$

Orientazio puntuen kasuan, alderantzizko inplikazioa ere badugu, hau da, orientazio puntu desberdinak nola edo hala aldentutakoak izan behar dira:

$$(150) \quad \text{TAM sistemako postulatua 36.} \\ (O^{n+m} \neq O^n) \rightarrow (O^{n+m} >< O^n)$$

Beraz:

- (151) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 14.  
 $(O^{n+m} \neq O^n) \leftrightarrow (O^{n+m} \succ\prec O^n)$

Non:

- (152) (a)  $O^{n+m} \neq O^n$ :  $O^{n+m}$  eta  $O^n$  desberdinak dira.  
 (b)  $O^{n+m} \succ\prec O^n$ :  $O^{n+m}$  eta  $O^n$  elkarrengandik aldentuta daude, nola edo hala.

Lehenengo puntua ondoko postulatuan jasoko dut:

- (153) TAM sistemako postulatua 37.  
 $(O^{n+m} \neq O^n)$

Ondorioz:

- (154) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 15.  
 $(O^{n+m} \succ\prec O^n)$

Bestalde, goi-indizea berdina bada orientazio puntua bat eta bera da, testuinguruaren arabera adierazita egonik edo ez ikuspegiaren kokagunea dela:

- (155) TAM sistemako postulatua 38.  
 $(\hat{O}^n = O^n)$

Areago, ikuspegia beti kokatzen da goi-indize handieneko orientazio puntuan:

- (156) TAM sistemako postulatua 39.  
 $((O^{n+m} - O^n) \wedge (\hat{O}^{n+m} \vee \hat{O}^n)) \rightarrow \hat{O}^{n+m}$

Baina ezarpen hauek guztiak oso orokorrak dira eta oraingoz askoz notazio gehiago garatu beharra dago errepresentazio grafiko ulergarri bat eman ahal izateko gertaera esaldi gehienei. Hori dela eta, ohar bi egin behar dira puntu honetan, bat goi-indizeen inguruan eta beste bat orientazio puntuen aldentzeaz:

- Ikuspegiaren kokagunea den orientazio puntua izan daiteke lehen orientazio puntua edo bestelako  $n$ -garren bat. Edonola ere, esan

bezala, ikuspegia  $n$  goi-indize handiena duen orientazio puntuan kokatuko da. Bestalde, orientazio puntuen kokagunea zehazteko jakin behar da bakoitzaren harremana aurreko zenbakiarekiko, hots, zehaztu behar dira hurrenez hurren  $n+i+1$  goi-indizeko orientazio puntuaren harremana  $n+i$  goi-indizekoarekiko eta horrela aurrerantzean, lehen orientazio puntura ailegatu arte. Zentzu honetan esango dut orientazio puntu bat beste bat baino “jatorrizkoagoa” dela.

- Bestalde, aldentze honen espazio semantikoak besarkatzen ditu bai denborazko bai moduzko izariak, zeren eta haien artean denborazko lehenagokotasun harreman lineala ezar baitaiteke (*nengoen* < *nago*, *zekarren* < *dakar*) edo ez (*betor* ✗ *zatoz*, *zatoz* ✗ *betor*). Zeinuen definizioa emateko denborazkotasunaren eremuan sartu beharrean nago.

### 3.5 Denborazkotasunaren eta modalitatearen agerraldiak

Aspektu-aldizkotasunaren hirugarren zutabea aldizkotasuna da, baina ikusiko denez, hau nahastuta agertzen da gertaerak erreal zein irrealizat aurkezteari dagokion izari modal batekin. Johansonen (2000: 34) analisisian ikuspegia da lehena eta horren kokatzea denboran bigarren urrats bat...

*“[...] the so-called tenses being the result of determination of aspectual values in different temporal strata. Thus, what a tense situates on the time-axis is the perspective on the event rather than the event itself”*  
(Johanson 2000: 34)

Jakina, denbora esapideak, hala nola *oraintxe*, *lehen*, *gaur*, *atzo*, *bihar*, *zazpi* eta *erdietan*, *duela ordu bi*, *orduan*... eta antzekoek, balio dezakete identifikatzeko bai O orientazio puntuak, zeinetako baten bat ikuspegiaren kokagunea izango den, bai harekin bat datorkeen edo beretik bereiz daitekeen gertaeraren L lokalizazio puntua (zeinak, bere aldetik, barrura dezakeen edo ez

M funtsezko zein intereseko mugarena). Halaber, hauetako edozeinen artean ezar daiteke (edo ez) denborazko lehenagokotasun harreman lineala. Batzuetan, harreman hori aspektu operatzaileen eta ekintzazkotasun balioen elkarreraginetik sortzen da. Hona hemen adibide pare bat:

- +POST balioak lehenagokotasuna iradokitzen du (Johanson 2000: 103).

(157) Dagoeneko heldua naiz (*I've already arrived.*)

- +INTRA ikuspegiaren pean [+tf] ekintzazkotasun balioko gertaerek erraz jazotzen dute geroaldiko irakurketa bat (Johanson 2000: 142-143, 149-150).

(158) Banator. (*I'm coming.*)

Formalago esatearren:

(159) [= (17)] Etiketa eta definizioa 1.

$\beta < \alpha$ :  $\beta$  eta  $\alpha$  (dena delako) itemak (gertaerak, gertaera faseak, orientazio puntuak...) aurkezten dira denborazko ordena honetan:  $\beta$  lehenago,  $\alpha$  ondoren

(160) TAM sistemako postulatua 40. (Behin-behinekoa.) TAM sistemako ondoriozaturiko teorema 16.

(a) +POST  $\rightarrow$  (M <  $\hat{O}$ )

(b) +POST | +AD

(161) TAM sistemako postulatua 41. (Behin-behinekoa.)

+INTRA  $\times$  [+tf]  $\rightarrow$  ( $\hat{O}$  < M)

Areago, berebiziko interesekoa dugu orientazio puntu desberdinen arteko harremana, zeina denborazkoa ezezik bestelako disoziazio bat ere izan baitaiteke. Hori atzemateko bide ez bakarra, baina bai nagusia, ondokoa bereiztean datza,  $\pm$ PAST operatzaile bat, zeina aspektu operatzaileekin konbinatuko baita egitura hierarkikoetan (Johanson 2000: 34):

“The value +PAST signals remoteness in the sense of dissociation of L [the localization point] from the deictic centre O<sup>S</sup>. Many +PAST items may even express non-temporal remoteness in a counterfactual sense<sup>[165]</sup> [...]

–PAST implies that no temporal order between O<sup>S</sup> and an L is signalled, which does not, however, mean temporal indifference. Present tenses are typically unmarked nonanterior. [...] –PAST can also have future time reference, “futate meaning”, often with contextual support of a future time expression.” (Johanson 2000: 35)

Hona hemen adibide argi batzuk:

(162) Orain barre egiten dut hartaz. (*Now, I laugh about it.*)  
 (nire barre egitea : L ← **kointzidentzia** ⇒ Ô<sup>S</sup> : orain)  
*my laughing* *now*

(163) Orduan barre egiten nuen. (*Then I laughed.*)  
 (nire barre egitea : L ← **kointzidentzia** ⇒ Ô<sup>2</sup> : orduan < O<sup>S</sup> : orain)  
*my laughing* *then* *now*

(164) Orduan barre egiten nuke. (*Then I would laugh.*)  
 (nire barre egitea : L ← **kointzidentzia** ⇒ Ô<sup>2</sup> : orduan ≠ O<sup>S</sup> : orain)  
*my laughing* *then* *now*

Lehenago “<” zeinua bezala, “~~←~~” (edo “~~≠~~”) hau ere esplizituki definitua dugu:

(165) [= (28)] *Etiketa eta definizioa 2.*  
 β ≠ α (edo α ≠ β) : β-ren α-tiko (dena delako) aldentzea ez dagokio denboraren lerroari, baizik eta izari modal bati.

---

<sup>165</sup> L honen barruan O<sup>2</sup>-ak ere sartzen dira:

“If it [O<sup>2</sup>] is conceived of as a time axis situated in the past (“tunc”), it coincides with the localization point: L = O<sup>2</sup>.” (Johanson 2000: 35)

Sasoian gaude, dagoeneko, zeinu bion zentzua zehazteko kontuan hartuz orientazio puntuak tartean sartzen diren kasua. Hasteko, aldentze modalaren harreman hau norabide bakarrekoa da: goiko adierazpenean  $\beta$  aldentzen da  $\alpha$ -tik eta ez alderantziz. Aldendua, edo ez da orientazio puntu bat, edo jatorrizkoagoa den beste orientazio puntu batetik aldentzen da (balio handiagoko goi-indize baten bidez adieraz daitekeena). Baldintza hau bete behar da, beraz:

$$(166) \quad \text{TAM sistemako postulatu 42.} \\ (\beta \not\prec \alpha) \rightarrow ((\beta \neq O) \vee (\hat{\beta}^{n+m} \wedge \alpha^n))$$

Antzeko baldintzak ezar dakizkioke  $\beta < \alpha$  denborazko aldentzearen irakurketari. Horretarako predikatu diadiko bi definituko ditut: AURREKOA( $\beta, \alpha$ ) eta GEROKOA( $\alpha, \beta$ ). Lehenengoa,  $\beta$  aurrekoagoa dela adieraziz, aplikagarria izango da “<” zeinuaren ondoko itema denean biotako orientazio puntu bakarra edo jatorrizkoena:

$$(167) \quad \text{Etiketa eta definizioa 42.} \\ \text{AURREKOA}(\beta, \alpha) =_{\text{def}} (\beta < \alpha) \wedge ((\beta \neq O) \vee (\hat{\beta}^{n+m} \wedge \alpha^n))$$

Eta bigarrena,  $\alpha$  gerokoa dela esanez, alderantzizko kasuan:

$$(168) \quad \text{Etiketak eta definizioak 43.} \\ \text{GEROKOA}(\alpha, \beta) =_{\text{def}} (\beta < \alpha) \wedge ((\alpha \neq O) \vee (\hat{\alpha}^{n+m} \wedge \beta^n))$$

Honek ahalbidetzan gaitu “<” sinboloa beste biotan zatitzeko, proiektzioa iraganean edo geroan egin arabera:


$$(169) \quad \text{Etiketa eta definizioa 44.} \\ \beta \ll \alpha =_{\text{def}} \text{AURREKOA}(\beta, \alpha)$$

$$(170) \quad \text{Etiketa eta definizioa 45. (Behin-behinekoa)} \\ \beta \langle \alpha =_{\text{def}} \text{GEROKOA}(\alpha, \beta)$$

Azken denbora lerrokatzeak, ( $\beta < \alpha$ ), analisi sakonago bat eskatzen du, eta ondoko txatalera arte atzeratuko dut haren behin betiko formulazioa. Aurrekoari dagokion emaitza hau zehaz dezakegu dagoeneko:

(171) TAM sistemako postulatua 40. (Behin betikoa.)  
 +POST  $\rightarrow$  (M «  $\hat{O}$ )

Edonola ere izari bietako desplazamenduak gerta daitezke aktuala den  $O^{1S}$  erdigunetik:



33. taula Lehen orientazio puntutiko denborazko aldentzea eta aldentze modala<sup>166</sup>

$O^{(1)S}$  letra beltzituagoan agertu da dagokion berezko aktualtasuna adierazteko. Ikuspegi filosofiko batetik zentzua du pentsatzeak hortik aldentzen den oro “birtuala” (*virtual*) baino ez dela, pentsatua eta ez bizitua, nahiz eta pentsatuaren artean bereiztu ahal eta behar den egitatezkotzat (*factual*) edo errealtzat (*realis*) jotakoa irrealizat jotakotik (*irrealis*). Ikusten denez, ohikoa den *realis/irrealis* bereizketaz aparte, proposatzen ari naiz *aktualtasun/birtualtasun* bereizketa bat. Aktualtasun hori kasuko hizketa egintzari dagokion ezaugarri ontologikoa da (Agustín García Calvoren terminoetan (1979, 1983, 1990, 1999) mundu harena *zeinetan* hitz egiten den, “*mundo en que se habla*”); horrez gainekoa “birtuala” da, zentzu zehatz horretan, aktualaz gainekoa izatearena. *Realis/irrealis* bereizketa, aldiz, gertaeren aurkezpen moduari dagokio, gertaerak erreferituriko “munduan” kokatu behar direlarik (mundu hartan *zeinetaz* hitz egiten den, “*mundo de que se habla*”): benetakotzat aurkezturiko

<sup>166</sup> Ikusi Jendraschek (2007: 306) eskema (ez horren) antzeko baterako.



gertaerak alde batetik,<sup>167</sup> bestetik ideiatuak (posibilitateak, asmoak, desirak, planak, erabakiak, usteak, kontsiderazioak...). Koadroan, marra eten batez bereiztu dut ustezko denbora lerroa birtualtasun irrealaren eremutik, eta azken honi dagozkion gelaxken hondo kolore argiago batez agertu da. Eremu horretan ere denbora harremanak ezar daitezke. Izan ere eremua bera denboraren ustezko lerroaren kontrapartidatzat (*counterpart*) uler daiteke, horregatik ondoko adibideko gertaera biak oraingo hizketagunekoaren aurreko gisa aurkezten dira:

(172) Egin nuen. (*I did it.*)

(173) Egin banu. (*If I had done it.*)

Erreala/irreala bereizketa modalaz mintzatzeko esplizituki definituko dut tasun semantiko bitar bat:

(174) [ $\approx(29)$ ] *Etiketa eta definizioa 3. (Behin betikoa)*

(a1) [ $\pm irrealis$ ] : gertaerak irreal edo errealtzat aurkeztearen adierazpena

(a2) [ $+irrealis$ ] =<sub>def</sub> (G  $\not\prec$  O<sup>n</sup>)

(a3) Definizio esplizitua (tartean ager daitezkeen beste orientazio puntuak kontuan hartuta):

[ $+irrealis$ ] =<sub>def</sub> (( $\hat{O}^{n+m}$  (- ...) (- O<sup>n+k</sup>)  $\not\prec$  O<sup>n</sup>)  $\vee$  (( $\hat{O}^{n+m}$   $\not\prec$  (... -) (O<sup>n+k</sup> -) O<sup>n</sup>))<sup>168</sup>

(a4) Definizio laburtua (tartean ager daitezkeen beste orientazio puntuak kontuan hartu gabe):

[ $+irrealis$ ] =<sub>def</sub> ( $\hat{O}^{n+m}$   $\not\prec$  O<sup>n</sup>)<sup>169</sup>

Euskal aditzaren analisi honetarako hirutara mugatu ditut irrealtasunaren dimentsioak: asmoa, (errotiko) ahalezkotasuna eta hitzemande neustikoaren aldaerak. Beranduago sakondu beharreko puntua da hori, baina hona hemen esplizituki formulaturik:

<sup>167</sup> Hauen artean, kasuko hizketagunearekin kointzidentetzat aurkeztuak.

<sup>168</sup> Ondo uler dadin: [ $+irrealis$ ] balioa egotzi behar zaio bai gertaeraren kokaguneari, bai haren gaineko aspektu ikuspegikoari.

<sup>169</sup> Aurrerantzeko definizioak laburtuak izango dira, honen modukoak.

- (175) *TAM sistemako postulatua 43.*  
 [+irrealis] ↔ (+BARETUA ∨ +SUB IUDICE ∨ [+asmozkoa] ∨ [-deskr] ∨  
 [+ahal])<sup>170</sup>

Ideioekin lotuta dago euskal aditz jokatuak erakusten duen gai morfologikoen bitartasuna; izan ere hauxe da gai urrunaren funtzioa: O<sup>1S</sup>-rekiko harremanean (166) eta (167)-eko baldintzak betetzen dituzten O<sup>2</sup> berezi bi markatzea.<sup>171</sup> Honek esan nahi du oinarritzko maila batean markatzen dela morfologikoki gertaeraren gaineko ikuspegiaren izari berezi bat: orientazio gune nagusia finkatzearena.


Aspektu ikuspegiaren kokaguneak edo ainguratze guneak diren hiru eremu nagusi bereizten dira, O<sup>1S</sup> eta O<sup>2</sup> berezi bi horiek. Hori dela eta, berariazko izendapenak emango dizkiet (ingeleseko “iraganeko” eta “alegiarazko” itzulpenetatik, *past* eta *virtual*): O<sup>P</sup> (esplizituago O<sup>2P</sup>) eta O<sup>V</sup> (edo O<sup>2V</sup>). Hiru eremu horiek eskematikoki adieraztean, aurreko (33. taulako) koadroan legez, O<sup>P</sup> eta O<sup>1S</sup> lerro berean joango dira, marra batez inguratuz, denborazko “«” lehenagokotasun harremanaren zainua tartean. O<sup>1S</sup> eta O<sup>V</sup> eremuak, aldiz, bertikalean aldentuko dira, marra eten bat eta “/” (edo “/”) zainua tarteko, bereizketa hori ez baitagokio aldiari, desplazamendua ez baita denboran ematen baizik eta, 33. taularen arabera, ustezko denbora errearen lerrotik irrealtasunera.<sup>172</sup>

<sup>170</sup> Eskuinaldeko zenbait balio ezingo dira batera gertatu, beste batzuk bai, inoiz beste aukerarik ez dutela; puntu horiek guztiak aurreragoko atal batean jorratuko dira sakon.

<sup>171</sup> Bestelakoak egon badaitezke ere, bestelako horiek gai hurbileko adizkien bidez adierazten dira. *Gai burbil/gai urrun* bereizketa morfologikoari zentzu sakon bati suposa dakiokenez, ez dut parekatuko bestelako lehenagokotasun lineala izan edo ez izatearekin.

<sup>172</sup> Eskema honetan falta da O<sup>1S</sup>-ren ondoren kokaturiko O<sup>n</sup>-ren bat, O<sup>1S</sup> < O<sup>n</sup>, geroaldiarena. Arrazoi bat morfologikoa da: euskaraz hori ez da markatzen berariazko aditz gai morfologiko baten bidez. Baina badago beste arrazoi bat, semantikoa: ustezko geroaldia gehienetan irreal dela, inoiz guztiz ziuerra litzatekeen zerbait erreal gisa aurkezten bada ere. Hurrengo txatlean sakonduko dut puntu horretan.

(176)



Koadro hau 33. taulakoarekin konbinatuz, honelako irudi bat lor daiteke:

	A L E G I G U N E A <sup>173</sup>		
<i>Irrealtasunaren eremua</i>	KONTRAFAKTUALA	OV	GERTAGARRIA
	MODU-MODALITATE ALDAERAK		
↕	I R A G A N A L D I A K O A K	O R A I N E K O A K	GERTAGARRIA
	KONTRAFAKTUALA <sup>174</sup>	MODU-MODALITATE ALDAERAK	
<i>Errealitasunaren eremua</i>	OP	OIS	ONDORENGOA
	IRAGANEKO URRUNA	(iraganeko hurbila) « (ORAINEKO) <sup>175</sup>	
↑ Modua			
Denbora →	Aurrekoa «		↳ Gerokoa

34. taula Morfologikoki markaturiko hiru eremuak eta modu-denbora barremanak <sup>176</sup>

Ideioi jasotzeko komeni da zenbait definizio zehaztea:

(177) *Etiketak eta definizioak 46.-50.*

- (a) <±urruna> : adizkia gai urrunekoa edo hurbilekoa izatearen adierazpena
- (b) O<sup>M</sup>: gai hurbil eta urrunaren bidez morfologikoki adierazitako orientazio puntuak (O<sup>IS</sup>, eta segidan definituko diren O<sup>P</sup> eta O<sup>V</sup>). Gertaeren gaineko ikuspegi ororen funtsezko hiru ainguratze gune desberdin osatzen dute.

<sup>173</sup> “Alegigunea” terminoa proposatuko dut ohiko “alegialdiaren” ordez, iraganaldiarekiko oposizioan agertu arren, aldea ez dagokiolako aldiari baizik eta moduari. “Orainaldi” terminoa ere baztertu dut, “oraingunea” hobetsiz, geroaldiko gertaerak ere inguru horri dagozkionalako.

<sup>174</sup> O<sup>S</sup>-tik kontrafaktuala dena, gertagarritzat ikusta daiteke O<sup>P</sup>-tik.

<sup>175</sup> Ez digu ardura “orainaren” eta “iraganaren” dena delako izaera ontologikoak. “Oraineko” gertaerek O<sup>IS</sup>-tiko +INTRA ikuspegi bat eskatzen dute. “Iraganeko” gertaerak edo O<sup>2P</sup>-ren ingurukoak dira (“iraganeko urruna”), edo oraingunean kokaturik badaude (“iraganeko hurbila”), ez dute jasotzen O<sup>IS</sup>-tiko +INTRA ikuspegi bat.

<sup>176</sup> Aurrerantzean, errepresentazio grafikoetarako koadro honetako marrak erabiliko ditut.

- (c1)  $O^{(2)P}$  : iraganaldiaren orientazio puntua, zeina identifikatzen baita gai urruneko adizki baten bidez adierazitako gertaeraren gaineko aspektu ikuspegiaren 2garren orientazio puntuarekin,  $O^2$ , baldin denborazko harreman linealean badago lehen orientazio puntuarekin; honelaxe zehazki:  $O^2 \ll O^{1S}$ .
- (c2)  $(\hat{O} -) O^{(2)P} =_{\text{def}} (\hat{O} -) O^{(2)M} \ll O^{1S}$  <sup>177</sup>
- (d1)  $O^{(2)V}$  : alegigunearen orientazio puntua, zeina identifikatzen baita gai urruneko adizki baten bidez adierazitako gertaeraren gaineko aspektu ikuspegiaren 2garren orientazio puntuarekin,  $O^2$ , baldin ez badago denborazko harreman linealean lehen orientazio puntuarekin,  $O^2 \not\ll O^{1S}$ .
- (d2)  $(\hat{O} -) O^{(2)V} =_{\text{def}} (\hat{O} -) O^{(2)M} \not\ll O^{1S}$  <sup>178</sup>
- (e1)  $O^{1S}$  : lehen orientazio puntua, hizketa egintzarena.
- (e2)  $(\hat{O} -) O^{1S} =_{\text{def}} (\hat{O} -) O^M : \neg(O^M \ll O^{1S}) \wedge \neg(O^M \not\ll O^{1S})$  <sup>179</sup>

Termino horietan,  $\pm\text{PAST}$  operatzailea  $\pm\text{FAR}$  gisa berrizendatuko dut alegiazkoa ere barneratzen dela azpimarratzeko:

- (178) *Etiketa eta definizioa 51.*
- (a1)  $\pm\text{FAR}$  : gertaeraren gaineko aspektu ikuspegia  $O^P$  edo  $O^V$  orientazio puntuei ainguratuta dagoela edo ez (baizik eta  $O^{1S}$ -ri ainguratuta dagoela) adierazten duen operatzailea.
- (a2)  $+\text{FAR} =_{\text{def}} (\hat{O} -) O^P \vee (\hat{O} -) O^V$
- (a3)  $-\text{FAR} =_{\text{def}} \hat{O}^{1S} \vee (\hat{O} -) O^{1S}$

Gertaeraren gaineko ikuspegia hiru gune horietako bati, eta bakarrik bati lotuta agertu behar da:

- (179) *TAM sistemako postulatu 44.*
- $$\text{XOR}((\hat{O} -) O^{(2)M} \ll O^{1S}, (\hat{O} -) O^{(2)M} \not\ll O^{1S}, (\hat{O} -) O^{1S})$$

Laburdurak erabiliz:

- (180) *Ondorioztatuturiko teorema 17.*
- $$\text{XOR}((\hat{O} -) O^{(2)P}, (\hat{O} -) O^{(2)V}, (\hat{O} -) O^{1S})$$

<sup>177</sup> Uler dadin definizio hori beste honen laburdura gisa  $(\hat{O} -) O^{(2)P} =_{\text{def}} (\hat{O} -) O^{(2)M} : O^{(2)M} \ll O^{1S}$ , zeinetan “bi puntu” zeinuak adierazten baitu aurreko itemak ondoko ezaugarria duela.

<sup>178</sup> Hau da:  $(\hat{O} -) O^{(2)V} =_{\text{def}} (\hat{O} -) O^{(2)M} : O^{(2)M} \not\ll O^{1S}$ .

<sup>179</sup> Definizio konplexuago honen arabera,  $(\hat{O} -) O^{1S}$  notazioaren erabileran baztertuko dugu beste  $O^M$ -ren bat tartekaturik egotea  $\hat{O}$  eta  $O^{1S}$  artean edo bat etortzea  $\hat{O}$ -rekin.

Ondorioz, ikuspegiaren ainguratzerako morfologikoki markaturiko hiru eremu nagusi horiek ( $O^{1S}$ ,  $O^P$  eta  $O^V$ ) bereizten dira.  $O^2$  «  $O^{1S}$  harremanean dagoen edozein  $O^2$ , lehenagokoa izanik ere, ez dagoke  $O^{1S}$ -tik *disozjaturik* +FAR operatzailearen zentzuan, gai urruneko adizki batez adierazita ez badator. Gai hurbilekoek, azken finean,  $O^{1S}$ -ra ainguratuta jarraitzen dutela kontsideratuko dut. Antzekoa esan daiteke  $O^2 \not\prec O^{1S}$  harremanaz, hots, aldentze modala  $O^{1S}$ -ren “oraingunearen” eremuan mantentzeko edo “alegiguneko”  $O^{2V}$ -an kokatu. Kasu honetarako, gainera, komeni da esplizituki ezartzea ezen  $O^{2V}$ -arekiko denborazko harremanak  $O^{1S}$ -ren inguruan ere interpretatzen direla:

(181) *TAM sistemako postulatua 45.*  
 $(AURREKOA(\alpha, O^{2V}) \rightarrow AURREKOA(\alpha, O^{1S}))$

(182) *TAM sistemako postulatua 46.*  
 $(GEROKOA(\alpha, O^{2V}) \rightarrow GEROKOA(\alpha, O^{1S}))$

Hau da,  $O^P$ -ren inguruan ez bezala,  $O^{1S}$ -ren eta  $O^{2V}$ -ren inguruko denboraharreman *guztiek* izaera absolutua dute, ez huski erlatiboa.

(183) *Etiketak eta definizioak 52.*  
 $AURREKO\_ABSOLUTUA(\alpha) =_{\text{def}} AURREKOA(\alpha, O^{1S})$

Honen antzera defini daiteke gerokotasun absolutua:

(184) *Etiketak eta definizioak 53.*  
 $GEROKO\_ABSOLUTUA(\alpha) =_{\text{def}} GEROKOA(\alpha, O^{1S})$

Bestalde, (177) eta (178) epigrafeetan definituriko kontzeptuen artean ezarri behar da korrelazio hau:<sup>180</sup>

(185) *TAM sistemako postulatua 47.*  
 $\langle +urruna \rangle \leftrightarrow +FAR$

---

<sup>180</sup> Zeina bertan behera gera baitaiteke balio positibo eta negatiboen arteko oposizioa neutralizatuz gero, hala nola bizkaierazko gai urruneko baina zentzu aktualeko ahalerako adizkien kasuan.

Eta honelako konbinaketa posibleen aurrean aurkituko gara:

- (186)  $\pm$ PAST ( $\pm$ INTRA), hots  $\pm$ FAR ( $\pm$ INTRA)  
 $\pm$ PAST ( $\pm$ POST), hots  $\pm$ FAR ( $\pm$ POST)  
 $\pm$ PAST ( $\pm$ AD), hots  $\pm$ FAR ( $\pm$ AD)

Ondo bereiztu behar dira +FAR (Johansonen +PAST) balioari dagokion urruntasuna eta besterik gabeko “iraganaren maila” (*past stratum*), hau da O<sup>(1)S</sup>-rekiko lehenagokotasuna:

*“While +POST has a natural affinity with the representation of past event, it is not equal to the feature +PAST. A -PAST (+POST) item can, by virtue of its viewpoint value, refer to an event partly or wholly prior to O<sup>S</sup>, it consequently involves a component of anteriority as opposed to -PAST (+INTRA) items, which allows it to compete with +PAST (+POST) items in the simple past stratum. On the other hand, it does not signal remoteness in the sense of +PAST items.” (Johanson 2000: 103)<sup>181</sup>*

34. taulan ikus daitekeenez, nire proposamenean bereizten dira “iraganekoa”, O<sup>1S</sup>-rekiko aurrekotasun absolutu gisa, eta “iraganaldia”, hau da O<sup>P</sup> inguruko eremua. Iraganaldiz kanpoko “iraganekoa” iraganeko hurbila izan daiteke edo alegigunekoa eta, ondorioz, kontrafaktuala.

Baina (186)-eko konbinaketa zerrenda ez dago osorik, badago beste operatzaile bat denborazkotasunari lotua eta  $\pm$ FAR balioekin konbinagarria izango dena.

---

<sup>181</sup> Puntu honetan ez diot hitzez hitz jarraituko autoreari ezen, euskaraz behintzat, haren “iragan sinplearen mailak” (*simple past stratum*) ez baititu antzematen benetako oposizio morfosemantikoak: aspektuari dagokionean *Etxean egon (berri) naiz* (*I've (just) been at home*) aditz esaldiari oposatua ez da *Etxean nengo* (*I was at home*) baizik eta *Etxean nago* (*I am at home*).

### 3.6 Aurreikuspen (*prospectivity*) ikuspegia

Aurkezteke dugun azken operatzailea aurreikuspeneko (*prospectivity*) +PRO dugu:

*“Another possible perspective to be mentioned in connection with temporal interpretations is that of prospectivity, +PRO. It presents a non-realized event as foreseen (expected, intended, predicted, etc.) at some O. This projection into the future can be interpreted as relative posteriority (“conceived time”), though many +PRO items have modal (epistemic) shades of meaning, presenting the occurrence as less certain.” (Johanson 2000: 36)*

Honek esan nahi du etorkizuneko gertaeren aurreikuspena ez dela huski denborazkoa baizik eta modala ere bai. Baina izari bien nahastea ez da gertatzen bakarrik +PRO itemekin, baizik eta gertaerak geroan proiektatzeko baliabide guztiekin. Puntu hau *locus communis* bat da:

*“Future tense is the one tense which is very close to being part of the modal system, because one cannot be certain of events in the future. In many languages the future is indeed used as a mood, rather than a tense, but there are languages in which there is more than one future morpheme, and differences between these are attributable to differences in certainty.” (De Haan 2011: § 2.1)*

Areago, (eta aipamen ugari ekar litezke zentzu berean):


*“First, the tendency of future time markers to expand into the broad domain of irrealis makes them diachronically unsuitable for the expression of future events that are felt to have a closer connection with the*

*reality of the speech situation, such as intentions.*

*“Second, the label ‘tense’ is often problematic for those markers of future time reference which are morphologically and/or semantically akin to aspectual and modal categories.” (Jendraschek 2010: 6)*

Semantika dela eta, beraz, zerbait komun dute geroaldiak eta gertaera birtualen eremuak, nahiz eta (172. oin-oharrean aurreratu denez) bide morfologiko desberdinez adierazi. Bestalde, inoiz, geroaldiko gertaerak errealtzat aurkez daitezke, auresandakotzat, ustezko denbora errealaren lerroaren gainean kokatuz, O<sup>1S</sup> eta O<sup>P</sup> bezalaxe.

Bikoiztasun honen arrazoia hau dugu: “<” erlazioa ez da simetrikoa. “... < O<sup>1S</sup>” (edo “... « O<sup>1S</sup>”) eskema betetzean errealtzat jotako eremu bat identifika daiteke, gertaera gogoragarriena. Aldiz, “O<sup>1S</sup> < ...” edo “... < O<sup>1S</sup>” eskema bete nahi dugunean, oroimenak ezin eskain dezake ezer, eta irudimena (inoiz ustezko ezagutza bat) sartu behar da jokoa.<sup>182</sup> Aurreko taulako irudia bezain osoa ez izanik ere, ondokoak balio duke ideia horiek jasotzeko:



35. taula Ustezko denbora lerroaren eta alegiazkotasunaren gurutzatzea

Ustezko “denboraren lerroa” markaturiko laukitxoetatik igarotzen da, iraganekoa-orainekoa-gerokoa, baina azken urrats horretan alegiazkoaren eremu birtualean sartzan dateke (eta horregatik grafikoko denbora lerroaren

<sup>182</sup> Baieztapen honekin ez da ukatzen irudimenaren erabilera iraganaldira zuzen daitekeenik, iraganaldiko alegiazko eremu bat izateak erakusten duenez.



kolore urdina eta alegiazkoaren horia batu egiten dira hor, gerokoa berdez tindatuz).<sup>183</sup>

Nola geroaldiranzko proiektzioarako edozein baliabidek jaso dezakeen esanahi modala ezin hobeto ikus daiteke errusieran: Johansonek (2007: 36) +PRO itemen kutsu modala azpimarratu badu ere, jakina da funtzio nagusizat geroaldia adieraztea eskuratu duten –PAST (+AD) itemek ere irakurketa modal anitz jasotzen dituztela (Trnavac 2006: 5. atala). Euskararen kasua ez da desberdina: +PRO gisa interpreta daitekeen geroaldi perifrastiko arruntak baditu erabilera modalak, gertaera ziurgabeak adierazteko;<sup>184</sup> halaber, *-(te)ke* atzizkiaren bidez lor daiteke geroaldi arkaikoa, baina baita aieruaren adierazpena ere, ahalera eta balizko ondorioena ez aipatzearren. Areago, gertaera geroan proiektatzeko balio duen aginterarekin ere gertaeraren irrealtasuna derrigorrezkoa da.

Ondorioz, GEROKOA predikatuari dagokion errepresentazio grafikoan, bestelako informaziorik ez egonik, ez da komeni alde aurretik erabakitzea aldi berean moduzko aldentzea ere ematen denetz. Zentzu horretan, gerorako proiektzioaren berezko notazioa honako hau izango da:  $\alpha \langle \beta \rangle$ ; orientazio puntuen artean  $O^n \langle \hat{O}^{n+1} \rangle$ .

(187) *Etiketa eta definizioa 45. (Behin betikoa)*

(a)  $\beta \langle \alpha \rangle$ :  $\alpha$  gerokoagoa da  $\beta$  baino, eta zehaztu gabe gelditzen da aldi berean  $\alpha$  modalki ere aldentzen den  $\beta$ -tik.

(a2)  $\beta \langle \alpha \rangle =_{\text{def}} \text{GEROKOA}(\alpha, \beta)$

Adibidez:

(188) *TAM sistemako postulatua 41. (Behin betikoa)*

$+INTRA \times [+tf] \rightarrow \langle \hat{O} \langle M \rangle \rangle$

<sup>183</sup> Esandako legez, irudi hau ez da oso-oso. Alde batetik, irrealtasuna iraganaldiarekin eta orainaldiarekin ere lerroka daiteke; bestetik, geroan ere bereiz daitezke errealtzat eta irrealizat jotakoa. Azpimarratu nahi dena, hala ere, zera da: berezko izaera ziurgabea duela geroak.

<sup>184</sup> Ikusiko denez, (gai morfologiko urrunaz baliaturik) baita iraganaldikoak ere.

Aldentze bikoitza ematen dela honela adieraziko da:  $\alpha \not\prec \beta$ . Harreman horrekin identifikatuko dut “gertagarritasuna”. Aldiz, aldentzea denborazkoa baino ez denean, “ondorengotasunaz” mintzatuko naiz eta horretarako gordeko dut orain arte behinik behin erabilitako notazioa ( $\alpha \prec \beta$ ).

(189) *Etiketak eta definizioak 54.-55.*

(a)  $\text{GERTAGARRIA}(\alpha, \beta) =_{\text{def}} \text{GEROKOA}(\alpha, \beta) \wedge [+irrealis]$

(b)  $\beta \not\prec \alpha =_{\text{def}} \text{GERTAGARRIA}(\alpha, \beta)$

(190) *Etiketak eta definizioak 56.-57.*

(a)  $\text{ONDORENGOA}(\alpha, \beta) =_{\text{def}} \text{GEROKOA}(\alpha, \beta) \wedge [-irrealis]$

(b)  $\beta \prec \alpha =_{\text{def}} \text{ONDORENGOA}(\alpha, \beta)$

Gertagarritasun eta ondorengotasunaren artean ahitu egiten dira gerokotasunaren aukerak:

(191) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 18.*

$\text{GEROKOA}(\alpha, \beta) \rightarrow$

$(\text{ONDORENGOA}(\alpha, \beta) \vee \text{GERTAGARRIA}(\alpha, \beta))$

Horrez gain, GERTAGARRIA eta GEROKOA predikatuei dagokiekeen aldentze bikoitza definizioz debekatuta zuten gai urrunaren bidez morfologikoki markaturiko  $O^P$  eta  $O^V$  ainguratze puntuek. Alderantziz, goiko harremanak markatzeko bestelako bide morfologikoak erabili behar dira:

(192) *TAM sistemako postulatua 48.*

$(O^n \prec O^{n+m}) \rightarrow (O^{n+m} \neq O^M)$

Johansonek legez, nik ere ez dut murriztuko +PRO operatzailearen esanahia aukera bakar batera, denborazkoa, moduzkoa, edo denborazkoa eta moduzkoa batera. Aukerak zabalik mantentzeko balioko digu +PRO operatzaileari atxikitzeak GEROKOA predikatua, zeinarekin agortuta ditugun orientazio puntuen arteko aldentze aukerak:

- (193) TAM sistemako postulatua 49.  
 $(O^n >< O^{n+m}) \leftrightarrow ((O^{n+m} \ll O^n) \vee (O^{n+m} \not\prec O^n) \vee (O^n \prec O^{n+m}))$

Neurri batean, esandako legez, +PRO operatzailearen zentzua GEROKOA predikatuaren terminoetan eman ahal da, baina horren aurretik komeni da ohar batzuk mahairatzea.

Johansonek ez digu eman +PRO operatzailearen errepresentazio eskematikorik, baina erraz ondoriozta daitezke, kontuan hartuz gero aurreikusten dena ez dela gertaera besterik gabe, baizik eta haren gaineko aspektu ikuspegia ere bai. Adibide pare bat nahikoa dukegu hori ikusteko:

- (194) *I will be studying tomorrow.* +PRO (+INTRA)  
*I will study tomorrow.* +PRO (-INTRA/-POST)  
*I will have studied for tomorrow.* +PRO (+POST)

Johansonen aburu (2000: 37) +PRO operatzailearen bidez ondoko beste orientazio puntu bat ezartzen da aspektu ikuspegia kokatzeko:

“-PAST (+PRO (+POST)) items, “postterminals-in-future” imply that an  $O^2$  is foreseen, at which the relevant limit of the event is transgressed [...] +PAST (+PRO (+POST)) items, prospective “postterminals-in-past” imply that, at a past  $O^2$ , a later  $O^3$  is foreseen, at which the relevant limit of the event is transgressed.” (Johanson 2000: 37)

Ondorioz, eta gogoan hartuz hizkuntza askotan operadore prospektiboek gertaera ziurgabeagotzat aurkezten dutela (eta kasu horretan denborazko aldentzea ez dela beharrezkoa,<sup>185</sup> posible izan arren):

<sup>185</sup> Ondoko adibideetan argi dago ziurgabetasuna *in fieri* legokeen gertaera bati buruz adierazten dela:  
 —*Lasai, etxean dago.* (‘Don’t worry, (s)he/it is at home.’) —*Etxean egongo da, baina...* (‘(S)he/it will be at home, but...’)

(195) *Etiketa eta definizioa 58.*  
 $\pm$ PRO : gertaeraren gaineko ikuspegia aurreikusia (*prospective*) dela zein ez dela adierazten duen operatzailea.

(196) *TAM sistemako postulatua 50.*  
 $+PRO \rightarrow (GEROKOA(\hat{O}^{n+m}, O^n) \vee +BARETUA)$

Ikus dezagun +PRO balioaren zenbait errepresentazio eskematiko. Hona hemen denborazko interpretazioarenak, horrekin batera moduzko aldentzea zabalik dagoela (denborazko interpretazio soila errepresentatzeko nahikoa da lerro berean marraztea O biak; aldiz, aldentze biak gertatzen direla esplizituki markatzeko, “ $\times$ ” zeinua txertatzea “ $\langle$ ” zeinuaren ordez):

(197) +PRO (+POST)

[+tf]  $(|-----\rightarrow)\otimes$   
 $.....O^n\langle\hat{O}^{n+1}.....$

[+ti]  $\otimes-----|$   
 $O^n.....\langle\hat{O}^{n+1}.....$

[-t]  $\times-----|$   
 $O^n.....\langle\hat{O}^{n+1}.....$

(198) +PRO (+INTRA)


[+tf]  $|-----\rightarrow\otimes$   
 $O^n \langle ..... \hat{O}^{n+1} .....$

[+ti]  $\otimes-----|$   
 $O^n \langle ..... \hat{O}^{n+1} .....$



[-t]  $\times-----|$   
 $O^n \langle ..... \hat{O}^{n+1} .....$

---

—*Arretaz entzuten dizugu.* (*We listen/are listening to you.*) —*Arretaz entzungo didazue, baina...* (*You'll listen/be listening to me, but...*)  
 —*Lasai, badator.* (*Don't worry, (s)he/it is coming.*) —*Etorriko da, baina...* (*(S)he/it will be coming, but...*)



Eta hona hemen, garrantzizko ohar baten ondoren, denborazko aldentzerik gabeko moduzko (ziurgabetasunezko) interpretazioarenak: hauetan — $O^{1S}$  eta  $O^{2V}$ -rekin bezalaxe—, gertaeraren gaineko ikuspegiaren kokagunea jatorrizkoagoa den orientazio puntutik modalki aldentuta badago ere, denbora aldetik paralelotzat jo behar dira guneok.



[+ti]            ⊗-----|  
                   Ô<sup>n+1</sup>.....  
                   ✎  
                   O<sup>n</sup>.....

[-t]             ×-----|  
                   Ô<sup>n+1</sup>.....  
                   ✎  
                   O<sup>n</sup>.....

(202)    +PRO (+AD)

[+tf] [-mom]	-----⊗	[+tf] [+mom]	⊗
	Ô <sup>n+1</sup>		Ô <sup>n+1</sup>
	✎		✎
	O <sup>n(≠1S)</sup>		O <sup>n(≠1S)</sup>

[+ti]            ⊗-----|  
                   Ô<sup>n+1</sup>  
                   ✎  
                   O<sup>n(≠1S)</sup>

[-t]             ×-----|  
                   Ô<sup>n+1</sup>  
                   ✎  
                   O<sup>n(≠1S)</sup>

Azken eskemetan jaso den legez, O<sup>1S</sup>-rako balio duen M-rekiko bateraezinasunak bere horretan dirau O<sup>2</sup>-an ere. Ondorioz, jatorrizko orientazio puntua O<sup>1S</sup> denean, +PRO(+AD) balio konbinaketak (199)-ko aldentze denborazko-modal konplexua behartzen du. Izan ere, horrek bagaramatza ikertzer garrantzizko beste kasu bat zeinetan gerorako proiektzioa aurkitzen baita.

### 3.7 Lehen orientazio puntuaren harremana ±INTRA eta ±AD operatzaileekin

O<sup>S</sup>-ri berezkoa zaion ikuspegia +INTRA da:

*“The narrow “nunc” perspective is naturally intraterminal, inherent to*

*O<sup>S</sup>-oriented non-past items. [...] O<sup>S</sup>-oriented –PAST items not marked*

*for +AD or -INTRA imply a natural intraterminal perspective.”*

*(Jobanson 2000: 77-78)*

Hori kontuan hartuta, O<sup>S</sup>-ren inguruan +INTRA dela balio ez markatua, notazio moldaketa bat proposatuko dut balio markatuaren eta ez-markatuaren alderantzizkotasuna adierazteko, “±”, “+” eta “-” zeinuak goi-indize gisa idatziz:

(203) *Etiketa eta definizioa 59. (Ikusi lehenago xebetasan gehiagorako.)*

<sup>±</sup>INTRA : mugetatik barruko ikuspegia (*intraterminal*) zein haren kontrakoa adierazten duen operatzailea, balio positiboa ez-markatua denean.

Baina horrekin lotuta dago beste fenomeno interesgarri bat: +AD eta O<sup>S</sup>-ren bateraezintasunarena.

*“[...] (+AD) cannot be applied to events in progress at O<sup>S</sup>. The meaning of aspectotemporal items of this structure is incompatible with the description of something going on at encoding time. +AD cannot be applied to events current at ‘nunc’, as it is incapable of envisaging a present cursus. It might be thought that the presentation of the event as a totality necessarily implies O<sup>S</sup>-posteriority of the crucial limit to attain. More adequately expressed, however, adterminality envisages the very attainment of a future crucial limit and thus projects that limit directly into the future.” (Jobanson 2000: 137-138)*

Hau da, batetik +AD balioak adierazten badu aspektu ikuspegi bat gertaeraren funtsezko mugan bertan kokatua, eta bestetik ikuspegi hori aplikaezina bazaie O<sup>1S</sup>-n bertan (orokorrago, edozein O<sup>S</sup>-n) kokaturiko gertaerei, argi dago ikuspegia ez dela ezartzen O<sup>1S</sup>-tik baizik eta beste puntu batetik, Ô<sup>2</sup>. Eskematikoki (eta ibilbidea errepresentaziotik kanpo lagaz):

$$(204) \quad \otimes \\ O^S > < \hat{O}^2$$

Emitza hau aurreko postulatuotatik ondoriozta daiteke:

$$(205) \quad [= (132)] \text{ TAM sistemako postulaturia 29.} \\ (\hat{O} \cap M \neq \emptyset) \leftrightarrow +AD$$

$$(206) \quad [= (147)] \text{ TAM sistemako postulaturia 34.} \\ O^S \cap M = \emptyset$$

Beraz:

$$(207) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 19.-20.} \\ (a) +AD \rightarrow (O^S \neq \hat{O}) \\ (b) +AD \rightarrow (O^S > < \hat{O})$$

Moduzko aldentzeak gerorako (hurrengo atalerako) lagaz, aldentze horrek denborazko irakurketa bat jasoko du. +POST eta -INTRA operatzaileekin ez bezala, +AD balioarekin proiektzioa geroan ematen da (Johanson 2000: 138):

$$(208) \quad \text{TAM sistemako postulaturia 51.} \\ (+AD \wedge (O^{nS} - \hat{O}^{n+1})) \rightarrow (O^{nS} \langle \hat{O}^{n+1})$$

Bestela esanik:

$$(209) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 21.} \\ (+AD \wedge (O^{nS} - \hat{O}^{n+1})) \rightarrow \text{GEROKOA}(\hat{O}^{n+1}, O^{nS})$$

Emitza hauek beren horretan diraute +INTRA (edo +INTRA) balioko ikuspegiarekin baldin bestelako arrazoiengatik, pragmatikoak adibidez, argi badago ebakidura eza gertaeraren eta lehenengo urrats batean adierazitako orientazio puntuaren artean (beti ere aldentze modala markaturik ez badago). Konpara ditzagun adibide bi:



- (210) (a) Datorren astean... (*La semana que viene...* 'The week that is coming...')  
 (b) Datorren hurrengo aldian... (*La próxima vez que venga...* 'Next time s/he comes...')

(a) kasuan, orientazio eta lokalizazio puntuak bat datoz eta ikuspegia etorreraren ibilbidearen barruan kokatuta dago:

$$(211) \quad (\hat{O}^S \cap G \neq \emptyset)$$

(b) kasuan, aldiz, argi uzten da etorrera ez dagoela hasita:

$$(212) \quad (O^S \cap G = \emptyset)$$

Ondoko postulatuen aplikazio zehatz baten aurrean gaude, beraz:

$$(213) \quad \text{TAM sistemako postulatua 52.} \\ ((O^{nS} \cap G = \emptyset) \wedge (\hat{O}^{n+1} \cap G \neq \emptyset)) \rightarrow (O^{nS} \neq \hat{O}^{n+1})$$

Ondorioz:

$$(214) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 22.} \\ ((O^{nS} \cap G = \emptyset) \wedge (\hat{O}^{n+1} \cap G \neq \emptyset)) \rightarrow (O^{nS} >< \hat{O}^{n+1})$$

Laburbilduz: a) adizkiaren itxuragatik (inolako aldentze modala markaturik ez egonik); b) printzipioz kasuko hizketagunetik ikustatzen diratekeen gertaeren kasuan, —operatzaileak barruko ikuspegia eskaturik (+INTRA edo +INTRA operatzailearekin adibidez)—; c) baldin argi badago kasuko hizketaguneari horrelako kointzidentzia ematen ez dela... orduan bigarren ikuspuntu bat behar da, geroan proiektatua, zehazkiago ondorengoan:

$$(215) \quad \text{TAM sistemako postulatua 53.} \\ (((\hat{O}^-)O^{1S}) \wedge \neg(\hat{O} \not\prec O^{1S}) \wedge (+INTRA \vee +INTRA) \wedge (O^{1S} \cap G = \emptyset)) \rightarrow \\ (O^{1S} \prec \hat{O})$$

Hau da:

(216) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 23.

$$(((\hat{O} -)O^{1S}) \wedge \neg(\hat{O} \neq O^{1S}) \wedge (+INTRA \vee +INTRA) \wedge (O^{1S} \cap G = \emptyset)) \rightarrow \\ ONDORENGOA(\hat{O}, O^{1S})$$

Gerorako proiektzio hauetaz gehiago esan beharko da beranduago. Horren aurretik, bukatu behar dut Johansonen eremu teorikoa aurkezten.

### 3.8 Neutralizatze eta fokalizatzea

Johansonen aburu, zenbait kasutan aspektu ikuspegi batek ez du aurkaririk denbora maila batean. Horixe gertatzen dateke, adibidez, orainaldiko mailan: horretan kontuan ez da bakarrik +INTRA ikuspegiaren berezkotasuna, baizik eta eskuarki falta direla horrekiko lehian dagokeen -INTRA itemak, eta fenomeno honek dakar oposaketaren neutralizatzea, zeina adierazten baitu +INTRA<sup>o</sup> gisa, “<sup>o</sup>” zeinuaren itsasketaz. Ondorioz, benetako  $\pm$ INTRA oposaketa bakarrik aurkitzen dateke iraganaldian:

*“However, the lack of a competing -INTRA item in the same temporal stratum causes a neutralization, the product of which is denoted as +INTRA<sup>o</sup>. -PAST (+INTRA<sup>o</sup>) values can be assigned to Present tenses such as [...] Basque mintzatzen naiz ‘I speak, I am speaking’. Genuine  $\pm$ INTRA oppositions of competing items are restricted to the past strata.” (Johanson 2000: 78)*

Uste dut gauzak desberdinak direla batzuetan, eta hauxe dela euskararen kasua, hain zuzen ere. Nire puntu hau garatzeko, zerbait esan behar da aspektu ikuspegiaren fokalizatze mailez eta horiekin loturiko aldaketa diakronikoez.

Eremu teoriko honetan, fokalizazio eskala bat bereizten da aspektu operatzaileen aplikazioan: fokalizatze handiena (fokalizatze txikiena ez bezala)

ikuspegiaren kokagunera mugatzen da, gertaera osoa edo honen zati bat kanpoan lagaz.

*“Now, psychological interest may focus more or less on the situation prevailing at O. Focality is a scalar notion. Intra- and postterminals show higher or lower focality degrees depending on the relative narrowness of the range of vision determined by “nunc”. A rather rough division of the focality scales will suffice for the purposes of the present overview. I shall first distinguish focality (F) from nonfocality (NF), and then assume two degrees, relatively high (HF) vs. relatively low focality (LF).”*  
(Johanson 2000: 38)

Espreski esanik:

- (217) *Etiketak eta definizioak 60.-63.*  
F : ikuspegi fokalizatuaren adierazpena  
NF : ikuspegi ez fokalizatuaren adierazpena  
LF : gutxi fokalizaturiko ikuspegiaren adierazpena  
HF : oso fokalizaturiko ikuspegiaren adierazpena

Inoiz Johanson ( $\pm$ FOC) tasun batez baliatzen da:

- (218) *Etiketa eta definizioa 64.*  
( $\pm$ FOC) : ikuspegi fokalizatuaren/ez fokalizatuaren adierazpena

Hona hemen zenbait adibide:

- (219) +INTRA<sup>HF</sup> (*high-focal intraterminality*): ingeleseko *was writing*<sup>186</sup>  
+INTRA<sup>LF</sup> (*low-focal intraterminality*): frantseseko *écrivais* (*‘was writing, wrote’*)

---

<sup>186</sup> Euskarari artez aplikagarria suertatuko denez, oso interesekoa izango dugu +INTRA<sup>HF</sup> operatzailearen lotura [+dyn] ekintzazkotasan balioarekin:

*“+INTRA<sup>HF</sup> prefers to operate on [+dyn] actional phrases. High-focal intraterminality is particularly fertile with dynamic contents implying internal evolution. [...] To represent ongoing events expressed by [-dyn] actional phrases, items of lower focality are sufficient, e.g., the English Simple Present. [...] many Romance and Germanic +INTRA<sup>HF</sup> items refuse to operate on [-dyn] verbs of spatial location such as ‘hang’, ‘sit’, ‘stand’.”* (Johanson 2000: 152)

+INTRA<sup>NF</sup> (*non-focal intraterminality*): turkierako *yazardı* (*wrote, would write, used to write*)

- (220) +POST<sup>HF</sup> (*high-focal postterminality*): ekialdeko armenierako *grac ē* (*has written*)  
+POST<sup>LF</sup> (*low-focal postterminality*): norvegierako *bar skrevet* (*has written*)  
+POST<sup>NF</sup> (*non-focal postterminality*): hegoaldeko germanierako *hat geschrieben* (*has written, wrote*)

Izatez, ez-fokalak ezin jo daitezke benetako +INTRA edo +POST baliokotzat:

*“It should be stressed that the definitions given for +INTRA and +POST apply, in their full sense, to focal items only. Nonfocals are atrophic items that do not do full justice to the original terminal notions but represent them in a weak or diluted way. In a strict sense, we might rather consider them expostterminals and exintraterminals. Since they are not opposite items competing with correspondign minus items, +INTRA<sup>NF</sup> and +POST<sup>NF</sup> items might also be written +INTRA<sup>o</sup> and +POST<sup>o</sup>.” (Johanson 2000: 38-39)*

Beraz:

- (221) *Etiketak eta definizioak 65.-66.*  
+INTRA<sup>o</sup> : -INTRA item baten oposaketarik ez duten +INTRA itemak; baldin +INTRA<sup>NF</sup> badira, orduan mugabarruko ohiak (*exintraterminals*) ditugu  
+POST<sup>o</sup> : -POST item baten oposaketarik ez duten +POST itemak; baldin +POST<sup>NF</sup> badira, orduan mugaondoko ohiak (*expostterminals*) ditugu

Hau dela eta, logikoa da pentsatzea defokalizaturiko -FAR (+POST<sup>oNF</sup>) eta -FAR (+INTRA<sup>oNF</sup>) itemak batera emanez gero —mugaondoko ohi (*expostterminal*) eta mugarteko ohi (*exintraterminal*) bana buruz buru—, oposaketa berri bat ezar daitekeela haien artean, baina honetarako findu behar da denborazko mailaren (*temporal stratum*) kontzeptuaren interpretazioa. Adibide on bat dugu gaztelaniazko “iraganaldi perfektuaren” (*pretérito perfecto*)

bilakaera diakronikoan: Johansonek berak seinlatu duenez (2000: 129, 132), askotan igarotzen da +POST<sup>HF</sup> batetik +POST<sup>LF</sup> batera, eta gero +POST<sup>NF</sup> baliora, zeina +POST<sup>oNF</sup> mugaondoko ohia (*expostterminal*) den. Azken hauetan zentzu diagnostikoa eta historikoa batzen dira, lehenak narrazioa apurtzen du, bigarrenak aurrera eramaten du. Zentzu biak bereizteko bestelako baliabideak behar izaten dira:

*“-PAST (+POST<sup>NF</sup>) items require special lexical markers to distinguish the diagnostic dimension from the historical one. The use of specific time expressions suggests historical readings, e.g. German hat um sechs Uhr gefrühstückt ‘had breakfast at six o’clock’, whereas devices of the ‘already’ type exclude them, e.g. hat schon gefrühstückt ‘has (already) had breakfast’”. (Johanson 2000: 119)*

Hau da gertatzen dena, hain zuzen, gaztelaniazko iraganaldi perfektuarekin (*pretérito perfecto*), egun bereko gertaerak adierazteko erabiltzen den dialektoetan behintzat:

(222) Historikoa: *(A las seis) ha venido y ha desayunado.* (‘(At six) (s)he came and took breakfast.’)  
 Diagnostikoa: *Ya ha desayunado.* (‘(S)he has (already) taken breakfast.’)

Hau ez da txunditzekoa, kontuan harturik egun bereko gertaeren arabera bereizketa honek eragin handia duela horrelako defokalizatze prozesuetan (Johanson 2000: 116-117).

Bestalde, honek azaltzen du (ikusi Johanson 2000: 88) zergatik gaztelaniazko indikatiboko orainaldiak jaso dezakeen zentzu narrazioa: denborazko maila berean oposaketarik gabeko mugabarruko ohia delako, +INTRA<sup>oNF</sup>. Horrelako erabilerarik ez dago euskaraz (erdararen kopia hutsengatik ez bada), bertan <sup>±</sup>INTRA oposaketa indarrean dagoelako orainaldian ere, argudiatzera noanez.

Gaztelaniazko iraganaldi perfektuan aurkituriko zentzu bikoizketa are argiago ikus daiteke euskararen gai hurbileko (-tu motako) *partizipioa* + *laguntzailea* egituraren kasuan: izan ere “dagoeneko” (*already*) motako baliabideak aditz partizipioko berariazko aldaketa batek lagunduta agertu ohi dira.

(223) Diagnostikoa: (Dagoeneko) hartua du gosaria. (*(S)he has (already) taken breakfast.*)

Horrelakoek zentzu diagnostikoa baino ezin jaso dezakete, partizipio hutsak zentzu historikoa duen bitartean (areago, euskaraz narrazioak partizipio hau behar du, orainaldiko zein iraganaldiko aditz laguntzailea daramala):

(224) Historikoa: (Seietan) hartu du gosaria. (*(S)he took breakfast (at six).*)

Beranduxeago itzuliko naiz puntu honetara. Oraingoan iradoki nahi dut ezen azken adibidekoaren bezalakoak, -PAST (+POST<sup>oNF</sup>) izanik, igaro zirela -PAST (-INTRA) gisa interpretatuak izatera, non benetako -PAST ( $\pm$ INTRA) oposaketa bat berrezarri zen zentzu historikoko mugaondokoaren eta mugartekoaren artean. Hau onartuz gero, azalpen teorikoan paralelismo egoki bat lor daiteke narrazioa aurrera daramaten zentzu historikoko ikuspegi urrun eta hurbilen artean.

Honaino azaldutakoa euskararen kasura aplikatzera aurkeztera igaroko naiz orain.

#### 4. Atala

### 4 EUSKAL ADITZ ASPEKTUAREN BERRIKUSPENA ASPEKTU(-TEMPUS) OPERATZAILEEN BERTSIO EGOKITUAN

#### 4.1 Euskal aditz jokatuaren aspektua Johansonen aburu

Johansonek, bere eremu teorikoaren terminoetan, honela ezaugarritu du euskal aditzaren aspektu-aldizkotasuna adizki trinkorik ez duten aditzen kasuan:

analytical constr.:	present auxiliary	past auxiliary
inessive verbal noun	-PAST (+INTRA <sup>o</sup> ) present	+PAST (+INTRA) +PAST (-POST/+INTRA) imperfect
participle	-PAST (+POST <sup>LF</sup> ) perfect	+PAST (-INTRA) +PAST (-POST/-INTRA) <sup>187</sup> aorist, simple past
participle + <i>ko (-en)</i>	[ez du esplizituki jorratzen] -PAST (+PRO (...) [?])	[ez du esplizituki jorratzen] +PAST (+PRO (...) [?])
participle + <i>-a(ki)/-(r)iki/-ta</i>	-PAST (+POST <sup>HF</sup> )	[ez du esplizituki jorratzen] +PAST (+POST <sup>HF</sup> ) [?]

36. taula Adizki trinkorik ez duten euskal aditzaren aspektua. Johanson (2000)

Eta honela, adizki trinkoak dituztenen kasuan:

<sup>187</sup> Johansonen notazioa beste hau da: +PAST (-POST (-INTRA)). Horrela idatzirik irudi lezake -POST operatzailea -INTRA operatzaileari aplikatzen zaiola, +PAST operatzailea ondoko esapide osoari aplikatzen zaion bezalaxe. Adierazi nahi dena ez da hori, baizik eta oposizio biak indarrean daudela item horientzat. Hortik nire notaziorako proposamena.

	present	past
synthetical constr.	-PAST (+INTRA° (-FOC))	+PAST (aspectually neutral) +PAST (-POST)
analytical constr.:	present auxiliary	past auxiliary
inessive verbal noun	-PAST (+INTRA° (+FOC)); present	+PAST (+INTRA) +PAST (-POST/+INTRA); imperfect
participle	-PAST (+POST <sup>HF</sup> ) perfect	+PAST (-INTRA) +PAST (-POST/-INTRA) aorist, simple past
participle + <i>ko</i> (-en)	[ez du esplizituki jorratzen] -PAST (+PRO (...) [P])	[ez du esplizituki jorratzen] +PAST (+PRO (...) [P])
participle + <i>-a(k)/-(r)iki/-ta</i>	-PAST (+POST <sup>HF</sup> )	[ez du esplizituki jorratzen] +PAST (+POST <sup>HF</sup> ) [?]

37. taula Adizki trinkoak dituzten euskal aditzaren aspektua. Johanson (2000)

Hala ere, analisi hori urrun dago osoa izatetik, bakarrik hartu dituelako kontuan Haasek (1994) emandako datuak.<sup>188</sup> Atal honetan zehar, bertsioko osoago eta finduago batera helduko gara.

#### 4.2 Euskal aditz aspektuaren berrikuspena

Haaseri jarraituz, Johansonek diosku euskal jokaera perifrastikoko perfektiboaren eta imperfektuaren arteko oposizioa bat datorrela erromantzetakoarekin:

*“The corresponding distinction present in Basque in analytical verbs “is the same as in the Romance languages” (Haase 1994: 282).” (Johanson 2000: 79)*

Aztertu beharra dago noraino heda daitekeen paralelismo hori, ezen Johansonek berak (2000: 180) onartzen baitu euskararen kasuan azpiko egitura desbideratuak somatzen direla.

<sup>188</sup> Berrikus § 1.3.2 txatala.



Edonola ere, uste dut proposamen horretan nahastuta daudela diakronikoki bereiztu beharreko aspektu sistema desberdinak eta horrek desitxuratzen duela gai hurbil eta urrunaren arteko paralelismoa. Atal honetan zehar ondoko puntuak defendatuko ditut:

- Hasteko, egungo euskarako adizki trinko soilak ez direla neutralak aspektu aldetik, baizik eta +INTRA, *-t(z)en (motako) partizipioa + laguntzailea* egiturakoak bezalaxeak, eta kontrajarriak narrazioaren lerro nagusia osatzen duten *-tu (motako) partizipioa + laguntzailea* egiturei. Eta horrela da bai iraganaldian, baita gai hurbileko oraingunean ere. Iraganaldiko adizki aspektualki neutralak euskara zaharreko aztarnak dira, oraingoz XVI. mendeko testuetan aurki daitezkeenak, baina ez dagozkio geroztiko euskarari.<sup>189 190</sup>
- *-tu (motako) partizipioa + laguntzailea* egitura dela eta, gai hurbil eta urrunaren arteko paralelismoa era bikoitz batean berrezarri behar da: alde batetik, haren narraziozko zentzu nagusiagatik, eta sistemako +INTRA itemekin oposizioan, biak –INTRA gisa ulertu behar dira; bestetik, narrazio lerroaren berezko norabidetik aldentuz lehenagokotasuna adierazteko balio dutenez (eta euskara zaharrean iraganaldiko egiturek beste funtziorik ez zuten), +POST balioa ere onartu behar zaie.<sup>191</sup> Erabilera biak izan ditzake mugaondoko defokalizatu batek +POST<sup>NF</sup>, zeina benetan mugaondoko ohi bat den, –INTRA balioarekin bateragarria.

<sup>189</sup> Garai hartako aditzaren ikerketa sakon batean, Lafonek (1944, 21980: 34-35) zenbait adibide dakartza, zeinetan *egin, ekarri* eta *etorri* aditzen iraganeko adizki trinkoek aoristoko zentzua duten, eta ez burutugabearena (inperfektuarena). Bakan batzuk mahairatuko ditut hemen: *bai negian pekatu (yo hice pecado, pequé)*, *adiunça onean nentorre[n] vaya ezzer ez necarre[n]* ('en buena sazón vine, mas no truxee nada'). Beranduxeago, antzeko adibideak aurkezten dizkigu zeinetan \*EDIN-en iraganaldiko formak aditz nagusi gisa uler daitezkeen: *autsa zala enriaz loyza çidi[n]* ('siendo polvo con la lluvia se hizo lodo'), edo *non cidin guïçon?* ('où [le Christ] fut-il homme?').

<sup>190</sup> Euskal aditz sistemaren eboluzio diakronikoaren analisirik sakonena aurkitzen duke irakurleak Céline Mounoleren doktorego tesian (2011).

<sup>191</sup> Aurreko ataleko analisietan ez bezala, balio biak egokiro jasota daude Gontzal Aldairen tesikoetan (2002: 47), nahiz beste terminologia batean (*Present Perfect-(Perfective)* eta *Past Perfect-(Perfective)*).

Has nadin euskara zaharrean *-tu (motako) partizipioa + laguntzailea* egituraren analisitik. XVI. mendeko testuetan egitura hori kontrajartzen zaio beste bati —*aditx oina + \*EDIN/\*EZAN (EGIN) laguntzailea* egitura<sup>192</sup>—, egungo euskararen esanahi modala baino ez duena, eta ondoko txatal batean jorratuko dudana. Leizarragaren *Testamentu Berria*, esaterako, egitura bien funtzioak sistematikoki banatuta daude: narrazioaren lerro nagusia *aditx oina + \*EDIN/\*EZAN laguntzailea* egiturari dagokio, besteak horren aurreko gertaera bat adierazten duela. Hona hemen adibide ezin hobe bi:

(225) “Eta ethorri zenean etxera, ethor zitezen harengana itsuok”. (*‘And when he had gone home, blind people came to him’*.<sup>193</sup>) (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Mat. 9: 28)

(226) “Eta egon zedin han Herodesen finerano, Iaunak Profetaz erran zuena konpli ledintzat”. (*‘And was there until the death of Herod : that it might be fulfilled which was spoken by the Lord by the prophet.’*) (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Mat. 2: 15)

Banaketa hau dela eta, badirudi hasiera baten *-tu (motako) partizipioa + IZAN/\*EDUN laguntzailea* egituraren balioa lehenagokotasunarena dela, latinetiko edo erromantzetiko haren jatorriarekin bat letorkeena.<sup>194</sup> Ez dago zalantza izpirik garai horretan egitura honen balioa dela iraganaldiko mugaondoko batena, gertaerak aurreiraganean aurkezteko balio duena eta +POST kontsidera daitekeena. Areago, bai haren bereizketagatik fokalizatze handiko *-tu + -a(k)/-ta/-rik + laguntzailea* egituragatik, bai orainguneko itemekiko analogiagatik (hauen joera diagnostikoa konpartitzen baitute), badakigu ezen pluskuanperfektu edo aurreiragan hauek fokalizatze gutxiko itemak ditugula:

*“Due to their rather strong diagnostic orientation, –PAST (+POST<sup>LF</sup>)*

*items do not yet present the event in a direct way, but in a rather static*

---

<sup>192</sup> *-(te)ke* hizkirik gabe.

<sup>193</sup> Ingeleseko itzulpenak emateko King James bertsioa erabiliko dut.

*manner lacking narrative dynamism. It is typical of their textual behaviour that they are not used for main narrative sequences, but rather for expressing past or partly past events relevant to the discourse “nunc”. [...] –PAST (+POST<sup>LF</sup>) items are typically used to refer to isolated events, detached from event chains and other clear settings.” (Johanson 2000: 115-116)*

XVII. menderako desagertua zen (erdiko euskalkietan) aoristo zaharra/aurreiragan bereizketa: *aditz oina* + \*EDIN/\*EZAN (EGIN) egiturak moduzko zentzua baino ez zuen gorde eta *-tu (motako) partizipioa* + IZAN/\*EDUN *laguntzailea* egiturak hartu zuen narrazioa aurrera eramateko zeregina.<sup>195</sup> Geroztiko euskaran, azkenaurreko adibideko *etorri zen(ean)* egituraren modukoek beste zentzu bat dute, iragan sinplearena (*(when) he came*) edo, goiko tauletako terminoetan, +PAST (–INTRA). Ondorioz, iraganaldiko adizki trinkoen esanahia ere, hauekiko oposizioan ulertu beharra dago, +PAST (+INTRA) edo inperfektu (burutugabe) legez:<sup>196</sup>

---

<sup>194</sup> Nik dakidanez, inork ez du zalantzan jartzen euskarazko *-tu* aditz bukaera latineko supinotik datorrenik. Areago, “it is even possible that periphrases such as the Old Icelandic and Basque ones are structural copies of the Latin *habet factum* type.” (Johanson 2000: 126)

<sup>195</sup> Prozesu hau erritmo desberdinez gertatu bide zen euskalkien arabera. Xehetasunetarako ikus Mounole (2011).

<sup>196</sup> Iraganaldiko adizki trinkoen ustezko aspektu neutraltasuna (±INTRA balioekiko) Haaseren adibide honetan oinarritzen da: *nengoan* (*I stayed*). Autore horren arabera, jokaera perifrastikoan derrigorrez aukeratu behar da perfektibo eta inperfektuaren artean, adizki trinkoa edozein kasutan erabil daitekeen bitartean. Hau da, *Irlandan nengoanean* esaten denean ez da somatzen oposiziorik *Irlandan egon nintzanean* esatearekin: bietarako itzulpen egokia izango litzateke *‘When I stayed in Ireland’*. Aldiz, *Irlandan egoten nintzanean* esapideaz beste zerbait adieraziko litzateke (*when I used to stay in Ireland*). Adibidea desbideragarria da arrazoi birengatik. Hasteko ekintza esaceraren [–dyn] ekintzazkotasun balioa, zeinagatik eragotzita dagoen *‘was staying’* moduko itzulpen bat. [+dyn] balioarekin desagertua zaigu itzulpen posiblearen bakartasuna: *Irlandatik nenbilenean* (*When I walked/was walking through Ireland*). Areago, itzulpen biak zabalik dirudite printzipioz –INTRA den *Irlandatik ibili nintzanean* esapiderako. Honek erakusten du beste faktore desbideragarri bat zegoela jokoan: adibide guztion [–t] ekintzazkotasun balioa dela eta, *-nean* inesiboaren itsasketak ezin koka gaitzake (falta den) funtsezko muga batean, baizik eta derrigorrez egonaldiaren zein ibilaldiaren barruan, hots, gertaeraren ibilbidean, +INTRA ikuspegiarekin gertatzen den bezala. [+t] balioko adibideak mahairatu bezain pronto (jarraian testu nagusian) ageria da adizki trinkoen burugabetasuna.

- (227) Aurkitu zintudanean ezer ez nekarren. (*When I met you I wasn't bringing anything.*)  
 Liburuak nekartzala/\*ekarri nituela aurkitu zintudan. (*I met you when I was bringing the books.*)

Baina aldaketa hau gertatu da lehenagokotasuna seinalatzeko funtzioa galdu gabe, adibide honetan bezala:

- (228) Ogei, ta amairu urte zituan S. Agustiñek, bataiatu zanean: eta ordurako egin zituan bekatu andiak, eta asko; (*S. Augustine had twenty, and thirteen years when he was baptized: and by that time he had done big sins, and a lot of them.*).<sup>197</sup>

Aldaketa honen azalpenik sinpleena da onartzea XVI. mendetik XVII.era iraganaldiko +POST<sup>LF</sup> hori defokalizatu egin zela, +POST<sup>NF</sup> izatera igaroz, hau da mugaondoko *ohi* bat, erabilera diagnostikoa zein historikoa jaso ditzakeena (Johanson 2000: 119). Horrelako defokalizatzeetarako joera aurkitu da hizkuntza askotan (Johanson 2000: 132), geografikoki urrunak izanda ere. Johansonek dioskunez (2000: 120), defokalizatze horiek zor ohi zaizkio –POST itemen galerari. Defokalizatze prozesuaren kausa ez badakigu ere, ez dirudi ondoko fenomenoak kasuala denik: euskera zaharrean +POST<sup>LF</sup> fokala mantendu egin ahal izan zen iraganaldiko adizki trinkoak derrigorrez +INTRA ez ziren bitartean —baizik eta ekintzazkotasunaren balioaren araberakoak—; baina laster defokalizatuko zen adizki trinkook, gai hurbilekoen antzera, +INTRA izatera igaro zirenean. Orduan +POST<sup>NF</sup> defokalizatuak berrinterpretatu egingo ziren sistemako beste itemekiko oposizioan, hau da adizki trinkoen eta *-t(z)en (motako) partizipioa + IZAN/\*EDUN laguntzailea* egituraren +INTRA balioari kontrajarrita, hots –INTRA gisa. Horrek behartuko zuen aoristo zaharraren desplazamendu modala, aurrerago ikertu beharrekoa.

Gainera, defokalizatze horrekin iraganaldiko aspektu oposizioak berdinuko ziren gai hurbilekoekin. Izan ere, badago arrazoi bat desberdina izan dadin +POST operatzailearen portaera O<sup>IS</sup>-ren eta O<sup>P</sup>-ren inguruan:

<sup>197</sup> Juan Bautista Agirreren *Zazpi sakramenturen gañean erakusaldiak* idazlanetik hartua.

narrazioak eskatzen du gertaerak (osokiro edo zati batean) lehenagokoak izatea; horretarako O<sup>P</sup>-n bertan koka daitezke, iraganeko orientazio puntu hori baino lehenagokoak izan gabe, baina O<sup>IS</sup>-ren inguruan kokatuz gero derrigorrezkoa da lehenagokotasun hori. Horregatik, eta oraingunean bestelako item narratiboak ez izanik, *-tu (motako) partizipioa + IZAN/\*EDUN laguntzailea* egiturak, dakigunetik, izan ditu bai erabilera diagnostikoa baita historiko-narratiboa ere:<sup>198</sup>

(229) “Halakotz Iankoaren sapientiak ere erran du [...]”. (*Therefore also said the wisdom of God [...].*) (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Luka 11: 49)

(230) “Gizon hunek hasi du edifikatzen eta [...]”. (*This man began to build, and [...].*) (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Luka 14: 30)

(231) “[...] Baina zer gaizki egin du hunek? [...]”. (*[...] Why, what evil hath he done? [...].*) (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Luka 23: 22)

Izan ere, oso zalantzarria da *(-tu motako) partizipioa + laguntzaile hurbila* egituraren zentzua perfektu batena izatea, eta beraz +POST<sup>(LF)</sup> operatzaile baten islada. Lehenago ere esan denez, +POST<sup>F</sup> itemek ez dute balio narrazioa aurrera eramateko. Honen adibide ezin hobea ingeleseko orainaldi perfektuaren erabilera ortodoxoa dugu (*has gone* eta antzekoak): horrelakoak ezin erabil daitezke sorta batean narrazio bat osatzeko. Aitzitik, jakina da euskarazko *(-tu motako) partizipioa + laguntzailea* egituraren testu portaera berdina dela laguntzailea gai hurbila zein urrunekoa izanda ere. Biak dira narrazioaren aspektu-aldiak (txistek, bereziki, laguntzaile hurbila erabiliz kontatzen dira euskaraz, gaztelaniaz ez bezala, adibidez, zeinetan orainaldiaz baliatzen diren). Zentzu historiko edo narraziozko honetaz gain, gai hurbileko egiturak zentzu diagnostikoa ere badu —horrela dateke gertaera O<sup>IS</sup>-ra lotzen denean “dagoeneko” (*already*) esapidaren bidez—:

---

<sup>198</sup> Egitura honen bilakaera diakronikoaz, ikus Mounole (2011: § IV.1.1.1).

(232) Billbotar ori egarririk etorri da. Dagoeneko sagardo bonbil bat uztu du. (*That guy from Bilbao has come thirsty. He has already emptied a bottle of cider out.*)<sup>199</sup>

Aipameneko *uztu* (= *bustu*) *du* esan beharrean, *bustua du* esanenez, zentzu erresultatiboa azpimarratuz, baina beraz jatorrizko bertsioan ere badago.

Areago, berdina gertatzen da iraganaldian ere:

(233) Andik pixkatea danbada bat etorri zan eta ura ere eskutatu zidan. Eskerrak ordurako nere gorputza txalopari ondo lotu ta estu-estu egin nula bestela... (*Soon it happened a blow and it also hid him to me. Thanks by that time I had very closely tied my body to the boat, otherwise...*)<sup>200</sup>

Beraz, ondorioztatu behar dugu orainguneko egituraren kasuan ere postterminal ez-fokal baten aurrean gaudela, +POST<sup>NF</sup> (Johanson 2000: § 8.5.3), eta beraz ez benetako mugaondokoa (*postterminal*) baizik eta mugaondoko ohia (Johanson 2000: 38-39).

Ondorioz, bai gai hurbileko oraingunean, bai iraganaldian ere, egitura markatuago bat dago —partizipioari *-a(k)/-ta/-rik* itsatsiz lortzen dena— eta beste egitura orokorrago bat aurreko hori besarkatzen duena. Johansonen terminoetan hau azal daiteke fokalizatze mailaketa gisa: fokalizatze gutxiagoko egitura erabil daiteke fokalizatze handiagokoaren ordez (Johanson 2000: 110).

Beraz, (*-tu motako*) *partizipioa* + *laguntzaile* egiturak trataera berdina jaso behar du gai hurbil zein urrunean. Egituraren zentzu narratiboak –INTRA irakurketa eskatzen du. Jatorrizko zentzuari erreparatuz +POST<sup>NF</sup>/–INTRA) idatz daiteke, *partizipioa* (+ *-a(k)/-ta/-rik*) + *laguntzailea*<sup>201</sup> egitura +POST<sup>HIF</sup> fokalizatze handiko mugaondokoa den bitartean.

---

<sup>199</sup> Labaien *Iruñese* idazlanetik hartua.

<sup>200</sup> Labaien *Iparagirre* idazlanetik hartua.

<sup>201</sup> Laguntzailearen ordez, bestelako aditzak erabili izan dira. Ikus Mounole (2011: §§ II.1.2.1.1-II.1.2.1.2 eta §§ II.2.2.1.1-II.2.2.1.2).

Aitzitik, +POST/–POST oposizio zaharrak irautzea lortuko zuen geroaldiko jokoetan: alde horixe dagokie geroaldi perfektu (+PRO (+POST)) eta inperfektuei (+PRO (–POST)). Biak sorta berean ditugu bai Leizarragaren (XVI. mendeko), bai Duvoisinin (XIX. mendeko) itzulpen pasarteotan:

(234) “Altxatu dukezuenean gizonaren Semea, orduan ezaguturen duzue ezen ni naizela *burá*”. (*When ye have lifted up the Son of man, then shall ye know that I am [be]’*). (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Ioannes 8: 28)

(235) “Goititu dukezuenean gizonaren Semea, orduan ezaguturen duzue nor naizen ni”. (*When ye have lifted up the Son of man, then shall ye know that I am [be]’*). (Duvoisinin *Biblia*, Ioan 8: 28)

(236) “Eta akabatu dukeitenean bere testimoniajea abismetik igaiten den bestiak, gerla eginen dik haien kontra, eta garaituren zitik eta hilen”. (*And when they shall have finished their testimony, the beast that ascendeth out of the bottomless pit shall make war against them, and shall overcome them, and kill them.*) (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Rebelationea 11: 7)

(237) “Eta akhabatu duketenean beren lekhukotasuna, lezetik igaiten den basabereak gerla eginen diote, eta garhaituko, eta hilen ditu.” (*When ye have lifted up the Son of man, then shall ye know that I am [be]’*). (Duvoisinin *Biblia*, Apokalipza 11: 7)

Adibideok argi uzten dutenez, geroaldi perfektuak zentzu diagnostikoa du, eta geroaldi arruntak zentzu historikoa, hurrenez hurren +PRO (+POST) eta +PRO (–POST) itemetatik espero daitekeena.<sup>202</sup> Zehatzago izanik, geroaldi perfektua fokalitate gutxiko +PRO (+POST<sup>LF</sup>) itema dugu; askoz erabilera urriagokoa dugu +PRO (+POST<sup>HF</sup>) datekeen *-tu (motako) partizipioa + a/ak/(r)ik + dateke/duke...* egitura:

(238) “[...] edo (nork daki?) Frantzian ahantzia duketela ustez.” (*[...] or, (who knows?) thinking that in France he’s been forgotten [by them]’*).<sup>203</sup>

<sup>202</sup> Bide batez, honek erakusten du *-(tu)ko (motako) partizipioa + IZAN/\*EDUN* egituraren esanahian ez duela parte hartzen *-tu (motako) partizipioarenak* (gogoratu 75. oin-oharrean aurreratua): esanahiaren osara dela eta, zuzenagoa dateke lehen egitura honela ezaugarritzea: *aditz oina + (-tu/-i)ko/(r)en*.

<sup>203</sup> Lafitteren *Euskal literatura*z idazlanetik hartua.

Fokaltate handiko egiturak erabilera arruntagoa du geroaldi perfektua adierazteko beste forma honetan, *partizipioa* + *-a(k)/-ta/-rik* + *laguntzailea*, baldin orientazio puntutik beranduagoko lokalizazio punturen bat argi geratzen bada: *ordu bietarako eginak ditut* (‘I will have done them for two o’clock’).<sup>204</sup> Beste aukera bat jokaera gainkonposatua da (*ikusi(a) izango dut*): honetan ere bigarren orientazio puntu baten inguruan mantentzen dateke +POST balioa.<sup>205</sup>

Baina *-(te)ke* hizkidun adizkien bidezko geroaldira itzuliz, zerbait esan beharra dago beste jokaera biotaz: *ikusiko/ikusiren duket* eta *ikusten duket* modukoak. Egungo lapurtera eta nafarreran, Lafitteren aburu (1944, 82008: §§ 706, 694), aierua adierazteko balio dute. Autore hori harago doa bertan esanez “*le présent conjectural périphrastique ne sert jamais de futur*”. Uste dut komeni dela baieztapen hau honela ulertzea: horrelakoetan aierua markatzea dela *-(te)ke* hizkiaren funtzioa, ez geroa, nahiz bestelako arrazoiengatik (+INTRA × [+tf] eta +INTRA ∧ (O<sup>S</sup> ∩ G = ∅) konbinaketak, esaterako) gertaera gerokotzat har daitekeen. Ohar hau eginda, ondoko lerroetan zehar azal daiteke nola txertatzen den sistemaren gainontzekoan aieruzko esanahi hori:

- Alde batetik, *ikusten duket* gisako egitura ez litzateke sartuko +PRO (+POST) / +PRO (−POST) oposizioan, esaterako, *ikusi duket* eta *ikusiko/ikusiren du(ke)t* artean; aldiz, hari kontrajarria −PRO balioko *ikusten dut* izango litzateke. Kasu honetan, beraz, oposizioa +PRO (+INTRA) eta −PRO (+INTRA) itemen artekoa dateke. Eskematikoki:

<sup>204</sup> Izan ere, Lafitteren gramatikan (1944, 82008) bakarrik *partizipioa* + *-a(k)/-ta/-rik* + *laguntzailea* egiturak jotzen dira perfektukotzat (pluskuanperfektua barruratuz); *partizipioa* + *laguntzailea* egiturak iragan hurbil zein urrunekotzat izendatzen dira.

<sup>205</sup> Berdina esan daiteke gertaerak iraganean kokatzeko erabilitako jokaera gainkonposatuz (*ikusi(a) izan dut/nuen*), batzuetan esanahi berezixek eskaintzen dituzkeen arren —adibidez: *ikusi izan dut* (‘I used to see it/him/her’)—.



(239) ikusten dut: +PRO (+INTRA) × [+ti]

$$\begin{array}{c} \otimes \text{-----} | \\ \text{.....}\hat{O}^{1S} \text{.....} \end{array}$$

(240) ikusten duket: -PRO (+INTRA) × [+ti]

$$\begin{array}{c} \otimes \text{-----} | \\ \text{.....}\hat{O}^2 \text{.....} \\ \quad \quad \quad \nearrow \\ \text{.....}\hat{O}^{1S} \text{.....} \end{array}$$

- Interpretazio bera aplika lekieke hego-mendebaldeko euskalkietan horren baliokidetzat erabilitako (aieruzko) *ikusiko dut* gisako egiturari, baina litekeena da bien artean alde txiki bat izatea non azken hau +PRO (-POST) den. Honela: <sup>206</sup>

(241) ikusiko dut (aieruzko gisa): +PRO (-POST) × [+ti]

$$\begin{array}{c} \otimes \text{---} | \\ \text{.....}\hat{O}^2 \text{.....} \\ \quad \quad \quad \nearrow \\ \text{.....}\hat{O}^{1S} \text{.....} \end{array}$$

- Bestalde, marka bikoitzeko geroaldiak (*ikusiko/ikusiren duket* gisakoa) ere, bere lekua mantenduko bazuen sisteman, nolabaiteko alde erakutsi beharko luke geroaldi arruntarekiko (*ikusiko/ikusiren dut*). Azken honek aieruzko zentzua izan dezake hego-mendebaldeko euskalkietan, baina hori arraroa da ipar-ekialdekoetan (ikuski aburu (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 704 lapurtera eta nafarrerari dagokienean). Hala ere,

---

<sup>206</sup> Jatorrizko orientazio puntuarekiko denbora aldentzerik ez dagoela markatu nahi bada, uste dut +INTRA balioko perifrasiaren batez baliatuko ginatkeela (*ikusten ariko gara...*). Interpretazio hau zuzena bada, geroaldi perifrastiko arruntaren aieruzko erabilera emaitza hauxe genuke: GEROKO\_ABSOLUTUA(M). Eta ondorioz, [+ti] eta [-t] jekintzazkotasan balioko esapideekin: GEROKO\_ABSOLUTUA(I).

XVI. mendeko Leizarragaren erabileran marka bikoitzeko geroaldia geroaldi arruntaren aldaera estilistiko hutsa zen:<sup>207</sup>

- (242) “Eta egotziren dituzte labe daixekanera: han izanen da nigar eta hortz garraskots.” (*‘And shall cast them into a furnace of fire: there shall be wailing and gnashing of teeth.’*) (Leizarragaren Testamentu Berria, Matheu 13: 42)

Eta berdina esan daiteke XVIII. mendeko Haranederren erabileraz:

- (243) “Erraten darotzuet, bada, ez dudala edanen hemendik harat mahastiko fruitu huntarik, zuekien berriro huraene Aitaren Erresuman edanen dukedan eguneraiño”. (*‘But I say unto you, I will not drink henceforth of this fruit of the vine, until that day when I drink it new with you in my Father’s kingdom.’*) (Haranederren Jesu Kristoren Ebanjelio Saindua, Matthaeo 26: 29)

Arrazoiongatik uste dut eskema egokiago bat lor daitekeela azkenaurreko taulan zenbait aldaketa sartuz, letra beltzituagoan seinالاتuak ondoko orrialdeko taulan.<sup>208</sup>

Eta berdina adizki trinkoak dituzten aditzen kasurako, baina taula horretan beste puntu batzuk ere daude argitzeke: trinkoaren eta *-t(z)e aditz izenaren inesiboa + laguntzailea* egituren arteko bereizketa, eta iraganaldiko adizki trinkoei suposaturiko aspektu neutraltasuna.

Azter dezagun, bada, ea “orainaldiko”<sup>209</sup> forma trinko eta analitikoaren arteko aldea fokalizatze kontu bat den ala ez. Izan ere, ideia horren defentsan Johansonek (2000: 90), Haaserenean oinarriturik (1994: 285), adibide bakarra dakar:

*“In the non-past stratum, the few synthetic verbs left from an older system may oppose a -PAST (+INTRA° (+FOC)) item to a*

---

<sup>207</sup> Esther Zulaikak ere (1999: 651-652) ez du alde nabarmenik ikusten, ezta Céline Mounolek (2011: 75) ere.

<sup>208</sup> Baina ez dut bereziki markatuko  $\pm$ PAST operatzailearen  $\pm$ FAR gisako berrizendapena eta, oro har, lan honetan zehar erabilitako terminologiarako egokitzapenak.

<sup>209</sup> “Oraineko” esango nuke nik, baina ohiko terminoari ulergarriago deritzot testuinguru honetan.

-PAST (+INTRA° (-FOC)) *one, e.g.,* egoiten naiz 'I am staying'

*vs. banago 'I stay' Haase (1994: 285).'' (Johanson 2000: 90)*

Jokaera perifrastikoa:	orainguneko laguntzailea (IZAN/*EDUN)	iraganaldiko laguntzailea (IZAN/*EDUN)
- <i>t(z)en</i> (motako) partizipioa	-FAR (+INTRA) orainekoa	+FAR (+INTRA) inperfektua
- <i>tu</i> (motako) partizipioa	-FAR (+POST <sup>NF</sup> /-INTRA) iragan hurbila	+FAR (+POST <sup>NF</sup> /-INTRA) aoristoa, iragan <b>urruna</b>
- <i>(tu)ko</i> (motako) partizipioa	-FAR (+PRO (-POST)) gerokoa <sup>210</sup>	+FAR (+PRO (-POST)) iraganaldiko gerokoa
- <i>tu</i> (motako) partizipioa + <i>a(k)/-rik/-ta</i>	-FAR (+POST <sup>HF</sup> ) perfektua <sup>211</sup>	+FAR (+POST <sup>HF</sup> ) pluskuanperfektua
<b>Geroko laguntzaileko jokaera</b>	orainguneko laguntzailea (IZAN/*EDUN) <i>+te/+te)ke</i>	iraganaldiko laguntzailea (IZAN/*EDUN) <i>+te/+te)ke</i>
- <i>t(z)en</i> (motako) partizipioa	-FAR (+PRO (+INTRA)) geroko imperfektua	+FAR (+PRO (+INTRA)) iraganaldiko geroko inperfektua
- <i>tu</i> (motako) partizipioa	-FAR (+PRO (+POST <sup>LF</sup> ) geroko perfektua	+FAR (+PRO (+POST <sup>LF</sup> ) iraganaldiko geroko perfektua
- <i>tu(ko)</i> (motako) partizipioa	-FAR (+PRO (-POST)) marka bikoitzeko gerokoa	+FAR (+PRO (-POST)) iraganaldiko marka bikoitzeko gerokoa
- <i>tu</i> (motako) partizipioa + <i>a(k)/-rik/-ta</i>	-FAR (+PRO (+POST <sup>HF</sup> ) fokalizatze handiko geroko perfektua	+FAR (+PRO (+POST <sup>HF</sup> ) iraganaldiko fokalizatze handiko geroko perfektua
<b>Jokaera perifrastiko gainkonposatua:</b>	orainguneko laguntzailea (IZAN/*EDUN)	iraganaldiko laguntzailea (IZAN/*EDUN)
- <i>tu</i> (motako) partizipioa + <i>a(k)/-rik/-ta</i>	- <i>(tu)ko</i> (motako) partizipioa -FAR (+PRO (+POST <sup>HF</sup> ) fokalizatze handiko geroko perfektua	- <i>(tu)ko</i> (motako) partizipioa +FAR (+PRO (+POST <sup>HF</sup> ) fokalizatze handiko iraganaldiko geroko perfektua
?- <i>tu</i> (motako) partizipioa	-FAR (+PRO (+POST <sup>LF</sup> ) aurregerokoa edo geroko perfektua	?
- <i>tu</i> (motako) partizipioa + <i>a(k)/-rik/-ta</i>	- <i>tu</i> (motako) partizipioa -FAR (+POST <sup>NF</sup> /-INTRA (+POST <sup>HF</sup> ) fokalizatze handiko pluskuanperfektu hurbila	- <i>tu</i> (motako) partizipioa ?
- <i>tu</i> (motako) partizipioa	-FAR (+POST <sup>NF</sup> /-INTRA (+POST <sup>LF</sup> ) aurreiragan hurbila	?

38. *tanla Euskal aditzen aspektuaren lehen berrikuspena (adizki trinkorik ez duten aditzen kasua)*

<sup>210</sup> Hemen eta koadroko gainontzekoan, zentzu zabalean interpretatu beharra dago "gerokoa": ondorengoa, gertagarria, aieruzkoa...

<sup>211</sup> Beranduagoko denbora erreferentziaz geroko perfektuaren zentzua eskura dezake: *gerorako jakina dugu* ('We'll have known it later').

Irakur dezagun iturria:

“2.2.1.1. *Present progressive*

*If a synthetic verb would normally be used synthetically, the use of the analytical construction in the present tense (present auxiliary + verbal noun) will express a specific aspectual meaning, in most cases progressive:*

[...] *Ego(i)-te-n      naiḟ    (instead of: ba-nago ‘I stay’)*

*stay-NOM-IN      PRS.1S*

*‘I am staying’*

*“In an appropriate context it may also denote habituality.” (Haase 1994: § 2.2.1.1)*

Esan beharra dago, aitzitik, horrelako aldaketa semantikoak egon badaude ere, salbuespena direla, ez araua. Hortaz, ikusi Haaseren iturria den Lafittek dioskuna:

*“Le présent périphrastique a en général le même sens que le verbe simple correspondant.*

*“Ex. : **Diraki** équivant à **irakitzen du**, il bout.*

*“Cependant, il se rencontre pour quelques verbes des différences importantes.*

*“Ex. : **Ba dakit**, je le sais; **jakiten dut**, j’apprends; **badut**, j’ai; **ukaiten dut**, je reçois; **eri da**, il est malade, **eri izaiten da**, il lui arrive d’être malade, **pilotan ari da**, il joue (*en ce moment*) à la balle, **pilotan aritzen da**, il joue (*habituellement*) à la balle.”*

*(Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 692)*

Berdina esan behar da iraganeko forma trinko eta *-t(z)en* + *laguntzaillearen* bidezko egitura perifrastikoaz: oro har baliokideak direla, zenbait aditzen kasuetan aldaketa semantikoak suertatzen diren arren (Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 696).

Azpimarratzekoa da Haasek eta Johansonek dakarten adibidea —*egon* ('*to stay*') aditzarena— ez dela Lafittek dakartzanen modukoa. Izan ere, aditz horrekin orainaldi trinko eta perifrastikoa bakarrik dira baliokideak aditzaren zentzu figuratiboak jokoan sartzen ez diren bitartean:

*“La conjugaison faible [perifrastikoa] peut remplacer la forte quand le verbe **egon** signifie demeurer, rester.*

*“Ex. : **etchean dago, etchean egoiten da**, veulent dire tous deux : il reste à la maison.*

*“Mais il est des acceptions où le verbe fort est seul usité : notamment quand il signifie : [...].” (Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 527)*

*Egon* aditzaren kasuan, beraz, bestelako fenomeno baten aurrean gaude, haren esanahiaren ekintzazkotasunari zor zaiona: *egoten* + *laguntzaillea* egituraren zentzu progresiboa ez dagokio egiturari berari baizik eta zentzuz [–dyn] den aditz horrekin erabili ezin izateari progresiboa adierazteko egitura arrunta, [+dyn] esanahiko *ari* aditzaren bidezkoa: <sup>212</sup>

*“Quand on veut insister sur l’aspect linéaire d’une action, on peut se servir de **ari**.*

*“Ex. : **iruten ari nuzu**, je suis en train de filer.” (Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 692)*

---

<sup>212</sup> Mendebaldeko euskaran *ibili* ('*to walk*') aditzaren bidezko perifrasi hobesten dugu.

[+dyn] ekintzazkotasun balioko horrelako perifrasiak bereziki fokalizatzen dute gertaeraren ibilbidea (*cursus*), eta hauei dagokie +INTRA<sup>HF</sup> balioa.<sup>213</sup> Aldiz, adizki trinkoaren eta *-t(z)en* + *laguntzailea* perifrasiaren arteko harremana askoz konplexuagoa da, esan bezala sarri baliokideak direlako,<sup>214</sup> baina askotan (goikoaz besteko) oposizio semantiko baten adierazleak ere bai:

*“Aditz trinkoa (= sintetikoa) dagoenean, puntukaria da (= puntual /  
punctuel) [“kasukoa” (occasional) ulertu behar da<sup>215</sup>]; laguntzailezko  
jokoak, aspaldiko mendeetan, <sub>[sic]</sub> bezala, iraukaria («durativo, duratif»)  
[hau da, kasu anitzekoa (pluri-occasional)]:  
—ba noa (= voy / je vais) (= orain, berehala, gaur...)*

<sup>213</sup> Gogoratu 186. oin-oharrear esandakoa.

<sup>214</sup> Areago, zenbait euskalkitan joera handia dago jokaera perifrastikoak trinkoa ordezka dezan: gipuzkoar gazteek, adibidez, *ze esatek* (< *esaten dek*)!? (*‘What are you saying?’*) erabiltzen dute orain, lehengo *zer diok/dion?* esapidearen ordez.

<sup>215</sup> Euskal gramatikagintzan, aspektu inguruko terminologia oso desegokia izan ohi da. Txillardegiren aipamen honetan bezalaxe, Euskaltzaindiak ere “puntukaritasun” eta “mementozkotasun” kontzeptuak kasukotasuna (*occasionality*) adierazteko erabili ohi ditu:

*“Lehen esan baldin bada ere adizki trinkoetan ez dela aspektu markaririk, badirudi dator, dakar, dabil, doa eta balako adizkiak momentuzko [nik aspimarratua] zerbaiti lotzen dizkiogula (hala nola etorriko da, adibidez, geroari [hau ere nire aspimarraketa] lotzen diogun. Adizki trinkoek puntukaritasuna [nik gebituriko enfasia] markatzen dutela esan dezakegu hortaz. Hori dela eta, etorri da adizkian aspektua aditz nagusian markatua den bezala, dator adizkian ere aspektu puntukaria edo dagoela esanen dugu, marka jakinik ez den arren.”* (*Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 268-269*)

Ideok ia hitzez hitz errepikaturik irakur daitezke arrakasta handiko gramatika berri samar batean, “adizki trinkoen aspektua” izenburupean:

*“Ikuspegi formalari begiratzen badiogu, adizki trinkoek ez daukate inolako aspektu-markaririk; semantikari dagokionez, ordea, adizki trinkoek **puntukaritasuna** adierazten dute; hau da, egoera edo ekintza puntuala.”* (*Zubiri & Zubiri 1995: § 4.1.2.5*)

Ondoren honela diotelarik:

*“Ikus dezagun adibide baten bitartez:*

a) *Mikel oinez DATOR.*

b) *Mikel oinez ETORTZEN DA.*

*Zertan bereizten dira bi adibideok? Lehen adibideak Mikel orain, une bonetan, oinez datorrela adierazten du; bigarren adibidean, ordea, Mikel normalean oinez etortzen dela esan nahi du. Bestela esanda: a) adibideak une bonetan bertan gertatzen ari den ekintza puntual bat adierazten du; b) adibideak, berriz, normalean gertatzen den ekintza bat adierazten du. Beraz, ekintza biak dira burutugabeak, baina a) adibideko ekintza **puntuala** den bitartean, b) adibidean nolabaiteko **maiztasuna** adierazten da.”* (*Zubiri & Zubiri 1995: § 4.1.2.5*)

Erabilera hori ez dator bat aspektuaren gaineko berariazko literaturakoarekin:

*“[...] durativity simply refers to the fact that the given situation lasts for a certain period of time (or at least, is conceived of as lasting for a certain period of time); [...] The opposite of durativity is punctuality, which thus means the quality of a situation that does not last in time (is not conceived of as lasting in time), one that takes place momentarily. It should be*

—joaten nai<sup>z</sup> (= *suelo ir / je vais habituellement*) (= *askotan, hiru aldi<sup>z</sup>, mai<sup>z</sup>...*)” (Txillardegí 1978: § 23.71)

Aipamenak seinlatu nahi duen oposizioa ondo uler dadin, azpimarratu behar da adizki trinkoaren bidez seinalaturiko gertaera ez dela errepikatzen den zerbait, baizik eta gertaera bakar bat, baina haren iraupena mugagabea izan daitekeela, zentzu generikokoa, adibidez:

(244) Bidea hortik doa/<sup>??</sup>joaten da. (*The way goes there.*)

Adizki perifrastikoaz beste zerbait adierazten litzateke:

(245) Hortik joaten da/\*do. (*It is used to go that way.*)

Bai egitura bien baliokidetzaz, bai haien arteko aldea —horrelakorik sortzen denean—, *-te* hizkiaren zentzuari dagokion zerbaiti esker azaldu behar dira. Hau ezin da izan fokalizazio mailaketa kontu bat: horrek ez luke azaltzen egitura biek erakusten duten esanahi desberdintasuna. Nire ustez azalpena oso bestelakoa da, baina erraza: *-te* hizkiak “aldia” adierazten du, gertaera baten nolabaiteko iraupena duen ibilbideari seinalatuz. Hona hemen R. M. Azkuek (1923: § 165) jasotako zenbait adibide:

(246) Antxinate: antzinako aroa (*the Ancient Age*)  
Berdate, berdete: ekaitz gogor eta luzea (*a hard and long storm*)  
Ekaizte: ekaitz luzea (*a long storm*)  
Frantzeste: napoleonar gerra (*Napoleonean war.*)  
Gaitzete: epidemia (*an epidemic*)

*-te* hizkiaren zentzu honek eta *-n* inesiboarenak azal dezakete egitura perifrastikoaren +INTRA balioa. Baina iraupen zentzu horri beste zerbait gehitzen zaio beste adibideotan.<sup>216</sup>

---

*noted that the crucial point here is that punctual situations do not have any duration, not even duration of a very short period.” (Comrie 1976: 41-42)*

<sup>216</sup> Eta ez ditut denak zerrendatu, askoz gehiago dakartza Azkuek.

- (247) Aizete: haize aroa (*'the windy season'*)  
 Harrite: kazkabar aroa (*'the season of hail'*)  
 Asete: lurretan ur gehiegi dagoeneko aroa (*'a time with too much water on the lands'*)  
 Bustite: hezetasun aroa (*'a humid season'*)  
 Edurte, elurte: (*'the snow season'*)  
 Eurite, urite: eurien aroa (*'the rainy season'*)

Guztitan, errepikatzen den gertaera batez ari gara. Hori, bereziki ageria da 365/366 eguneko denbora zikloari esateko euskal hitzaren etimologian:


- (248) Ur (*'water'*) + te > urte (*'year'*): elurraren urtzeak markaturiko zikloa

Errepikatze esanahi honek aldaketa bat dakar aditzaren ekintzazkotasunean. Johansonen eremu teorikoan sortatze (*serialization*) markatzaile bat gisa kontzebi genezake, [+ser], ekintza esaera [-t] izatera daramana. Honela:

- (249) +INTRA × [+t] + [+ser] > [-t]

Grafikoki esatearren:

- (250) -FAR (+INTRA<sup>1+</sup>) × [+t] + [+ser] > [-t]: Etxera etortzen da. (*'(S)he uses to come home.'*)



Aldakuntza-ezak afinitatea dio +INTRA ikuspegiari, egitura horretan -n inesiboak markatzen duena. Hipotesi honek azal ditzake, oro har trinkoaren baliokidea izan arren, zergatik -t(z)en + laguntzailea egituraren zentzu nagusia ohikotasunarena den, Txillardegiren goiko aipamenean seinlatu den legez.

Lafittek seinalaturiko aldaketa semantikoa sortzen da [+ser] markatzailea eta ekintza esaeraren ekintzazkotasun balioen arteko harremanetik. Hona hemen beste adibide bat: *horretan datza* (*'It consists on that'*) esaerak egoera egonkor bat adierazten duen bitartean, *hor etzaten da* (*'(S/He uses to lie (down) there'*) esaerak kasu anitzetan gertatu ohi den zerbait adierazten




du; ikuspegia +INTRA da kasuen sorta osoari begira, baina aurreko adibidean agertu ez den kasu bakoitzaren aldakuntzazkotasuna seinalatua da. Nolabait esatearren, Johansonekin batera mahairatu berri dugun (249) epigrafeko ekintzazkotasun aldakuntzak, irakurketa bi izan ditzake (a eta b):

- (251) (a) +INTRA × [+t] + [+ser] > ... → +INTRA × [+t] + [+ser] > [-t]  
 (b) +INTRA × [...] + [+ser] > [-t] → +INTRA × [+t] + [+ser] > [-t]


(b) kasuko berrinterpretazioak azal dezake aditzaren esanahiak jaso dezakeen aldaketa adizki trinkoaren ordeztu jokoera perifrastikoa erabiltzen denean.

- (252) -FAR (+INTRA<sup>Lf</sup>) × [+t] + [+ser] > [-t]: Hor etzaten da. (*‘(S)he uses to lie (down) there.’*)



Aldaketa hori, hala ere, ez da beti ematen:

- (253) -FAR (+INTRA<sup>Lf</sup>) × [-t] + [+ser] > [-t]: Mendietatik ibiltzen da. (*‘(S)he uses to walk through the mountains.’*)



Esandakoaren ondorioz, hona hemen euskal aditzaren aspektuaren bigarren berrikuspen bat (aldaketak ostera ere letra beltzituagoan, eta taulatik at utziz jokoera gainkonposatua eta geroko laguntzaileen bidezkoa):

	oraingunea	Iraganaldia
Jokaera trinkoa: (adizki soilak)	-FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) <b>orainekoa</b>	+FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) <b>inperfektua</b>
Jokaera trinkoa: (- <i>(te)ke</i> hizkidun adizkiak)	-FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) <b>gerokoa</b> <sup>217</sup>	+FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) <b>iraganaldiko geroko</b> <b>inperfektua</b>
Jokaera perifrastikoa:	orainguneko laguntzailea <b>(IZAN/*EDUN)</b>	iraganaldiko laguntzailea <b>(IZAN/*EDUN)</b>
- <i>(z)en</i> (motako) partizipioa	-FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) orainekoa	+FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) inperfektua
- <i>(z)en</i> (motako) partizipioa + ari +	-FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) × [+t] + [+ser] <b>ohiko orainekoa</b>	+FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) × [+t] + [+ser] <b>ohiko inperfektua</b>
- <i>(z)en</i> (motako) partizipioa + ari +	-FAR (+INTRA <sup>HF</sup> ) × [+dyn] <b>oraineko progresiboa</b>	+FAR (+INTRA <sup>HF</sup> ) × [+dyn] <b>iraganaldiko progresiboa</b>
- <i>tu</i> (motako) partizipioa	-FAR (-INTRA) -FAR (+POST <sup>NF</sup> /-INTRA)	+FAR (-INTRA) +FAR (+POST <sup>NF</sup> /-INTRA)
- <i>(tu)ko</i> (motako) partizipioa	-FAR (+PRO (-POST)) <b>gerokoa</b>	+FAR (+PRO (-POST)) <b>iraganaldiko gerokoa</b>
- <i>tu</i> (motako) partizipioa + <i>a(k)/-rik/-ta</i>	-FAR (+POST <sup>HF</sup> ) <b>perfektua</b>	+FAR (+POST <sup>HF</sup> ) <b>pluskuanperfektua</b>

39. taula Euskal aditzaren aspektuaren bigarren berrikuspena

Taula horretako balioen adibideak mahairatuko ditut segidan, grafikoki adieraziz gertaeraren lokalizazioa kasu bakoitzean:

- (254) Orainguneko jokaera trinkoa: orainekoa  
 -FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [-t]: Kaletik zabilta. (*You walk/are walking through the street.*)  
 -FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+t]: Aurrera noa. (*I'm going forward.*)  
 -FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+tf]: Etxera dator. (*(S)he/it comes/is coming home.*)

-----	Kaletik zabilta.
⊗-----	Aurrera noa.
-----⊗	Etxera dator.
..... <b>Ō</b> is.....	

<sup>217</sup> Gogoratu 210. oin-oharrean esandakoa.

- (255) Orainguneko jokaera trinkoa *-(te)ke* hizkidun adizkiak): orainguneko geroko inperfektua (erreal gisako interpretazioa: ondorengoa)
- FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [-t]: Kaletik zabiltzake. (*You'll walk/be walking through the street.*)
  - FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+ti]: Aurrera noake. (*I'll go/be going forward.*)
  - FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+tf]: Etxera datorke. (*(S)he/it'll come/be coming home.*)

-----	Kaletik zabiltzake.
⊗-----	Aurrera noake.
-----⊗	Etxera datorke.
..... <b>O</b> <sup>IS</sup> < <b>Ô</b> <sup>2</sup> .....	

- (256) Orainguneko jokaera trinkoa *-(te)ke* hizkidun adizkiak): orainguneko geroko inperfektua (irreal gisako interpretazioa: gertagarria)
- FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [-t]: Kaletik zabiltzake. (*You'll walk/be walking through the street.*)
  - FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+ti]: Aurrera noake. (*I'll go/be going forward.*)
  - FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+tf]: Etxera datorke. (*(S)he/it'll come/be coming home.*)

-----	Kaletik zabiltzake.
⊗-----	Aurrera noake.
-----⊗	Etxera datorke.
..... <b>Ô</b> <sup>2</sup> .....	
..... <b>O</b> <sup>IS</sup> ✎	

- (257) Orainguneko jokaera trinkoa *-(te)ke* hizkidun adizkiak): orainguneko “geroko” inperfektua (irreal gisako 2. interpretazioa: hitzemate neustiko baretua)
- FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [-t]: Kaletik zabiltzake. (*You'll walk/be walking through the street.*)
  - FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+ti]: Aurrera noake. (*I'll go/be going forward.*)
  - FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+tf]: Etxera datorke. (*(S)he/it'll come/be coming home.*)

-----	Kaletik zabiltzake.
⊗-----	Aurrera noake.
-----⊗	Etxera datorke.
..... <b>Ô</b> <sup>2</sup> .....	
.....✎	
..... <b>O</b> <sup>IS</sup> .....	

- (258) Orainguneko jokaera perifrastikoa: orainekoa<sup>218</sup>  
 –FAR (+INTRA<sup>Lf</sup>) × [–t]: Kaletik mugitzen zara. (*You move through the street.*)  
 –FAR (+INTRA<sup>Lf</sup>) × [+ti]: Entzuten dut. (*I (can) hear/am listening.*)  
 –FAR (+INTRA<sup>Lf</sup>) × [+tf]: Berehala bukatzen du. (*(S)he/it finishes/is finishing soon.*)

-----	Kaletik mugitzen zara.
⊗-----	Entzuten dut.
-----⊗	Berehala bukatzen du.
..... <b>Ô</b> is.....	

- (259) Orainguneko jokaera perifrastikoa: ohiko orainekoa  
 –FAR (+INTRA<sup>Lf</sup>) × [–t] + [+ser] > [–t]: Mendietatik ibiltzen naiz. (*I use to walk through the mountains.*)  
 –FAR (+INTRA<sup>Lf</sup>) × [+ti] + [+ser] > [–t]: Aurrera joaten gara. (*We use to go forward.*)  
 –FAR (+INTRA<sup>Lf</sup>) × [+tf] + [+ser] > [–t]: Etxera etortzen da. (*(S)he/it uses to come home.*)

-- + ... + x-- + ... + --	Mendietatik ibiltzen naiz.
-- + ... + ⊗-- + ... + --	Aurrera joaten gara.
-- + ... +  --⊗+ ... + --	Etxera etortzen da.
..... <b>Ô</b> is.....	

- (260) Orainguneko jokaera perifrastikoa: oraineko progresiboa  
 –FAR (+INTRA<sup>Hf</sup>) × [+dyn] × [–t]: Mugitzen ari naiz. (*I'm moving.*)  
 –FAR (+INTRA<sup>Hf</sup>) × [+dyn] × [+ti]: Entzuten ari gara. (*We are listening.*)  
 –FAR (+INTRA<sup>Hf</sup>) × [+dyn] × [+tf]: Bukatzen ari da. (*(S)he/it is finishing.*)

-----	Mugitzen ari naiz.
⊗-----	Entzuten ari gara.
-----⊗	Bukatzen ari da.
..... <b>Ô</b> is.....	

<sup>218</sup> Laguntzailea *-(te)/e* hizkiduna den kasurako balio dute aurreko eskemek.

- (261) Orainguneko jokaera perifrastikoa: iragan hurbila  
 -FAR (+POST<sup>NF</sup>/-INTRA) × [-t]: Ibili naiz. (*I've walked.*)  
 -FAR (+POST<sup>NF</sup>/-INTRA) × [+ti]: Entzun dugu. (*We've listened.*)  
 -FAR (+POST<sup>NF</sup>/-INTRA) × [+tf]: Etxera etorri da. (*(S)he/it has come/ came home.*)

-	Ibili naiz.
⊗-	Entzun dugu.
-⊗	Etxera etorri da.
( )..... <b>Ô</b> is.....	


- (262) Orainguneko jokaera perifrastikoa: orainguneko gerokoa (erreal gisako interpretazioa: ondorengoa)  
 -FAR (+PRO (-POST)) × [-t]: Ibiliko naiz. (*I'll walk.*)  
 -FAR (+PRO (-POST)) × [+ti]: Aurrera joango gara. (*We'll go forward.*)  
 -FAR (+PRO (-POST)) × [+tf]: Etxera etorriko da. (*(S)he/it'll come home.*)

×-	Ibiliko naiz.
⊗-	Aurrera joango gara.
-⊗	Etxera etorriko da.
..... <b>Ô</b> is < <b>Ô</b> ².....	


- (263) Orainguneko jokaera perifrastikoa: orainguneko gerokoa (irreal gisako 1. interpretazioa: gertagarria)  
 -FAR (+PRO (-POST)) × [-t]: Ibiliko naiz. (*I'll walk.*)  
 -FAR (+PRO (-POST)) × [+ti]: Aurrera joango gara. (*We'll go forward.*)  
 -FAR (+PRO (-POST)) × [+tf]: Etxera etorriko da. (*(S)he/it'll come home.*)

×-	Ibiliko naiz.
⊗-	Aurrera joango gara.
-⊗	Etxera etorriko da.
..... <b>Ô</b> ².....	
..... <b>Ô</b> is ✗	


- (264) Orainguneko jokaera perifrastikoa: orainguneko “gerokoa” (irreal gisako 2. interpretazioa: hitzmate neustiko baretua)
- FAR (+PRO (–POST)) × [–t]: Ibiliko naiz. (*I’ll walk.*)
  - FAR (+PRO (–POST)) × [+ti]: Aurrera joango gara. (*We’ll go forward*)
  - FAR (+PRO (–POST)) × [+tf]: Etxera etorriko da. (*(S)he/it’ll come home.*)



- (265) Orainguneko jokaera perifrastikoa: orainguneko perfektua <sup>219</sup>
- FAR (+POST<sup>HF</sup>) × [–t]: Ibilia naiz. (*I’m/’ve walked.*)
  - FAR (+POST<sup>HF</sup>) × [+ti]: Joanik gara. (*We’ve/are gone.*)
  - FAR (+POST<sup>HF</sup>) × [+tf]: Etxera etorria da. (*(S)he/it’s come home.*)




- (266) Orainguneko jokaera perifrastikoa: orainguneko fokalizatze handiko geroko perfektua (erreal gisako interpretazioa) <sup>220</sup>
- FAR (+PRO (+POST<sup>HF</sup>)) × [–t]: Ibilia naizateke/izango naiz. (*I’ll be walked.*)
  - FAR (+PRO (+POST<sup>HF</sup>)) × [+ti]: Joanik garateke/izango gara. (*We’ll be gone.*)
  - FAR (+PRO (+POST<sup>HF</sup>)) × [+tf]: Etxera etorria dateke/izango da. (*(S)he/it’ll be come home.*)




<sup>219</sup> Testuinguruaren arabera geroko perfektuaren interpretazioa jaso dezake.

<sup>220</sup> Ez ditut mahairatuko interpretazio irrealen eskemak, erraz ondoriozta daitezke-eta.


- (267) Orainguneko jokaera perifrastikoa: orainguneko aurregerokoa edo geroko perfektua (erreal gisako interpretazioa) [220]
- FAR (+PRO (+POST<sup>LF</sup>)) × [-t]: Ibili naizateke/<sup>2</sup>izango naiz. (*I'll have walked.*)
  - FAR (+PRO (+POST<sup>LF</sup>)) × [+ti]: Joan garateke/<sup>2</sup>izango gara. (*We'll have gone.*)
  - FAR (+PRO (+POST<sup>LF</sup>)) × [+tf]: Etxera etorri dateke/<sup>2</sup>izango da. (*(S)he/it'll have come home.*)



- (268) Orainguneko jokaera perifrastikoa: orainguneko fokalizatze handiko pluskuanperfektu hurbila
- FAR (+POST<sup>NF</sup>/–INTRA (+POST<sup>HF</sup>)) × [-t]: Ibilian izan naiz. (*I've been walked.*)
  - FAR (+POST<sup>NF</sup>/–INTRA (+POST<sup>HF</sup>)) × [+ti]: Joanik izan gara. (*We've been gone.*)
  - FAR (+POST<sup>NF</sup>/–INTRA (+POST<sup>HF</sup>)) × [+tf]: Etxera etorria izan da. (*(S)he/it's been come home.*)




- (269) Orainguneko jokaera perifrastikoa: aurreiragan hurbila
- FAR (+POST<sup>NF</sup>/–INTRA (+POST<sup>LF</sup>)) × [-t]: Ibili izan naiz. (*I've had walked.*)
  - FAR (+POST<sup>NF</sup>/–INTRA (+POST<sup>LF</sup>)) × [+ti]: Joan izan gara. (*We've had gone.*)
  - FAR (+POST<sup>NF</sup>/–INTRA (+POST<sup>LF</sup>)) × [+tf]: Etxera etorri izan da. (*(S)he/it's had come home.*)




Adierazpen grafikoak antzekoak dira iraganaldiko formetarako, baina O<sup>P</sup>-ren ingurukoak:


- (270) Jokaera trinkoko iraganaldia: imperfektua  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [-t]: Etxean nengoan. (*I was at home.*)  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+ti]: Aurrera nindoan. (*I went/was going forward.*)  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+tf]: Etxera zetorren. (*(S)he came/was coming home.*)



- (271) Jokaera trinkoko iraganaldia: iraganaldiko geroko imperfektua (erreal gisako interpretazioa: iraganaldiko ondorengo imperfektua)  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [-t]: Etxean nengokeen. (*I would be at home.*)  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+ti]: Aurrera nindoakeen. (*I would go forward.*)  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+tf]: Etxera zetorkeen. (*(S)he/it would come home.*)



- (272) Jokaera trinkoko iraganaldia: iraganaldiko geroko imperfektua (irreal gisako 1. interpretazioa: gertagarria)  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [-t]: Etxean nengokeen. (*I would be at home.*)  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+ti]: Aurrera nindoakeen. (*I would go forward.*)  
 +FAR (+INTRA<sup>LF</sup>) × [+tf]: Etxera zetorkeen. (*(S)he/it would come home.*)





(273) Jokaera trinkoko iraganaldia: iraganaldiko “geroko” imperfektua (irreal gisako 2. interpretazioa: hitzemande neustiko baretua)

- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [-t]: Etxean nengokeen. (*I would be at home.*)
- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [+ti]: Aurrera nindoakeen. (*I would go forward.*)
- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [+tf]: Etxera zetorkeen. (*(S)he/it would come home.*)

Etxean nengokeen.	-----		
Aurrera nindoakeen.	⊗-----		
Etxera zetorkeen.	-----⊗		
$\hat{O}^3$ ✗			
$\hat{O}^{2P}$		«	<b>O<sup>1S</sup></b>

(274) Jokaera perifrastikoa: imperfektua

- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [-t]: Mugitzen ginen. (*We moved/were moving.*)
- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [+ti]: Entzuten nuen! (*I heard/was hearing!*)
- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [+tf]: Berehala bukatzen zuen. (*(S)he/it finished/was finishing soon.*)

Mugitzen ginen.	-----		
Entzuten nuen.	⊗-----		
Berehala bukatzen zuen.	-----⊗		
$\hat{O}^{2P}$		«	<b>O<sup>1S</sup></b>

(275) Jokaera perifrastikoa: ohiko imperfektua

- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [-t] + [+ser] > [-t]: Mendietatik ibiltzen nintzen. (*I used to walk through the mountains.*)
- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [+ti] + [+ser] > [-t]: Aurrera joaten ginen. (*We used to go forward.*)
- +FAR (+INTRA<sup>L,F</sup>) × [+tf] + [+ser] > [-t]: Etxera etortzen zen. (*(S)he/it used to come home.*)

Mendietatik ibiltzen nintzen.	-- + ... + x-- + ... + --		
Aurrera joaten ginen.	-- + ... + ⊗-- + ... + --		
Etxera etortzen zen.	-- + ... +  --⊗+ ... + --		
$\hat{O}^{2P}$		«	<b>O<sup>1S</sup></b>

- (276) Jokaera perifrastikoa: iraganaldi progresiboa  
 +FAR (+INTRA<sup>HF</sup>) × [+dyn] × [-t]: Mugitzen ari nintzen. (*I was moving.*)  
 +FAR (+INTRA<sup>HF</sup>) × [+dyn] × [+ti]: Entzuten ari ginen. (*We were listening.*)  
 +FAR (+INTRA<sup>HF</sup>) × [+dyn] × [+tf]: Etxera etortzen ari zen. (*(S)he/it was coming home.*)

Mugitzen ari nintzen.	-----	
Entzuten ari ginen.	⊗-----	
Etxera etortzen ari zen.	-----⊗	
	$\overset{\dots}{\hat{O}}^{2P}$	« <b>O<sup>1S</sup></b>

- (277) Jokaera perifrastikoa: iragan urruna, aoristoa  
 +FAR (+POST<sup>NF</sup>/-INTRA) × [-t]: Ibili nintzen. (*I('d) walked.*)  
 +FAR (+POST<sup>NF</sup>/-INTRA) × [+ti]: Entzun genizun. (*We('d) listened to you.*)  
 +FAR (+POST<sup>NF</sup>/-INTRA) × [+tf]: Etxera etorri zen. (*(S)he/it came/had come home.*)

Ibili nintzen.	—	
Entzun genizun.	⊗—	
Etxera etorri zen.	—⊗	
	$\overset{()}{\hat{O}}^{2P}$	« <b>O<sup>1S</sup></b>

- (278) Jokaera perifrastikoa: iraganaldiko gerokoa (erreal gisako interpretazioa: iraganaldiko ondorengoa)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [-t]: Ibiliko nintzen. (*I would walk.*)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [+ti]: Aurrera joango ginen. (*We would go forward.*)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [+tf]: Etxera etorriko zen. (*(S)he/it would come home.*)

Ibiliko nintzen.	×—	
Aurrera joango ginen.	⊗—	
Etxera etorriko zen.	—⊗	
	$\overset{\dots}{O}^{2P} \langle \overset{\dots}{\hat{O}}^3 \rangle$	« <b>O<sup>1S</sup></b>

- (279) Jokaera perifrastikoa: iraganaldiko gerokoa (irreal gisako 1. interpretazioa: iraganaldiko gertagarria)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [-t]: Ibiliko nintzen. (*I would walk.*)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [+ti]: Aurrera joango ginen. (*We would go forward.*)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [+tf]: Etxera etorriko zen. (*(S)he/it would come home.*)

Ibiliko nintzen.	x-	
Aurrera joango ginen.	⊗-	
Etxera etorriko zen.	-⊗	
	$\hat{O}^3$	
	$O^{2P} \not\prec$	« <b>O<sup>1S</sup></b>

- (280) Jokaera perifrastikoa: iraganaldiko “gerokoa” (irreal gisako 2. interpretazioa: iraganaldiko gertaera baten gaineko hitzemande neustiko baretua)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [-t]: Ibiliko nintzen. (*I would walk.*)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [+ti]: Aurrera joango ginen. (*We would go forward.*)  
 +FAR (+PRO (-POST)) × [+tf]: Etxera etorriko zen. (*(S)he/it would come home.*)

Ibiliko nintzen.	x-	
Aurrera joango ginen.	⊗-	
Etxera etorriko zen.	-⊗	
	$\hat{O}^3$	
	$\not\prec$	
	$\hat{O}^{2P}$	« <b>O<sup>1S</sup></b>

- (281) Jokaera perifrastikoa: pluskuanperfektua  
 +FAR (+POST<sup>HP</sup>) × [-t]: Ibiliko nintzen. (*I was walked.*)  
 +FAR (+POST<sup>HP</sup>) × [+ti]: Aurrera joanik ginen. (*We were gone forward.*)  
 +FAR (+POST<sup>HP</sup>) × [+tf]: Etxera etorria zen. (*(S)he/it was come home.*)

Ibiliko nintzen.	x-----	
Aurrera joanik ginen.	⊗-----	
Etxera etorria zen.	-----⊗	
	$\hat{O}^{2P}$	« <b>O<sup>1S</sup></b>

- (282) Jokaera perifrastikoa: fokalizatze handiko iraganaldiko geroko perfektua (interpretazio erreala)<sup>[220]</sup>  
 +FAR (+PRO (+POST<sup>HF</sup>)) × [-t]: Ibilia nintzatekeen/izango nintzen. (*I would have been walked.*)  
 +FAR (+PRO (+POST<sup>HF</sup>)) × [+ti]: Aurrera joanik ginatekeen/izango ginen. (*We would have been gone forward.*)  
 +FAR (+PRO (+POST<sup>HF</sup>)) × [+tf]: Etxera etorria zatekeen/izango zen. (*(S)he/it would have been come home.*)

Ibilia nintzatekeen/izango nintzen.	×-	O <sup>2P</sup> < O <sup>3</sup> « O <sup>1S</sup>
Aurrera joanik ginatekeen/izango ginen.	⊗-	
Etxera etorria zatekeen/izango zen.	-⊗	

- (283) Jokaera perifrastikoa: iraganaldiko geroko perfektua (interpretazio erreala)<sup>[220]</sup>  
 +FAR (+PRO (+POST<sup>LF</sup>)) × [-t]: Ibili nintzatekeen. (*I would have walked.*)  
 +FAR (+PRO (+POST<sup>LF</sup>)) × [+ti]: Aurrera joanik ginatekeen. (*We would have gone forward.*)  
 +FAR (+PRO (+POST<sup>LF</sup>)) × [+tf]: Etxera etorri zatekeen. (*(S)he/it would have come home.*)

Ibili nintzatekeen.	×-	O <sup>2P</sup> < O <sup>3</sup> « O <sup>1S</sup>
Aurrera joanik ginatekeen.	⊗-	
Etxera etorri zatekeen.	-⊗	

39. taulako eskemak badu beste abantaila bat, era bateratuan jorratzen dituela adizki trinkoak dituzten eta ez dituzten aditzen kasuak. Bereziki desagertuak zaizkigu Haasek proposaturiko orainaldi eta iragan trinko aspektualki neutralak. Ez dago horrelakorik egungo euskararen indikatiboko jokaeran, baina orain arteko analitiko kanpo geratu zaigu indikatiboaz kanpo (aginteran, ahaleran, helburuzko perpaus menderatuetan...) erabiltzen den *aditz oina* + \*EDIN/\*EZAN (EGIN) laguntzailea egituraren aspektua. Bai egitura hau, bai horrelako aditz laguntzaileek erakusten duten defektibotasuna argitzeko komeni da begirada diakroniko bat ematea, duela mende batzuk egoera oso desberdina baitzen: XVI. mendeko testuetan somatzen dira aspektuaurreko aro baten aztarnak, zeinetan zentzua berreskura dezakeen aspektu aldetiko forma neutralen kontzeptuak. Ikus dezagun.

### 4.3 Aspektu-aldizkotasunaren ibilbide diakronikoa:

#### ekintzazkotasunetik aspektura

Euskararen literatura testurik zaharrenak XVI. mendekoak ditugu. Egungo euskararen ez bezala, horietan usu erabiltzen da *aditz oina* + \*EDIN/\*EZAN (EGIN) *laguntzailea* egitura<sup>221</sup> indikatiboko aoristo baten zentzuaz:

*“Les anciens auteurs employaient l'imparfait des verbes **dadi** [=\*EDIN] et **deza** [=\*EZAN] accompagné d'un infinitif radical dans le sens du passé simple français, temps qui rejette nettement l'action dans le passé et la dégage de tout lien avec des faits antérieurs ou ultérieurs. Le Testament Berria de Liçarrague [=Leizarraga] (1571) nous en donne des centaines d'exemples.*

*“Ex. : **eta gertha zedin ereitean, parte bat eror baitzedin bide bazterrera, eta ethor zitezen zeruko choriak eta irets zezaten hura : eta bertze parte bat eror zedin leku harrizuetara, non ezpaitzuen lur anhitzik,** et il arriva qu'en semant, une partie tomba au bord de la route, et les oiseaux du ciel arrivèrent et l'avalèrent, et une autre partie tomba en terrain pierreux, où elle n'avait pas beaucoup de terre.*

*“Nota. — Actuellement, de pareils textes sont devenus incompréhensibles. Les formes **gertha zedin, ethor zitezen, irets zezaten** sont senties comme des subjonctifs qu'il arrivât<sub>[p]</sub> qu'ils vinssent, qu'ils avalassent. Nous ne croyons pas qu'il soit possible de ressusciter ce passé aoristique.” (Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 698)*

---

<sup>221</sup> -(te)ke hizkirik gabe.

Egitura berak, baina gai hurbileko laguntzaileaz hornituta, orainaldiko aoristo baten zentzua zuen:

*“Les vieux auteurs employaient parfois le présent des verbes **dadi et deza** dans des propositions subordonnées conditionnelles ou temporelles, pour traduire un fait **général** ou un fait **futur** ; cela correspondait au subjonctif présent de possibilité des Grecs.*

*“Ex. : **baldin erran badiezazuet, ez duzue sinhetsiren**, si je vous le dis, vous ne le croirez pas; **ez du behin ere Jainkoak uzten gizona, baldin gizonak lehenik ez badeza utz Jainkoa**, jamais Dieu ne délaisse l’homme, si celui-ci ne le délaisse le premier, [...] **huts egin dezadanean, urrikitzen naiz**, quand je fais un manquement, j’en ai du regret; [...] **pizt dadinean bi gizonen arteko herra, ahanzten zaizkote elgarri egin on guziak**, quand s’éveille la haine entre deux hommes, ils oublient tout le bien qu’ils se sont fait (présent aoristique).” (Lafitte <sup>1</sup>1995, <sup>8</sup>2008: § 694)*

Azpimarratzekoa da baita autore zaharren idazkietan ere oso urria dela egitura honen erabilera gertaera generikoak adierazteko,<sup>222</sup> geroko gertaerena usua den bitartean.

Hona hemen beste adibide bat:

(284) “Nor izanen da zuetarik gizona, ardi bat duenik: eta, baldin hura Sabbathoan lezera eror badadi, harturen eta altxaturen ezтуena?” (*What man shall there be among you, that shall have one sheep, and if it fall into a pit on the sabbath day, will he not lay hold on it, and lift [it] out?*) (Leizarragaren Testamentu Berria, Mat. 12: 11)

---

<sup>222</sup> Baina aski ezaguna da *aditz oin ez jokatuaren* erabilera generikoa.

Funtsezko esanahia da gertaera bere horretan kontuan hartzearena. Geroaldiko kutsua lortzen da gertaera ez delako aurkezten dagoeneko burututzat (aspektu ikuspegia ez da +POST) ezta indarrean ere kasuko hizketagunean (aspektu ikuspegia ez da +INTRA).

Esanguratsua da euskara zaharrea egitura honek erakusten duen alde nabarmena iraganaldiko eta gai hurbileko adizkien artean: azken honetan ez zuten inolako erabilerarik perpaus nagusietan, aginteratik kanpo. Atal honetan zehar defendatuko dut alde hori zor zaiola O<sup>S</sup>-rekiko bateraezintasun bati, +AD operatzailearena hain zuzen.

Lafitteren goiko aipamenean ikusi denez, gai hurbilean egitura honen erabilera nagusiak baldintzazko eta denborazko perpaus menderatuetaoak ziren, hau da, gertaera bat suposatzeke zein auresuposatu eta beste baten kokagunerako erabiltzeke. Auresuposaketa barneratzen duen beste erabilera bat ere bazegoen: erlatibozko klausulen bidezko erabilera erreferentziala. Hona hemen adibide bana, *bait-* aurrizkiaz eta *-n* atzizkiaz hurrenez hurren:

(285) “hauk dirade Bildotsari darreitzanak norat ere ioan baitadi” (*These are they which follow the Lamb whithersoever he goeth.*) (Leizarragaren Testamentu Berria, Apokalipsea edo Rebelationea 14: 4)

(286) “Eta nondik haur niri, ethor dadin ene Iaunaren ama enegana?” (*And whence is this to me, that the mother of my Lord should come to me?*) (Leizarragaren Testamentu Berria, Luka I, 43)

Gai hurbileko erabilera hauek guztiak zaharkituta daude, baldintzazko egituraren bat literaturan aurki badaiteke ere. Egungo euskaran gelditzen den aztarna bakarra helburuzko perpaus menderatuak eta gobernatzaile berezi batzuen osagarrikoak dira, adizkiok “subjuntibokoak” izanik, indikatiboetatik desberdinak. Zertan datzan subjuntibozko izaera hau, atal honetan eta hurrengoan zehar azaldu beharko da, gai nahasia baita oso. § 1.6 txatalean ikusi dugunez, gramatikariaren joera izan da subjuntibo hau irrealtasunaren ezaugarriekin lotzea (borondatea, nahia, asmoa...) Ildo beretik doaz ondoko aipameneko ideiak:

“GAUR. Gutxi gora behera hau esan daiteke: KONDAIRARI izan / <sup>l\*</sup>edun bikotea dagokiola; eta USTETASUNARI, berriaz \*edin/\*ezan.” (Txillardeggi 1978: § 23.52)

Pare Txillardeggi, nekez esan dezakegu indikatiboko eta subjuntiboko adizkien arteko aldea ustetasunari dagokionik; usteak, hain zuzen, indikatiboko formak eskatzen baititu:

- (287) (a) Ez dut uste etorriko denik/\*etor dadin. (*I don't think s/he will come.*)  
 (b) Ez dut nahi etor dadin/\*etorriko denik. (*I don't want s/he to come.*)

Subjuntiboko perpaus osagarriak eskatzen duten gobernatzaileen azalpenen bat eskaini du Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak (1999: § 1.5) Azalpen errazena dute aginte-perpausen aipamena egiten duten gobernatzaileak (esplizituak edo ez):

- (288) Liburua itzul dezadala esan didate. (*They told me to bring the book back.*)

Aginte-perpasean erabiliko litzatekeen aditz sail bera (\*EDIN/\*EZAN (EGIN)) erabiltzen da horrelakoetan. Sail horren nolabaiteko ezaugarria jarauntsi egiten da erabilera artezetik zeharkakora. Atal honetan barrena argudiatuko dut, horixe +AD aspektu balioa dela. Emaitza hori behinik behin onartuz gero, erraza dugu jaraunspen hori formalki jasotzea:

- (289) TAM sistemako postulatua 54.  
 +κDEP([-deskr]) → +AD

Horiekin batera badaudeke ondoko “gogo-jarrerak” adierazten dituzten gobernatzaileak: eskaera edo erregua, eta agindua eta debekua.

- (290) (a) Ahal duzun guztia egin dezazula eskatzen dizut. (*I ask you to do whatever you can.*)  
 (b) Liburua itzul dezadala manatu didate. (*They ordered me to bring the book back.*)

Beste batzuek nahia edo desirako gogo-jarreraren adierazle bide dira:



(291) Ondo bizi zaitetzela opa dizuet. (*I wish you to live good.*)

Eta besteek “iritzi-jarrerak” adierazten dituzkete: *on da, hobe da, beharrezkoa da, beldur izan, komeni izan...*

“Ustetasuna” baino, pentsa liteke beste zerbait barneratzen dutela: alde batetik nolabaiteko nahiagokotasun edo hobesgarritasun eskala bat. Eta honelako zerbaiten beharra proposatu da geroaren analisi semantiko egoki baterako (Copley 2002).<sup>223</sup> Baina garrantzizkoa da hau ez nahastea derrigorrez irrealtasuna eskatuko lukeen borondate zein asmozkotasunarekin. Izan ere, subjuntiboko adizkion erabilera batzuetan argi gelditzen dateke gertaeren izaera erreala:

(292) Normala da gorputz pisudun oro jaus dadin. (*It is normal for every heavy body to fall.*)

Adibide honetan gertaera generiko eta erreal bat adierazten da, baina berariazko zentzu batekin: izan ere ez da adierazten gorputz pisudun oro beti jausten ari denik, baizik eta jaustera igaroko dela hori oztopatzen duten faktoreak desagertu bezain pronto. Kutsu hori ez da horren nabaria sinonimotzat jotzen den beste egitura honetan:

(293) Normala da gorputz pisudun oro jaustea. (*It is normal that every heavy body fall.*)<sup>224</sup>

Dena dela, gertaeraren errealtasuna ez dago haren generikotasunaren mendean. Ikusi:

---

<sup>223</sup> Eta horrekin batera, ahalezkotasunarekin loturiko gertaeren gaineko kontrol gaitasun bat.

<sup>224</sup> Areago, niri behintzat subjuntiboko egitura gogorra egiten zait esatera estatiboekin, hala nola Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen adibide honetan (1999: 137): *Normala al da lehendakaria beti gizonetzkoa izan dadin?* (*Is it normal that the president be always a man?*) Kasu horretan onargariagoa dirudi nominalizazioak: *Normala al da lehendakaria beti gizonetzkoa izatea?* Estatiboa ez denean, aldiz, subjuntiboko egitura naturala egiten zait: *Normala al da beti gizonetzko bat izenda dadin lehendakaritzat?* (*Is it normal to appoint as president always a man?*)

(294) Ez dago eragozterik haraino hel daitezten. (*There is no way to avoid them getting there.*)

Ondorioz, eta (289)-ko emaitza barruratzuz, subjuntiboko esapideak behartzen dituen faktorea hau da: gobernatzaileak eskatzen duela gertaeraren gerokotasuna. Hau berez adierazten zen gai hurbileko +AD adizkien bidez baita euskara zaharrea ere, eta hizkuntzaren bilakaera diakronikoan berdin gertatuko zen iraganaldiko adizkiekin, zeinetatik subjuntibokoak baino gelditu ez ziren. Guztiz galduta dago iragan aoristiko zaharra. Geroztik esanahi hori *partizipioa* + *IZAN*/*\*EDUN laguntzailea* egiturak hartu du.

Lehenago esan denez, egitura honen +POST<sup>NF</sup>/–INTRA balioak azalduko luke zergatik desplazatu ahalko zuen aoristo zaharrena, zeina hizkuntzaren ekonomiagatik modu subjuntibora igaroko baitzen. Euskal aditzaren aspektu sistemaren garapenean +INTRA/–INTRA *oposizioaren* nagusitzeak konstante bat dirudi. Kasu honetan +FAR (–INTRA) balioko aoristo bat eratu zen, zentzu hori emanez mailegaturiko egitura bati zeina hasieran –INTRA ez baitzen eta horrela desagertaraziz aoristo zahar bat zeinetan bestelako balioa somatzen den –Lafonek eta Txillardegik azpimarratu dutenez egitura zaharrea aldakuntzaren osaera markatzen zen—:

*“Bi lehenengoan [izan/<sup>l\*</sup>edun sailaren] ezagarrria, Lafon-ek bezala esateko, «iraupena» da («durée») [nik azpimarratua] eta bigarren bikotearen [\*edin/\*ezan sailaren] ezagarrria, berriaz, «bururaketa», aldakuntzaren osoa («aboutissement») [nik azpimarratua].*

*“Lehenengoetan DENBORA senditzen da; bigarrenetan, berriaz, BILAKAERAREN OSOA, GANBLAMENDUA, batetik bestera ALDATZEA.” (Txillardegi 1978: § 23.51)*

Hau da, Johansonen terminoetan euskal aoristo zaharraren aspektu balioa +FAR (+AD) zen, hizkuntza eslaviarren antzekoa, eta ez +FAR (-INTRA) erromantzeen erakoa.<sup>225</sup> Ondoko koadroek jasoko dute bilakaera hori:

Jokaera perifrastikoa:	iraganaldiko laguntzailea (*EDIN/ *EZAN)	iraganaldiko laguntzailea (IZAN/*EDUN)
-t(z)en (motako) partizipioa	*	+FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) inperfektua +FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) × [+t] + [+ser] ohiko inperfektua
-t(z)en (motako) partizipioa + ari + aditz oina	*	+FAR (+INTRA <sup>HF</sup> ) × [+dyn] iraganaldiko progresiboa *
-tu (motako) partizipioa	+FAR (+AD) aoristoa * (Ekialdeko euskara) / +FAR (+AD) aoristoa (mendebaldeko euskara)	+FAR (+POST <sup>LF</sup> ) aurreko iragana nahiz iraganaldiko perfektua
-(tu)ko (motako) partizipioa	*	+FAR (+PRO (-POST)) iraganaldiko gerokoa
-tu (motako) partizipioa + a(k)/ -rik/-ta	*	+FAR (+POST <sup>HF</sup> ) pluskuanperfektua

40. taula XVI. mendeko euskararen aspektu sistema (gai urruneko jokaera perifrastikoa).


Jokaera perifrastikoa:	iraganaldiko laguntzailea (*EDIN/ *EZAN)	iraganaldiko laguntzailea (IZAN/*EDUN)
-t(z)en (motako) partizipioa	*	+FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) inperfektua +FAR (+INTRA <sup>LF</sup> ) × [+t] + [+ser] ohiko inperfektua
-t(z)en (motako) partizipioa + ari + aditz oina	*	+FAR (+INTRA <sup>HF</sup> ) × [+dyn] iraganaldiko progresiboa *
-tu (motako) partizipioa	+FAR(+AD) subjuntiboa (ekialdeko euskara) * (Ekialdeko euskara) / +FAR(+AD) subjuntiboa (mendebaldeko euskara)	+FAR (-INTRA) +FAR (+POST <sup>NF</sup> /-INTRA) aoristoa, iragan <b>urruna</b>
-(tu)ko (motako) partizipioa	*	+FAR (+PRO (-POST)) iraganaldiko gerokoa
-tu (motako) partizipioa + a(k)/ -rik/-ta	*	+FAR (+POST <sup>HF</sup> ) pluskuanperfektua

41. taula Geroztiko euskararen aspektu sistema (gai urruneko jokaera perifrastikoa).


<sup>225</sup> Txillardegik arrazoia zuen seinaltzean aspektu zaharraren hizkuntza eslaviarrekiko antza.

Taulotako zenbait balio lehenengo aldiz agertu dira oraingoan. Hona hemen errepresentazio eskematikoan, euskara zaharreko egituretatik hasita:

- (295) Jokaera perifrastiko zaharra: aoristoa  
 +FAR (+AD) × \*[-t] > [+ti]: Ibil(i) zedin. (*'(S)he walked.'*)  
 +FAR (+AD) × [+ti]: Aurrera joan gintezen. (*'We went forward.'*)  
 +FAR (+AD) × [+tf]: Etxera etor(ri) zedin. (*'(S)he/it came home.'*)




- (296) Jokaera perifrastiko zaharra: aurreko iragana nahiz iraganeko perfektua  
 +FAR (+POST<sup>LF</sup>) × [-t]: Ibili nintzen. (*'I had walked.'*)  
 +FAR (+POST<sup>LF</sup>) × [+ti]: Aurrera joan ginien. (*'We had gone forward.'*)  
 +FAR (+POST<sup>LF</sup>) × [+tf]: Etxera etorri zen. (*'(S)he/it had come home.'*)



Eta oraingo euskarakoetatik jarraituta. Hauen balio klistiko ez osoa grafikoki adierazteko, giltza artean agertuko dira eskemetan:

- (297) Jokaera perifrastikoa: iraganaldiko subjuntiboa (interpretazio irreal)  
 +FAR (+AD) × \*[-t] > [+ti]: Ibil(i) nendin. (*'(For) me to walk.'*)  
 +FAR (+AD) × [+ti]: Aurrera joan gintezen. (*'(For) us to go forward.'*)  
 +FAR (+AD) × [+tf]: Etxera etor(ri) zedin. (*'(For) him/her/it to come home.'*)



Egitura zaharra +AD gisa interpretatzea koherentea da aoristo zaharraren ordezko interpretazio modalarekin eta \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen ekintzazkotasun balioarekin, zeina aspektu sistema zaharraren oinarrian egon bide zen. Izan ere, zenbait fenomenok erakusten dute aspektu sistema honen aurretik egon bide zela aspektuaurreko garai bat, zeinetan (latinetiko mailegu aipatuaren aurreko) aditz jokaera ekintzazkotasunaren mendekoa zen. Hau argitzeko René Lafonen ezinbesteko lana (<sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980) aipatu beharra dago:

*“Dans les textes du XVI<sup>e</sup> siècle, certains verbes [...] se distinguent des autres par les deux particularités suivantes : leurs formes simples de présent nu (c’est-à-dire les formes simples de présent qui ne contiennent pas d’autres affixes que les indices personnels) ou bien ne sont pas employées ou bien le sont pour exprimer non seulement le présent, mais le futur, parfois même uniquement le futur [...]; de plus, leur prétérit simple peut avoir la valeur non seulement de l’imparfait du français ou de l’espagnol, mais aussi de leur passé simple, et parfois même n’a que cette dernière valeur, tandis que dans tous les autres verbes il équivaut toujours à l’imparfait de ces deux langues [...] Or les verbes qui se distinguent ainsi des autres expriment des procès dont on envisage la terme, des procès qui sont appelés à prendre fin une fois qu’un terme est atteint. Tels sont ethorri « venir » et ekharri « être apporté » (déplacements qui comportent un point d’arrivée), di- [=\*EDIN] « devenir » (passage d’un état à un autre état), za- [=\*EZAN] et gi- [=EGIN] « être fait » (passage du néant à l’existence), par opposition à ebili « marcher », du- [=\*EDUN] « être eu », ikusi « être vu », qui*

*expriment des procès pour lesquels on n'envisage pas de terme et qui peuvent se poursuivre indéfiniment.*" (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: 27-28)

Hau da, XVI. mendeko euskaran banaketa bat aurkitzen ahal dugu aditz trinko eta laguntzaileen zenbait formetan (gai hurbileko soilak eta iraganekoak) aditzaren esanahi lexikoari zor zaion ekintzazkotasunaren arabera. Johansonen kontzeptuez baliatuz, *eta aginte adizkiak koadrotik kanpo utziz*, hona hemen laburbildurik Lafonek seinalaturiko oposizioak:

ADIZKIAK →	GAI HURBILEKO SOILAK	GAI URRUNEKO "SOILAK" (IRAGANEKO -N MARKA BARRU)
ALDAKUNTZAZKOTASUNA ↓ -ALDAKUNTZAZKOA [-t]	Bai: orainaldiko zentzuarekin. <sup>226</sup>	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren pareko zentzuarekin.
+ALDAKUNTZAZKOA [+t]	Ez erabiliak. <sup>227</sup> Bai: orainaldiko <sup>228</sup> eta geroaldiko zentzuarekin. Bai: soilik geroaldiko zentzuarekin. <sup>229</sup>	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren zein iragan sinplearen pareko zentzuarekin. Bai: inguruko erdaren iragan sinplearen pareko zentzuarekin soilik. <sup>230</sup>

42. taula XVI. mendeko euskarak adizki trinkoetan erakusten dituen ekintzazkotasun-aspektu loturak.

Egungo euskaran, koadro horretan marraturiko egoera aski sinplifikatu da: alde batetik, \*EDIN, \*EZAN eta EGIN laguntzaileek ez dute aginteraz besteko adizki soilik, eta iraganekoak ez dira "soilak" arestian zehazturiko zentzuan, bakarrik erabiltzen baitira perpaus menderatueta, helburuzkoak adibidez eta inola ere ez —XVI. mendean bezala— gertaera

<sup>226</sup> Lafonek dioenez, "tous les verbes qui expriment un procès sans terme [...] possèdent de telles formes. Elles ont valeur de présent". (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: 435)

<sup>227</sup> "Dechepare [=Etxepare] et Liçarrague [=Leizarraga] évitent d'employer à l'état nu les formes simples de la plupart des verbes à valeur déterminée présent. Ils emploient, sans doute, l'un et l'autre, des formes comme nator « je viens », dathor « il vient »; mais Dechepare n'a aucune forme nue du verbe synonyme iauguin (non employé par Liçarrague). Aucune forme simple de présent nu appartenant à ekharri, à egin, à eman, ne se rencontre chez eux, à cette seule exception près que Dechepare emploie une fois la forme eztemayo [...], avec la valeur d'un présent intemporel." (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: 435)

<sup>228</sup> "Dans les Refranes, dacar, dacaz, de ekarri, ont le sens d'un présent intemporel à valeur déterminée." (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: 435) Mounolek (2011: 36) orainaldi sinpleko adibideak dakartza.

<sup>229</sup> "Mais le présent nu de egin [...] a dans tous les exemples attestés [...] valeur de futur." (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: 435) XVI. mendeko adibide guztiak bizkaierakoak dira. Hala ere, autoreak gehitzen du Iparraldeko euskararen beranduagoko adibide bat.

<sup>230</sup> Ikusi 189. oin-oharra.

baten osaceraren deskribapen huts gisa,<sup>231</sup> beste aldetik, ETORRI eta EKARRI-k legez aldaketa bat inplikatzan duten [+t] balioko aditzen formek ez dituzte jasotzen koadro horretan agertzen diren gainezkako interpretazioak, baizik eta beste aditzek jasotzen dituztenak, hots orainaldiko zein geroaldiko zentzua gai hurbileko adizki soiletarako eta aspektu burutugabea iraganekoetarako. Hau da, eskematik kanpo (aginterara mugaturik) gelditu dira mementozkotasuna inplikatzan dutenak:

ADIZKIAK →	GAI HURBILEKO SOILAK	GAI URRUNEKO “SOILAK” (IRAGANEKO -N MARKA BARRU)
ALDAKUNTZAZKOTASUNA ↓ [-t], [+ti]	Bai: orainaldiko zentzuarekin: +INTRA × [-t] +INTRA × [+ti]	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren parekoak: +INTRA × [-t] +INTRA × [+ti]
[+tf]	Ez erabiliak *+INTRA × [+tf, +mom]  edo bakarrik aginteran.  Bai: orainaldiko zein geroaldiko zentzuarekin: +INTRA × [+tf, -mom]	Ez erabiliak *+INTRA × [+tf, +mom]  edo bakarrik aginteran.  Bai: inguruko erdaren inperfektuaren parekoak: +INTRA × [+tf, -mom]

43. taula Egungo euskarak adizki trinkoetan erakusten dituen ekintzazkotasun-aspektu loturak (behin-behinekoa).

Alde batetik +INTRA ikuspegia bateraezina da [+tf, +mom] ekintzazkotasun balioketan, bestalde ikuspegi horrek geroaldiko kutsua sor dezake [+tf, -mom] balioketan konbinatuz gero. Lehenagoko adibide honek argi uzten dukeenez:

(298) Banator. (*'I'm coming.'*)

Ekialdeko euskalkietan ETORRI aditza defektiboa da, batzuetan aginteraz kanpoko jokaerarik ez duela. Horren ordean HELDU (*'to arrive'*)

<sup>231</sup> Salbuespena da ipar-ekialdeko \*IRO(N) aditza (*dirot, dirozu, niro, liro...*), zeinen adizkiak \*EZAN aditzaren *-ke* atzizkidun formen baliokideak diren (Lafon 1944, 21980 II: 44). Ondorioz, urriak dira atzizki hori daramaten \*IRON aditzaren formak (Lafon 1944, 21980 II: 63, 81), analogiaz sortuak pentsa daiteke.

erabiltzen da, eta —azpimarratzekoa da— orainaldiko zentzua *-tu motako partizipioa + laguntzailea* egituraren bidez adierazten da:

(299) Heldu naiz. (*'I'm coming.'*)<sup>232</sup>

Garrantzizkoena da ETORRI aditzaren defektibotasuna, HELDU baten bidez ordezkaturia izanak erakusten duenez, aditza [+tf, +mom] gisa interpretatuzetik datorrela. Eta berdina esan daiteke indikatiboko forma soilak galdu dituzten aditz guztiez, \*EDIN, \*EZAN eta EGIN aditzak barru. Hauen artean, hala ere, alde nabarmen bat aurki zitekeen XVI. mendean bertan: bakarrik azkenak izan zituen gai hurbil edo orainaldiko adizki trinko soilak (229. oin-oharrean aurreratu denez, geroaldiko esanahiarekin beti,<sup>233</sup> goiko *banator* adibidearekin antzera, baina era sistematikoagoan): hau da, (*\*dagit* ><sup>234</sup>) *dayt* bezalakoak aurki daitezke, baina ez *\*dadi* edo *\*dezat* legezkorik, baizik eta *dadin* (*badadi, daite, daiteke*) edo *dezadan* (*badezat, dezaket*). Uste dut aldea ekintzazkotasunari dagokiola, hots, EGIN aditza (garai horretan ETORRI eta EKARRI bezala) [+tf, -mom] gisa ulertzen zen bitartean, \*EDIN eta \*EZAN-ek [+tf, +mom] zentzua izan bide dute beti. Zein izan daitekeen adizkiok gramatikalki bihurtzen dituen *-n* atzizkiaren jatorrizko esanahia, zergatik berdina behar den iraganeko adizkietan, alegiazkoetan alboragarria den bitartean, zergatik erlatibozkoaren markarekin ere bat datorren, eta

<sup>232</sup> Erabilera bera aurki zitekeen latin klasikoan: *ocidi* (*'hil(a) naiz'*). Halakoetan berdin da aspektu operatzailea +POST edo -INTRA den: benetako egoerak argi utziz gero O<sup>15</sup> puntuak ez duela atzean utzi gertaeraren muga, Ö<sup>2</sup> ikuspegiaren kokagunea geroan proiektatzen da. Analogiatik-edo, iraganaldian ere (*jende asko*) *heldu zen* (*'it came (a lot of people)'*) esaeraren esanahia gure *zetarren/etortzen zen* esaeren parekoa da. Hala ere, honelako adibideek kutsu arkaiko bat dute, bertan ekintzazkotasun balioak inposatu egiten baitaizkio aspektu sistemaren erabilera arruntari.

<sup>233</sup> Ez oraingo euskararen legez, zeinetan *zin dagit* (*'I swear it'*) bezalako formulatan argi dago egintza esatearekin batera gauzatzen ari dela.

<sup>234</sup> XVI. mendeko euskararen, ipar-ekialdekoan zein hego-mendebaldekoan, EGIN aditzak baditu forma trinko alomorfoak, (*\*gidi* >) *-idi* bat erdian txertaturik: *daidit, daidiztu, daidi, neidi, neidiztu, laidi/leidi, neidio...* Fonologia aldetik *-di* hori oso erraz erauz daiteke: \*EDIN aditzeko NOR-NORI paradigmako formek *-kidi* > *-ki* garapena jaso dute, adibidez. Litekeena da *dayt, lei* eta halakoak (*\*gidi* >) *-idi* formetatik erator zitezen; XVI. mendean dagoeneko tankera bietako formak agertzen dira, esanahi alderik gabe, eta areago, alegiuneko adizkiei dagokionean, alderik gabe *-ke* atzizkia daramatenekin (*lei* = *leidi* = *leike*, *nei* = *neidi* = *neike*...). Ondorioz, alomorfoztat joko ditut forma guztiok.



nolatan sartzen den oposizioan *ba-*, eta *-(te)ke* hizkiekin, lan honen puntu nagusietako bat da, baina hurrengo atalari dagokiona.

42. taularen eta 43. taularen arteko aldeak erakusten duena zera da, gaur egun, zalantza barik, adizki jokatu horien bitartez adierazten den kanpoko aspektuak duela lehenetasuna. Ekintzazkotasun esanahiak, dagoeneko, ezin alda dezake forma jokatuari dagokion +INTRA ikuspegia, gehienez oztopa dezake aditzak horrelako forma jokaturik izatea. Bateriaezintasuna bereziki sortzen da +INTRA ikuspegia eta [+tf, +mom] balio semantikoaren artean, +INTRA operatzaileak *cursus* bat eskatzen duelako, [+tf, +mom] balioko ekintza esaerek ez dutena, hain zuzen.<sup>235</sup>

[+mom] balioko aditzen adizki soilak, aldiz, onargarriak dira aginteran: modu horren hitzez hitzeko erabilerak zuzenkarizko hizketa egintzetara zuzenduta egonik, garrantzia duena ez da izango inolako garapena baizik eta funtsezko mugak adierazten duen aldaketa bera. Hau da, ibilbidea ez da kontuan hartzen (Johansonek esan lezakeenez, *'the cursus is disregarded'*) eta ikuspegia (funtsezko) mugan kokatzen da. Izan ere, baita [-t] balioko esaerak ematen dituzten aditzak, aginteran erabilita, [+t] izatera igarotzen dira:

- (300) Egon! ≈ Itxaron!/Gelditu! (*'Stay (there)! ≈ Wait!/Stop!'*)  
 Habil! ≈ Has hadi mugitzen! (*'Walk! ≈ Begin moving!'*)

Hots, aginterari dagokion balio tropikoari, indikatibokoari kontrajarrita,<sup>236</sup> komeni zaio ondoko aspektu eskema (gertaeraren ibilbidea eskematik kanpo lagaz):

$$(301) \quad \begin{array}{c} \otimes \\ \text{O}^{\text{Sn}} \not\prec \hat{\text{O}}^{\text{n}+1} \end{array}$$

Ondokoaren [+irrealis] balioko bertsioa baino ez dena:

<sup>235</sup> Euskaran ez dugu aurkitzen 150. oin-oharrean azaldutako erabileraren antzekorik.

$$(302) \quad O_{Sn} \langle \hat{O}^{n+1} \otimes \rangle$$

Eta hau +AD balioko adterminalakoei dagokien eskema da, guztiz koherentea [-t] baliotik [+t] baliorako igarotzearekin, (104)-gatik baitakigu +AD bateraezina dela lehenengoarekin.

Zentzu osoa du, beraz, [+tf, +mom] balioko \*EDIN, \*EZAN eta EGIN laguntzaileen adizki soilak aginterakoak izateak; azken taula honela osatu beharra dago:

ADIZKIAK →	GAI HURBILEKO SOILAK	GAI URRUNEKO “SOILAK” (IRAGANEKO -N MARKA BARRU)
ALDAKUNTZAZKOTASUNA ↓ [-t], [+ti]	Bai: orainaldiko zentzuarekin: +INTRA × [-t] +INTRA × [+ti]	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren parekoak: +INTRA × [-t] +INTRA × [+ti]
[+tf]	Ez erabiliak *+INTRA × [+tf, +mom]	Ez erabiliak *+INTRA × [+tf, +mom]
	edo bakarrik aginteran ( <b>jokaera perifrastikoko laguntzaile gisa</b> ). +AD × [+tf, +mom] <sup>237</sup>	edo bakarrik aginteran ( <b>jokaera perifrastikoko laguntzaile gisa</b> ). +AD × [+tf, +mom]
	Bai: orainaldiko zein geroaldiko zentzuarekin: +INTRA × [+tf, -mom]	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren parekoak: +INTRA × [+tf, -mom]
	<b>Edo (jokaera trinkoko) aginteran:</b> +AD × [+tf, -mom]	<b>Edo (jokaera trinkoko) aginteran:</b> +AD × [+tf, -mom]


44. taula Egungo euskarak adizki trinkoetan erakusten dituen ekintzazkotasun-aspektu loturak.

Hona hemen aginterako horien errepresentazio eskematikoak:


<sup>236</sup> Puntu honetaz zehaztapen gehiago egingo ditut hurrengo atalean.

<sup>237</sup> [+mom] balioa aditz laguntzaileari dagokio, ez derrigorrez aditz esaera konposatu osoari.

- (303) Jokaera perifrastikoa: orainguneko aginte adizki soilak  
 -FAR (+AD) × \*[-t] > [+ti] : Ibil(i) hadi! (*Walk!*)  
 -FAR (+AD) × [+ti]: Entzun ezazu. (*Listen!*)  
 -FAR (+AD) × [+tf]: Etor(ri) zaitetze etxera. (*Come home.*)



- (304) Jokaera trinkoa: orainguneko aginte adizki soilak  
 -FAR (+AD) × \*[-t] > [+t] : Hago! (*Wait! / Stop!*)  
 -FAR (+AD) × [+ti]: Zoaz aurrera! (*Go forward!*)  
 -FAR (+AD) × [+tf]: Zatoz etxera! (*Come home.*)



Bestelako aginte adizkien azalpenean hurrengo atalean sakonduko da, baina behin-behineko errepresentazioak eskain daitezke hemen:



- (307) \*EDIN/\*EZAN (EGIN), (\*IRON): +AD  
 IZAN/\*EDUN: +AD aginteran, bestela  
 (a) Jokaera trinkoan: +INTRA<sup>238</sup>  
 (b) Jokaera perifrastikoan: ±INTRA, ±PRO, ±POST  
 Besteak: +AD aginteran edo ahaleran, bestela  
 (a) Jokaera trinkoan: +INTRA  
 (b) Jokaera perifrastikoan: ±INTRA, ±PRO, ±POST

Honelakoak formalki atzemateko, zenbait etiketa definitu beharra dago:

- (308) *Etiketak eta definizioak 67.--71.*  
 (a) <±\*EDIN> : adizkia \*EDIN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa  
 (b) <±\*EZAN (EGIN)> : adizkia \*EZAN (EGIN) aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa  
 (c) <±\*IRON> : adizkia \*IRON aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa  
 (d) <±IZAN> : adizkia IZAN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa  
 (e) <±\*EDUN> : adizkia \*EDUN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa

- (309) *TAM sistemako postulatua 55.*  
 (a) (<+\*EDIN> ∨ <+\*EZAN (EGIN)> ∨ <+\*IRON>) → +AD  
 (b) (<+IZAN> ∨ <+\*EDUN>) → (+AD ↔ [HORTATIBOA]<sup>239</sup>)  
 (c) (<-\*EDIN> ∧ <-\*EZAN (EGIN)> ∧ <-\*IRON> ∧ <-IZAN> ∧ <-\*EDUN>) → (+AD ↔ ([HORTATIBOA] ∨ [AHALERA]<sup>239</sup>))

+AD operatzailearen esku-hartzeak fenomeno berezi asko azal ditzake:

1. Hasteko, XVI. mendean \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen iraganeko adizkiek mantentzen zuten indikatiboko aoristoaren zentzua:

*“A +PAST (+AD) item normally situates the +AD perspective at an*

*L that is anterior to O<sup>S</sup> and coincides with the attainment of the crucial*

*limit” (Jobanson 2000: 137)*

<sup>238</sup> Gogoratu notazio hau, “+” zeinuaz goi-indize gisa, erabiliko dudala adierazteko adizki trinkoen kasuan +INTRA balioa dela ez-markatua, jokaera perifrastikoan ez bezala.

<sup>239</sup> Etiketa hau beranduago definituko da formalki, baina zentzu intuitiboa argi dago.

2. Halaber, garai bereko aditz horien gai hurbileko erlatiboazko zein baldinerako adizkien zentzua, orainaldiko aoristo batena, hau da gertaeraren *gauzatzea bera* kontuan hartzen duena, baina ez hizketagunetik ikusita gertatzen ari den zerbait gisa, hau da <sup>+</sup>INTRA baliorik gabea, baizik eta geroan proiektatua (nahiz inoiz zentzu generikoan).
3. Baita zergatik aditzon gai hurbileko bestelako adizkiak ez diren indikatibokoak bezalakoak. Hizkidunek  $O^{1S}$ -tiko aldentzeren bat adieraziko dute (hurrengo atalean ikertuko dena), eta soilek, bestelako aldentzerik esplizituki markatuta izan ezean, semantikoki konplexua den GEROKOA( $\hat{O}^2$ ,  $O^{1S}$ ) ezaugarria beharko dute, (207)-ean, (208)-an eta (209)-an ezarrita geratu denez.

(310) [= (207)] TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 19.-20.

$$(a) +AD \rightarrow (O^S \neq \hat{O})$$

$$(b) +AD \rightarrow (O^S >< \hat{O})$$

(311) [= (208)] TAM sistemako postulatu 51.

$$(+AD \wedge (O^{nS} - \hat{O}^{n+1})) \rightarrow (O^{nS} \langle \hat{O}^{n+1})$$

(312) [= (209)] TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 21.

$$(+AD \wedge (O^{nS} - \hat{O}^{n+1})) \rightarrow \text{GEROKOA}(\hat{O}^{n+1}, O^{nS})$$

Hau da, \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen gai hurbileko forma soilek ere, beste adizki trinko guztienek ez bezala, berez balio dukete ezartzeko geroko ikuspegi bat. Honek ahalbidetzen ditu aginte adizki bezala, zuzenkarizko hizketa egintzen eduki frastikoa kasuko hizketa egintzaren ondokoa (eta ondorioa) izan behar baita.<sup>240</sup> Aditzon forma soil eta hizkidunen zentzu desberdinen ondorioztapena hurrengo atalean gauzatuko dut.

---

<sup>240</sup> Honetan euskarak eta errusierak hartu duten bidea ez datoz bat. Errusieraz +AD eta  $O^S$  konbinatzen duten (iraganekoak ez diren) perfektiboek eskuratu duten funtzio nagusia etorkizuna adieraztea da, ez

4. Eta azkenik, +AD operatzailearen erabilerak azaltzen du zergatik XVII. mendiaz geroztik \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen iraganeko adizkiek galdu zuten indikatiboko zentzua; XVI. eta XVII. mendeen artean, aldaketa hau gertatuko zen:  $O^{(1)S}$  lehen orientazio puntuaren berezko +INTRA ikuspegia morfologikoki markaturiko  $O^M$  guztietara hedatu bide zen (nahiz, jokaera perifrastikoan, mugaren ondoko ikuspegia posible izan).

$$(313) \quad \text{TAM sistemako postulatu 56. (XVII. mendetik honako euskara.)}$$

$$+AD \rightarrow (O^M \cap G \neq \emptyset) \rightarrow ((\hat{O} \cap I \neq \emptyset) \vee (M \ll \hat{O}))$$

Ondorioz, +AD operatzailea tartean sartu bezain pronto, (310)-an ezarritako  $O^{(1)S}$  lehen orientazio puntuaren eta ikuspegiko  $\hat{O}$  kokagunearen bateraezintasuna  $O^P$  eta  $O^V$  orientazio puntuetara zabaldu bide zen:

$$(314) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 24. (XVII. mendetik honako euskara.)}$$

$$+AD \rightarrow (O^M \neq \hat{O})$$

$$(315) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 25. (XVII. mendetik honako euskara.)}$$

$$+AD \rightarrow (O^M \gg \hat{O})$$

Eta, horrekin batera, (311)-ko (=208) eta (312)-eko (=209) gerorako proiektzioa orokortu egin zen:

$$(316) \quad \text{TAM sistemako postulatu 57. (XVII. mendetik honako euskara.)}$$

$$+AD \rightarrow ((O^{Mn} \langle \hat{O}^{n+1} \rangle) \vee (O^M \langle -O^n \rangle \langle \hat{O}^{n+1} \rangle))$$

$$(317) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 26. (XVII. mendetik honako euskara.)}$$

$$+AD \rightarrow \text{GEROKOA}(\hat{O}^{n+m}, O^{Mn})$$

Ondorioz, XVII. mendiaz geroztik, areagotu zen paralelismoa gai hurbileko eta gai urruneko +AD adizkien artean. Iraganaldiari dagokionean hortatiboa alboratu beharra dago, baina gainontzean, klistiko osoko eta

---

derrigorrez berehalako etorkizuna (Jobanson 2000: 138). Euskaraz, aldiz, bestelako aldentzerik markatzen ez bada, aginte adizkiak ditugu.

indikatiaboko gerokoen lekua *-(tu)ko motako partizipioaren* bidezko perifrasiak hartuta zutenez, ondokoa gertatu zen:

- *-n* hutsez hornituriko formek galdu zuten aoristo zaharraren zentzua eta erabilera dependenteko subjuntiboko izaera hartu zuten;
- *-(te)ke* hizkidun adizkiek balio klistiko osoa mantendu ahal izan zuten bestelako kutsu modala agertuta, bereziki ahalerakoa (hasiera batean ideia hau lexikalki adierazirik, *ahal/ezin* partikulez esaterako). Aipatzekoak dira hemen, usuak ez badira ere, iraganaldiko \*IRON aditzaren *-(te)ke* hizkirik gabeko formak (*niron...*).

(318) *Etiketa eta definizioa 72. TAM sistemako postulatua 58.*

- (a)  $\langle \pm\text{ahal} \rangle$  : gertaerak errotiko ahalezkotzat (*as a root possibility*) aurkeztearen edo ez aurkeztearen adierazpen lexikala (*ahal, ezin*, baita garai batetik hona \*IRON eta EGIN aditzen formak ere)
- (b)  $\langle +\text{ahal} \rangle \rightarrow [+ \text{ahal}]$

(319) *Etiketa eta definizioa 73.*

- (a1) IRAGANALDIAN( $\acute{O}$ ) :  $\acute{O}$  orientazio puntua iraganaldian kokatuta dagoela adierazteko predikatua, hots (artezago edo zeharrago)  $O^{2P}$ -ri lotuta
- (a2) IRAGANALDIAN( $\acute{O}$ ) =<sub>def</sub> ( $\acute{O}$  -)  $O^{2P}$

Ondorioz:

(320) *TAM sistemako postulatua 59. (XVII. mendetik honako euskarara.)*

- $(+\text{AD} \wedge \text{IRAGANALDIAN}(\acute{O})) \rightarrow (+\kappa\text{DEP} \vee [+ \text{ahal}] \vee [-\text{deskr}])$ <sup>241</sup>

Orokorrago:

(321) *TAM sistemako postulatua 60. (XVII. mendetik honako euskarara.)*

- $+\text{AD} \rightarrow (+\kappa\text{DEP} \vee [+ \text{ahal}] \vee +\text{BARETUA} \vee [-\text{deskr}])$

Hortik honelako desplazamenduak:

---

<sup>241</sup> Iraganaldiko hortatiborik egongo ez denez, azken balio hori ezinduta dago, baina hor agertzen da argiago ikus dadin gai hurbileko aukerekiko paralelismoa.



Leizarraga (XVI. mendea)	Axular (XVII. mendea)
'Erran zezan' ( <i>(S)he said</i> ) INDIKATIBOKO AORISTOA	'Erran zezan' ( <i>(For) him/her to say</i> ) SUBJUNTIBOA
'Erran zezanzat' ( <i>For him/her to say</i> ) SUBJUNTIBOA (helburuzkoa)	*

45. taula ZEZAN adizkiaren zentzua Leizarragaren Testamentu berria eta Axularren Gero idazketan.

(321)-ko emaitza erraz nahas daiteke [+irrealis] balioarekin zeren eta +κDEP balioko erabilera gehienetan [+asmozkoa] balioa agertzen baita.<sup>242</sup> Baina ikusia dugu gero gertaera erreala adieraz daitezkeela +AD adizkien bidez. Hau are ageriagoa dateke iraganaldian:

(322) Ez zegoen eragozterik etor zitezten. (*There was no way to avoid them coming here.*)

Honenbestez uste dut argi nahikoa ezarri dudala XVI. mendeko euskaratik honako aldaketaz. Noan, beraz, mahairatzera nire aierua aspektuarreko garai batez. Arestiko Lafonen aipamen luzeak argi utzi du XVI. mendean, oraingoz, forma trinkoen +INTRA balioa ez zegoela guztiz finkaturik, gai urruneko formez ari garelarik, behintzat. Gai hurbilekoekin, aldiz, uste dut *aspektuaurreko eta berezko* +INTRA ikuspegi bat zegokeela. Honek azal dezake XVI. mendean orainguneko [+tf, -mom] EGIN aditzaren adizkiek erakusten duten geroaldi esanahia, baita [+tf, +mom] \*EDIN eta \*EZAN aditzen gai hurbileko (aginteraz kanpoko) forma soilen gabezia. Gai urruneko adizki trinkoek, O<sup>s</sup>-ri ez baizik eta bigarren O<sup>2</sup> bati ainguratuak, ez zuketan behartuko inolako +INTRA ikuspegirik. Horrela uler daiteke Lafonen aipameneko egoera, zeinetan [-t] (eta [+ti]) zentzuko ekintza esaerak erdaren imperfektuaren baliokideak ziren eta [+tf] zentzukoak iragan sinplearenak. XVI. mendeko euskaran, hala ere, jokaera perifrastikoa aspektualizatuago zegokeen eta ez, jadanik, ekintzazkotasun balioen menpe. Pentsa daiteke horren aurreko garai batean, latinetiko aspektu egituren

<sup>242</sup> Ni ere oker horretan egon naiz Kepa Kortagandik ideia hau jaso arte: susmagarria zela adizki horietan asmozkotasuna derrigorrezkotzat jotzea.

maileguak baino lehenago, jokaera perifrastikoan ere ekintzazkotasunaren arabera erabakitzen zatekeela laguntzailea IZAN/\*EDUN sailekoa edo \*EDIN/\*EZAN (EGIN) sailekoa izatea. Ekintzazkotasunak pisua galdu eta aspektua orokortu ahala, *aditz oina* + (*bigarren saileko*) *laguntzailea* egiturak +AD irakurketa jasoko zukeen lehenago (laguntzaileon ekintzazkotasun balioekin bateragarria baitzen), latinetiko (*-tu motako*) *partizipioa* + (*lehen saileko*) *laguntzailea* egituraren jatorrizko +POST zentzutik bereizita. Geroztik, epe ez oso luzean, ±INTRA oposaketa baino ez zen geldituko eta egungo euskararen egoerara helduko zen: latinetiko egiturak desplazatuko zuen *aditz oina* + \*EDIN/\*EZAN (EGIN) egitura aoristoaren adierazpenerako. Desplazaturiko egitura beste esparru batera mugatuko zen, gerokotasuna barruratuz: \*EDIN/\*EZAN (EGIN) laguntzaileek modu indikatiboa galdu eta subjuntiboa, agintera, ahalera eta optatiboa eratzeko balio izan dute geroztik.

*“Aujourd’hui, l’ancienne opposition d’aspect qui existait entre les auxiliaires, procès sans terme envisagé, procès à terme, a pris un sens nouveau. Les formes de type ethor zedin, ikus zezan, qui exprimaient non la position dans le temps mais l’aspect sous lequel l’esprit se représentait un procès passé, ont disparu. Les formes de type ethor dadin, ikus dezan, ne sont plus senties comme les symétriques de ethorten den, ikusten duen. Les premières ne s’emploient plus avec l’article et ont toujours une valeur modale différente des secondes. Les formes à auxiliaire di-ou za- « être fait » (bisc. gi-) constituent des modes différents de l’indicatif : subjonctif, conditionnel, potentiel, impératif.” (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980 II: 163)*

Ekintzazkotasun oposaketa izan zitekeenetik aspektu oposaketa batera igaro bide zen eta honetatik egungo modu oposaketara.<sup>243</sup> Hala ere, ikusiko dugunez, sarritan egiten diren ondokoa bezalako planteamendu dikotomikoak matizatu egin behar dira:

- (323) IZAN/\*EDUN: modu indikatiboa  
 \*EDIN/\*EZAN (EGIN): modu ez indikatiboa (subjuntiboa, agintera)<sup>244</sup>

Euskal gramatikagintzako “indikatibo” izendapen horrek kutsu morfologiko bat du, eta ez dator bat semantikoki zuzenagoa deritzodanarekin, modu errealari esatekoa:

- (324) *Etiketa eta definizioa 74. TAM sistemako postulatua 61.*  
 (a) [INDIKATIBOA] : gertaerak errealtzat aurkezteko aditz modua  
 (b) [-irrealis] ↔ [INDIKATIBOA]

Definizio honen arabera, nik “indikatibo” izendapena modu errealari egotziko diot. Aldiz, (323) epigrafeko beste “indikatibo” *sui generis* horretakoak ez diren forma guztiek (subjuntibokoek, hortatibokoek, ahalerakoek...) komun dutena hauxe da: +AD aspektu operatzaileari dagozkiola. Modu errealetik bereizteko “EG-INDIKATIBOA” izendapenez baliatuko naiz:<sup>245</sup>

- (325) *Etiketa eta definizioa 75. TAM sistemako postulatua 62.*  
 (a) [EG-INDIKATIBOA] : +AD aspektu operatzaileaz kanpoko adizkien ezaugarria  
 (b) [EG-INDIKATIBOA] ↗ +AD <sup>246</sup>

<sup>243</sup> Hala ere, aurreko urratsen aztarna ez da desagertutzat jo behar: IZAN eta \*EDUN laguntzaileekin erabiltzen diren partizipioen jokotik at geratu arren, *aditz oina* + \*EDIN/\*EZAN (EGIN) egiturak badu aspektu balio bat ahaztu behar ez litzatekeena, usuko gramatiketan egiten den legez. Aspektu balio hori, atal honetan aurkezturiko terminoetan, +AD da.

<sup>244</sup> Honelaxe esaten digu, adibidez, Jendraschekek (2007: 132), zeinak Allièresi (1979) jarraitzen dion.

<sup>245</sup> “EG” “Euskal gramatikagintza”-tik.

<sup>246</sup> “↗” zeinua lehen mailako logikako disjuntzio gogor edo eksklusiboari dagokio (XOR): adizki bat [EG-INDIKATIBOA] baliokoa bada, orduan ez da +AD, eta alderantziz, baldin +AD bada, orduan ez da [EG-INDIKATIBOA].

Hurrengo atalean ikusiko denez, [EG-INDIKATIBOA] kontzeptua ez dator bat [INDIKATIBOA] moduarenarekin.<sup>247</sup>

Gertaeren gaineko euskal ikuspegi sistemako moduzko izariaren gaiari ekiteko ordua heldu da.

---

<sup>247</sup> Inoiz, zentzu biotan batera, "(EG-)INDIKATIBOA" adierazpidea erabiliko dut.

5 EUSKAL ADITZ JOKATUKO MODU HIZKIEK BIDERATZEN  
DUTEN GERTAEREN GAINEKO IKUSPEGIA

1. atalean ikusia dugu zergatik geratu diren gramatika ofizialeko aurkezpenetik alboratuta modu kontuak, ezinbestekoak diren arren. Halaber, ikusiak ditugu proposatuak izan diren zenbait modu sailkapen, jokoan sartzen diren faktore anitzak erakutsiz. Atal honetan faktoreon sistematizazioari ekingo diot, jorraketa formalago bat erraztuko duten operatzaile eta tasun morfologiko eta semantiko bitarrak eta haien arteko harreman sistema aurkeztuz, arreta berezia eskainiz 1. atalean azaldutako R. M. Hareren tropiko, neustiko eta klistiko kontzeptuen atzemaketarakoei. Ilokuzio indarraren izari horien aldaerek oinarrituko dute eremu erreala eta eremu irrealaren arteko banaketa.

Atal honetan ikusiko denez, hala ere, euskal aditzaren morfologiak erakusten dituen ilokuzio indarraren markatzaileen garapen diakronikoa ezin bana daiteke zenbait aspektu kontutatik, aurreko atalaren bukaeran IZAN/\*EDUN eta \*EDIN/\*EZAN (EGIN) laguntzaile dikotomiaren inguruan esandakoa izotz-mendiaren gailurra baino ez izanik.

## 5.1 *Ba-, al- (> ai-), -(te)ke, -n, -la* edo *bait-* hizkietakoren bat

### nahitaez eskatzen duten adizki sailak

Orain arte ikusi ahal izan denez, hizkiok ager daitezke berez gramatikalak diren adizkietan zein haiek gabe agramatikalak lirakeenetan.<sup>248</sup>

Sintomatikoki, horrelakoren bat behar dute:

- edozein aditzetako gai urruneko (aginteraz besteko) formek (*\*nintz*, *banintz*, *nintzateke*, *nintzen*, *nintzela*...), eta
- \*EDIN/\*EZAN (EGIN) adizkietako gehienak —aginterakoak eta bizkaierazko *lei* (< *leike?*) nahiz zubererako *lir*o formako ahalerakoak salbu— (*\*dadi*, *badadi*, *daiteke*, *dadin*, *dadila*...).<sup>249</sup>

Zein gabezia konpartitzen dute gai urrunak eta laguntzaile sorta honek eta zergatik ez du eraginik aginterako (eta, bizkaieraz eta zubereraz, ahalerako) formatan? Zer ote dute komun gabezia hori asetzen duten hizkiek?

Argi dago ihardukari honetan aspektu-aldi kontuak nahastuta daudela moduarenekin. Fenomenoen konplexutasuna egokiro azaltzen duen proposamena luzatzen hasiko naiz segidan. Jorraketa formal bati begira orain arte mahairatu ditudan operatzaile eta tasun semantiko eta morfologikoei gehitu beharko zaie beste zenbait tasun morfologiko.

## 5.2 Zenbait tasun morfologiko<sup>250</sup>

Hizki bakoitzaren agerpena edo agerpen eza formalki adierazteko, tasun bitar bana eskainiko diet:

---

<sup>248</sup> Baina hauen eratorritzat (*-lako*, *-nean*...) zein paronimotzat (*-la* = *-larik*) jo daitezkeen hizkiek edo ez dute balio adizkiak gramatikal bihurtzeko (*\*dadilarik*) edo aztertuko ditugunek egiten duten neurrian egiten dute (*dadinean*).

<sup>249</sup> Aurreko atalaren bukaera aldera mintzo da EGIN aditzak eta gainontzekook diakronikoki erakutsi duten aldeaz.

<sup>250</sup> Hauei gehitu behar zaizkie lehenago proposaturiko <±urruna> tasuna eta beranduago mahairatuko diren gutxi batzuk.

- (326) *Etiketak (morfologikoak)*<sup>251</sup> eta *definizioak* 76.-81.  
 <±(te)ke> : -(te)ke hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena  
 <±n> : -n hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena  
 <±la> : -la hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena  
 <±ba> : ba- hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena  
 <±al> : al- (>ai-) hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena  
 <±bait> : bait- hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena

Berezko balioa negatiboa da, eta hizki soilei dagokie:

- (327) *Etiketa (morfologikoa) eta definizioa* 82.  
 (a) <±hizkiduna> : hizkiren bat edo besteren agerpena edo agerpen ezaren adierazpena  
 (b) <-hizkiduna> =<sub>def</sub> (<-(te)ke> ∧ <-n> ∧ <-la> ∧ <-ba> ∧ <-al> ∧ <-bait>)  
 (c) <+hizkiduna> =<sub>def</sub> (<+(te)ke> ∨ <+n> ∨ <+la> ∨ <+ba> ∨ <+al> ∨ <+bait>)

Azken lerroko balio positiboa, hizkiren bat edo beste agertzeari dagokiona, markatutzat joko dut. Izan ere, balio ez markatuak —adizki soilenak— baztertzen du +κDEP balio klistikoa.

- (328) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema* 27.<sup>252</sup>  
 <-hizkiduna> → -κDEP

Bestalde, gai urrunean, +AD ez diren adizkiek behar dute hizkiren bat edo beste:

- (329) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema* 28.<sup>[252]</sup>  
 (+FAR ∧ [EG-INDIKATIBOA]) → <+hizkiduna>

Erabilgarriak suerta daitezke, halaber, beste tasun morfologikook, partizipio mota bakoitzaren markei dagozkionak:

- (330) *Etiketak eta definizioak* 83.-86.  
 <±t(z)en> : adizki jokatuan -t(z)en motako partizipio bat barruraturik egotearen/ez egotearen adierazpena  
 <±tu> : adizki jokatuan -tu motako partizipio bat barruraturik egotearen/ez

<sup>251</sup> Bereizteko, parentesi angeludunen artean sartuko ditut.

<sup>252</sup> Ondorioztapenerako oinarriak aurrerago agertzen joango dira, baina erraz identifikatzen dirateke.

- egotearen adierazpena <sup>253</sup>
- $\langle \pm(tu)ko \rangle$  : adizki jokatuan *-(tu)ko motako partizipio* bat barruraturik egotearen/ez egotearen adierazpena
- $\langle \pm tua(k) \rangle$  : adizki jokatuan *-tua(k), -turik edo -tuta motako partizipio* bat barruraturik egotearen/ez egotearen adierazpena

Dagoeneko ezarrita dugunez:

- (331) TAM sistemako postulatua 63.  
 $\langle +tu \rangle \rightarrow (+POST^{NF}) -INTRA$
- (332) TAM sistemako postulatua 64.  
 $\langle +tua(k) \rangle \rightarrow +POST^{HF}$
- (333) TAM sistemako ondorioztatutako teorema 29. <sup>254</sup>  
 $\langle +(tu)ko \rangle \rightarrow +PRO$
- (334) TAM sistemako postulatua 65.  
 $\langle +t(z)en \rangle \rightarrow +INTRA$

Eta azken honen osagarri:

- (335) Etiketa eta definizioa 87. TAM sistemako postulatua 66.  
 (a)  $\langle \pm ari \rangle$ : adizki jokatuia *-t(z)en motako partizipioa + ari + <+IZAN>* perifrasiaren barruraturik egotearen/ez egotearen indikazioa  
 (b)  $\langle +ari \rangle \rightarrow +INTRA^{HF}$

Edonola ere, jokaera perifrastikoan sartzen diren adizki laguntzaileak aldeztu aurretik gramatikalak izan behar dira. Honela adieraz daiteke puntu hau jokaera perifrastikoko zatien lotura “o” zeinuaz markatuz:

- (336) Etiketa eta definizioa 88. TAM sistemako postulatua 67.  
 (a) **ADIZKIA**: edozein adizkiri erreferitzeko metaetiketa.  
 (b) **\*ADIZKIA**  $\rightarrow$   
 $*((\langle \pm t(z)en \rangle \vee \langle \pm tu \rangle \vee \langle \pm (tu)ko \rangle \vee \langle \pm tua(k) \rangle) \circ *ADIZKIA)$

<sup>253</sup> Mendebaldeko euskararen *-tu* atzizkiaren agerpena bateragarria da  $\langle -tu \rangle$  balioarekin.

<sup>254</sup> Beranduagoko postulatua orokorrago batetik ondorioztatu ahalko da hau.



Honenbestez, euskal aditz jokatuaren gertaeren gaineko ikuspegi sistema osatzen has gaitezke.

### 5.3 [-deskr] balio tropikoaren gaineko baldintzak

31. taulatik ondorioztatzen denez (balio horri dagozkion errenkak errepikatuko ditut hemen), hizketa egintzen teoriak zenbait baldintza inposatzen ditu zuzenkarizko eta hitzemankarizko hizketa egintzen gainean, eta ondorioz berauek adierazteko balio duten lehen indikatzaileen [-deskr] balioaren gainean:

ILOKUZIO EGINTZAREN EZAUGARRIAK →	ILOKUZIO XEDEA	ILOKUZIO XEDEAK ERDIRATURIKO TROPIKOA (FRASTIKOA-MUNDUA EGOKITZAPENA)	ILOKUZIO EGINTZAREN ASETZEA DAKARKEENA
(LINGUISTIKOKI ETA HITZEZ HITZ ADIERAZITAKO...) ↓			
Zuzenkariak	Jasolea frastikoaren arabera <i>jokatze</i> ko <i>konpromisoan jarri</i>	Mundua frastikoarekin [-deskr]	Mundua hitzekin batera dezan (jasolearen) ondoko ekintza bat
Hitzemankariak	Esalea frastikoaren arabera <i>jokatze</i> ko <i>konpromisoa hartu</i>	Mundua frastikoarekin [-deskr]	Mundua hitzekin batera dezan (esalearen) ondoko ekintza bat

46. taula Tropiko eta egokitze norabide konbinaketak ilokuzio egintza mota desberdinetan: zuzenkariak eta hitzemankariak.

Hona hemen ondorioztatzen diren betebeharreko zenbait baldintza (beranduago jorratuko dut ekintza jasolearena zein esalearena izan beharraren ihardukaria):

1. Alde batetik ilokuzio xedeak erdira ekarri behar du frastikoaren asetzearen kontua, hara non aditza klistiko osoko klausula batean agertu behar den.

(337) TAM sistemako postulatua 68.

[-deskr] → -κDEP<sup>255</sup>

<sup>255</sup> Honen arabera, operatzaile haretar batek +κDEP balio klistikoa inposatzen dionean alde aurretiko balio multzo bati, zeinetan [-deskr] balio tropikoa ager daitekeen, berau desaktibatu egiten da.

2. Bestalde, frastikoaren asetzea zor izango zaio ilokuzio egintzaren asetzeari,<sup>256</sup> zeina ilokuzio egintzaren beraren ondorioa izan behar den. Beraz, aditzaren bidez adierazitako ekintza aurkeztu behar da hizketa egintzaren ondorioz jazotzeko zerbait gisa.

(338) *TAM sistemako postulatua 69.*  
 [-deskr] → GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ , O<sup>1S</sup>)

Areago:

(339) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 30.*  
 [-deskr] → GEROKO\_ABSOLUTUA( $\hat{O}^{n+m}$ )

O<sup>1S</sup>-rekiko ondokotasun hori [+asmozkoa] zein [+irrealis] balioei gehituz —gogoratu (73) eta (74)— zera ondorioztatzen da:

(340) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 31.*  
 [-deskr] → GERTAGARRIA( $\hat{O}^{n+m}$ , O<sup>1S</sup>)

(341) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 32.*  
 [-deskr] → (O<sup>1S</sup> ✗  $\hat{O}^{n+m}$ )

Halako gertagarritasuna eskura dago [+tf, +mom] aditzen kasuan: ikusia dugu, aurreko atalaren bukaera aldean, \*EDIN eta \*EZAN aditzen formetan gertaerak ez duela inolako ibilbiderik (*cursus*) zeinetan kokatu aspektu ikuspegia, eta adizkioi +AD aspektu operatzailea dagozkiela, zeinen funtzioetako bat hortatiboarena den.

Aurreko atalaren bukaeran ikusia dugu, halaber, +AD operatzailearen esku-hartzeak fenomeno berezi asko azal ditzakeela. Atal horretan proposatuaz baliaturik, zehaz daiteke zergatik aditzon adizki soilak aginterakoak izan behar diren.<sup>257</sup> Azalpen oso xaloa du horrek (321)

<sup>256</sup> Ez haren gauzatze hutsari, jakina.

<sup>257</sup> Salbuespena dira, ez ahaztu, ahalerako EGIN eta \*IRON aditzen formak.

epigrafeko emaitzaren argipean: balio klistiko osoarekin eta ahalezkotasunaren edo hitzmate neustiko baretuaren markarik ez izanik, [-deskr] balio tropikoa derrigorrezkoa da.

Alderantziz ere, euskarazko agintera guztiak +AD eskemari dagozkie:

(342) *TAM sistemako postulatua 70.*  
[-deskr] → +AD

Aldaera neustikoen eta gerokotasunaren markez arduratuko naiz ondoko txataletan.

#### 5.4 Hitzemate neustikoaren balioen gaineko baldintzak

+*SUB IUDICE* operatzailearen eta +*BARETUA* tasunaren artean badago orain arte mahairatu gabeko harreman bat: sarri, bigarrena agertzen da lehenengoaren agerpen esplizitu baten ondorio gisa (ikus § 1.6.1 txatala). Hala ere, diskurtso harreman horretan modu/modalitate bat baino gehiago sar daitekeenez (ondorea aieruzkoa dateke edo ahalezkoa), ez dut izendapen berezirik proposatuko.

Hori esanda, ikus daitezke beste tasunekin dituzten harremanak. Hasteko, lotura bat dago +*SUB IUDICE* balioa eta balio tropikoaren artean:

(343) *TAM sistemako postulatua 71.*  
+*SUB IUDICE* → [+deskr]

Bestela esanik:

(344) *TAM sistemako postulatua 72.*  
¬(+*SUB IUDICE*([-deskr]))

Bestalde, tasun eta operatzaile neustikootako balio positiboek behartzen dute  $\hat{O}$  ikuspegiaren kokagunea alden dadin beste orientazio puntu

jatorrizkoago batetik, era batean non  $\hat{O}$  hori ezin izan daitekeen morfologikoki markaturiko  $O^M$  orientazio puntu nagusi bat:

$$(345) \quad \text{TAM sistemako postulatua 73.} \\ (+\text{BARETUA} \vee +\text{SUB IUDICE}) \rightarrow ((\hat{O}^{n+1} \not\prec O^n) \wedge (\hat{O}^{n+1} \neq O^M))$$

Formula horretan jasotakoak zehazten du zein zentzutan garamatzaten irrealtasunera aldeera neustikoen balio positiboek:


$$(346) \quad \text{TAM sistemako ondoriozaturiko teorema 33.} \\ (+\text{BARETUA} \vee +\text{SUB IUDICE}) \rightarrow [+irrealis]$$

Eskematikoki, eta birtualtasuneranzko desplazamendua adierazteko lehenagoko konbentzioari jarraituz:

$$(347) \quad \begin{array}{l} O^{n+1} \quad (\neq O^M) \\ \not\prec \\ O^n \end{array}$$

Balio neustikoon interpretazio honek, hots morfologikoki markaturiko jatorrizko orientazio puntuetatik aldentze bat gisa, ahalbidetuko gaitu azaltzeko zergatik —euskarazko testu zaharrenetan ere— \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen gai hurbileko forma gramatikalen artean aurkitzen diren ez bakarrik agente adizkiak, baizik eta *badadi* bezalakoak ere bai. Areago, erakus daiteke zergatik *badadi*, *daiteke* (*daike*) eta antzekoen esanahia ez zen aldatu [+irrealis] eta GERTAGARRIA etiketapeko balioak aditzon forma guztiei atxiki zitzaizkienean. Hizkion esanahia §§ 5.7.9-5.7.10 txatalak arte justifikatuko ez bada ere, onar dakidan oraingoan, argudio hau garatzearen, *ba-* aurrizkiak aldentze modala dakarrela ( $\hat{O}^{n+1} \not\prec O^n$ ) eta *-(te)ke* atzizkiak, jatorrian, denborazko/moduzko aldentze konplexua ( $O^n \prec \hat{O}^{n+1}$ ). Orduan, egoera bera gence XVI. mendeko euskaran eta geroztikoan:

(348)



Nahiz eta arrazoi desberdinengatik; lehen hauengatik euskara zaharrean:

(349) [= (208)] TAM sistemako postulatu 51.

$$(+AD \wedge (O^{nS} - \hat{O}^{n+1})) \rightarrow (O^{nS} \langle \hat{O}^{n+1} \rangle)$$

(350) [= (209)] TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 21.

$$(+AD \wedge (O^{nS} - \hat{O}^{n+1})) \rightarrow \text{GEROKOA}(\hat{O}^{n+1}, O^{nS})$$

Eta beste honengatik ondoren:

(351) [= (317)] TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 26. (XVII. mendetik bonako euskara.)

$$+AD \rightarrow \text{GEROKOA}(\hat{O}^{n+m}, O^{Mn})$$

Eskema horiek indikatibokoaz bestelako irakurketa desberdinak jaso ditzake. Edonola ere, oro har, ikusten joango gara +BARETUA eta +SUB IUDICE balioetako bata edo bestea eskatzen duten zenbait aditz modu edo, nahiago bada, modalitate.<sup>258</sup>

## 5.5 Ilokuzio indarraren izarion arteko harremanen araberako tasunak

Aurreko txataleko balio neustikoen, aspektuaren bidez markaturiko gerokotasunaren eta balio tropikoen artean badaude lotura argiak, zeintzuek eragina izango duten [ $\pm$ irrealis] balioetan. Horren analisi osoa atal honetan zehar lortzekoa dugu. Mementoz, agerietatik has daiteke: gertaera ikuspegia

<sup>258</sup> Nire ikerketa honetatik kanpo utziko dut galdekarizko perpaus modalitateari dagokiona. Intereseko ohar bat baino ez dut mahairatuko: +SUB IUDICE balioari lotuz gero, azal daiteke zergatik haren balio tropikoa izan behar den [+deskr].

lehen orientazio puntuan bertan jasotzen duten gertaerak errealtzat jotzen dira.

- (352) TAM sistemako postulatua 74.  
 $\hat{O}^{1S} \rightarrow [-irrealis]$

Bestela esanik:

- (353) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 34.  
 $(-FAR \wedge [-ahal] \wedge [-asmozkoa] \wedge -BARETUA \wedge -SUB IUDICE \wedge$   
 $\neg GEROKOA(\hat{O}, O^{1S}) \wedge [+deskr]^{259}) \rightarrow [-irrealis]$

Lehenago esanda dago [+ahal], [+asmozkoa], [-deskr], +BARETUA eta +SUB IUDICE balioek [+irrealis] balioa dakartela beraiekin. Ez da berdin gertatzen +FAR balioaren eta GEROKOA predikatuaren agerpen guztiekin. Lehena beranduago aztertu beharko dugu, baina aurrera daiteke orainetik begiratuta errealtzat joko dela iraganean kokatua. Bigarrenaren kasuko salbuespenari oraintxe helduko diot: gerokoa gehienetan guztiz ziurra ez bada ere (baizik eta gertagarria), batzuetan halakoa (segurua, bermatua) balitz bezala adierazten da geroko gertaera hori (patuaren, Jainkoaren, zein natur legeen poderioz, adibidez). Logikoa dirudi halako auresateetarako [-irrealis] balioa gordetzea, baina ondo aztertu behar dira horrelako erabaki baten ondorioak. Ondoko adibideotan irakurketa biek, [ $\pm irrealis$ ], zilegi dirudite:

- (354) (a) -PAST (+PRO ( $^?$ +POST<sup>NF</sup>/-INTRA)): Bihar inauguratuko dute. (*They will inaugurate it tomorrow.*)  
 (b) -PAST (+PRO (+POST<sup>HF</sup>)): Biharko inauguratua/inauguraturik dukete. (*They will have it inaugurated by tomorrow.*)

Baita Lafittek (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 757) dakartzan besteotan ere:

- (355) (a) -PAST (+PRO (+INTRA<sup>LF</sup>)): Bihar goizean Baionan dateke. (*(S)he will be in Bayonne tomorrow morning.*)  
 (b) -PAST (+PRO (+INTRA<sup>LF</sup>)): Egun gutirik barne ogi bat ere ez dukegu. (*In few days we will have no bread.*)

<sup>259</sup> Hertsiro hartuta [+deskr] balio hau soberakoa da, [-asmozkoa] baliotik ondorioztatzen baita.

Baina orduan, berdina esan beharko genuke adibideon gainean eraikitako denborazko klausula menderatuez:

(356)

(a) –PAST (+PRO (+INTRA<sup>LF</sup>)): Bihar goizean, Baionan datekeenean... (*Tomorrow morning, when (s)he is in Bayonne...*)

(b) –PAST (+PRO (+INTRA<sup>LF</sup>)): Egun gutirik barne, ogi bat ere ez dukegunean... (*In few days, when we have no bread...*)

Ondorioz, [ $\pm$ irrealis] balio biak konbinatu ahalko dira GEROKOA predikatuarekin, eta horri begira definitu ditut tasun semantikoak.

Atal honetako tasun eta operatzaile “haretarrek” lagunduko digute euskal aditz moduaren eta hizki modalen azalpen egokiak ematen. Horretarako marka morfologiko eta balio semantikoen arteko loturak ezarri beharrean gaude. Hastapen orokorra hau da:

(357) *Berezko balioen ondorioztapenerako hastapena:*

Kontrako adierazpenik izan ezean, balio ez markatuak (eskuarki negatiboak) daudeke indarrean.

Berehala ikusiko dugunez, euskal aditz jokatueta batek ere ez du hastapena bere horretan betetzen: morfologikoki sinpleenak, +AD izango dira [–deskr] diren heinean. Pentsa liteke okerki izendatu dugula balio tropikoari dagokion tasuna eta benetan balio ez-markatua alderantzizkoa dela, deskribakarizkoa. Baina tasuna [ $\pm$ preskr(ibakaria)] balitz ere, [–preskr] balioko adizkien aspektu operatzailea +INTRA izango litzateke. Nola edo hala, balioren bat markatua izango da.

## 5.6 Tasunon balioen egozpena adizki soilen kasuan

### 5.6.1 Zeintzuk diren adizki morfologikoki sinpleenak

Argi dago gai urruneko adizkiak ez direla morfologikoki sinpleenak: iraganaldikoek *-n* atzizkia behar dute, alegunekoek besteren bat edo *b-* nahiz *l-* modu markak diren aurrizkiak. Adizki morfologikoki sinpleenak gai hurbileko soilak izan behar dira, beraz. Horien artean baditugu bigarren

pertsonari zuzendutako aginte adizkiak, [-deskr] balio tropikokoak, eta [+deskr] balio tropikoko indikatiboko adizkiak. Aditz iragangaitzen bigarren pertsonak ez dira bereizten forma aldetik:

(358) Hago, zaude, zaudete: [ $\pm$ deskr]

Bai, ordea, inguruan behar dutenari so eginez: bakarrik aginte adizkiak erabil daitezke soilik, besteek, deskribakariak, osagaiaren bat behar dute:

(359) [-deskr]: Hago! (*Wait!/ Stop!*)

(360) [+deskr]:  
(a) \*Hago. (*You are staying.*)  
(b) Hor hago. (*You are there.*)  
(c) Bahago. (*(Yes,) you are staying.*)

Behar bera erakusten dute beste pertsonetako deskribakariak:

(361) [+deskr]:  
(a) \*Nago. (*I am staying.*)  
(b) Hemen nago. (*I am here.*)  
(c) Banago. (*(Yes,) I am staying.*)

(362) [+deskr]:  
(a) \*Dago. (*(S)he is staying.*)  
(b) Hor dago. (*(S)he is there.*)  
(c) Badago. (*(Yes,) (s)he is staying.*)

Askotan pentsatu da azken adibideotako *d-* marka hirugarren pertsonakoa dela, berau aditz iragangaitzen subjektua dela, aditz iragankorren objektua dela:

(363) [+deskr]: Badakizu. (*You know.*)

Baina bai (mendebaldeko euskararen) iraganaldiko formekin bai aditz iragankorrekin gertatzen denari erreparatuz gero, *d-* marka hori ez litzateke izango hirugarren pertsonaren ezaugarria, baizik eta beste zerbait (aktualtasun marka bat edo), aipaturiko beste formetan desagertua baita:



(364) [+deskr]: Han egoan. (*(S)he was there.*)

(365) [-deskr]:  
 (a) Egik!/Egin!/Egizu!/Egizue! (*Do it!*)  
 (b) Jakik!/Jakin!/Jakizu!/Jakizue! (*Know it!*)

Honen arabera, adizki sinpleenak bigarren pertsonari zuzendutako aginte adizkiak badira, aditzaren lehen funtzioa bigarren pertsonari zuzenkari bat bideratzearena zatekeen (gertaerak sortarazteko). Funtzio deskribakaria (gertaerak baiestea) beranduago zetorkeen. Hala ere, [+deskr] balioko adizki soilak pertsona gramatikal guztiei aplikatu daitezkeenez, ez dut proposatuko <sup>+</sup>AD notazio bat eta <sup>+</sup>INTRA jo ditugunetatik hasiko naiz. Aurretik, hala ere, 44. taulako emaitza honela laburbilduko dut:

(366) TAM sistemako postulatua 75.  
 $(\langle -t(\bar{z})en \rangle \wedge \langle -tu \rangle \wedge \langle -(tu)ko \rangle \wedge \langle -tua(k) \rangle) \rightarrow (+AD \vee +INTRA)$

Halaber:

(367) TAM sistemako postulatua 76.  
 $+AD \rightarrow (\langle -t(\bar{z})en \rangle \wedge \langle -(tu)ko \rangle \wedge \langle -tua(k) \rangle)$

## 5.6.2 [+deskr] balioko adizki soilen beste balioak

[+deskr] balio tropiko markatuaz kanpo, gai hurbileko adizki soilen balio gehienak berezkoak eta negatiboak dira:

(368) Gai hurbileko eta [+deskr] balioko adizki soilen berezko balio negatiboak:  
 $\langle -hizkiduna \rangle$ ,  $\langle -urruna \rangle$ , -FAR, [-ahal], [-asmozkoa],  $\neg$ GEROKOA( $\hat{O}$ ,  $O^{1S}$ ),  
 $\neg$ GERTAGARRIA( $\hat{O}$ ,  $O^{1S}$ ),  $\neg$ κDEP, [+deskr], -BARETUA, -SUB IUDICE,  
 [-irrealis]

-FAR izanik, gertaera  $O^{1S}$ -ren eremuan kokatu behar da, oraingunean:

(369) Etiketa eta definizioa 89.  
 (a1) ORAINGUNEAN( $\hat{O}$ ) :  $\hat{O}$  orientazio puntua hizketaguneari lotuta dagoela adierazteko predikatua  
 (a2) ORAINGUNEAN( $\hat{O}$ ) =<sub>def</sub>  $\hat{O}^{1S} \vee ((\hat{O} -) O^M \rightarrow (\hat{O} -) O^{1S})$   
 (a3) ORAINGUNEAN( $\hat{O}$ ) =<sub>def</sub> -FAR

Areago, horretatik inolako aldentzerik markatzen ez denez, ikuspegia bertan kokatuta dago.

(370) *Gai burbileko eta [+deskr] balioko adizki soilen ikuspegiaren kokagunea:  $\hat{O}^{1S}$*

Jokaera perifrastikoko markak jokoan sartu ezean, kokagune horri dagokion berezko ikuspegia  $^{+INTRA}$  da:

(371) *Gai burbileko eta [+deskr] balioko adizki soilen berezko aspektu operatzailea:  $^{+INTRA}$*

Jatorrizko orientazio puntu horretatik horrela ikusitako gertaerak “orainekoak” dira, ezinduta baitaude aurreko eta geroko ikuspegiak:


(372) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 35.*  
 $\neg$ AURREKOA( $\hat{O}^{1S}$ ,  $O^{1S}$ )

(373) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 36.*  
 $\neg$ GEROKOA( $\hat{O}^{1S}$ ,  $O^{1S}$ )

(374) *Etiketa eta definizioa 90.*  
 ORAINEKOA(G) : oraineko gertaera kokaguneei esateko etiketa  
 ORAINEKOA(G) =<sub>def</sub> G:  $\hat{O}^{1S} \wedge ^{+INTRA}$

Ikusiak ditugu honelako errepresentazio eskematikoak:

(375) [= (254)] Orainguneko jokaera trinko: orainekoa  
 $\neg$ FAR ( $^{+INTRA^{LF}}$ )  $\times$  [-t]: Etxean nago. (*I am at home.*)  
 $\neg$ FAR ( $^{+INTRA^{LF}}$ )  $\times$  [+ti]: Aurrera noa. (*I'm going forward.*)  
 $\neg$ FAR ( $^{+INTRA^{LF}}$ )  $\times$  [+tf]: Etxera dator. (*(S)he/it is coming home.*)



Oraineko gertaerak orainguneko errealen azpimultzo bat dira, hots, ondokoena:

$$(376) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 37.} \\ (-\text{FAR} \wedge [-\text{irrealis}]) \leftrightarrow (\text{ORAINGUNEAN}(\hat{O}) \wedge [\text{INDIKATIBOA}])$$

Hau da:

$$(377) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 38.} \\ (-\text{FAR} \wedge -\text{BARETUA} \wedge -\text{SUB IUDICE} \wedge [+ \text{deskr}] \wedge [-\text{ahal}] \wedge [-\text{asmozkoa}]) \leftrightarrow \\ (\text{ORAINGUNEAN}(\hat{O}) \wedge [\text{INDIKATIBOA}])^{260}$$

Hauetako errepresentazio eskematikoak ikusiak ditugu lehen —(254)-(262) eta (265)-(266)—: jokaera trinkokoak eta IZAN eta \*EDUN laguntzaileen bidezko jokaera perifrastikokoak.

Igaro gaitezen, bada, [-deskr] balioko adizki soilen analisira: \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen adizkiez baliaturiko jokaera perifrastikoaz esango denak balioko du aginte adizki trinkoetarako ere.

### 5.6.3 [-deskr] balioko adizki soilen beste balioak

Bizkaierazko ahalerako *lei* moduko formak albo batera lagaturik mementoz, kontsidera dezakegu \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen forma soil gramatikal bakarrak aginterakoak direla. Emaitza hori honela ondoriozta daiteke: (i) (307)-gatik badakigu +AD baliokoak direla; (ii) (207)b, (208) eta (209)-gatik GEROKOA( $\hat{O}^{n+1}$ ,  $O^{ns}$ ) balioko ( $O^{1s} \langle \hat{O}^2 \rangle$ ) eskemakoak izan behar dira; eta (iii) (321)-gatik [-deskr] edo [+ahal] balioa dagokie, adizki soil gisa ezin izan baitezakete +BARETUA balioa.<sup>261</sup>

---

<sup>260</sup> Balio atxikipen hauen arabera ez dago alde zehazturik geroaldi arkaikoa zein perifrastiko arruntaren interpretazioa: moduzkoa izan daiteke edo bakarrik denborazkoa.

<sup>261</sup> Eranskin batean garatuko ditut sistematikoki honelako ondorioztapenak.

Ondorioz, (31) eta (74)-gatik, adizki guztiok [+irrealis] balioak izan behar dira. [-deskr] balioak ezaugarritzen du agintera, edo bigarren pertsonari mugatzen ez datekeen *hortatiboa*:

- (378) *Etiketa eta definizioa 91. TAM sistemako postulatua 77.*  
 (a) [HORTATIBOA] : zuzenkarizko hizketa egintzak linguistikoki kodetzen dituen aditz modua  
 (b) [-deskr] ↔ [HORTATIBOA]

Balio hori ondorioztatu ahal izateko, bateraezintzat jo behar dugu adizkiok izan dezaketen [+ahal] beste balioarekin (ahaleginak egiteko agin daiteke, ahal izana bera ez):

- (379) *TAM sistemako postulatua 78. TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 39.*  
 (a) [+ahal] | [-deskr]  
 (b) [+ahal] | [HORTATIBOA]

Dagoeneko identifikatuak ditugu hortatiboaren ezaugarriak:

- (380) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 40.*  
 ([-deskr] ∧ [-ahal] ∧ ¬κDEP ∧ +AD ∧ GEROKOA( $\hat{O}^{n+1}$ ,  $O^{nS}$ ) ∧ [+asmozkoa] ∧ [+irrealis] ∧ GERTAGARRIA( $\hat{O}^{n+1}$ ,  $O^{nS}$ )) ↔ [HORTATIBOA]


Azaldu beharrean nago, halaber, zergatik diren gramatikalak gai hurbileko bigarren pertsonari zuzendutako aginte adizkiak (*badi*, *zaitex*, *zaitexzte*, *ezaazu...*) eta gai urruneko hirugarren pertsonari zuzendutakoak (*bedi*, *bitez*, *beza*). Argi dago: zuzenkarizko ilokuzio egintzen xedea norberak esandakoa betearaztea izanik, biderik artezena dugu entzuleari bideratzea.<sup>262</sup>  $O^{1S}$  lehen orientazio puntua erabiltzen duten —hots, hizketa egintzaren gunean zentratzen diren— gai hurbileko aginterako adizkiak (adizki soilak), logikoki, bigarren pertsonari zuzendutakoak izango dira (horixe adieraziko dut, edozein adizkiren beste aukera posibleak zerrendatu bezain laster):

<sup>262</sup> Hizketa egintzen teoriaren topiko bat da zuzenkarizko ilokuzio egintzak bigarren pertsonari bideratzen zaizkiola. Hirugarren pertsonari bideratuko bazaizkie, bide arteza erabili beharko da. Berehala ekingo diot horri.

(381) TAM sistemako postulatua 79.  
 $(1.S \vee 1.A) \vee (2.S \vee 2.A) \vee (3.S \vee 3.A) \vee (3.P \wedge \text{IMPR.A})$ <sup>263</sup>

(382) TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 41.<sup>264</sup>  
 $([\text{HORTATIBOA}] \wedge \neg\text{FAR} \wedge \langle \neg\text{hizkiduna} \rangle) \rightarrow (2.S \vee 2.A)$

Eskematikoki:



\**Dadi*, \**nadi*, \**gaitzez*, \**daitzez* eta antzeko adizkien agramatikaltasunak azalpen erraza du: [+*irrealis*] balioa izan behar dute, eta horretarako [–*deskr*] balio tropikoa, zeina —bigarren pertsonakoak ez izanik— ezin jaso dezaketen gai hurbileko *forma soilean*. Baina bai beste bide batzuetatik. Txatal honetan eta hurrengoan aztertuko dut hirugarren pertsonako aginte adizkien kasua, (lehenengo pertsonakoak itxaron beharko du apur batean), gai urrunekoetatik hasita, zeinen marka morfologikoa hasierako *b*- bat den:

(384) Etiketeta eta definizioa 92. TAM sistemako postulatua 80.  
 (a)  $\langle \pm b \rangle$  : gai urruneko hirugarren pertsonako aginte adizkien marka morfologikoa agertzen den/ez den adierazpena  
 (b)  $\langle +b \rangle \leftrightarrow ([\text{HORTATIBOA}] \wedge +\text{FAR})$

(385) TAM sistemako postulatua 81.  
 $\langle +b \rangle \rightarrow ((3.S \vee 3.A) \wedge +\text{AD} \wedge (\text{O}^{\text{VSn}} \not\prec \hat{\text{O}}^{n+1}))$

Gai urruneko adizkiei dagozkien gertaerak eta lokalizazio puntuak  $\text{O}^2$  bigarren orientazio puntu bati ainguratuta daude. Sintomatikoki, gai urruneko


<sup>263</sup> Azken parentesikoa erabilera inpersonalekoei dagokie (esaterako *bultzga dadin*, 'let it be pulled').

<sup>264</sup> Teorema hau ondorioztatzeko kontuan hartu beharko dira, besteak beste, (381) eta aurrerago agertuko diren beste bi ((400) eta (425)).

aginte adizkiok ez daramate iraganeko marka den *-n* hizkia. O<sup>2</sup> hori, beraz, ez da iraganeko egoera erreal bat (O<sup>(2)P</sup>), baizik eta alegiazko egoera bat (O<sup>(2)V</sup>). Adizkiok duten berezitasuna da:

1. O<sup>(2)V</sup> hori alegiazko komunikazio egoera bat gisa kontzebitzen dela (O<sup>(2)VS</sup>), benetakoaren ordezkoa edo. (383)-ko adibidea erabiliz azaltzearen: balizko hizketagune horretan “sar hadi/zaitetz” esango balitz, jasolea<sup>265</sup> esaerako bigarren pertsonari legokioke; hala ere, benetako hizketagunea den O<sup>1S</sup> puntuan erabilitako adierazpide batean jasole horri ez dagokio bigarren pertsona, baizik eta hirugarren pertsona bat.<sup>266</sup>
2. Eta O<sup>1S</sup>-tik O<sup>(2)VS</sup>-rako desplazamendua adizkiak berak behartzen duela, ez gobernari baten esanahi lexikoak.

Komeni da hau guztia eskematikoki adieraztea.



(321)-gatik, honelako adizkiak, +AD baliokoak eta geroko gertaeren adierazpide izanik, behartuta daude +κDEP, [+ahal] edo [–deskr] baliokoak izatera (soilak diren neurrian +BARETUA balioa ezin izan baitezakete). Lehenengoa eragotzita dute adizki soilak direlako.<sup>267</sup> Geratzen diren aukera

<sup>265</sup> Esapidearen hitzez hitzeko erabilera baten gauzaturiko zuzenkarizko hizketa egintzaren jasolea.

<sup>266</sup> Azkueren aburu (1924: § 910) horrelako adizkiek “ardura emaleak” dira (*de encargo*). Horrek eskatuko luke O<sup>1S</sup>-ko 2. pertsonak 1.-aren papera hartzea irudikaturiko O<sup>(2)VS</sup>-an. Uste dut analisi hori gehiago komeni zaiela *dadila* moduko formei. Edonola ere, *bedi* bezalako adizkiek egungo euskaran duten erabilera, kortesiazkoa, bestelako urruntze bati zor zaio: bigarren pertsonari hirugarren pertsonaren trataera ematearena. Hala ere, jatorrizko zentzua testu nagusian ikusitakoa da eta, hori azaldu gabe, kortesiazkoa ulertezina litzateke.

<sup>267</sup> \**Bedila* eta antzekoak agramatikalak lirateke zentzurik eskura ezin dezaketelako. Izatekotan, aurreko kortesiazko *bedi* baten erreportatiboa izan liteke.

biak bateraezinak dira, (379)-gatik dakigunez, baina auzia morfologikoki erabakita dago: hirugarren pertsonako [-deskr] balioaren berariazko marka morfologikoa da adizkion hasierako <+b> hau:

(387) TAM sistemako ondorioztatutako teorema 42.  
<+b> → [-deskr]

(384)-gatik [HORTATIBOA] etiketa baitagokie.

## 5.7 Proposaturiko tasunen balioen egozpena adizki hizkidunen

kasuan: *-la, -n, ba-, al- (> ai-), -(te)ke*, eta *bait-* hizkien esanahia

### 5.7.1 *-la* atzizkidun aginterakoak

Antzeko eskema batek azal dezake zergatik diren gramatikalak, eta hirugarren pertsonari zuzenduak, osagarrizko *-la* hizkidun gai hurbileko laguntzaileon adizkiak: *dadila, ditzatela...* Hizkiak esplizitatzen du O<sup>S</sup> puntuaren nolabaiteko bikoizketa bat (zeina O<sup>2S</sup> notazioaz adieraziko dudana), zehar estiloaren marka baita:

*“Le complétif est le mode du discours indirect lié”. (Lafitte 1944,  
2008: § 757)*

Baina ez da nahastu behar zeharkakotasun hau menderakuntza sintaktikoarekin, gramatikari askok egiten duten bezala:

*“Avec ellipse du verb principal, le subjonctif en -la sert à marquer:*

*“— un souhait.*

*“Ex. : Jainkoak begira gaitzala, que Dieu nous garde! (s. e. :  
je voudrais).*

*“— une défense.*

*“Ex. : ez dezazula bertzerenik fundi, n’abimez pas le bien  
d’autrui. “*

— *une supposition.*<sup>[268]</sup>

“*Ex. : Zezar-en adichkide izan dadila ala etsai, ez diote*

*barkatuko*, qu’il soit l’ami ou l’ennemi de César, il ne lui pardonneront pas.” (*Lafitte*<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 760)

Aipaturiko autorea bakarrik ausartu bide da lehen adibide azpian legokeen perpaus nagusia adierazten (*nabi nuke*). Ez dago argi zer burura lekiokkeen beste bietarako. Hirugarrena dugu interes bereziko: zerbait implizitu balego, hautagairik onena *demagun*, *suposa dezagun* edo antzeko zerbait izango litzateke, baina berau ere beste perpaus implizitu bat eskatzen *omen* duenetakoa da! Zuhurragoa da pentsatzea *-la* hizkiaren bidezko aginterakoek ere (geroago ikusiko dugu puntu hau lehen pertsonako *-n* atzizkiaren bidezkoak direla eta) ez dutela ezkututzen inongo perpaus nagusi impliziturik. Lafittek berak onartzen du hori beranduago (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: §§ 863-865), dioskunean debekua adierazten dela ezetza eta osagarritzkoa konbinatzen duten *perpaus independenteen bidez*:

Uste dut *-la* atzizki honen<sup>269</sup> osagarritzko zentzua funtsean zehar estiloko *aipamenarena* dela:<sup>270</sup> <+la> balioko adizki bat edonolako gobernatzailearen mendean erabiltzen denean, gobernatzailearen esanahiak hizketa egintza bati so egiten ez badio ere (*uste*, *pentsatu*, *sinetsi...*), osagarriaren bidez adierazitako gertaera txertatu egiten da *aipatu*<sub>z</sub> lokuzio independente baten bitartez adieraz litekeena. Funtzio metafrastikoa hau dela eta, komeni da horrelako aipatzea operatzaile baten bidez atzematea.

---

<sup>268</sup> Kontzesioa dirudi gehiago.

<sup>269</sup> Ez homofonia den moduzko *-la(rik)* hizkiarena.

<sup>270</sup> Estilo artezean egindako aipamenetarako aipaturiko lokuzio bera erabiltzen da (kakotxen artean jarriz hizkera idatzian).




Baina aipamen kontzeptua zentzu zabalean<sup>271</sup> ulertu behar da orain azaldu nahi ditudan kasuei aplikatu ahal izateko. Bereiztu behar ditugu “aipamen” mota bi:

- (388) a) Balizko lokuzio bat txertatu zein aldez aurretiko esaera bat errepikatu edo haren berri ematea, indikatiboan (*uste dut etorri dela*) zein subjuntiboan (*sar dadila esan du*).
- b) Esaera hori sortzeko jarraibideak ematea: *sar dadila!*
- (389) *Etiketa eta definizioa 93. TAM sistemako postulatua 82.*
- (a)  $\pm$ AIPAMENA : adizkiaren bidez beste<sup>272</sup> esaera bat errepikatu edo hori sortzeko jarraibideak eman edo ez ematearen adierazpena
- (b)  $\langle +la \rangle \leftrightarrow +AIPAMENA$  <sup>273</sup>

Errepresentazio eskematikorako, estilo zuzenean jarriko dut esapidea eta komatxo bikoitzen artean (“”) txertatuko ditut +AIPAMENA balioko ekintza esaera eta berari dagokion gertaeraren errepresentazioa, adibidez: *uste dut etorri dela* > *uste dut “etorri da”* edo *“etorri da” uste dut*. Horrez gain, lehen bezala, klistiko ez osoko esaerak eta horien bidez adierazitako gertaerak giltzen artean agertuko dira, honela:

(390) Uste dut etorri dela.




Bigarren aipamen motan bigarren hizketagune bat (O<sup>2S</sup>) barneratzen da. Bigarren hizketagune horretan, jasolea ez da jatorrizko hizketagunekoa:

<sup>271</sup> Esaera zaharreko “aipatu” berbaren zentzua besarkatuz: *otsoa, non aipa ban gerta*.

<sup>272</sup> Hortik zehar estiloa.

<sup>273</sup> Estilo zuzeneko aipamenak kanpoak lagaz. Hauen artean kokatzen ditut *omen/ei* partikularen bidez eginikoak. Zubeldiaren (2010) ondorioak gertaeren gaineko ikuspegi sistemaren nire terminoetara ekarri, honelako eskema bat genuke: Ô<sup>2S</sup> < O<sup>1S</sup>.




Bigarren hizketagune hori eremu errealean kokatzen da, baina hartatik agindutako *sartẓea* eremu irrealean dago. Errepresentazioan hori agerian jartzen da aginte adizkia zehar estilotik estilo zuzenera igarota. Zehar estiloko esapideaz esan beharko genuke [-deskr] balioa galtzen duela, baina mantentzen duela [+asmozkoa] balioa:

(392) TAM sistemako postulatu 83.  
 $+κDEP([-deskr]) \rightarrow [+asmozkoa]$

Baita zentzu irreal ere, ondorioz:

(393) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 43.  
 $+κDEP([-deskr]) \rightarrow [+irrealis]$

Gobernatzaile espliziturik ez dagoenean, bestalde, esatera era independentean erabil daiteke, balio klistiko osoaz, eta zentzu hortatiboaz:



Ondorioz, bereiztu behar dira alde batetik zehar estiloko esatera izatearen ezaugarria, +AIPAMENA balioa, eta bestetik “osagarrizkoa” izatearena. Honek erabilera dependentea eskatzen du eta +κDEP balio klistikoa, hots, ondoko teoremako disjuntzioan agertzen den bigarren aukera:

(395) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 44.  
 $+AIPAMENA \leftrightarrow (^{\kappa}DEP +AIPAMENA \vee +^{\kappa}DEP +AIPAMENA)$

Alderantzizko balioa zentzu hortatiboarekin batera ematen da:

(396) TAM sistemako postulatua 84.  
 $^{-\kappa}DEP +AIPAMENA \leftrightarrow [HORTATIBOA]$

Hau da, [-deskr] balio tropikoarekin batera:

(397) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 45.  
 $^{-\kappa}DEP +AIPAMENA \leftrightarrow [-deskr]$

Ondorioz, (344)-gatik, zentzu hortatiboko adizkiak eratzen dituen *-la* honi ezin aplikatu dakioke *+SUB IUDICE* operatzailea. Horrez gain, (69)-gatik,  $+\kappa$ DEP balioko “osagarritzko” *-la* batez eraturiko adizkietan ere ezin aplikatu edo gainera daiteke beste operatzaile neustikorik. Fenomenoa zabalagoa dirudi, *+AIPAMENA* operatzaileon tontorrean egotera behartuta balego bezala, hau da:

(398) TAM sistemako postulatua 85.  
 $\neg(+N-OPERATZAILLEA(+AIPAMENA(...)))$

Aldiz, orain arte proposaturiko postulatu eta teoremek ez dute ukatzen <sup>2</sup>*ailitzala* moduko adizkien posibilitatea, edo horren zentzu bereko *esan du udan jin* <sup>2</sup>*baledila*. Horrelakorik balego, edonola ere, derrigorrez metafrastikoa den *+AIPAMENA* operatzailea gainezarriko litzaioke *+SUB IUDICE* denari. Hala ere, kontuan harturik bestelako operatzaile neustiko bat ere ez zaiola *+SUB IUDICE* operatzaileari gaineratzen, sinpletasunari begira, aurreko postulatuaren parekoa onartuko dut honentzat ere:


(399) TAM sistemako postulatua 86.  
 $\neg(+N-OPERATZAILLEA(+SUB IUDICE(...)))$

Zentzu hortatiboko aipamenezkoetan balizko hizketagunea oraingoaren oihartzun gisako zerbait da: aginterako adizki gisa *sar dadila* esapideak adierazten du artezago erabilita *sar hadi/zaitzez* esan beharko zela.

<+la> balioko adizkien erabilera hau bide arrunta dugu hirugarren pertsonari zuzendutako aginterakoetarako (inpertsonalak hauetatik kanpo lagaz). Aurreko txataleko gai urruneko <+b> balioko formei gehitu egin behar zaie:

(400) TAM sistemako postulatua 87.  
 ([HORTATIBOA] ∧ (3.S ∨ 3.A)) → (( $\hat{O}$   $\not\neq$ ) O<sup>2S</sup>  $\not\neq$  O<sup>1S</sup>)<sup>274</sup>

Ezezko aginteretan -la atzizkia erabiltzeko joera handia dago baita bigarren pertsonan ere (*ez hadila sar!...*) Uste dut honelakoetan balizko *ez hadi* agintera aipatu (“errepikatu”) egiten dela berari ezetza egoztean:



Areago, erabilera hau derrigorrezkoa da jokaera trinkoko aginte adizkiekin (King 1993: 232-233), zeintzuk bestela indikatibokotzat joko liratekeen. Gai urruneko hirugarren pertsonako aginte adizkiez kanpo, joera bera atzematen da jokaera perifrastikoan, autoreren batek errespetatzen ez badu ere.<sup>275</sup> Salbuespena zor dakioke adizki soilok bestelako interpretaziorik eskuratu ezinari. Salbuespena salbuespentzat joaz, uste dut ondokoa ezar daitekeela:

(402) Etiketa eta definizioa 94. TAM sistemako postulatua 88.  
 (a) <±ez> : adizkia ezezkoa (“ez” partikulari lotutakoa) izan edo ez izatearen

<sup>274</sup> O<sup>2S</sup> hori O<sup>2VS</sup> izan daiteke.

<sup>275</sup> Adibidez, Natxo de Felipen ‘*ez zaitzez, ez zaitzez, ez zaitzez joan oraindik?*’ kantu ederrean.

$$\text{adierazpena }^{276} \\ \text{(b) } (<+e\zeta> \wedge [\text{HORTATIBOA}]) \rightarrow ((\acute{O} \not\prec) O^{2S} \not\prec O^{1S})$$

Komeni da konturatzea aginterako *-la* formotan ebatzi gabe uzten dela nor datekeen aipaturiko  $O^{2S}$ -ko esalea:  $O^{1S}$ -tik  $O^{2S}$ -ra pertsona aldaketa dagoenean (394) badirudi bakoitzeko esalea desberdina izan behar dela, pertsona aldaketarik ez dagoenean (401), esale bera dela dirudi.<sup>277</sup> Berdin gertatzen da indikatiboko *-la* hizkidun adizkiekin zein honen eratorriekin: *-la* hizkidun adizkiak adierazitako gertaeraren baiespena aditz gobernatzailearen aktanteren bati atxiki dakioke, zeina esalea izan daiteke (*uste dut borrela dela*) edo ez (*borrela dela esan du*). Halaber, *-lako* hizkidunetan ulertzen da esaleak berak eusten diola esandakoari (*borrela delako egin zuen*), baina hori ez da derrigorrezkoa (ezta ezinezkoa ere) *-lakoan* hizkia erabiltzen denean (*borrela delakoan egin zuen/nuen*). Izan ere, aipatuaren hitzmate neustikoa komunikatzaileari egotzi behar zaio, hau hiztuna dela edo ez dela. Puntu honetan, hala ere, funtsezko alde bat dago aipamen erreportatiboaren eta klistiko osoko jarraibide emalearen artean: azken honetan, hiztunak beti eusten dio hitzmate neustikoari, balizko bigarren hizketaguneko komunikatzailea beste bat izan arren.

Kasukoaz besteko hizketa egintza baten kokaguneari so egite honek azaltzen ditu txatal honen hasierako Lafitteren aipamenean \*EDIN eta \*EZAN aditzen gai hurbileko *-la* hizkiaz hornituriko formei onaturiko hiru zentzuak baita baiezko aginte batena ere, lehen pertsonari zuzendutakoa ez den bitartean, horrelakoek *-n* atzizkia behar baitute (eta ez *-la*) —segidan azalduko dudan fenomeno—. Horretarako, komeni da erkatzea atzizki bion erabilera testuinguru berezi batean: agintera bat gauzatzeko aginterakoetan.

<sup>276</sup> Kontuan hartu partikula hau eta adizkiaren gainontzekoak batasun prosodiko intonatibo bat osatzen dutela, ortografiak gertaera hori desitxuratzen badu ere.

<sup>277</sup> Horregatik azken eskeman guztiz lerrokaturik agertu dira lehenengo orientazio puntu biak.

### 5.7.2 *-la* eta *-n* atzizkien erabilera agintera bat gauzatzeko aginterakoetan

Erka ditzagun adibide bi hauek:

- (403) atostean dagon kantoreari/ *datorkidala esaiozu* (J. A. Lakarra et alii, *Euskal Baladak*, 135). [(Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1999: (386)]

*(‘the singer that is behind the door/tell him to come to me’)*

- (404) [Baldin Iainkoaren Semea bahaiz,] *errak harri bank ogi egin ditezten*. (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Mat. 4: 3)


*(‘[If thou be the Son of God,] command that these stones be made bread’)*

Bietan komunikatzaileak agindu dio entzuleari beste aginte egintza bat gauzatzeko. Kasu bakoitzean honelako zerbait esanez buru liteke hori:

- (405) Hatorkio/hoakio!

- (406) Egin zaitezte ogi!

Hala ere, jatorrizko adibide batean *-la* atzizkia agertu da, bestean *-n*. Zein alde ote dute? Aurreko txatalean azaldu denez, uste dut lehenengoan aldez aurretik eta zehar estiloan *aipatu* egiten dela eskaturiko aginte egintzarako esan beharreko *esapidea*:



Bigarrean, aldiz, zerbait desberdin egiten da<sup>278</sup> eta zerbait horrek zerikusia izan behar du, ene ustez, *-n* hizkiaren bestelako erabilerekin (menderagailua eta iraganaren marka). Aldeak alde, uste dut erabilera guztiek komun dutena hauxe dela: hiruetan ematen dela esalearen hitzmate neustikoaren marka esplizitu bat, orain arte ikusitakoez (+BARETUA, +*SUB IUDICE*, +AIPAMENA) desberdina. Horrelakoekin konbinatu ezean, marka horren bidez berezko hitzmate neustiko neutroa adierazten da, berau periferian kokatuz (menderagailua denean) edo erdigunean. Marka esplizituren bat ez da kasu guztietan beharrezkoa, baina bai ondokoetan:

- balio klistiko ez-osoarekin;
- oraingunetik kanpo +AD ez diren adizkiekin;
- +AD direnekin ere, ez badira hortatibo soilak edo lexikoki ahalera adierazteko balio duten formak.

Marka esplizitu berezi horren bidez kasuko hizketagunera lotzen da aditz esapideak adierazitako gertaera —honen asetzearikiko konpromisoa hartzen da— berari so eraginez edo seinalatuz. Ideia hau atzematen dukeen beste operatzaile bitar baten bidez markatuko dut hori

(408) *Etiketa eta definizioa 95. TAM sistemako postulatua 89.*

(a)  $\pm$ SO ERAGILEA : aditz esapideak adierazitako gertaera, hitzmate neustikoaren marka esplizitu baten bidez, seinalatua izan edo ez izatearen adierazpena

(b)  $\langle +n \rangle \rightarrow +$ SO ERAGILEA

Hau definituta, osaturik dugu operatzaile neustikoen zerrenda:

(409) *TAM sistemako postulatua 90.*

$\pm$ N-OPERATZAILEA  $\leftrightarrow$

( $\pm$ BARETUA  $\vee$   $\pm$ *SUB IUDICE*  $\vee$   $\pm$ AIPAMENA  $\vee$   $\pm$ SO ERAGILEA)

---

<sup>278</sup> Kepa Kortak iradoki didanez, aipamenezko *-la* ez erabiltzeko zioetan eragina izan dezake balizko jasolea asmoduntzat ez jotzeak.

Bestalde, erraz adieraz daiteke formalki noiz datekeen beharrezkoa +SO ERAGILEA balioa. Hasteko, hau da +κDEP balio klistikoa dakarkeen operatzaile neustikoetako bat:

$$(410) \quad [\approx(65)] \text{ TAM sistemako postulaturia 7. (Behin betikoa.)} \\ +\kappa\text{DEP} \leftrightarrow \\ (+\kappa\text{DEP} + \text{SUB IUDICE} \vee +\kappa\text{DEP} + \text{AIPAMENA} \vee +\kappa\text{DEP} + \text{SO ERAGILEA})$$

Areago:

$$(411) \quad [\approx(68)] \text{ TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 1. (Behin betikoa.)} \\ +\kappa\text{DEP} \leftrightarrow \\ \text{XOR}(+\kappa\text{DEP} + \text{SUB IUDICE}, +\kappa\text{DEP} + \text{AIPAMENA}, +\kappa\text{DEP} + \text{SO ERAGILEA})^{279}$$

Nahiz balio klistiko ez osoarekin ere ager daitekeen, baina balio klistiko zehatz batekin, nolana ere:

$$(412) \quad \text{TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 46.} \\ +\text{SO ERAGILEA} \leftrightarrow (\neg \kappa\text{DEP} + \text{SO ERAGILEA} \vee +\kappa\text{DEP} + \text{SO ERAGILEA})$$

Horrez gain:

$$(413) \quad \text{TAM sistemako postulaturia 91.} \\ (+\text{FAR} \wedge [\text{EG-INDIKATIBOA}]) \rightarrow \\ (+\text{SUB IUDICE} \vee +\text{BARETUA} \vee +\text{SO ERAGILEA})$$

$$(414) \quad \text{TAM sistemako postulaturia 92.} \\ (+\text{AD} \wedge -\text{SUB IUDICE} \wedge -\text{AIPAMENA} \wedge -\text{SO ERAGILEA}) \rightarrow \\ (([\text{HORTATIBOA}] \wedge ((2.S \vee 2.A) \wedge -\text{FAR}) \vee ((3.S \vee 3.A) \wedge +\text{FAR}))) \vee \\ [+ahal]^{280}$$

---

<sup>279</sup> Gogoratu XOR lokailuaren bertsio poliadiko honen zentzua: ondoko zerrendako (hiru) osagaietako bat eta bakarrik bat ematen dela adieraztekoa.


<sup>280</sup> Hau da, +AD aspektu balioko adizki soil bat izan daiteke: edo bigarren pertsonari zuzendutako gai hurbileko hortatiboa, edo hirugarren pertsonakoari zuzendutako gai urruneko hortatiboa, edo ahalerakoa.




Eta hortik azal daiteke *nei, liru...* eta antzekoen ahalerako zentzua, geroago arrazoi independenteengatik egingo den postulatu batez baliaturik ondoko emaitza lortzen baita:

(415) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 47.  
 $(+AD \wedge -SUB IUDICE \wedge -AIPAMENA \wedge -SO ERAGILEA \wedge \neg[HORTATIBOA]) \rightarrow ((+AD \wedge <+(te)ke>) \vee <+ahal>)$

+SO ERAGILEA balioaz azaltzen denez, *-n* adizkiez esaleak artez (balizko bigarren hizketagunean esan beharreko esaera aipatu gabe) *seinalatzen dio* entzuleak agindu beharreko *gertaerari*. Hori adierazteko, gertaerari sinalatzeko aditz esaera eta gertaeraren errepresentazio eskematikoa bera, kaxotx artean idatzi beharrean, euretara begira dauden gezi artean jarriko dut, honela:



Honelako kasu batean, aipamenezko egitura ere erabil zitekeen:



Baina aukera hori ez dago beti eskuragarri, ondoko txatalean ikusiko denez. Oraingoan esandakoak azal dezake atzizkiok erakusten duten jokabidea

\*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzetako formei eranstean zaizkien bestelakoetan.

### 5.7.3 *-la* eta *-n* atzizkien bestelako eransketak \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzetako formei

Atzizki bion jokabidea ez bide da guztiz berdina:

*“Hau esan daiteke laburpen gisa:*

- *-eN da subjuntiboko menderagailu nagusia eta orokorki erabiltzen dena.*
- *-eLA, berriaz, predikatu batzuekin baizik ez da erabiltzen. Horrela, Hegoaldean eskaera edo agindua adierazten duten predikatuekin ageri da batez ere eta baita inoiz, ez beti, nahia adierazten duten predikatu batzuekin ere. Iparraldean, berriaz, predikatu gutxierekin erabiltzen da menderagailu hau: agindua adierazten duten batzuekin zenbaitetan, ez beti.*
- *Egitura jakin batzuetan, hala ere, -eLA erabili ohi da euskalki guztietan, zehinahi ere den predikatua. Mendeko perpausa modu batera edo bestera aditz nagusitik “berreiz” duten egituretan gertatzen da hori”.*<sup>281</sup> (*Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1999: § 1.5.4*)

Ageri da gobernatzailearen esanahiari begira ez dagoela irizpide orokor bat aurkitzerik. Benetako arrazoitik hurbilago dago azken ideia zehazten duen beste puntu hau:

*““Bereiz” izate hori modu askotara gerta daiteke: a) aditz nagusia*



---

<sup>281</sup> «Aditz nagusitik “berreiz» agertzearen adibideen artean aurreko txataleko aginte adizkiak sartzen dituzte.

*isilpean izanik, osagarriak lokabe itxura duelako; b) mendeko perpausa aipamen zuzen gisa hartuta-edo ematen delako; c) mendeko perpausa egitura etenean txertatua delako.” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1999: § 1.5.4.5)*

Azken aipamen honetan inplizitu dago nire ustez azalpenaren gakoia dena: *-la* atzizkiaren zentzua aipamenezkoa da, *-n* hizkiarena so eragilea (hortik erlatibozko menderagailu gisako erabilera), hots honen bitartez esaleak gertaera bat (erreal zein fiktizioa) identifikatzen du, esandako zerbait aipatu beharrean.

Aipamenak zentzurik ez duenean,  $\langle +la \rangle$  balioko forma ez da zilegi (*espero dut sar zaitezen/ \*<sup>??</sup>zaitzela*).<sup>282</sup>



Alderantziz, gehienetan aipamen baten bidez adieraz daitekeena artez seinalatua ere izan daiteke (*agindu du sar zaitzela/zaitezen*), agian zentzu handiagoaz (*eskatu zuen burbil zintzela/zintezen*).  $\langle +n \rangle$  balioko adizkiak

<sup>282</sup> Kasuotan espero den gertaera eremu irrealan kokatu beharra dago gobernatzaileak [+asmozkoa] balioa inposatzen duelako.

eragotzita izango ditugu aipamenezko zentzua funtsezkoa denean, *sar dadila* eta antzeko aginterakoetan legez.

#### 5.7.4 -n atzizkidun aginterakoak

-N atzizkidun aginterakoetan, zentzu handiagoa bide du proposaturiko gertaera seinalatzeak hori agintzeko beste esapide bat aipatzeak baino: baten bat aipatzerik balego zergatik ez erabili hori artez?

(420) Isil gaitezen!

(421)

→ ⊗ ← → Gu isiltzea ←  
Ô²

✱

O¹S

Hala ere, <+la> balioko adizkien erabilera eskura dugu, lehenagoko beste agintera baten errepikatze gisa (422) zein ezezko aginterakoetan (423):

(422) –Isil gaitezen!  
–Nola?  
–Isil gaitezela! [... esan berri dut]<sup>283</sup>

(423) Ez gaitezela engaina!<sup>284</sup>

Baina ez dirudi onargarria lehendabiziko erabilera batean:<sup>285</sup>

(424) –<sup>?</sup>Isil nadila!

Hau ezin interpreta daiteke erabilera artezago batean *ixil hadi!* esateko jarraibide gisa: horrelako aginterak zentzurik balu nahikoa izango litzateke

<sup>283</sup> Honi dagokion eskema (391)-koaren antzeko dateke, baina zehar estiloan kodeturikoa hauxe dateke: “*isil gaitezzen*”.

<sup>284</sup> Eta honi dagokiona (401)-koaren antzekoa, leku egokian hau txertatuz: EZ: “*engaina gaitezzen*”.

<sup>285</sup> Lehenengo pertsonari zuzendutako agintera gisa, baina onargarria izatera igarotzen da beste agindu baten aurrean egindako kexu gisa.

oraingoan esatea. Aukerak argi daude beraz, geure buruari era sasi-  
eskizofrenikoan hitz egiten hasia edo adierazi nahi den gertaerari seinatzea  
-n hizkiaren bidez.<sup>286</sup>

- (425) TAM sistemako postulatu 93.  
 ([HORTATIBOA]  $\wedge$  (1.S  $\vee$  1.A  $\vee$  (3.P  $\wedge$  IMPR.A))  $\rightarrow$   
 (+SO ERAGILEA  $\vee$  (+AIPAMENA  $\wedge$  <+e $\bar{z}$ >))

Lehen pertsonaren kasuan, bereziki singularrekoan, so eragilea eta gertaera burutu dezakeen aktantea bat datozenez, zentzua hitzemankaria da (*commisive*) eta erabaki baten adierazpenaren antza du. Lehen pertsonari zuzendutako hortatiboen azalpen hau zuzena bada euskararen baliabide honek kutsu oso arkaiko bat duke: gertaeraren *inbokatzi*o baten bidez adieraziko litzateke hortatiboa.

Bestalde, honek esan nahi duke [+tf, +mom] balioko adizkien formek adierazitako gertaerak, gauzatzen ari diren zerbait gisa aurkeztu ezin badira ere, seinatatuak izan daitezkeela, aditz sintagma batetik esapide erreferentzial bat lortzeko erabiltzen diren ohiko baliabideez (-n atzizkia eta *bait*- aurrizkia).

Horrez gain, azaldu egin behar da nola iraultzen duen -n hizkiak balio tropikoa: ikusia dugu [+mom], eta beraz +AD aspektukoak ez diren bitartean, gai hurbileko indikatiboko forma soilek gertaera errealtzat aurkezteko balio dutela, erabateko hitzemate neustikoa adieraziz mezu osoko klausula batean. Sistemaren erredundantzia edo anbiguotasun ulergaitz bat izango litzateke -n hizkidun atzizkiek balio berbera izango balute. Hori ez da gertatzen, baina: edo perpaus menderatuak egiteko balio dute, +κDEP balio klistikodunak, edo beste balioren baten trukaketa inposatu behar da. Hau ezin izan daiteke gai hurbilaren ezaugarri morfologikoa, ezta erabateko hitzemate neustikoarena: aukera bakarra da balio tropikoaren iraulketa, [+deskr]-(e)tik [-deskr]-(e)ra:

---

<sup>286</sup> Bide honek agintera inpertsonaletarako (3.P  $\wedge$  IMPR.A) ere balio du.

- (426) TAM sistemako postulatua 94.  
 (+SO ERAGILEA  $\wedge$  -FAR)  $\rightarrow$   
 (+<sup>KDEP</sup> +SO ERAGILEA  $\vee$  (<sup>-KDEP</sup> +SO ERAGILEA  $\wedge$  [-deskr]))

Eranskin baterako lagako dut honelako ondorioztapenen sistematizazioa, onarturiko postulatu eta teoremetan oinarriturik. Memento, azpimarra dezadan anbiguotasuna eragozteko *-n* atzikia bigarren pertsonako formei ere itsasten zaiela aginterakoak izatera igaro daitezten:

- (427) Desertiala jua nahi bazira, arren zuaza [ $<$  zuazan = zoazen] oi bena berala  
 (*Prima ejerra*, Zuberoako kantua)

Azkenik, behar beste ikertu gabe onartu den puntu bat eztabaidatuko dut: ohiko gramatikek diotenaren aurka, *-n* hizkiaren agerpenak ez du derrigorrez esan nahi lehen pertsonari zuzendutako aginterako formak perpaus menderatu bati dagozkionik. Izan ere, tesi hori onartuz gero ezinduta geundeke ikusteko zer duten komun iraganeko marka den *-n* hizkiak eta agintera hauetan agertzen denak.

Euskaltzaindiako Gramatika Batzordeak uste du horrelako adizkiak subjuntibokoak direla eta, beraz, perpaus menderatu batean txertatuak, perpaus nagusi inplizituren bat suposatu behar delarik:

*“Lehen pertsonako formak dira salbuespen horretan, -eN menderagailua [nire azpimarraketa] hartzen baitute maiz, nabiz eta -eLA-rekin ere eman daitezkeen, batez ere ezekka daudenean:*

*([...]) a. Nagoen isilik!*

*b. Has gaitzen lanean.*

*c. Ez nadin gehiegi luza!*

*d. Ez gaitzen engaina” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1999: 143).*

Erakunde horren sortzailea izan zen R. M. Azkuek argi zuen ezetz:

*“Esas flexiones nadin y gaizan no siempre son de subjuntivo, lo cual salta a la vista en frases negativas. Cuando esa n es elemento conjuntivo «para que» tiene más fuerza que la negación para la movilidad de la frase y decimos auferatu enadin (pocos pueblos dice ez nadin) para que yo no me adelante; pero cuando ese sufijo es característico de imperativo de primera persona, la negación tiene más fuerza, y da al auxiliar la primacía en el orden de colocación; y decimos enadin auferatu no me adelante yo.” (Azkue 1924: § 909, 6. oharra)*

Halaber, osagarritzko *-la* hizkidun adizkien inguruko Lafitteren ezbaiak errepikatu egiten dira *-n* dela eta: alde batetik Euskaltzaindiaren jarrerarekin bat dator, § 1.6.2 txatalean aipatu dudan testu batean subjuntiboa konjuntiboaren azpimultzo bat gisa definitu ondoren, esaten baitu modu honen bidez adierazten direla (pluraleko) lehenengo pertsonako exhortazioak, hala nola *atzar gaiten, adora dezagun...* (Lafitte <sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 748); baina geroago (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: §§ 863-865) Azkueren alde agertzen da, horrelako adizkien bidezko debekuak perpaus *independenteen* bidez adierazten direla esatean.

Zenbait arrazoiz balia gaitzke Azkueren alde jotzeko:

- *Goazen!* bezalako adizki batek baditu forma alokutiboak (*goazeman!*, *goazemak!*), baina jakina da perpaus menderaturiko adizkiek (baldinerako forma batzuk izan ezik) ez dutela forma alokutiborik.<sup>287</sup>
- Ez da erraza aurkitzea zein izan litekeen *goazen!* adibide beraren azpiko perpaus nagusia akatsotako bat edo bestean jausi gabe: (i) lehen

---

<sup>287</sup> Ikusi Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea (1987: § 13.3).

pertsonako beste *-n* hizkidun adizkia erabili eta, beraz, biribilean aritu (*#goazzen esan dezagun*);<sup>288</sup> (ii) ilokuzio indarra aldatu (*#/\*goazzen erabaki dut*). Ene susmoa da ezen bestelako saiakerek era sinesgaitzean konplikatu behar duketela ustezko perpaus nagusi horren egitura.

- Batez ere, hizketa egintzen teoriaren irakaspenetatik ondorioztatzen delako: horrelako adizkien hitzez hitzeko erabileren bidez gauzaturiko ilokuzio egintzak hitzemankariak lirateke (*commisives*), hots, haiek zeinetan esaleak bere gain hartzen duen frastikoaren asetzearen erantzunkizuna. Ilokuzioaren egokitze norabidea “mundua hitzekikoa” izanik, adizkion balio tropikoa [*-deskr*] izan behar da. Baina honek *-κDEP* balio klistikoa eskatzen du, perpaus menderatuei debeku zaiena. Ondorioz, ez dago zalantzarik adizkiok ez direla subjuntibokoak, baizik eta aginterakoak. Morfologiak desbideratu bide ditu puntu honetan gramatikariak.

### 5.7.5 Subjuntiboko *-n* hizkia

Aginterako forma horiei atxiki ohi izan zaien “subjuntiboko” izendapena ondoko adizkietarako gorde liteke, besteak beste: *+AD* operatzaileari eta beraz GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ ,  $O^{Mn}$ ) etiketapeko ( $O^{Mn} \langle \hat{O}^{n+m} \rangle \wedge (\hat{O}^{n+m} \cap M \neq \emptyset)$ ) aspektu eskemari balio klistiko *+κDEP* gehitzen dietenentarako. Ondorioz, modu honen balio tropikoa ez da hortatiboari dagokion [*-deskr*], baizik eta indikatiboko [*+deskr*] balioa.

Subjuntiboak hortatiboarekin komun duena berariazko aspektu eskema da eta horri dagokion gerokotasun zentzua, zeinak modu subjuntiboa erabilera dependenteko bestelako egituren azpimultzotzat bereizten duen. Baina alboratu beharra dago hortatiboaren eta subjuntiboaren arteko antza urrunago eramatearen tentaldia: hark ez bezala, honek gertaerak erreal gisa aurkezteko balio dezake (ohikoena ez izan arren); esaterako:

<sup>288</sup> “#” zeinuaz adierazi nahi da esapidea semantikoki akastuna dela.



(428) Halabeharrezkoa da hil gaitezen. (*It's necessary for us to die/that we die.*)

Ez bide duke zentzu handirik subjuntibo izendapena ukatzeak horrelako adibideko egiturari eta hura mantentzeak beste honen modukoei:

(429) Onartezina da hil gaitezen. (*It's unacceptable for us to die/that we die.*)

Areago, gertaeren aurkezpen erreal a edo irreal a alboratuz gero, ulertzen da zergatik subjuntiboaren izaera ez den eskuratzen soilik \*EDIN/\*EZAN (EGIN) edo +AD balioko aditzen formen bidez (jokaera trinkokoak barne), Azkuek uste zuen bezala:

*“[...] el pueblo apela con demasiada frecuencia al presente habitual de indicativo, cuando se trata de los conjuntivos temporales nean, neko, netik, narte y nartean; diciendo, en vez de il nadinean o naitenean, ilten nazanean liter. cuando yo suelo morir”.* (Azkue 1924: § 915, 2. oharra)

Ez dago herri erabilerari erreparorik ipintzeko inolako ziorik. Faktore pragmatikoeak azaltzen dute zergatik *hiltzen naizenean* bezalako esapide bat aspaldiko *bil nadinean* bezain subjuntibokoa den.<sup>289</sup> Konparatu:

(430) (a) Ni hiltzen ari naizen honetan... (*‘Abora que me estoy muriendo...’* ‘*This time that I am dying...*’)

(b) Ni hiltzen naizenean... (*‘Cuando yo muera...’*, ‘*When I die...*’)

(a) kasuan hiltzearen gertaera ez da heldu haren funtsezko mugara, baina hizketagunean kokaturiko ikuspegia gertaeraren ibilbidearen barruan dago:

(431)  $\hat{O}^{1S} \cap G \neq \emptyset$

---

<sup>289</sup> Hau baldinerakoei ere aplikagarria zaie: *hiltzen banaiz*  $\approx$  *bil banadi* (‘if I died’).

(b) kasuan, aldiz, ez dago inolako ebakidurarik gertaeraren eta hizketagunearen artean:

$$(432) \quad O^{1S} \cap G = \emptyset$$

Baina +INTRA balioak halako ebakidura bat behartzen du gertaera eta ikuspegiaren kokagunearen artean, ondorioz, (213) aplikatuz:

$$(433) \quad O^{nS} \neq \hat{O}^{n+1}$$

Hau da:

$$(434) \quad O^{nS} \gg \hat{O}^{n+1}$$

Eta hortik, (214)-(216) bitarte, segidan errepikatuak, GEROKOA( $\hat{O}^{n+1}$ ,  $O^{nS}$ ) predikatua lortzen da.

$$(435) \quad [= (214)] \text{ TAM sistemako ondorioztatutako teorema 22.} \\ ((O^{nS} \cap G = \emptyset) \wedge (\hat{O}^{n+1} \cap G \neq \emptyset)) \rightarrow (O^{nS} \gg \hat{O}^{n+1})$$

$$(436) \quad [= (215)] \text{ TAM sistemako postulatu 53.} \\ (((\hat{O} -)O^{1S}) \wedge \neg(\hat{O} \not\prec O^{1S}) \wedge (+INTRA \vee +INTRA) \wedge (O^{1S} \cap G = \emptyset)) \rightarrow \\ (O^{1S} \prec \hat{O})$$

$$(437) \quad [= (216)] \text{ TAM sistemako ondorioztatutako teorema 23.} \\ (((\hat{O} -)O^{1S}) \wedge \neg(\hat{O} \not\prec O^{1S}) \wedge (+INTRA \vee +INTRA) \wedge (O^{1S} \cap G = \emptyset)) \rightarrow \\ \text{ONDORENGOA}(\hat{O}, O^{1S})$$

Zenbait euskalkitan balio hori esplizituki markatzen da *-(te)ke* atzizkiaren bidez:

$$(438) \quad \text{Zatozkenean... ('Cuando vengas...' 'When you come...')}$$

Edonola ere ez dago *hil nadinean* bezalako egitura zaharkituen beharrik: subjuntiboak behar duen gerokotasuna, +AD aspektu operatzaileak berez

dakarrena, bestelako aspektu balioak dituzten adizkien bitartez ere lor daiteke (hortik *hiltzen naiçenean* eta honen tankerakoak).<sup>290</sup> Dagoeneko badakizkigu, GEROKOA ezaugarriko aukerak:

- (439) TAM sistemako postulatu 95.  
 GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ ,  $O^n$ )  $\rightarrow$   
 (+PRO  $\vee$  +AD  $\vee$  ((+INTRA  $\vee$  +INTRA)  $\wedge$  ( $G \cap O^M = \emptyset$ )))<sup>291</sup>

Azpimarratu behar da, ondorioz, subjuntiboaren eta erabilera dependenteko bestelako egituren arteko aldea aspektuzkoa baino ez dela, gerokotasunari lotua. Horrez gain, sarri gertaerak irrealizat, gertagarritzat, aurkezteko balio du, [+asmozkoa] balioa inposatzen duten gobernatzaile bereziak medio izanik (440), edo ez (441).

- (440) Etor zaitezen nahi dut. (*I want you to come.*)

- (441) Erraza da etor zaitezen. (*It is easy for you to come.*)

Beste batzuetan, [+asmozkoa] balioa esapiderearen jatorrian dagoen hortatibo bati zor zaio. Hau ageria da aginte esaerak zehar estilora igarotzen direnean, baina ez da horren ageria helburuzko perpaus adberbialen kasuan. Ikusi, bestela, Lafonen azalpen hau Etxepareren bertso batez:

“[...] yçan [=haizen] *signifie* « *pour que tu sois* » dans ayta eta ama  
 ohoraïçac vici yçan lucequi « *honore ton père et ta mère pour que tu*  
*vives longtemps* » [...] *La valeur finale de la forme peut être soulignée au*  
*moyen de ceren* « *pour que* », *litt.* « *pour quoi* » : [...] *ceren est en tête*  
*de la phrase qu’il commande, 10 lignes avant la forme verbale obligatu*

<sup>290</sup> +AD kontzeptua falta bazitzaion ere, Azkuek +AD aspektu balioko adizkietara murriztu nahi zuen zentzu subjuntiboa. [EG-INDIKATIBOA] kontzeptuaren analogiaz, [EG-SUBJUNTIBOA] izango litzateke hori.

<sup>291</sup> Ikusteke ditugu, hala ere, formula honetako operatzaileek euskaraz dituzten zenbait gauzapean.

guiren « *pour que... nous soyons obligés* ».» (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980 I:

82)

Azalpen hori ez da sinesgarriena. Errezago ikusten dut beste hau: menderakuntzaren aurreko egitura perpaus independenteen sorta bat izan zitekeen *aita eta ama ohora itzak, bizzi bai(en) luzekei*, biak aginterakoak,<sup>292</sup> bigarrena (aditzondo moduko) menderatu gisa geratzean aurrekoaren aginduaren ondoriotzat interpretatuko litzateke berez. Hori posible da subjuntiboko formek, erabilera dependenteko bestelako egiturek ez bezala, GEROKOA predikatua txertaturik daukatelako. Askotan, aginterakoek legez, hori zor diote +AD balioari,<sup>293</sup> beste batzuetan, *-(te)ke* hizkiari, eta besteetan faktore pragmatikoei, non argi baitago +INTRA ikuspegipeko gertaera geroko beste orientazio puntutik begiratuta dagoela. Inoiz, euskalkien eta garaien arabera, azken honen zentzu berean erabili da *-(tu)ko motako partizipioa*

---

<sup>292</sup> Lafitteren (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008): paradigmetan IZAN aditzaren trinko gisako aginterak *-n* agertzen du bigarren pertsonetan ere. Azaldua dut horrelakoetan balio tropikoaren iraulketa dakarrela.

<sup>293</sup> Susmoa dut honelako azalpenak balio dezakeela ulertzeko Lafoni bereziki zail egiten zitzaion gertaera hau:

“[...] *il est plus difficile de comprendre pourquoi bisc. axa, aja, 2<sup>a</sup> pers. Du sg. De présent du verbe « être » équivaut, dans deux des Refranes, à ajate « tu seras »*”. (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980 I: 437)

Izan ere, *axa* edo *aja* adizki horiek galdu dutena azkenengo *-n* hizkia da (galera hau Lafonek berak (<sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980 I: 442) esaten digu garaiko bizkaieraren zenbait aldaeratako ezaugarria dela, halaber ikusi Lakarra 1996: 166-169): jatorrizko *axan* edo *ajan* horrek [= *hai(en)*], (O<sup>1S</sup> < Ô<sup>n</sup> = M) aspektu eskemakoa, geroaldia adierazteko erabil zitekeen *-(te)ke* hizkiaren zehazgabetasun kutsua baneratu gabe.

Eta nire susmoa berretsita ikusi dut geroago autoritate handienaren idazkietan:

“*Mitselena aspaldi obartu zen -a morfema bat bazela BZ-ean [= Bizkaiera Zabarrean] —nahiz eta oso agertaldi gutxiरेkin eta ia galtzeare— futuroa markatzeko: [...] Ax adinhon ta axa hon «sé acomodado y serás bueno», [...] Yndac micabat orban baga, diada nesquea gajpaga «Dame una picaza sin mancha, dar te he la moca [=moça] sin mal», [...] Yquedac ta diqueada «Darásme y darte he» eta [...] Ausso Chordon arz orri ta nic yñes dayda «Ten Hordoño a esse osso y yo haré buyda», non axa, diada, diqueada eta dayda-k balio hori duten (Mitselena [...]).*

“*Ez da, dakidanez, horrelako adizkirik agertzen gainerako euskalkitan; alabaina, Mitselena frogatu zuen -a hori ez zela morfema aske eta berezia baina -a(n) subjuntibokoa: d. Gar 26 Ausho Perucho vrdeorri, eta neuc ies daguican, eta gogora beste aldetik RS eta Mikoletaren testuko -n gabeko adizkiak, bai indikatibo lehenaldian eta baita inperatibo eta subjuntiboan ere. Gainera, subjuntiboaren eta geroaldiaren hurbiltasun hau ezaguna da beste hizkuntzetan, grekera zabarrean esaterako, (Mitselena, ibid.), eta goiko forma horiek ez genituzke -n orokorra eroritako etorkizko subjuntibo geroaldi bilakatnak baijik.*” (Lakarra 1996: 169)

Aipameneko lau adibideetatik hiru lehen pertsonako hortatibo-hitzemankariak dira. Bestea, bigarren pertsonakoa, horiekiko analogian ulertu beharra dago.

+ IZAN/\*EDUN *aditz laguntzailea* egitura, baina gehienetan beste zentzu bat du, indikatibokoa:

(442) Helduko zarenean... (*Cuando (=dado que) vas a llegar...*, 'As you are going to arrive...')

Uste dut aldea zor zaiola haren -INTRA balioari, azaltzera noanez. -*Nean* atzizki inesiboak balio du puntu batean kokatzeko. +INTRA eta +AD operatzaileekin, orientazio puntua bat dator gertaeraren lokalizazio puntuarekin. +POST operatzailearekin ere lotura bat dago puntu bion artean. Operatzaileon balio negatiboekin, aldiz, horrelako -*nean* baten bidez orientazio puntuan kokatuko ginateke, baina gertaeraren lokalizazio puntuarekiko inolako loturarik bermatu gabe. Ondorioz, goiko adibidearen modukoetan, -*nean* bidez markatzen den kokapena ez da  $\hat{O}^2$  prospektiboa, baizik eta kasuko hizketaguneko  $O^{1S}$  bera. Orientazio eta gertaeraren lokalizazio puntuen arteko lotura bat eskatzen bide du, beraz, subjuntiboak:

(443) *Etiketa eta definizioa 96. TAM sistemako postulatua 96. TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 48.*

- (a) [SUBJUNTIBOA] : GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ ,  $O^n$ ) diren eta aspektu ikuspegia gertaera barruan edo gertaerari lotuta kokatzen duten dependentzia eragileen modua  
 (b)  $(+\kappa\text{DEP} \wedge \text{GEROKOA}(\hat{O}^{n+m}, O^n) \wedge (+\text{AD} \vee +\text{INTRA} \vee +\text{POST})) \leftrightarrow$   
 [SUBJUNTIBOA]  
 (c) [SUBJUNTIBOA]  $\rightarrow$   
 $(+\kappa\text{DEP} \wedge \text{GEROKOA}(\hat{O}^{n+m}, O^n) \wedge ((\hat{O} \cap G \neq \emptyset) \vee (\hat{O} \subset_{M<I}))$

Subjuntiboa eta erabilera dependenteko bestelako egiturak aspektuagatik bereizten dira, eta +AD/+INTRA (edo +INTRA) balioko subjuntiboen arteko aldea honetan datza: azkenon erabilera denborazko eta baldinerako perpausetara murriztuta dago, soilik horietan argi baitaiteke maila pragmatikoan gertaeraren gaineko ikuspegiaren kokagunea ez datorrela bat jatorrizko  $O^S$  (orokorrago  $O^M$ ) ikuspegiarekin.

### 5.7.6 *bait-* aurrizkiaren zentzua

1. atalean ikusi genuenez, *bait-* menderagailua -*n* hizkiaren baliokidea da hiru salbuespenekin: (i) ez da iraganaren marka; (ii) ezin erabil daiteke

hortatiboetan; ezta (iii) zehar galderetan ere. Hona hemen lehenengo puntu bien arrazoa: *bait-* aurrizkiak ez bide du erabilerarik onartzen klistiko osoko klausula independenteetan.

(444) TAM sistemako postulatua 97.  
<+*bait*> → +κDEP

Hirugarren puntua dela eta, aurrizkiak beste zerbait gehitzen duelakoan nago: horren bitartez seinalatua, auresuposatu egin beharrean, intzidentalki baina esplizituki baieztatu egiten da. Honekin lotuta dago beste gertaera hau: erlatiboko menderagailu gisa erabili ezean, zentzu kausatiboa erakusten duela —atxikia daraman adizkiaren bitartez adierazitako gertaerak perpaus nagusian adierazitakoa azaltzeko balio du—. Inchauspereen aburu (1858) hizki hauetako bat daramaten adizkiak (*bait-* edo *-n*, baita *-la* atzizkidunak ere) bereizten dira adizki nagusi gisa ager daitezkeen formetatik (*formes capitales*), baina bakoitzak izendapen, eta zentzu, desberdina duke:

- *-la*: “forma gobernatu positiboak” (*formes régies positives*);
- *-n*: “forma gobernatu eskisitiboak” (*formes régies exclusives*);
- *bait-*: “intzidentziako formak” (*formes d’incidence*).

-N hizkiarekin komun eta desberdin duena atzemateko nahiko izan daiteke biak so eragileztat jotzea —(445) eta (446)—, baina onartzea horrez gain, *bait-* aurrizkia berez dela bateraezina hitz emate neustikoaren bertan beheraketarekin —(447)—:

(445) TAM sistemako postulatua 98.  
<+*bait*> → +SO ERAGILEA

Honenbestez:

(446) TAM sistemako postulatua 99.  
+SO ERAGILEA ↔ (<+*n*> ∨ <+*bait*>)

Eta:

(447) TAM sistemako postulatua 100.  
<+bait> | +SUB IUDICE

### 5.7.7 Iraganaldiko *-n* hizkia eta *-n* hizki konjuntiboa

Iraganaldiko O<sup>2P</sup>-ren inguruko eremua oraingunearen analogian eratzen da. Bata zein bestea antolatuta daude ainguratzerako orientazio puntu nagusi baten inguruan, O<sup>2P</sup> eta O<sup>1S</sup>, hurrenez hurren. Kasu bietan, bertatik ikusitako gertaerak erraltzat aurkezten dira. Irrealtasunak eskatzen du modalki aldendutako n+1garren orientazio puntu baten esku-hartzea. Hau da, iraganaldian, alegigunean ez bezala, [+*irrealis*] balioa markatua da eta [−*irrealis*] balioa berezkoa.

Euskaraz gai urruneko gertaera errealak adierazteko hitzmate neustikoaren marka esplizitu bat erabiltzen da: +SO ERAGILEA balioko *-n* atzizkia (zeina desager daiteke arrazoi fonologikoengatik beste atzizkiren bat itsatsiz gero, edo —zenbait azpieuskalkitan— hitz bukaeran). Ondorioz, *-n* hori iraganaldiko markatzat jotzen da.<sup>294</sup> Berau duten adizkiak oposizioan agertzen zaizkigu *ba-*, *al-* (> *ai-*), eta *-(te)ke* hizkidunekin. Hauen bidez seinalatzen den “birtualtasunaren” ordez (ondoko txataletan aztergai izango duguna), *-n* hizkiak balio bide du “benetakotasuna” adierazteko, hots [−*irrealis*] balioa. Gainera, +κDEP berez dakarren *bait-* aurrizkiak ez ditu sortzen urruneko adizki gramatikalak: \**bainu...* Uste dut jatorrizko zentzua orain arte ikusitako berbera dela: aktualtasunik gabeko \**nintz* bat benetakotzat joa izatera igaroko zen balio klistiko osoko eta erabilera independenteko *-n* so eragilearen bidez seinalatua izatean, eta soilik horrela. Hala ere, iraganeko adizki horren +SO ERAGILEA eta −κDEP balioen gainean eragin egin daiteke +κDEP balioa dakarten faktoreen bidez (+SUB IUDICE eta laster ikusiko direnak). Kasu

<sup>294</sup> Marka bakarra ez den arren: 3. pertsonarako hasieran kokatzen den *Ø/z* markarekin batera agertzen da; gainera (baina hau alegiazko adizkiekin ere gertatzen da) NORK kasuko aktantearen marka ere adizki hasierara desplazatzen da (salbuespena bizkaierazko *leiket* bezalako adizkiak dira).

horretan, hasierako  $-κDEP$  balioari  $+κDEP$  balioa gaineratzen zaioke.

Adibidez:

(448) Trena heldu zen. (*The train arrived.*)  
 $-κDEP +SO ERAGILEA$

Heldu zen trena... (berandu zebilen). (*The train that arrived... (was late.)*)  
 $+κDEP +SO ERAGILEA$  ( $-κDEP +SO ERAGILEA$ )

Bat eta bera dira zenbait hortatibo egiteko balio duen  $-n$  atzizkia, iraganaldiko markatzat jotzen dena eta  $-n$  menderagailua. Hiruen funtsezko zentzua  $+SO ERAGILEA$  balioaren bidez atzeman dugun hitzimate neustiko esplizituak ematen du. Aldea dagokio aditz gaiari (hurbila/urruna) eta balio klistikoari edo erabilera independentea/dependentea:

$+SO ERAGILEA \rightarrow$	$-FAR$	$+FAR$
$-κDEP$	Hortatiboa [-deskr]	Iraganeko urruna [+deskr]
$+κDEP$	Orainguneko konjuntiboa [+deskr]	Iraganaldiko zein alegiguneko konjuntiboa [+deskr]

47. taula  $+SO ERAGILEA$  balioaren konbinaketak  $\pm κDEP$ ,  $\pm FAR$  eta  $[\pm deskr]$  balioekin.

Lehenago ere esan denez, bi dira hasierako aukerak:

(449) [= (412)] TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 46.  
 $+SO ERAGILEA \leftrightarrow (\neg κDEP +SO ERAGILEA \vee +κDEP +SO ERAGILEA)$

Erabilera dependentea ( $+κDEP$ ) derrigorrezkoa da atzizki hau (edo aipamenezko  $-la$  atzizkia) menderagailua denean. Lafittek proposaturiko *konjuntibo* izendapenez baliatuko naiz honelako konbinaketei esateko, hitzimate neustikoa periferiara daramatela ulertuz:<sup>295</sup>

<sup>295</sup> Bien artean garrantzizko alde bat dago:  $+AIPAMENA$  operatzailearekin desberdinak izan daitezke hitzuna eta aipatuaren hitzimate neustikoaren erantzulea den komunikatzailea;  $+SO ERAGILEA$  balioarekin ez.



- (450) *Etiketa eta definizioa 97.*  
 (a1) [KONJUNTIBOA] : hitzmate neustikoa periferiara edo klistiko ez osoko esapideetara eramatearen eragiketaren (edo haren gabeziaren) adierazpena  
 (a2) [KONJUNTIBOA] =<sub>def</sub>  
 (+κDEP +SO ERAGILEA ∨ +κDEP +AIPAMENA)

+κDEP operatzailea barruratzen duenez, (411)-gatik konjuntiboak baztertzen duke +SUB IUDICE operatzailea, beronek ere +κDEP balio dakarrenean. Halaber, (337)-gatik, bata zein bestea ezinezkoak dira zentzua hortatiboa denean; aldiz, atzizkia konjuntiboa ez denean eskaintzen zaizkigu [±deskr] aukera biak. -N atzizkiari dagokionean honela ezar dezakegu hori:

- (451) *TAM sistemako postulatu 101.*  
 $^{-\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA} \rightarrow$   
 $((^{-\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA} \wedge [+deskr]) \vee (^{-\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA} \wedge [-deskr]))$

Formula horren apodosiko disjuntzioaren alde bati zentzu hortatiboa dagokio:

- (452) *TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 49.*  
 $(^{-\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA} \wedge [-deskr]) \rightarrow [\text{HORTATIBOA}]$

Dizjuntzio bereko beste zatia emanez gero (dagoen bezala, edo operatzaile neustiko baten bidez +κDEP balio klistikoa gaineraturik), -n atzizkia iraganaldiaren derrigorrezko marka da:

- (453) [= (316)] *Etiketa eta definizioa 73.*  
 (a1) IRAGANALDIAN(Ó) : Ó orientazio puntua iraganaldian kokatuta dagoela adierazteko predikatua, hots (artezago edo zeharrago) O<sup>2P</sup>-ri lotuta  
 (a2) IRAGANALDIAN(Ó) =<sub>def</sub> (Ó -) O<sup>2P</sup>

- (454) *TAM sistemako postulatu 102.*  
 $([+deskr] \wedge ^{-\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA}) \leftrightarrow \text{IRAGANALDIAN}(\acute{\text{O}})^{296}$

<sup>296</sup> Orainguneko <+n> balioko adizkiek errespetatzen dute postulatu hau zeren haien *balioa* edo hortatiboa baita edo +κDEP (hots, <sup>+κDEP</sup> N-OPERATZAILA), eta inola ez gaineratua

Hau koherentea da +SO ERAGILEA balioaren zentzu neustikoarekin, iraganaldiaren eremu hau iraganeko gertaera errealenaren zabalpena baita, orainguneko indikatibokoaren analogiaz definitua:<sup>297</sup>

$$(455) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 50.} \\ (+\text{FAR} \wedge \neg\text{BARETUA} \wedge \neg\text{SUB IUDICE} \wedge [-\text{ahal}] \wedge [-\text{asmozkoa}]) \leftrightarrow \\ (\text{IRAGANALDIAN}(\acute{o}) \wedge [\text{INDIKATIBO}])$$

Iraganeko gertaerak errealtzat aurkezten dira, balio klistikoa dena delakoa izanik ere:

$$(456) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 51.} \\ (+\text{FAR} \wedge \neg\text{BARETUA} \wedge \neg\text{SUB IUDICE} \wedge [+ \text{deskr}] \wedge [-\text{ahal}] \wedge [-\text{asmozkoa}]) \rightarrow \\ [-\text{irrealis}]$$

Edonola ere, euskal aditz morfologiak erakusten duena hau da: gai urruneko adizkiez gertaerak errealtzat aurkezteko derrigorrezkoa dela gertaeroi seinalatzea, so eragitea.

$$(457) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 52.}^{298} \\ (+\text{FAR} \wedge [-\text{irrealis}]) \rightarrow +\text{SO ERAGILEA}$$

Bestela esanik:

$$(458) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 53.} \\ (+\text{FAR} \wedge \neg\text{BARETUA} \wedge \neg\text{SUB IUDICE} \wedge [-\text{ahal}] \wedge [-\text{asmozkoa}] \wedge [+ \text{deskr}]) \\ \rightarrow +\text{SO ERAGILEA}$$

Honenbestez baditugu errealtasunari dagozkion balio konbinaketa guztiak:

$$(459) \quad \text{TAM sistemako postulatua 103.} \\ [-\text{irrealis}] \leftrightarrow (\neg\text{BARETUA} \wedge \neg\text{SUB IUDICE} \wedge [-\text{ahal}] \wedge [-\text{asmozkoa}] \wedge [+ \text{deskr}])$$

---

(<sup>K</sup>DEP +SO ERAGILEA) litzatekeen beste forma bati. Azken hau esan daiteke alegiguneko *litżana*, *luenak* eta antzekoez ere, aldaera neustikoko markak daramatzaten adizkien alomorfoztat jota ala ez.

<sup>297</sup> Gogoratu (377).

<sup>298</sup> Ondorioztapenerako oinarria segidan dator, ondoko epigrafe bietan.

$$\wedge (\neg\text{FAR} \vee \\ (+\text{FAR} \wedge \neg^{\text{KDEP}} +\text{SO ERAGILEA}))$$

Eta alderantziz:

$$(460) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 54.} \\ [+irrealis] \leftrightarrow (+\text{BARETUA} \vee +\text{SUB IUDICE} \vee [+asmozkoa] \vee [+ahal] \vee \\ [-deskr] \vee \\ (+\text{FAR} \wedge \neg(\neg^{\text{KDEP}} +\text{SO ERAGILEA})))$$

Horren arabera, iraganaldiko indikatiboaren kontzeptua honela ere ezaugarri daiteke:

$$(461) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 55.} \\ (\text{IRAGANALDIAN}(\hat{O}) \wedge [\text{INDIKATIBOA}]) \leftrightarrow \\ (+\text{FAR} \wedge \neg\text{BARETUA} \wedge \neg\text{SUB IUDICE} \wedge [-asmozkoa] \wedge [-ahal] \wedge [+deskr] \wedge \\ \wedge \neg^{\text{KDEP}} +\text{SO ERAGILEA})$$

Baina +FAR eta [-irrealis] balioen konbinaketari eman dakiokkeen interpretazio bakarria iraganarena da eta beraz, kasuko  $O^{2M}$  bigarren orientazio puntua  $O^{1S}$  baino lehenagokotzat ulertu behar da, “«” zeinuaren bidez adieraz daitekeen harremana, hau da funtsezko ainguratze gunea  $O^{2P}$  dugu (edo horren inguruko  $O^3$  bat) eta ez  $O^{2V}$ .

$$(462) \quad \text{TAM sistemako postulaturia 104.} \\ (+\text{FAR} \wedge [-irrealis]) \leftrightarrow ((\hat{O}^{2M} \ll O^{1S}) \vee ((O^{2M} \langle \hat{O}^3 \rangle \ll O^{1S}) \vee ((\hat{O}^3 \langle O^{2M} \rangle \ll O^{1S})))$$

$$(463) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 56.--58.} \\ (a) ((\hat{O}^{2M} \ll O^{1S}) \vee ((O^{2M} \langle \hat{O}^3 \rangle \ll O^{1S}) \vee ((\hat{O}^3 \langle O^{2M} \rangle \ll O^{1S}))) \leftrightarrow \\ (\text{IRAGANALDIAN}(\hat{O}) \wedge [\text{INDIKATIBOA}]) \\ (b) (+\text{FAR} \wedge [-irrealis]) \leftrightarrow \\ ((\hat{O}^{2P} \ll O^{1S}) \vee ((O^{2P} \langle \hat{O}^3 \rangle \ll O^{1S}) \vee ((\hat{O}^3 \langle O^{2P} \rangle \ll O^{1S}))) \\ (c) ((\hat{O}^{2P} \ll O^{1S}) \vee ((O^{2P} \langle \hat{O}^3 \rangle \ll O^{1S}) \vee ((\hat{O}^3 \langle O^{2P} \rangle \ll O^{1S}))) \leftrightarrow \\ (\text{IRAGANALDIAN}(\hat{O}) \wedge [\text{INDIKATIBOA}])$$

Horrela definituta, iraganeko  $O^{2P}$  horren inguruan bestelako eragiketa semantikoak aplika daitezke. Agerikoena +PRO operatzailearen aplikazioari zor zaioke. Gerokotasun zentzuak irrealtasun (hitzemate neustikoaren baretze) kutsua ekar diezaike edo ez.

+κDEP operatzailea ezartzeak, *-n* marka beraren bidez, *bait-* aurrizkiaren bidez, edo aipamenezko *-la* atzizkiaren bidez, ez luke irrealtasunik ekarriko, kontrako atxikipenen batek hori inposatu ezean. Bestelako hizkiek irrealtasunera desplazatuko dituzte adierazitako gertaerak, guztiak iraganaldian kokatuak indikatibokoak ez izan arren:

$$(464) \quad \text{TAM sistemako postulatu 105.} \\ \text{IRAGANALDIAN}(\acute{\text{O}}) \leftrightarrow (+\text{FAR} \wedge \neg^{\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA})$$

Ondorioz:

$$(465) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 59.} \\ ((\acute{\text{O}} \neg) \text{O}^{2\text{P}}) \leftrightarrow (+\text{FAR} \wedge \neg^{\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA})$$

Geroxeago, hurrengo txatal batean beste laburdura bat definitutakoan, formulatuko da ezen gertaeraren gaineko ikuspegia ezin koka daitekeela batera oraingunean eta iraganaldian.

Iraganaldi hau bateraezina da hortatiboarekin eta horri dagokion [−deskr] balio tropikoarekin:

$$(466) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 60.-61.} \\ \text{(a) } [-\text{deskr}] \rightarrow \neg \text{IRAGANALDIAN}(\acute{\text{O}}) \\ \text{(b) } [\text{HORTATIBOA}] \rightarrow \neg \text{IRAGANALDIAN}(\acute{\text{O}})$$

Bestalde, balio klistiko osoarekin *-n* atzizki honek jaso dezakeen balioetako bat iraganaldikoa da, txatal honetako emaitzetatik ondorioztatzen denez:

$$(467) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 62.} \\ +\text{SO ERAGILEA} \rightarrow (+^{\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA} \vee [\text{HORTATIBOA}] \vee \text{IRAGANALDIAN}(\acute{\text{O}}))$$

Bakarrik iraganaldiko balio horrek bihurtzen du bateragarri +SO ERAGILEA balioa +SUB IUDICE operatzailearekin: <sup>299</sup>

(468) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 63.  
 (+SO ERAGILEA  $\wedge$  +SUB IUDICE)  $\rightarrow$  IRAGANALDIAN( $\hat{O}$ )

Bestela esanik:

(469) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 64.  
 $\neg$ IRAGANALDIAN( $\hat{O}$ )  $\rightarrow$  (+SO ERAGILEA | +SUB IUDICE)

Orain berrius dezakegu, adibidez, \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen bilakaera diakronikoa: XVI. mendean, oraingoz, +AD aspektu operatzaileari ( $O^S \langle \hat{O} \wedge (\hat{O} \cap M \neq \emptyset) \rangle$ ) eskema bakarrik gai hurbilean egozten zitzaionez, gai urruneko *-n* atzizkidun formak indikatibokoak izan ahal ziren, aoristokoak hain zuzen. Esandako eskemak adierazten duen jatorrizko O-rekiko bateraezintasuna edozein  $O^M$ -ri hedatu zenean, orainguneko adizkien egoeran aurkitu ziren, alde batekin: (466)-gatik iraganaldikoek ezin ziren hortatiboak izan. Bestelako aldentzerik adieraz zezakeen hizkirik ez izanik, +SO ERAGILEA eta  $\neg$ κDEP balioen konbinaketa ez zen nahikoa  $\hat{O}$  aspektu ikuspegia iraganeko  $O^{2P}$ -tik ere aldentzeko. Ondorioz, (470)-ko egoeratik (471)-kora igaro zen:

(470) XVI. mendeko euskaran:  
 Etor zitezten. ('They (just) came.')  
 $\neg$ κDEP +SO ERAGILEA

(471) Geroztiko euskaran:  
 Etor zitezten. ('(For) them to come.')  
 +κDEP +SO ERAGILEA ( $\neg$ κDEP +SO ERAGILEA)<sup>300</sup>

<sup>299</sup> Bestela, erabilera konjuntiboaren kasuan (411)-ko ezarpena urratuko litzateke, eta balio hortatiboarekin (378), (343) eta (337).

<sup>300</sup> Eta ez, besterik gabe, +κDEP +SO ERAGILEA. Beste balio hauei dagokiena alegiuneko forma da: *etor litezen*.

Hots, iraganaldiko  $-n$  hizkiaz aparte “soilak” ziren adizkiak desagertu egin ziren +κDEP izatera igaroz, eta (317)-en ondoriozko GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ ,  $O^n$ ) ezaugarriarengatik, subjuntibokoak —(443)—.<sup>301</sup>

Ondoko txataletan aztertuko dira bestelako irrealtasun faktoreak eta horiekin loturiko alegiazkotasunaren eremu semantikoa.

### 5.7.8 Alegigunea eta alegiazkoa

Orainguneari eta iraganaldiari kontrajarrita, “alegigunea” iraganaldiaz besteko +FAR balioaren eremuari dagokio, hots  $O^{1S}$  baino lehenagoko ez den  $O^{2M}$  bat aingura duten gertaeren eremua:

- (472) *Etiketa eta definizioa 98.*  
 (a1) ALEGIGUNEAN( $\hat{O}$ ) :  $\hat{O}$  orientazio puntua alegigunean kokatuta dagoela adierazteko predikatua, hots (artezago edo zeharrago)  $O^{2V}$ -ri lotuta  
 (a2) ALEGIGUNEAN( $\hat{O}$ ) =<sub>def</sub> ( $\hat{O}$   $\rightarrow$ )  $O^{2V}$

Berdina da esatea gertaeraren gaineko ikuspegia (eta gertaera bera) alegigunean kokatzen direla eta esatea  $O^{2V}$ -ari lotuta dagoela. Halako lotura bakarrik eman daiteke hiru eremuetako batean: alegigunean, iraganaldian edo oraingunean.

- (473) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 65.*  
 XOR(ALEGIGUNEAN( $\hat{O}$ ), IRAGANALDIAN( $\hat{O}$ ), ORAINGUNEAN( $\hat{O}$ ))

$O^{1S}$  eta  $O^{2P}$ -rekin ez bezala,  $O^{2V}$ -tik ikusitako gertaerak irrealizat aurkezten dira berez:

- (474) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 66.*  
 ((( $\hat{O}$   $\rightarrow$ )  $O^{2V}$ )  $\rightarrow$  (+FAR  $\wedge$  [+irrealis]))

“Alegiazkoa” izendapena gordeko dut gai urruneko irrealizat aurkezturiko gertaerentzat ( $O^{2P}$ -ri ainguratuak barru):

---

<sup>301</sup> GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ ,  $O^n$ ) eta  $-\kappa$ DEP balioen konbinaketa okupatuta zuten beste adizki batzuek,

(475) *Etiketa eta definizioa 99.*

- (a1) [ALEGIAZKOA] : gertaerak honela ikusarazten duten aurkezpenen ezaugarria: O<sup>1S</sup> ez den (gai urrunaren bidez morfologikoki markaturiko) O<sup>2M</sup> bigarren orientazio puntu bati ainguraturik eta irreal gisa
- (a2) [ALEGIAZKOA] =<sub>def</sub> +FAR ∧ [+irrealis]

Ondorioz, alegiguneko gertaerak alegiazkoak dira berez:

(476) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 67.-68.*

- (a) (( $\hat{O}$  → O<sup>2V</sup>) → [ALEGIAZKOA])
- (b) ((( $\hat{O}$  → O<sup>2M</sup>)  $\not\rightarrow$  O<sup>1S</sup>) → [ALEGIAZKOA])

Baina ez dago alderantzizkoa ondorioztatzerik, iraganaldiko gertaerak ere alegiazkoak izan baitaitezke, irrealtzat aurkezten badira:

(477) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 69.*

$$\text{IRAGANALDIAN}(\hat{O}) \rightarrow ([\text{INDIKATIBOA}] \vee [\text{ALEGIAZKOA}])$$

Hala ere, banaketa argi bat dago: +SO ERAGILEA eta -κDEP balioen konbinaketa agertu bezain pronto iraganaldian kokatzen dira gertaerak, ez alegigunean.

(478) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 70.*

$$\text{ALEGIGUNEAN}(\hat{O}) \leftrightarrow (+\text{FAR} \wedge \neg(\neg^{\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA}))$$

Hau da:

(479) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 71.*

$$\begin{aligned} \text{ALEGIGUNEAN}(\hat{O}) \leftrightarrow & (+\text{FAR} \wedge \\ & \neg(+\text{N-OPERATZAILA}(\neg^{\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA})) \wedge \\ & (-\text{SO ERAGILEA} \vee +^{\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA})) \end{aligned}$$

Ondorioz:

(480) *TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 72.*

$$(((\hat{O} \rightarrow) O^{2M}) \not\rightarrow O^{1S}) \leftrightarrow (+\text{FAR} \wedge \neg(\neg^{\kappa\text{DEP}} +\text{SO ERAGILEA}))$$

---

aurreko atal batean ikusi denez.

Eta:

- (481) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 73.  
((( $\hat{O} \rightarrow O^{2M}$ )  $\not\rightarrow O^{1S}$ )  $\leftrightarrow$  (+FAR  $\wedge$   
 $\neg$ (+N-OPERATZAILLEA( $^{-KDEP}$  +SO ERAGILEA)))  $\wedge$  ( $\neg$ SO ERAGILEA  $\vee$   
 $^{+KDEP}$  +SO ERAGILEA))

Alegiazkoan zabalagoak dira aukerak:

- (482) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 74.  
[ALEGIAZKOA]  $\leftrightarrow$  (+FAR  $\wedge$   
(+BARETUA  $\vee$  +SUB IUDICE  $\vee$  [+asmozkoa]  $\vee$  [+ahal]  $\vee$  [-deskr]  $\vee$   
 $\neg$ ( $^{-KDEP}$  +SO ERAGILEA))

Edo:

- (483) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 75.  
[ALEGIAZKOA]  $\leftrightarrow$  (+FAR  $\wedge$   
(+BARETUA  $\vee$  +SUB IUDICE  $\vee$  [+asmozkoa]  $\vee$  [+ahal]  $\vee$  [-deskr]  $\vee$   
( $\neg$ (+N-OPERATZAILLEA( $^{-KDEP}$  +SO ERAGILEA)))  $\wedge$   
( $\neg$ SO ERAGILEA  $\vee$   $^{+KDEP}$  +SO ERAGILEA)))

Alegigunekotasunaren berariazko marka morfologiko bat badago:

- (484) Etiketa eta definizioa 100. TAM sistemako postulatua 106.  
(a)  $\langle \pm \rangle$  : gai urruneko hirugarren pertsonako alegiguneko adizki ez hortatiboen  
marka morfologikoa agertzen den/ez den adierazpena  
(b)  $\langle + \rangle \rightarrow$  ALEGIGUNEAN( $\hat{O}$ )

- (485) TAM sistemako postulatua 107.  
(ALEGIGUNEAN( $\hat{O}$ )  $\wedge$   $\neg$ [HORTATIBOA]  $\wedge$  (3.S  $\vee$  (3.P  $\wedge$  IMPR.A)))  $\rightarrow$   $\langle + \rangle$  <sup>302</sup>

Alegiazkoak, beraz, besarkatzen ditu alegiguneko eta iraganaldiko eremuetako gertaera irrealak. Bestelako irrealtasun faktoreak euskaraz nola kodetzen diren jorratuko dut ondoko txataletan. <sup>303</sup>

---

<sup>302</sup> Baldin morfologikoki agertzen bada 3.P-ko marka.



### 5.7.9 *Ba-* eta *al-* (> *ai-*) aurrizkien zentzua

Aurkezpenaren erraztasunerako komenigarria deritzot *ba-* aurrizkiaren balioaren azalpenetik jarraitzeari. Hau, zalantzarik gabe, hitzmate neustikoa *sub iudice* ipintzearen seinale da:

- (486) *TAM sistemako postulatua 108.*  
Ba- aurrizkiaren balio neustikoa:  
<+ba> → +SUB IUDICE <sup>304</sup>

Puntu honetan desbideragarriak izan daitezke baldintzaren inguruan egin ohi diren bereizketak. Adibidez, Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak (1993 eta 2005), oso azalpen desberdinak eman ditu puntu honetaz; lan berriagoan honela bereizten ditu baldintza errealen eta irrealen artean:

- (487) Baldintza errealak: iraganaldi eta orainaldikoak  
Baldintza irrealak: alegialdikoak

Jarrera hau interesekoa da onartzen duelako “alegialdia” (nire “alegigunea”) ez dela *tempus* huts bat, baizik eta *modus* bat ere bai, modu erreal edo indikatibotik bereizita. Bestalde, azaldu gabe geratzen da zergatik baldintza kontrafaktualen kasuan protasi-apodosi komunztadurarik arruntena alegigunearen eta iraganaldiaren artekoa den. Hona hemen dakarten adibide mordotiko bat eta haien ondoko analisia:

- (488) *Arrapatu balu, etzizon* noski eskuan *muñ emango* (Orixe: *Santa Cruz apaiza*, 41).  
(‘If he had caught him, of course he wouldn’t have kissed his hand’).

*“Adibide horietan guztietan, hiztunak egia ez den (edo egiazat ez daukan) hipotesi bat egiten du baldintza perpausean. Baldintza perpauseko aditza perifrastikoa izanik, aditz nagusiak aspektu burutua*

---

<sup>303</sup> Faktore horietako baten edo besteren marka beharko dute alegiguneari dagozkion adizkiak gramatikalak izateko. Horregatik komeni da alomorfoztat jotzea honelakoak: *lei* = *leike*, *nei* = *neike*, *luen* (*gisan*) = *balu gisa*, *liranak* = *lira(te)ke(e)nak*...

<sup>304</sup> Honek azaltzen du zergatik bizkaieraz aurrizki hau zehar galderak eratzeko erabil daitekeen.

*du, eta aditz laguntzaileak, berri, alegialdiko tempusa dakar. Ondore perpauseko aditzak ordea, ez ditu alegialdiko ezaugarriak: hartan aspektua gerokoa da, eta aditzera jokatua iraganaldikoa. “Ikus daitekeen bezala, garai eta euskalki desberdinetako autoreetan aurkitzen da egitura hau, eta esan daiteke egitura zabalduena dela mota horretako baldintzetan.*

*“Ondore perpauseko aditzkeren [sic] formari behatzen badiogu, tempus komunztaduraren urratze gisa har daiteke jokabide hau”.*

*(Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 2005: 34)*

Itxurazko urraketa erraz azal daiteke [ALEGIAZKOA] ezaugarriaren bidez lan honetan definitua izan den moduan, eta areago, behartzen gaitu onartzera +PRO operatzailearen bidezko esapideen gerokotasunaren zentzu bikoitza, [ $\pm$ irrealis]: baldintzan ezarritakoa errealtzat joz gero, apodosikoak galdu egiten du irrealtasun kutsua eta denboraren lerro kronologikoan kokatu behar da.

- (489) [H]arrapatu zuen. [H]arrapatu bazuen [*≈harrapatu zuenez*], etzion noski eskuan muñ emango.  
(*He caught him. If [≈as] he caught him, of course he wasn't to kiss his hand*).

Bestalde, irrealtasunaren barruan ez dirateke jausten soilik gertaeren ibilbide historikoaren aurkako kontrafaktualak, baizik eta balizko gertagaitzak ere bai. Errealen artean, aldiz, benetan gertatuez gain, gertakorrak sartzen dituzte:

*“Alegialdia ez dakarten baldintza perpausak gertakari edo egoera gertatuak edo gertakorrak aipatzen dituzten proposizioetan oinarritzen dira. Hots, alegialdiko baldintzek baldintza kontrafaktualak edo gertagaitzak diren proposizioak adierazten badituzte, hauek, alderantziz, aitzinetik jakinak diren, edo egia [sic] izan*

*daitezkeenak, gauzatzen dituzte. Horregatik baldintza errealak deitzen dira batzuetan perpauk hauek, alegialdian jokatuak direnak baldintza irrealak deitzen diren bezala.” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 2005: 50)*

Baina “gertakorra” baino ez dena errealtzat jotzea larregi zabaltzea da errealtasunaren kontzeptua. Hau askoz hertsiagoa zen Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen lan zaharrean (1993: § 16), zeinetan orainaldiko baldintzen artean errealak gertagarrietatik bereizten ziren:

(490) neska lirain horrekin ezkondua bazaude, zoriontsu izateko arrazoi ugari duzu  
(*If you are married with that slim girl, you have a lot of reasons to be happy*)

*“Konturatzen abal garenez esaldi hori eman duen hiztunak ez du hor benetako baldintzarik jartzen, berak bai baitaki aldez aurretik, neska horrekin ezkondua dela. Hori jakinik egiten du ondoko adierazpena. Hori jakinik berak ematen du bere ustez hori horrela gertatzeak dakarren ondorioa.” (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 394)*

Baldintza errealak ziurrak baziren, gertagarriak ziurgabeak genituzkeen:

(491) hor (baldin) *bazaude*, ikusi egingo zaituzte (if you are *there*, they will see you)

(492) aita (baldin) *badator*, zinemara eramango zaitu (if dad comes, he will bring us to the cinema)

*“Perpaukotan ez da jadanik ezeren egia suposatzen: gertatuko den edo gerta daitekeen zerbait aurkezten zaigu. Baina bistan da baldintza errealek eta baldintza gertagarriek adizki berberak erabiltzen dituztela.*

*Hori dela eta, desberdintasuna esanabian aurkitu behar da eta esanabi  
horren desberdintasuna ondoko adizkian ere geratzen da islatua,  
baldintza gertagarrien ondorioetan, errealean ondorioetan ez bezala, geroa  
markatzen baitugu: ikusi egingo zaituzte, eramango zaitu.”*  
(*Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 394*)

Aldea faktore pragmatikoei dagokie, inola ez morfologikoei: izan ere (490)-aren ondoko dedukzio osoa testuinguruko faktoreen edo faktore pragmatikoen mendekoa da. Bestelako informaziorik egon ezean, ulkerera onargarriena autoreek seinalatzen dutena badateke ere, baldintza huski erretorikoa delako zentzuan, gehi diezaiogun adibideari ondoko datua, hiztunak ez duela ezagutzen solaskidea. Jadanik ez dago inongo ondorioztatzerik, eta hiztunaren ezagutzaren ikuspegitik besterik gabe baldintza “gertagarri” baten aurrean gaudeke.<sup>305</sup>

Areago, hiztunak baldintzaren buruketaz duen ezagutzak azal ditzake zergatik egon daitezkeen orainaldiko baldintza kontrafaktualak, hots irrealak:

(493) zu aberatsa *bazara*, ni Aitasaindua naiz (‘if you are *rich*, I’m the Pope’)

Honelakoetan, apodosiaren faltsutasun ageritik ondorioztatzen da protasiarena.<sup>306</sup>

“Alegiazko” baldintzetan ere ziurgabetasun beraren aurrean aurkitzen bide gara, baina 1993-ko lan horretan puntu hau larregi azpimarratzen da, alde morfologiko nabaria baztertuz:

(494) aita *baletor*, zer pentsatuko ote luke? (‘if *dad* came, *what would he think?*’)

<sup>305</sup> Hala ere, apodosiak ez du geroaldiko adizkirik behar. Bai ordea (491) eta (492) adibideetan, horietan suposatuniko gertaera ere gerokoa baita.

<sup>306</sup> Ondorioztatze prozesu hau pragmatikoa da, H. P. Gricek (01967, 11975) “inplikatura” (*implicature*) izendatu zuenaren ildotikoa.

(495) negar egingo luke nire amak *baleki* ('*mum would cry if she knew it*')

“*Alegiazkoak direla diogu, ez baitakigu hor markatzen den baldintza beteko den ala ez.*” (*Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1993: 393*)

Baina ezin eman daiteke alegiazkotasunaren azalpen egokirik gai morfologiko urrunak dakarrena kontuan hartu gabe. Hori egiten ez duenez, goiko azalpena kontraesanen sartzen da “iraganaldiko baldintza alegiazkoak” kontzeptuarekin, zeinetaz ezagutzat jotzen baita burutu ez direla:

(496) *etorri (izan) balitz*, harrapatuko zuen (‘if (s)he had come, (s)he would have caught him’)

(497) *ikusi (izan) balu*, agurtuko zukeen (‘if (s)he had seen him, she would have greeted him’)

Bestalde, alegiazkoak eta “gertagarriak” berdinak dira ezagutza-eza horretan, baina desberdinak morfologikoki (eta semantikoki, baina haiek azaldu ez dituzten arrazoiengatik, baizik berehala ikusiko ditugunengatik).

Dena dela, morfologikoki kodeturiko zein inplikaturaren bidez ondorioztaturik, hitzunen konbentzimenduak, bere ustezko ezagutza baldintza gisa aurkezturiko gertaeraren benetako jazoeraz, *ez dio eragozten honen sub iudice jartzeari*: baldintza ez da gertatu, ez, baina kontrakoa suposatzen ondorioztatzen dena da kontua. Antzeko zerbait esan behar da baldintza “errealen” kasuan: honelakoek ere ez dakarkiate benetako eragozpenik baldintza bat egitea interpretatzeari hitzemande neustikoaren *sub iudice* jartze gisa, ez galderak informazio eskaeratzat ulertzeari galdera erretorikoek ekartzen diotena baino handiagoa. Edonola ere, baldintzazko aditz-esatera [+irrealis] da, +SUB IUDICE operatzailearen mendekoa [±irrealis] izan badaiteke ere.

Hiztunaren ezagutzaren kontuak, beraz: (i) iluntzen du *sub iudice* jartzearen benetako zeregina; eta (ii) ez du azaltzen protasi eta apodosiaren aspektu-aldi komunztaduraren auzia.

Hau ez da erabakitzen gertaeraren buruketaz dugun ezagutzaren bidez, baizik eta berau ere menean hartzen duen beste faktore baten arabera: ea gertaeraren funtsezko zein intereseko muga kokatzen den O orientazio puntuaren aurretik edo atzetik. Eskuarki, apodosiko gertaerarena ez ohi da kokatzen protasiarena baino lehen, nahiz eta horrelakorik egin badaitekeen esanahi berezixeekin.<sup>307</sup> Halaber, adierazgarritasun testuinguru berezixeak kenduta, protasi eta apodosia *alegiazko*/*ez-alegiazko* banaketaren alde berean kokatu behar dira.

Batzuek modu eta besteek modalitatetzat duten suposakaria edo baldinera honetan datza: ondorio bati begira egindako *sub iudice* jartze batean. Suposaketa adierazteko klausulak, beraz, balio klistiko ez osoa izango du:

- (498) *Etiketa eta definizioa 101.*  
 (a1) [BALDINERA] : hitzemate neustikoa ondorio bati begira irizpean jartzen dela adierazteko aditz modu edo modalitatea  
 (a2) [BALDINERA] =<sub>def</sub> +κDEP + SUB IUDICE<sup>308</sup>

(411)-tik ondorioztatzen da *-n* eta *-la* konjuntiboekiko bateraezintasuna:

- (499) *TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 76.*  
 [BALDINERA] | [KONJUNTIBOIA]


Bestalde, baldinera eta konjuntiboak ahitzen dute +κDEP operatzailearen esparrua:

<sup>307</sup> Hauetako kasurik tipikoena dira *-ko ba-* formako baldintza “behar inposagileak”, zeinetan protasian lortu nahi den efektua adierazten den eta apodosian horretarako halabeharrezkoa den aurrekari bat. Esaterako: *Irabaziko badugu arin mugitu behar gara.* (‘If we are to win, we must move quickly.’)


<sup>308</sup> Galdekarizko perpaus modalitateari dagokiona baztertuz. *Ba-* aurrizkiak zehar galderetan izan dezakeen erabileraz ikusi *EGLU V* (Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea 1999: § 1.4.2.4).

(500) TAM sistemako postulatua 109.  
 +κDEP ↔ ([BALDINERA] ∨ [KONJUNTIBOA])

Hona hemen gai urruneko baldineraren eskemak, alegigunekoetatik hasita:




Eta iraganaldikoekin jarraituz:



Hurrengo txataletan ikusiko denez, apodosiak errepresentatzeko eskemak bat datoz goikookin. Horregatik, argiago gera dadin iraganaldiko apodosiekiko lerrokatzea, alegiguneko baldinera gainkonposatua erabiltzen da:

<sup>309</sup> Sartu/sartzen/sartuko bada esapideen eskemak lortzeko nahikoa da “✂ O<sup>2V</sup>” zeinuak ezabatzea eta gainontzeko orientazio puntuen zenbakiak berrezartzea.

(503)  $\otimes$  sartu izan balitz



Honez gain, batzuetan gertaeraren asetzea *sub indice* jartzen da inolako ondoreari begiratu gabe, hots balio klistiko osoaz. Hortik sortzen da aukerakarizko zentzua (optatiboa), hots, desira baten adierazpenaren aurrean egotearena. Desira hori gertagarria den<sup>310</sup> ala ezinezkoa (eta damu baten adierazpena, beraz), baldineraren kasuan bezala, aditz esapidean bertan kodeturik egon daiteke<sup>311</sup> edo pragmatikoki ondoriozta daiteke.<sup>312</sup>

(504) *Etiketa eta definizioa 102. TAM sistemako postulatua 110.*

(a1) [OPTATIBOA] : hitzmate neustikoa inolako ondoriori begiratu gabe irizpean jartzen dela adierazteko aditz modua

(a2) [OPTATIBOA] =<sub>def</sub> <sup>-KDEP</sup> + SUB IUDICE

(b) <sup>-KDEP</sup> + SUB IUDICE  $\leftrightarrow$  [OPTATIBOA]<sup>313</sup>

*Ba-* aurrizkiak eskura dezake bai baldinerako zentzua bai zentzu optatiboa (505), baina azken honek bigarren orientazio puntua eskatzen du, areago, alegigunekoa (506):

<sup>310</sup> Hona hemen Lafittek dakartzan adibide bi (1944, <sup>8</sup>2008: § 721): *ah! etor baledi; deabruak joan balez.* Honen parekotzat jo behar da mendebaldeko euskalkietan erabiltzen dugun *-ko balitz* egitura, eta ez ekialdeko *-t(z)en balitz* egituraren parekotzat, zeinak gehienbat aukerarik gabeko gertaerak adierazteko balio baitu. Izan ere, azken egitura honekin funtsezko edo intereseko muga igarota egon beharko litzateke baldin aditz esaera [+ti] edo [-t] bada (*Hemendik ikusten balitz!* 'If (only) it were seen from here!'): desira-adierazpenak berak inpliketzen du gertaera ez dagoela indarrean, kontrafaktuala dela, eta ondorioz damua adierazten ari dela benetan. [+tf] balioko esapideekin, inplikatura ez da horren beharrezkoa, eta irakurketa biak daudeke zabalik (desira/damua): *Sartzzen ez balira!* ('If (only) they didn't come in!')

<sup>311</sup> Leku berean: *leber egin balu*.

<sup>312</sup> *Ibidem*: *bemen balitz; bere eginbidea bethetzen balu*. Baina konturatu: *ban balitz* esanez gero, inplikatura bertan behera gera daiteke.

<sup>313</sup> Oraingoa ere baztertuz perpaus modalitate galdekariari dagokiokeena.



(505) TAM sistemako postulatua 111.  
<+ba> → ([BALDINERA] ∨ [OPTATIBOIA])<sup>314</sup>

(506) TAM sistemako postulatua 112.  
(<+ba> ∧ [OPTATIBOIA]) → ALEGIGUNEAN(ó)

Optatiboa adierazteko berariazko aurrizki bat gordetzen da zubereraz: *al-* (> *ai-*) aurrizkia.<sup>315</sup> Eragiten dituen aldaketa fonologikoengatik balirudike aurrizkiaren benetako forma *ait-* dela, baina itxura hori zor dakioke *bait-* aurrizkiarekiko analogiari (ik. Lafon<sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: I, 495). Izan ere, gai hurbileko optatiboetan *al* forma mantentzen da (*ikusiko al du!*), egungo ortografia arauak *ahal* idazteko agindu arren.<sup>316</sup> “Akaso” edo “menturaz” berbez parafrasea genezake, eta horrek azaltzen duke *a(ha)l* lexemaren zentzu aniztasuna. Edonola ere, aurrizki gisa txertaturik *ba-* aurrizkiaren oposaketa joku berean sartzen da eta zentzua hitzmate neustikoa gordetzearena da:

(507) TAM sistemako postulatua 113.  
<+al> → +SUB IUDICE

Aldea intonazioaren bidez markaturiko perpaus modalitateari dagokio: galderarenak *akaso* horren inguruko informazio esketzat jotzen da, baina intonazio enuntziatibo zein esklamatiiboak ezin jaso dezakete interpretazio hori. Desira baten adierazpenarena berez sortzen da aurrizkiak eskatzen duen klistiko balio osotik eta haren *sub indice* balio neustikotik. Ondorioz:

(508) TAM sistemako postulatua 114.  
<+al> → -κDEP

Aditz morfologiari dagokionera mugatuz:

---

<sup>314</sup> Aurreko oin-oharrari jarraituz, uler daiteke halako zehargalderetan baldinerako zentzua dagoela azpian: *e¿ dakit etorri bada ≈ etorri bada... e¿ dakit.*

<sup>315</sup> Ik. Lafitte (1944, <sup>8</sup>2008: § 722), Omaechevarria (1959: 50-51), Inchauspe (1858: 105-113).


<sup>316</sup> Gainera, uste dut ez dela kasuala aurrizki honen forma bat etortzea gipuzkeraz bai-ala-ezko galderetan erabilitakoarekin. Honetaz, ikus Zubeldia (2010: § 7.4.2).

- (509) TAM sistemako postulatua 115.  
 $+SUB IUDICE \leftrightarrow (<+ba> \vee <+al>)$

Dena dela lexema solte gisako erabilera, adizkian morfologikoki txertaturiko  $<+al>$  optatiboa ere alegigunekoa da:

- (510) TAM sistemako postulatua 116.  
 $(<+al> \wedge [OPTATIBOA]) \rightarrow ALEGIGUNEAN(\hat{O})$

Azkenik, azpimarratzekoa da *aineza*, *ainu* eta horrelako adizkiak perpaus hasieran agertzen direla, areago, aurrizkiak aditz jokatua erakartzen du ezetzak egiten duen legez.<sup>317</sup>



Ortografia aldaerek desitxuratu badute ere, *al* horrek zerikusia du ahalmena adierazten duen *ahal* hitzarekin ere, zeinak lotura handia baitu segidan aztertu beharrean nagoen *-(te)ke* atzizkiarekin. Hortixik has gaitezke, harreman horren azterketatik, ahalez esango dena argigarria izango baita *-(te)ke* hizkiak bideratzen dituen beste zentzuetarako ere (geroaldi arkaikoa, aieruera eta agintera baretua).

<sup>317</sup> Ez dago argi *ailitz sarturen/sartuko* eta antzeko esapideak benetakoak diren ala gramatikarien asmakuntza adizki koadroak osatzearen —Lafittek (1944, 2008: § 641) badakartza, baina Inchauspek (1858) ez—.

### 5.7.10 *-(te)ke* atzizkiaren zentzua eta haren harremana *ahal/ezin* partikulekin

Aipaturiko hartu-emanak sakonean ikertua du Gerd Jendraschek bere doktoregorako tesian (2007), zeinen txatal batek (§ 5.1) galdetzen duen *ahal* eta *ezin* partikulen eta *-(te)ke* hizkiaren artean funtzio bereizketa dagoenez (“*Particules vs. -ke : un cas de différenciation fonctionnelle ?*”). Haren ustez Zubiri & Zubirik (1995: § 4.2.4) defendatzen dute horrelako bereizketa bat, zeina Altuberengandik datorren,<sup>318</sup> baina ene aburuz Altubek ez zuen bereizketa ezarri partikula eta *-(te)ke* hizkidun atzizkiaren artean, baizik eta *ahal/ezin* + *IZAN*/*\*EDUN* laguntzailea eta *(ahal/)**ezin* + *\*EDIN*/*\*EZAN* (*EGIN*) laguntzailea egituren aspektuen artean (*ezin* *lorik* *egin* *det* vs. *ezin* *lorik* *egin* *daiket*, esaterako): lehenengoa erabili beharko omen litzateke gertaera *in fieri* dagoenean, bigarrena hastear dagoenean. Hona hemen Jendraschekeren epaia:

*“Même si l’on ne peut pas exclure que de telles différenciations existent ou aient existé à un certain stade ou à certains endroits, elles ne sont pas généralisables pour le basque contemporain.”<sup>[319]</sup> Il semble alors que ces propositions de différenciation sont le résultat de faiblesses méthodologiques. Il est en effet impossible de décrire la distribution de ces alternatives sans prendre en compte la variation diachronique et diatopique.<sup>[320]</sup> En négligeant l’étude de cette variation, les grammairiens sont obligés de décrire comme un seul système linguistique ce qui est en réalité une co-existence et une superposition d’un grand nombre de variétés. Lorsqu’on admet l’existence de ces variétés, la variation à*

<sup>318</sup> Jendraschek ez du ematen Altuberen aipamen artezik; hona hemen intereseko pasarteak: (1929: § 199, 1934: §§ 63, 73).

<sup>319</sup> Azkuek berak (1924: § 998, 1. oin-oharra) ez zuen antzematen Altubek seinalaturiko aldea.

<sup>320</sup> Soziolinguistikoak eta pragmatikoak gehi litezke.

*l'intérieur d'une seule variété est déjà beaucoup plus réduite."*

(Jendraschek 2007: 238)

Ildo horien arabera, Jendraschekek seinalatzen du eboluzio diakroniko dibergentea izan dela Pirinioetako alde batera eta bestera, bai gai hurbilean... (Jendraschek 2007: T71, neuk euskaratua):

- |       |                          |                    |                                 |
|-------|--------------------------|--------------------|---------------------------------|
| (512) | <i>Euskara klasikoa:</i> | paga ahal dezakezu | ezin paga dezakezu              |
|       | <i>Iparraldea:</i>       | pagatzen ahal duzu | ez duzu pagatzen ahal           |
|       | <i>Hego-mendebaldea:</i> | paga(tu) dezakezu  | ezin duzu pagatu <sup>321</sup> |

Baita gai urrunean ere (Jendraschek 2007: T77): <sup>322</sup>

- |       |                          |                     |                      |                              |
|-------|--------------------------|---------------------|----------------------|------------------------------|
| (513) | Birtualtasun gradua →    | orainaldiko         | geroaldiko           | ahalezko                     |
|       |                          | baldintzapekoa      | baldintzapekoa       | baldintzapekoa               |
|       | <i>Euskara klasikoa:</i> | <i>erosten nuke</i> | <i>erosiko nuke</i>  | <i>eros abal nezake</i>      |
|       |                          |                     | <i>(eros nezake)</i> |                              |
|       | <i>Iparraldea:</i>       | <i>eros nezake</i>  |                      | <i>erosten abal(ke) nuke</i> |
|       | <i>Hegoaldea:</i>        | <i>erosiko nuke</i> |                      | <i>eros nezake</i>           |

Bilakaera hau azaltzeko, autoreak diosku prozesu desberdin bi —hipoanalisi eta hiperanalisi— aplikatu zaiola egitura klasikoari, zeinak *abal/ezin* partikulak eta *-(te)ke* hizkia batzen baitzituen:

*"Ce n'est qu'en basque classique (du nord) que les particules et -ke coexistent dans le même complexe verbal, et il semble que cette coexistence y est générale."* Jendraschek (2007: 239)

<sup>321</sup> Ipar-ekialdeari dagokionean, datuok bat datoz gutxi gorabehera Lafitterenekin, baina honek testu nagusian *-(te)ke* hizkiaren bidezko formak azaltzen ditu eta oharrean baino ez du adierazten partikulen bidezko egiturak haien baliokideak direla lapurtera eta nafarrera literarioetan (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 695, oharra); izan ere badirudi lehenengo erabilera formalago edo dotereagotzat jotzen dela. Dena dela egungo erabilera, asumituko dut euskalki horietan ere *dezaket* formaren antzekoek, erabili direnean, ahalerazko zentzua dutela. Adibide franko aurki daiteke literaturan. Itzulpenak ez du zalantza izpirik uzten Duvoisinin *Bibliakoetan*: "*Nabi baduzu, garbi nezakezu [=nazakezu].*" (*Mark, 1:40*). (*If thou wilt, thou canst make me clean.*) Egoera desberdina da gai urruneko adizkien kasuan, segidan ikusiko denez.

<sup>322</sup> Terminologia ez dator bat txosten honetakoarekin.

Geroztik *ahal dezake* bezalako esapideak pleonastikotzat (Lafitte<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 656) edo oso markatutzat (Jendraschek 2007: 250) jotzen badira ere, argi dago hasiera batean bakoitzak, partikulak eta adizkiak, berariazko ekarpena egiten ziola egiturari:

*“En basque classique, ahal se combine avec dezake etc. au présent [...] eta avec lezake à l’hypothétique en raison d’une compatibilité sémantique. Ces auxiliaires sont, par leur caractère « virtuel », plus compatibles avec le sémantisme des particules. Inversement, les particules permettent de désambiguïser les diverses fonctions des formes en -ke.”*  
Jendraschek (2007: 251)

Jendrascheken aburu, funtsean *-(te)ke* hizkiaren zentzua birtualtasunari legokioke, ahalezkotasuna edo honen gabezia *ahal/ezin* partikula bikoteari:

*“Une action POSSIBLE (ahal) n’est pas que VIRTUELLE (-ke), d’où la solidarité entre les deux morphèmes.”* Jendraschek (2007: 251)

Azken aipamen hau txertaturik dago hiper- eta hipo-analisien prozesuen azalpenean. Hona hemen:

*“Dans le cas d’une **hyperanalyse**, la fonction de l’élément sémantiquement moins important est attribuée à l’élément sémantiquement dominant. Dans la séquence ahal dezake, ahal est sémantiquement dominant parce qu’il véhicule la notion de possibilité, tandis que dezake est sémantiquement subordonné, car son apparition est déclenchée par ahal. L’auxiliaire souligne la virtualité de la situation décrite [...] Une action POSSIBLE (ahal) n’est pas que VIRTUELLE (-ke), d’où la solidarité entre les deux morphèmes. C’est la combinaison*

*des deux qui exprime la valeur sémantique de la construction entière.*

*L'hyperanalyse consiste en l'attribution de cette valeur à ahal seul ; [...]*

*“Dans le cas d'une **hypanalyse**, la fonction du contexte est attribuée à un élément qui apparaît typiquement dans ce contexte. Comme la forme dezake apparaît typiquement avec ahal dans un contexte de possibilité, elle adopte cette fonction elle-même.” (Jendraschek 2007: 251-252)*

Birtualtasun hori zertan datzan zehaztu beharra badago ere, analisi honek azal dezake zergatik Leizarragak ez duen sekula erabiltzen (ez soilik “tipikoki”) *ahal* edo *ezin* partikularik gabe *daite* (=daiteke) nahiz *dezake* ezta *zaitkeen* (=zaitkeen) zein *dezakeen* adizkien modukorik perpaus nagusietan (-n konjuntiboaz horniturik bai, erlatiboko zein denborazko perpausetan).<sup>323</sup> Adizkien interpretazioa perpaus menderatuetan GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ ,  $O^n$ ) zentzura muga badaiteke<sup>324</sup> ere (inoiz hurbil ahaleratik<sup>325</sup> eta +BARETUA baliotik<sup>326</sup>), badirudi perpaus nagusietan \*EDIN/\*EZAN aditzen orainguneko eta iraganaldiko *-(te)ke* hizkidun formen interpretazio posible bakarrak hortatiboa eta ahalerakoa zirela:<sup>327</sup>

(514) TAM sistemako postulatua 117.  
 (+AD  $\wedge$  <+(te)ke>  $\wedge$  -κDEP  $\wedge$  (ORAINGUNEAN( $\hat{O}$ )  $\vee$  IRAGANALDIAN( $\hat{O}$ )))<sup>328</sup>  $\rightarrow$   
 ([-deskr]  $\vee$  [+ahal])

<sup>323</sup> Baina alegigunekoak (inoiz) bai, eta *date* (=dateke) eta *duke* bezalakoak bai partikula horiekin bai bakarrekin erabiltzen zituen.

<sup>324</sup> “Eta *espaitzezaten ezagut dilubioa etbor zedino, eta guztiak* eraman zitzaizkete” (Leizarragaren Testamentu Berria, Mat. 24: 39). (‘And knew not until the flood came, and took them all away’.)

<sup>325</sup> “Hala *zuek ere baldin* adi daitekeen hitza [gr. *‘eúsēmon*] *mibiaz pronuntia espadezazue, nolatan adituren da erraiten dena?*” (Leizarragaren Testamentu Berria, Korinth. I 14: 9) (‘So likewise ye, except ye utter by the tongue words easy to be understood, how shall it be known what is spoken?’)

<sup>326</sup> “[...] *eia noizpait Iainkoak urrikimendu eman diezakeenez egia*ren ezagutzeko” (Leizarragaren Testamentu Berria, Tim. II 2: 25). (‘if God peradventure will give them repentance to the acknowledging of the truth’.)

<sup>327</sup> Arrazoia, berriro ere, aspektuzkoa da: aditzon ekintzazkotasun balioak [+tf, +mom] izanik, gai hurbileko soil gisa bakarrik jaso dezakete aginterako interpretazio bat; *-(te)ke* hizkiak dakarkeen birtualtasunaz horniturik, izatetik ez izaterako igarobidea adierazten dukete, hots, ahalezkotasuna.

<sup>328</sup> Alegiguneko adizkien kasua desberdina da nolabait. Ikusi aurrerago.

Hau da:

- (515) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 77.  
(+AD  $\wedge$  <+(te)ke>  $\wedge$  -κDEP  $\wedge$  (ORAINGUNEAN(Ô)  $\vee$  IRAGANALDIAN(Ô))  $\wedge$   
[+deskr])  $\rightarrow$  [+ahal]

Hala ere, bai +AD aspektu operatzailearen, bai -(te)ke hizkiaren zentzua zabalagoak ziren eta euskara klasikoa, [+ahal] esanahi eratorri horrek ahalezkotasunaren bestelako adierazpen lexikalen laguntza eskatzen bide zuen:

- (516) [= (318)] Etiketa eta definizioa 72. TAM sistemako postulatua 58.  
(a) <±ahal> : gertaerak errotiko ahalezkotzat (*as a root possibility*) aurkeztearen edo ez aurkeztearen adierazpen lexikala (*ahal, ezin*, baita garai batetik hona \*IRON eta EGIN aditzen formak ere)  
(b) <+ahal>  $\rightarrow$  [+ahal]

- (517) TAM sistemako postulatua 118. (Euskara klasikorako.)  
(+AD  $\wedge$  <+(te)ke>)  $\rightarrow$  ([+ahal]  $\rightarrow$  <+ahal>)

Hori aldatu bide zen hipoanalisi eta hiperanalisi prozesuen bidez. Hona hemen garai eta euskalki ezagun guztietarako balio duen formulazio zabalago bat:

- (518) TAM sistemako postulatua 119.  
[+ahal]  $\rightarrow$  ((+AD  $\wedge$  <+(te)ke>)  $\vee$  <+ahal>)

Euskara klasikoan <+ahal> balioko partikulak (*ahal, ezin*) honelako testuinguruetan ager zitezkeen:

- +AD aspektu balioko aditzen formekin, gehienetan -(te)ke hizkiaz horniturik, inoiz (bereziki \*IRO(N) aditzaren formekin) hura gabe.<sup>329</sup>

---

<sup>329</sup> Hona hemen interes handiko salbuespen bat, ETORRI aditzaren gai hurbileko adizki trinko soil baten agerraldi bakarra (aginte adizkiez kanpo):

“Nebor ezin datbor engana, baldin ni igorri nauen Aitak tira espadeza: eta nik resusçitaturen dut hura azken egunean.” (Leizarragaren Testamentu Berria, Ioan 6: 44) (‘No man can come to me, except the Father which hath sent me draw him: and I will raise him up at the last day.’)

\*IRO(N) aditzaren formekiko agerraldiak adibide honen analogian uler daitezke.

- +AD balioko adizkien subjuntiboko <+n> balioko formekin.<sup>330</sup>
- +PRO balioko geroaldi perifrastiko arruntarekin zein *dateke*, *duke* eta antzeko adizki trinkoekin, geroa ahalezkotasuna adierazteko.<sup>331</sup>
- –INTRA balioko *-tu motako partizipioa* + *IZAN/\*EDUN aditz laguntzailea* egiturarekin, iraganiko ahalezkotasuna adierazteko.<sup>332</sup>
- +INTRA balioko *-t(z)en motako partizipioa* + *IZAN/\*EDUN aditz laguntzailea* egiturarekin, beti ere adieraziz ahalezko gertaera ez dagoela indarrean ikuspegiaren unean, baizik eta geroa zerbait izan datekeela.<sup>333</sup>

Honelako erabilerek literatura tradizio luzea izan dute ekialdeko euskalkietan. Mendebaldeko euskalkietan eta oraingo hizkuntza estandarrean bestelako aspektu jokaera aurkitzen da: aspektu markak *ahal (izan)* eta *ezin (izan)* esapideei atxikiz, non *sartu ahal nai*z esatean ez den adierazten iraganiko ahalmen bat, baizik eta oraingoa.<sup>334</sup> Erabilera guztiok azaltzeko kontuan hartu behar da ahalezkotasunaren zentzuak eskatzen duela aurretik-edo so egitea gertaeraren (funtsezko zein intereseko) mugari.

<sup>330</sup> Adibidez: “*Gloria ahal nadinzat Kristen egunean*” (*Leizarragaren Testamentu Berria, Fil. 1: 16*) (‘that I may rejoice in the day of Christ’).

<sup>331</sup> Hona hemen adibide bat: “*Ezen etborri da haren hiraren egun handia: eta nor da igurikiren ahal duena?*” (*Leizarragaren Testamentu Berria, Apokalipsea 6: 17*) (‘For the great day of his wrath is come; and who shall be able to stand?’)

<sup>332</sup> Esaterako: “*Hunek [egin] ahal duena egin du*”. (*Leizarragaren Testamentu Berria, Mark 14: 8*) (‘She hath done what she could’).


Eta horren antzera: “*egin ahal dudana fidelkiena egin ukan dudala*” (*Leizarragaren Testamentu Berria, Erreginari eskaintza*) (‘that I hath done the most accurate I could’).

<sup>333</sup> Hau ezin hobeto erakus daiteke Leizarragaren eta Duvoisinin *Korintb. I 7:21* (‘if thou mayest be made free’) pasartearen itzulpenak aurrez aurre jarriz, hurrenez hurren: “*libre egin ahal babadi*” eta “*libratzen ahal balin bazare*”.

<sup>334</sup> Mounolek erakutsi duenez (2011: 125), mendebaldean erabilera hau XVI. mendetik datorkigu gutxienez.



*Pace* Altube, (147)-gatik, muga hori ezin bat etor daiteke O<sup>1S</sup> kasuko hizketagunearekin. Horrek ulergarri egiten du XVI. mendeko erabilera berezi hura zeina 329. oin-oharrean aipatu den:




*Ahal/ezin* + *adizki trinko soila* egitura soilik agertzen da [+tf] ekintzazkotasun balioko aditz esaerekin. Besteekin derrigorrezkoa da *-(te)ke* hizkiaren agerraldia:

(520) “Ezen baldin resuma bat bere kontra partitua bada, *ezin danke* [< dagoke] resuma hura”. (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Mark 3: 24) (*‘And if a kingdom be divided against itself, that kingdom cannot stand.’*)


Adibide hau oso argigarria da. Izan ere, baldintza bete dela suposatuz, Altuberen terminoetan dagoeneko demostratzen ariko litzateke ezintasun hori. Hala ere, ahalerak *dagoke* adizkia eskatzen du (edo bestelako adizki perifrastikoren bat) eta ez du onartzen *dago* adizki soila. Honek erakusten du bereiztu behar direla gertaeraren mugaren kokagunea eta horri dagokion *ahal* zein *ezinarena*. Berau, gertaera muga baino lehenagokoa da definizioz:<sup>335</sup>

(521) *Etiketa eta definizioa 103. TAM sistemako postulatua 120.*  
 (a) L<sub>A</sub> : ahalaren zein ezinaren lokalizazio puntua  
 (b) [+ahal] → (L<sub>A</sub> ↗ M)


Gai hurbileko adizki trinko soilekin, naturala da L<sub>A</sub> horren eta Ô orientazio puntuaren identifikazioa, aditz esaera [+tf] bada:




Baina ezinezkoa da bestela:



Gai hurbileko adizki trinko soilak orainguneko ahalmen bat adierazteko balio behar luke, baina horren lokalizazio puntua igaroa litzateke. Hori adierazteko aspektu burutuaren erabilera izan da bide klasikoa, 332. oin-oharreko aipamenetan legez:



Egungo (hego-mendebaldeko) euskara estandarrean, horrelako egiturek beste zerbaite esan nahi dute:



Honelako erabileran badirudi *-tu (motako) partizipioa + abal/ezin + IZAN/\*EDUN* egituren partizipioaren aspektua desaktibatutik dagoela. *Abal* eta *ezin* aspektudun aditz gisa erabiltzen dira orduan: *egin abal izan dut*, *egin*

<sup>335</sup> Horrez gain, ahal izandako gertaera irrealizat aurkezten da, ahalmen bera zerbaite errealtzat jo daitekeen bitartean.

*abalko dut...* Errepresentazio grafikoak erakusten duenez, adierazitakoa ez da oso desberdina, horra heltzeko bidea bai: eredu berri honetan aspektu operatzaileek  $L_A$ -ren kokapena zehazten baitute artez.

(526)

$ -\otimes$ $\neq$	Egin
$ -\otimes$ $L_A \ll \dots \hat{O}^s \dots$	ahal izan dudana fidelkiena (egin izan dudala)

Horrelako bilakaerarik ez da aurkitzen ipar-ekialdeko euskaran. Gure *egin abal* egituraren ordean, *egiten abal* hobesten da han. 333. oin-oharreko aipamenek erakusten dutenez, zentzua +AD balioko adizkien parekoa da:

(527)

$ -----\otimes$ $\neq \hat{O}^2$	Libre egin ahal bahadi
$\dots \hat{O}^{1s} = L_A \dots$	

Hots, bigarren orientazio puntu baten bidez geroan proiektatua:

(528)

$\times----- $ $\dots \hat{O}^2 \dots$ $\neq$	Libratzen ahal balin bazare
$\hat{O}^{1s} = L_A$	

Gerorako proiektzio hori esplizitua da 331. oin-oharrean aipaturiko beste egitura honetan:

(529)

$\times- $ $\dots \hat{O}^2 \dots$ $\neq$	Igukiren ahal du
$\hat{O}^{1s} = L_A$	

Txatal honetan zehar argudiatuko dudanez, berdina gertatzen da *-(te)ke* hizkidun formekin. Horien arteko batzuekin zuten *abal/ezin* partikulek

afinitate berezia euskara klasikoan: +AD balioko \*EDIN/\*EZAN (EGIN) aditzen formekin.<sup>336</sup>

Nire ustez, horrek esan nahi du ezin dela besterik gabe onartu *ahal/ezin dezake* eta antzeko egituretan osagarri bat (*dezake*) mendekoa eta bestea (*ahal/ezin*) semantikoki nagusia direnik. Baieztapen hori zuzena dateke geroztiko bilakaera diakronikoa kontuan hartuz gero, baina euskara klasikora ikuspegi sinkroniko batetik so eginik, egitura alternatiboak egonda ere, *ahal/ezin* partikulek bazuten gerokotasunaren beharra, zeina nabarmenki adieraz baitaiteke *-(te)ke* hizkidun eta +AD aspektuko adizkiez, eta horrek azaltzen du egitura bikoitzen erabilera. Ondoko emaitza inplizitu zegoen (518)-ko postulatuan:

(530) TAM ondorioztaturiko teorema 78.  
[+ahal] → (<+ahal> ∨ +AD)

Zein da orduan *-(te)ke* hizkiaren zentzua? Erantzun zuzena emateko kontuan hartu behar dira ekintzazkotasun-aspektu balioen eta hizkiaren harremanak: \*EDIN eta \*EZAN aditzekin konbinaturik ahalera adierazten zen; mementozko ekintzazkotasunik barruratzen ez duten aditzekin, aldiz, *-(te)ke* hizkiak bestelako irakurketak ditu: geroaldia, betierako orainaldia,<sup>337</sup> aierua... (ik. Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: I, 449) eta *ahal/ezin* partikulekin batera, baita ahalezkotasuna ere.

Zentzu anitzok atzemateko baliagarria dukegu Jendraschekek erabilitako “birtualtasun” kontzeptua. Lafon “zehazgabetasun” (*indétermination*) batez mintzo zen:

“Nous avons montré [...] que le suffixe -ke sert essentiellement à marquer une indétermination.” (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: I, 448)


---

<sup>336</sup> Geroztik *ahal dezake* eta antzeko esapideen bikoiztasuna pleonastikotzat sentituko zen, egitura konplexuetatik osagarrietako bat galaraziz.

Birtualtasun edo zehazgabetasun hori aspektu ikuspegiko ( $\hat{O}^{n+1}$ ) eta jatorrizkoagoa den ( $O^n$ ) orientazio puntuen aldentze gisa uler dezakegu. Aldentze hori era desberdinetan eman daiteke:


- Aldentzea denborazkoa, moduzkoa, edo denborazkoa eta moduzkoa izan daiteke.
- Inoiz gerokotasun hori ondorengotasun huski denborazkora muga daiteke (ONDORENGOA( $\hat{O}^{n+1}$ ,  $O^n$ ):  $O^n \langle \hat{O}^{n+1}$ ).<sup>338</sup> Grafikoki:

(531)



- Aldentzea huski moduzkoa denean zentzu neustikoan ematen da (+BARETUA).<sup>339</sup>

(532)





- Aurreko puntu biok atzeman daitezke onartuz hizkiak +PRO operatzailea kodetzen duela.
- Aldentzea bai denborazkoa, bai moduzkoa ere bada, aplikagarria da GERTAGARRIA predikatua,  $O^n \not\prec \hat{O}^{n+1}$ , (eta, ondorioz, GEROKOA predikatua ere bai,  $O^n \langle \hat{O}^{n+1}$ ). Gertagarritasun honen

<sup>337</sup> Puntu hau kritikatuko dut segidan.

<sup>338</sup> Esaterako (Lafitte 11944, 82008: § 695): “Bihar goizean Baionan dateke.” (*Tomorrow morning (s)he will be in Bayonne.*)

<sup>339</sup> Hala nola (Lafitte 11944, 82008: § 695) “(h)arrabots hori entzuten dukezu” (*you are surely hearing that noise*).

berariazko kasu bat da ahalezkotasun zentzuarena ([+ahal]), +AD aspektu operatzailearekin zein *ahal/ezin* partikulekin batera.



Honelakoetan +PRO eta +AD operatzaileak konbinatu egiten dira, +PRO (+AD) balio sortan. Konbinaketa hau ezin egokiagoa suertatzen da ahalezkotasunaren adierazpenerako. Honek zentzu zehatzago batean bihurtzen du ulergarri *ahal/ezin* partikulen eta \*EDIN/\*EZAN (EGIN) aditzen *-(te)ke* hizkidun formen arteko elkartasun zein bateragarritasuna. Pentsa daiteke, halaber, elkartze horretan gerokotasuna dela eta ez +BARETUA balioa *-(te)ke* hizkiaren zentzutik hartzen dena:

(535) TAM sistemako postulatua 121.  
 (+AD  $\wedge$  [+ahal])  $\rightarrow$  -BARETUA

Inoiz, konbinaketa forma aldetik konplexuagoak ematen dira, hala nola geroaldi bikoitz bereziarekin.<sup>341</sup> Hona hemen geroaldi perfektuarekin konparaturik modu bitan: +PRO (-POST) eta <sup>2</sup>+PRO (+PRO (-POST)) gisa ulerturik.

<sup>340</sup> Esaterako: “... *ezin bere anaie dakusana maite eztenak, ikusten ezten Iankoa nola maite abal duke?*”. (*Leizarragaren* Testamentu Berria, *Ioanen ep. I 4: 20*) (‘... for he that loved not his brother whom he hath seen, how can he love God whom he hath not seen?’)

<sup>341</sup> Ik. Lafon (1944, 1980: II, 69); Lafitte (1944, 2008: § 740).

(536)

- ⊗	- ⊗	sarturen dateke, ikusiren duke sartu(a) dateke, ikusi(a) duke
- ⊗		
O <sup>1S</sup>	< ..Ô <sup>2</sup> ..	

(537)

- ⊗	- ⊗	sarturen dateke, ikusiren duke sartu(a) dateke, ikusi(a) duke
- ⊗		
O <sup>1S</sup>	< ..Ô <sup>2</sup> .. < ..Ô <sup>3</sup> ..	

- Azkenerako laga dut Lafonen ustez “betierako orainaldiko” baten zentzua dena. Dakarren adibide gehienetan beste zerbait erakusten da: gertaera ez dagoela indarrean hizketagunean, baizik eta geroko edo baldintza batzuen mendeko kasuetan, hizkiaren aurreko interpretazioetan jaso dena. Baina badago kasu interesgarri bat zeinetan badirudi hizkiaren funtzioa dela [+t] ekintzazkotasun baliotik [-t] baliora pasatzea:

(538) “... zein *Iuduren* laudorioa ez *baitatorke* gizonetarik baina Iainkoaganik”.  
(Leizarragaren *Testamentu Berria*, Erromatarrak 2: 29) (*‘... whose praise [is] not of men, but of God.’*)

Izan ere, *etorri* aditzaren *-(te)ke* hizkidun adizkientzat proposatu berri dudan interpretazioa bat dator Lafonek berak luzatuarekin *ekarri* aditzekoentzat, orainaldian zein iraganaldian:

*“Le présent à suffixe -ke de ekharri exprime un procès sans terme dans*

*Gal., 6, 17 : Iesus Iaunaren mercác daczquet neure gorputzean « ie porte en mon corps les flestrissures du Seigneur Iesus »;*

*la forme relative sans suffixe -ke exprime un procès à terme dans Jn, 15,*

*8: hunetan da glorificatu ene Aita, fructu anhitz daccarraçuen*

« mon Pere a este glorifié en cela, que vous apportiez beaucoup de fruit ».” (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: I, 448)

“Enfin, l’adjonction du suffixe -ke au prétérit de ekarri indique que le procès qui avait lieu ne tendait pas vers un terme défini et n’a pas abouti à un terme défini : çacarquela (Jn, 19, 5 et 17) [...] « portant »; « apportant » est rendu, au verset 39 du même chapitre, par la forme périphrastique ekarten çuela.” (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: I, 450)

Zentzu hau [+hom] tasunaren bidez jaso dezakegu: <sup>342</sup>

(539) [+t] + [+hom] > [-t]:

Baina erabilera zahar hura bazterturik, honela laburbil daiteke hizkiaren balioa:

(540) TAM sistemako postulatua 122.  
<+(te)ke> → (+PRO ∨ [+ahal])

Beraz:

(541) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 79.  
<+(te)ke> → (+PRO ∨ +AD ∨ <+ahal>)

Hortik:

(542) TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 80.  
<+(te)ke> →  
(GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ ,  $O^n$ ) ∨ +BARETUA ∨ AD ∨ <+ahal>)

Hau da, atzizki hau +PRO operatzailearen gauzapenetako bat da (bestea -(tu)ko motako partizipioa + IZAN/\*EDUN adizki laguntzailea egitura dugu).

---

<sup>342</sup> Ikus (93)-ko definizioa.



Proposamen honek, alde batetik, egokiro jasotzen ditu Lafonen oharrak:

*“[...] la valeur fondamentale du présent à suffixe -ke ; il exprime un procès envisagé dans le plan de la réalité, mais dont on n’affirme pas qu’il a présentement et effectivement lieu : il peut avoir lieu, il pourra avoir lieu, il aura lieu; la pensée basque, a u moins à date ancienne, ne distinguait pas nettement entre ces trois nuances.” (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: I, 94)*

Bestetik, koherentea da *ba-* eta *al* (> *ai-*) hizkientzat eman dudan azalpenarekin, aurrizkiok eta *-(te)ke* atzizkiaren arteko konbinazintasunaren arrazoia emanez.<sup>343</sup> Eta, batez ere, *-(te)ke* hizkidun formen esanahi anitzen azalpen erraza eskaintzen du. Aniztasun honen agerpenik argiena Leizarragaren euskara klasikoan dugu:

*“Les textes de Liçarrague [=Leizarraga], seuls parmi ceux du XVI<sup>e</sup> siècle, permettent de se faire une idée assez complète des modes variés d’indétermination que le suffixe -ke peut exprimer. En général, un de ces emplois s’est fixé, à l’a exclusion des autres, dans chaque dialecte, au cours de l’histoire de la langue. Ainsi, en souletin actuel, le présent à suffixe -ke exprime essentiellement le futur et secondairement la probabilité.” (Lafon <sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980: I, 450)*

Honen arabera, zubereraz hizkiari dagokion zentzua ( $O^n \langle \hat{O}^{n+1} \rangle$ ) eskemakoa dateke; hala ere, ezin bazter dakioke kutsu modala (XVII. mendeko Tartasen *Onsa hilzkeko bidia* izkribuan, adibidez, *date* adizkiaren agerpen guztiak baldintza edo balizko egoera baten mendekoak dira).

---

<sup>343</sup> Euskara klasikoaren *egin abal badezat* egituraren ordez, egungo euskarak *egin badezaket* onartzen badu, arrazoia hizkiaren fosilizazio prozesu batean aurkitu beharra dago: ikusi Jendraschek (2007: 239).

Ondorioz zuzen atxiki dakioko GEROKOA predikatu zentzu anitzekoa:  
 $(O^n \langle O^{n+1} \rangle)$ .

Bestalde, lapurtera eta nafarreran goiko aipameneko zubereraren alderantzizko bilakaera aurkitzen dukegu: ahalera adierazten duten *daiteke* edo *dezake* bezalakoek albo batera lagaturik, *dateke* edo *duke* legezkoek —laguntzaile gisa— aierua adierazteko balio dute, eta Lafitteren aburu (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 695) inoiz ez geroaldia, zeina aditz trinkotzat erabilia adieraz baitezakete. Interpretazio nagusia +BARETUA baliokoa den arren,  $(\hat{O}^{n+1} \not\prec O^n)$ , berriro ere badaude bide biak zabalik eta hizkiaren zentzua +PRO operatzailearena da.

Aieruerako erabilera horretan, *-(te)ke* hizkiak<sup>344</sup> kodetzen duen +PRO operatzailearen zentzua *hitxemate neustiko baretua indikatzaiera* mugatzen da. Izan ere, +BARETUA balioak eskatzen du +PRO operatzailea ager dadin bide batez *-(tu)ko* motako partizipioaz) edo bestez *-(te)ke* hizkiaz):

(543) TAM sistemako postulatua 123.  
 +BARETUA → +PRO

(544) TAM sistemako postulatua 124.  
 +PRO ↔ (<+(tu)ko> ∨ <+(te)ke >)<sup>345</sup>

*-(te)ke* atzizkiaren irakurketa modala derrigorrezkoa izango da (i) denborazko irakurketa hutsa eragotzirik dagoenean edo beste faktore batengatik (+AD aspektu balioa, adibidez) dagoeneko ageria; eta (ii) +FAR balioa gehitzen zaionean.<sup>346</sup>

<sup>344</sup> Eta berdin esan daiteke *-(tu)ko motako partizipioa* +IZAN/\*EDUN laguntzailea egituraz.

<sup>345</sup> Hala ere, (336)-gatik, biotatik bakarrik *-(te)ke* atzizkiak bihur ditzake gramatikal bestela agramatikalak diren adizkiak.

<sup>346</sup> Baldintza hauek nahikoak dira +BARETUA balioa izateko, baina ez dira ezinbestekoak, hots horrelakorik bete gabe ere izan dezake adizkiak +BARETUA balioa.

- (545) TAM sistemako postulatua 125. Ondorioztaturiko teorema 81.  
 (a)  $\langle + (te)ke \rangle \wedge (+AD \vee +FAR) \rightarrow (+BARETUA \vee [+ahal])$   
 (b)  $\langle + (te)ke \rangle \wedge [HORTATIBOA] \rightarrow +BARETUA$

Baldintza baten ondorioaren adierazpenerako ere aldentzeren batez baliatu beharra dago sarri. Aurreko txatalean ikusi da horretarako arrazoï bat: baldintzako gertaeraren funtsezko zein intereseko muga orientazio puntuaren ondokotzat joz gero, ondorioarena ere berdintsu. Hori prospektibo perifrastiko arruntaren bidez gauza daiteke, baina  $\langle + (te)ke \rangle$  balioko adizkiez ere bai. Euskalki guztietan mantendu da erabilera hau gai urrunean. Gai hurbilean desagertua zaigu hego-mendebaldeko euskaran. Hala ere, erabilera zaharretik intereseko irakaspenak lor daitezke atzizki horren esanahiaren interpretaziorako. Leizarragaren zenbait adibide mahairatuko ditut puntua argitzeko:

- (546) eta baldin zenbeitek egin badu bekatuik, badugu adokat bat Aita baithara, Jesus Krist iustoa. (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Ioanen ep. I 2: 1)

*(‘And if any man sin, we have an advocate with the Father, Jesus Christ the righteous’.)*

- (547) beraz baldin hire begia simple bada, hire gorputz guzia ere argi dukek: baina gaixto bada, hire gorputza ere ilhun dukek. (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Luka 11: 34)

*(‘therefore when thine eye is single, thy whole body also is full of light; but when [thine eye] is evil, thy body also [is] full of darkness.’)*

Grezierazko jatorrizko testuan, protasiko aditza subjuntiboan dago kasu bietan eta apodosikoa indikatiboko orainaldian. Zeri zor zaio itzulpen desberdintasuna? Bada, lehenengo testuan ondorioa ez litzatekeela aldatuko baldintza bete ezean, ez dago benetan baldintzapean, eta horregatik Leizarragak erabili zuen indikatiboko orainaldia. Bigarren testuan, aldiz, ondorioa badago baldintzapean, eta itzultzaileak  $\langle + (te)ke \rangle$  balioko forma egokitu zion. Horren aldentzea ez da denborazkoa baizik eta moduzkoa, +BARETUA balioarena. Ondorengotasunik ez, baizik eta hitzmate neustikoaren baretzea adierazteko balio duten adibide franko aurki daitezke gai urrunetan ere, iraganeko zein alegiazkoak. Hona hemen bana:

- (548) O gizonak, behar zatekeen ni sinhetsirik Kretatik ezkinen partitu, eta ihes egin peril eta kalte huni. (Leizarragaren *Testamentu Berria*, Akteak 27: 21)

*(‘Sirs, ye should have bearkened unto me, and not have loosed from Crete, and to have gained this harm and loss.’)*

- (549) Orai gure trajeriaz nahi nintzate mintzatu, atenzione ukheitiaz nahi züntükeiet othoitü. (Jakes Oihenarte: *Kaniko eta Belxitina*. “Martxa”)


*(Now I’d want to tell you about our tragedy, I’d want to ask your attention.)*

Honelakoen zentzu neustikoak ez bide du eztabaidarik: Lafitteren arabera (<sup>1</sup>1944, <sup>8</sup>2008: § 695) horrelako adizkiak adierazpidearen baretzaileak dira, Lafonen ustez (<sup>1</sup>1944, <sup>2</sup>1980 I: 432), haien bidez baretzen dena baiespena da.


Aurreko adibideetan ez bezala, hori gerta daiteke baita protasia esplizituki adierazita ere:

- (550) Orai zien presentziak plazer balin balü; nahi nintzate kargü hau beno handiago batetan sarthü. (Jakes Oihenarte: *Kaniko eta Belxitina*. “Trajeriaren ündar phartia”)

Ondorioz, gai urruneko +AD aspektukoak ez diren adizkiei dagokien eskema honela marraz dezakegu, iraganaldiko adibideetatik hasita:



Eta alegigunekoekin jarraiturik:



Ikusia dugunez zenbait autore mintzo dira “aieruera” moduz. Aierueraz adierazten dena posibilitate epistemikoa dateke, ahalerari dagokion errotiko posibilitatetik bereizitakoa:

- (553) *Etiketa eta definizioa 104.*
- (a) [AIERUERA] : [+deskr] balio tropikoko frastikoa erabateko ziurtasunik gabe adierazteko modua/modalitatea
  - (b) [AIERUERA] =<sub>def</sub> +BARETUA  $\wedge$  [+deskr]  $\wedge$  [-ahal] <sup>347</sup>
- (554) *Etiketa eta definizioa 105. TAM sistemako postulaturak 126.*
- (a) [AHALERA] : gertaera errotiko ahalezkotzat (*as a root possibility*) adierazteko aditz modua/modalitatea
  - (b) [AHALERA]  $\leftrightarrow$  [+ahal]

Geroaldi “arkaikoak” eta aieruerak komun dutena jatorrizko eta ikuspegiko orientazio puntuen aldentzea da. \*EDIN eta \*EZAN (EGIN) aditzen kasuan, *-(te)ke* hizkiak markaturiko aldentze horri gehitzen zaiona aspektu berezi bat da, +AD. (515)-ean aurreratu dudanez, alegigunetik kanpo [+ahal] baliokoa da horren irakurketa balio klistiko osoko esapide ez hortatiboetan. Jendraschekek deskribaturiko hipoanaliaren ondorioz horixe nahikoa da hego-mendebaldeko euskalkietan ahalera adierazteko (baina ipar-ekialdekoetan gai hurbilekoak erabileretik kanpo daude, iraganaldikoak areago, eta alegigunekoek ez dute ahalerako zentzurik, ondore arrunt gisa erabiltzen

<sup>347</sup> Definizio hau dela eta, aieruera da *-(te)ke* hizkiaren interpretazioetako bat.

direla, baldintzapeko aieruera gisa), hori lexikalki barruratzen duten esapideen beharrik gabe. Gai urrunean, emaitza hau aurreko zenbaiten aplikazioa da:

$$(555) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 82.} \\ \langle + (te)ke \rangle \wedge [+deskr] \wedge +AD \wedge +FAR \rightarrow \\ ([AHALERA] \vee [AIERUERA])$$

Gai hurbilean, hipo- eta hiper-analisiek murriztu dituzte aukerak:

$$(556) \quad \text{TAM sistemako postulatua 127.} \\ \langle + (te)ke \rangle \wedge [+deskr] \wedge +AD \wedge -FAR \rightarrow [AHALERA]$$

Elkarren osagarriak dira emaitza hori eta alderantzizko hau: gai hurbileko ahalerak  $\langle + (te)ke \rangle$  edo  $\langle +ahal \rangle$  balioetako bat behar duela.

$$(557) \quad \text{TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 83.} \\ (-FAR \wedge [+ahal]) \rightarrow (\langle +ahal \rangle \vee \langle + (te)ke \rangle)$$

Areago, zera onartuz gero, mendebaldeko euskararen *nei*, *lei* eta antzekoen ahalaria zentzua ezinbestekotzat jotzen dela, eta hau hipoanaliaren ondorioa dela, honelako formak  $\langle + (te)ke \rangle$  baliokoen alomorfoak izanik, orduan termino orokorragoetan jar daiteke aurreko emaitza:

$$(558) \quad \text{TAM TAM sistemako ondorioztaturiko teorema 84.} \\ [+ahal] \rightarrow (\langle +ahal \rangle \vee \langle + (te)ke \rangle)$$

Dagoeneko (518)-ko postulatuan inplizitu zegoena.


Nire ustez, hipoanaliaren prozesua eta aditzotako formek XVI. eta XVII. mendeen artean izan zuten esanahi aldaketa txanpon beraren alde biak dira. Desplazamendu semantikoa ezin argiago ikusteko har ditzagun \*EZAN aditzaren formak eta erka ditzagun Leizarragaren *Testamentu berria* eta Axularren *Gero* idazkietan. Hona hemen aldaketa:

Adizkiak	Leizarraga	Axular
Orainaldiko <+(te)ke> adizkiak (deza/ke...)	+ abal/ezin (salbuespenik gabe): AHALERA	Partikularik gabe/+ abal/ezin: AHALERA
Alegiazko <+(te)ke> adizkiak (leza/ke...)	ONDOREA edo BALDINTZAPEKO AIERUERA + abal/ezin: BALDINTZAPEKO AHALERA	ONDOREA edo BALDINTZAPEKO AIERUERA
Iraganaldiko <+(te)ke> adizkiak (zeza/ke...)	SUBJUNTIBOA + abal/ezin: SUBJUNTIBOKO AHALERA	+ abal/ezin (salbuespenik gabe): SUBJUNTIBOKO AHALERA
Iraganaldiko <-(te)ke> adizkiak (zezan...)	INDIKATIBOKO AORISTOA SUBJUNTIBOA	SUBJUNTIBOA (salbuespenik gabe)

48. taula \*EZAN aditzaren zenbait adizkiaren zentzu Leizarragaren Testamentu berria eta Axularren Gero idazketan.

Iraganaldiko zentzu indikatiboaren galerarekin batera, hots, iraganaldiko zezan moduko adizkiak subjuntibora igarota, <+(te)ke> baliokoak —lehenagotik ere subjuntibokoak zirenak— horri beste zentzuren bat gehitzera behartuta izan ziren. Axularren testuan adizkiok igaro ziren Leizarragarenean orainaldikoez izana zuten egoerara: ahalerako zentzutik banatuak ezin izatera (hortik hipoanalisi prozesua).

Goiko taulak erakusten duenez aldaketarik jasan ez zuten adizkiak alegiazkoak dira. Horrelakoetan, (baldintzapeko) aieruerako zein ahalerako adizkien barruratzen duten eremu errealeko aldentzea ageriagoa da  $O^{1S}$  (edo  $O^{2P}$  «  $O^{1S}$ ) orientazio puntutiko aldentzea bikoizturik dagoelako, hots, ikuspegiaren  $\hat{O}$  kokagunea dagoeneko  $O^{1S}$ -tik bereizitako  $O^{2V}$  bigarren orientazio puntu irreal batetik aldentzen delako:  $((\hat{O} > O^{2V}) \neq O^S)$ . Eskematikoki:



Aldentze bikoitz berak azal ditzake beste fenomeno hau: bizkaieraz -(te)ke hizkidun (agintera baretuaz besteko) formetan neutralizatu egin da gai

hurbil eta urrunaren arteko oposizioa, lehenengoaren formak desagertu egin direla.

Azkenik, hirugarren pertsonako aginteraz kanpo, gai urruneko adizki soil bakarrak ahalerakoak dira: ipar-ekialdeko euskaran gorde den \*IRO(N) aditzekoak (*lir...*) eta hego-mendebaldeko EGIN aditzekoak (*lei...*)<sup>348</sup>. Kasu bietan hizki modalik gabeko +AD aspektudun adizkiak ditugu, eta bietan eman bide da hipoanalisiaren bidezko [+ahal] balioaren eskurapena:<sup>349</sup>

(560) TAM sistemako ondorioztatutako teorema 85.  
(<-hizkiduna> ∧ [+deskr] ∧ +AD) → [+ahal]

Adizkion zentzua hortatiboa ez izanik, beharrezkoa dute [+ahal] balioa.

Honekin osatua dago § 5.7 txatal honetan jorratu beharreko hizki aspektu-modalen sistema. Igaro gaitezen ikuspegi orokor bat eskaintzera.

## 5.8 Euskal aditz moduen sailkapena haien aspektuaren eta balio neustiko, klistiko eta tropikoen arabera

Aditz moduak izendatzeko erabili diren terminoei dagozkien aspektu balioak eta balio tropiko, neustiko eta klistikoak ere taula batean laburbil daitezke:

---

<sup>348</sup> Bizkaieraz honelako formak dira erabilienak (ikusi Arejita, A. & al. 1983: 110).

<sup>349</sup> Honelaxe azal daitezke bai orainguneko *dirat* eta antzekoak baita *nei* eta horrelakoen orainguneko interpretazioa ere.



BALIO NEUSTIKOA →	-SUB IUDICE				+ SUB IUDICE	
	-BARETUA		+BARETUA (BALDINTZAPEAN EDO EZ)		-κDEP	+κDEP
BALIO KLISTIKOA →	-κDEP	+κDEP	-κDEP	+κDEP		
TROPIKOAREN BALIOA ↓						
[+deskr]	Indikatiboa	Indikatiboaren konjuntiboa  Subjuntiboa (GEROKOA)	Aieruera  Ahalera (+AD ∨ <+ahal>)	Aierueraren eta ahaleraren konjuntiboak	Optatiboa (edo “botiboa”)	Baldinera
[-deskr] (+AD)	Hortatiboa		Hortatibo baretua			

49. taula Aditz moduen sailkapena dagozkien balio neustiko, klistiko eta tropikoen arabera.

Bestalde, moduak eta aldiak bezala bereizi ohi direnak, ±FAR, [±*irrealis*] balioen eta GEROKOA predikatuaren konbinaketaren arabera sortzen dira:

		[- <i>irrealis</i> ]	[+ <i>irrealis</i> ]			
			Aldera neustikoak		[+ahal]	[+asmozkoa]
			+SUB IUDICE	+BARETUA (BALDINTZA- PEAN EDO EZ)		
-FAR ORAINGUNEAN(Ó)	¬GEROKOA	Orainguneko indikati <b>bo</b> a	Orainguneko baldinera, optati <b>bo</b> a	Orainguneko aieruera		
	GEROKOA	Orainguneko indikati <b>b</b> o ondorengoa ("geroaldia") eta subjuntibo erreal <b>a</b>		Orainguneko aieruera, 'geroaldi arkaiko <b>a</b> '	Orainguneko ahaler <b>a</b>	Orainguneko subjuntibo <b>a</b> , agint <b>er</b> a
+FAR IRAGANALDIAN(Ó) ALEGIGUNEAN(Ó)	¬GEROKOA	Iraganaldiko indikati <b>bo</b> a	Alegiazko baldinera, optati <b>bo</b> a	Alegiazko aieruera		
	GEROKOA	Iraganaldiko ondorengoa ("geroaldia") eta subjuntibo erreal <b>a</b>		Alegiazko aieruera	Alegiazko ahaler <b>a</b>	Alegiazko subjuntibo <b>a</b>

50. taula Aditz modu-aldi sailkapena.

Koadro bion artean euskal aditzaren gertaeren gaineko ikuspegi sistemaren edo TAM sistemaren ikuspegi bateratu koherente bat lortzen da.<sup>350</sup> Koherentzia hori demostratzeko, adizkiek erakusten duten morfologiaren eta esanahiaren ondorioztapen formala ikus daiteke eranskinean. Honenbestez, ondorio orokorrak atera ditzakegu, ondoko atalean.

---

<sup>350</sup> Lehenengoaren konbinaketa aukerak bigarreanean aplikatuz gero, azken honetan falta diren zenbait paradigma sar daitezke: hortatibo baretua, ahaleraren baldinera...

## 6 EMATZEN LABURPENA

Aurreko ataletan proposaturiko operatzaile, tasun, definizio eta hersturak (postulatu eta teoremak) nahikoak dira euskal aditzaren fenomeno morfologiko eta semantikoak adierazteko.

Aspektu operatzaileak eta ekintzazkotasun faktoreak ezin albora daitezke deskribaketa eta azalpen zuzen baterako. Horiez gain ezinbestekoak suertatu dira hizketa egintzen teoriako izari klistiko, tropiko eta neustikoko kontzeptuak atzemateko proposaturiko tasun eta operatzaileak. Aldi eta modurako ohiko laburdurek sistema koherente batean antolatzen dira aurreko faktoreen arabera. Azken atal honetan laburbilduko ditut orain arte lorturiko emaitzak.

Euskal aditz jokaerak erakusten du interes handiko asimetria bat aditz laguntzaile bikote biren artean: IZAN eta \*EDUN alde batetik, \*EDIN eta \*EZAN (EGIN mendebaldeko euskarari) bestetik. Asimetria hori ondoko koadroan laburbil daiteke:

	IZAN/*EDUN	*EDIN/*EZAN (EGIN)
Adizki soilik?	Bai, indikatibokoak (aginterakoak arkaikoak dira eta bakarrik aditzok aditz nagusi gisa erabiltzen direnean, ez laguntzaile gisa)	Urriak: aginterakoak soilik
Atzizkidun adizkirik?	Bai, ondoko zentzuekin:	Bai, ondoko zentzuekin:
<+(te)ke>	“Geroaldi arkaikoa”, aieruera (baldintzapekoa edo ez)	Ahalera, agintera “baretua”, ekialdeko euskarari baldintzapeko aieruera
<+ba>	Baldinera, (apodosirik gabe) optatibo edo “botiboa”: damu baten adierazpenerako zein <i>-(tu)ko</i> motako partizipioaz) desira batenerako	Baldinera, (apodosirik gabe) optatibo edo “botiboa” (arkaikoak ekialdeko euskaratik kanpo): desira baten adierazpenerako, inoiz ez damu batenerako
<+a>	Optatiboa edo “botiboa” (arkaikoa zubereratik kanpo): damu baten adierazpenerako; <i>-(tu)ko</i> motako partizipioaz) desira batenerako?	Optatiboa edo “botiboa” (arkaikoa zubereratik kanpo): desira baten adierazpenerako, inoiz ez damu batenerako
<+n>	Indikatiboko zein subjuntiboko iraganaldia, orainaldiko konjuntiboa zein subjuntiboa, agintera edo zentzu zabalagoan “hortatiboa” (arkaikoa, esapide ihartuetan)	Iraganaldiko zein orainaldiko subjuntiboa, hortatiboa (XVI. mendean: indikatiboko aoristoa)
<+bait>	Orainaldiko konjuntiboa zein subjuntiboa	Iraganaldiko zein orainaldiko subjuntiboa
<+la>	Indikatiboko osagarritzkoa (subjuntibokoa esapide ihartuetan soilik)	Iraganaldiko zein orainaldiko subjuntiboa, hortatiboa

51. taula IZAN/\*EDUN eta \*EDIN/\*EZAN (EGIN) aditzen asimetria.

Asimetria hori pareka daiteke jokaera trinkoan gertatzen denarekin kontuan hartuz ekintza esaeraren esanahi lexikoak mementozkotasuna barruratzen duenez (ekintzazkotasunari *-Actionality-* dagokion kontzeptu bat):

	[-mom]	[+mom]
Adizki soilik jokaera trinkoan?	Bai, indikatibokoak zein aginterakoak	Urriak: aginterakoak soilik

52. taula Ekintzazkotasun [ $\pm$ mom] tasunak dakarren modu defektibotasuna.

Adierazten duten mementozkotasuna dago \*EDIN eta \*EZAN aditzen adizki soilen urritasunaren azpian, baina lehenengo koadroko bestelako fenomenoak ulertzeko ezinbestekoa da kontuan hartzea: 1) ekintzazkotasunetik aspektura doan ibilbide diakronikoa; eta 2) koadro horretako hizkien esanahia.

## 6.1 Ekintzazkotasunetik aspektura.

XVI. mendeko euskarari, ekintzazkotasunak orain baino pisu handiagoa zuen adizkien gramatikaltasunerako eta interpretaziorako. Lafonek seinlatu zuenez (eta aginterako erabilerak koadrotik kanpo utziz), bereizketa hau ageria zen orduan:

ALDAKUNTZAZKOTASUNA → ADIZKIAK ↓	[-t], [+t̪]	[+tf]
GAI HURBILEKO SOILAK	Bai: orainaldiko zentzuarekin.	Ez erabiliak (aditz gehienak). Bai: orainaldiko eta geroaldiko zentzuarekin ( <i>etborri, ekbarri</i> ). Bai: soilik geroaldiko zentzuarekin ( <i>egin</i> ).
GAI URRUNEKO "SOILAK" (IRAGANEKO -N MARKA BARRU)	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren pareko zentzuarekin.	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren zein iragan sinplearen pareko zentzuarekin. Bai: inguruko erdaren iragan sinplearen pareko zentzuarekin soilik.

53. taula Ekintzazkotasun  $[\pm t]$  tasunak adizki soiletan eragiten duen defektibotasuna. (1: XVI. mendeko euskara).

Geroztiko euskarari beste koadro hau dagokio:

ALDAKUNTZAZKOTASUNA → ADIZKIAK ↓	[-t], [+t̪]	[+tf]
GAI HURBILEKO SOILAK	Bai: orainaldiko zentzuarekin.	Ez erabiliak edo bakarrik aginteran ( <i>*edin, *ezan</i> ). Bai: orainaldiko zein geroaldiko zentzuarekin.
GAI URRUNEKO "SOILAK" (IRAGANEKO -N MARKA BARRU)	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren parekoak.	Ez erabiliak edo bakarrik aginteran ( <i>*edin, *ezan</i> ). Bai: inguruko erdaren inperfektuaren parekoak.

54. taula Ekintzazkotasun  $[\pm t]$  tasunak adizki soiletan eragiten duen defektibotasuna. (2: Geroztiko euskara).

Bai aldaketa diakroniko hau bai oraingo euskarak erakusten duena ulertzeko ezin baliagarriagoak suertatu dira Lars Johansonen eremu teorikoan proposaturiko aspektu operatzaileak eta hauen harremanak ekintzazkotasun balioekin.

Ekintzazkotasun balioak dagozkie gertaera adierazten duten aditz-esaldiei. Aspektu operatzaileek ikuspegi bat ezartzen dute gertaera horren gainean. Ikuspegia kokaturik dago  $\hat{O}$  puntuan, zeina bat etor daitekeen edo ez  $O$  orientazio puntuarekin (lehen orientazio puntua,  $O^S$  gai hurbileko adizkietarako,  $-FAR$  balioarekin; bigarren bat,  $O^2$  gai urrunekoetarako,  $+FAR$  baliodunak).

Jokaera perifrastikoan erabiltzen diren partizipioei honako balio hauek dagozkie:

- *-tu* motakoa:  $-INTRA$  (gertaeraz kanpoko eta, beraz, ondoko ikuspegia). XVI. mendean balio hau beste honekin batera agertzen zen oraingoz:  $+POST$  (gertaeraren funtsezko zein intereseko mugaren ondoko ikuspegia), *-tu* hizkiaren jatorri erromanikoarekin bat etorritz. Balio hau mantendu da pluskuanperfektuan eta geroko perfektuan.
- *-tua* motakoa:  $+POST^{HF}$  ( $\hat{O}$ -an fokalizatua).
- *-t(z)en* motakoa:  $+INTRA$  (gertaera barruko ikuspegia).
- *-(tu)ko* motakoa:  $+PRO$  ( $-POST$ )<sup>351</sup> (aspektuzko irakurketa: gertaeraren gaineko ikuspegia aurreikusita, hots  $O \langle \hat{O} \rangle$ ).

Hirurok eskatzen dute trinko gisa  $+INTRA$  den laguntzaile bat (IZAN/\*EDUN). (“+” zeinu txikiaz adierazi nahi da adizki jokatuan, partizipioan ez bezala, balio positibo hau dela ez markatua.)

Morfologikoki sinpleena den aditz oinari (eta mendebaldeko euskararen honen ordezt erabiltzen den *-tu* motako formari), aldiz,  $+AD$  balioa dagokio (gertaeraren funtsezko mugan bertan kokaturiko ikuspegia). Dagozkien

---

<sup>351</sup> Jokaera gainkonposatuan  $+PRO$  ( $+POST$ ).

laguntzaileak ere (\*EDIN/\*EZAN, EGIN) +AD baliokoak dira, +INTRA operatzailea ez baita ondo bateratzen [+mom] ekintzazkotasun balioarekin.

Hau ez da aldatu denboran zehar, baina bai iraganaldiko +AD balioko adizkien ulerkera. Hona hemen azalpena:

$\hat{O}$  eta  $O^S$  bat datozenean berezkoa da +INTRA ikuspegia eta hortik hedatuko zen beste orientazio puntuetara, hots, gai urruneko adizkietara. Esandako legez, egungo euskaran hortatiboaz besteko adizki trinko guztiei eta IZAN/\*EDUN laguntzaileei +INTRA operatzailea dagokie. XVI. mendean, oraingoz, [+tf] ekintzazkotasun baliokoek +AD gisa ulertzen ziren iraganaldian ere: aoristo zaharrea bat etor daitezke  $O^2$ ,  $\hat{O}$  eta gertaeraren M funtsezko muga, baina egoera hau ez zen egonkorra asimetria bikoitza behartzen zuelako iraganaldiko eta orainguneko egituren artean:

1. Interpretazio desberdin bi *-tu motako partizipioa* + IZAN/\*EDUN laguntzailea egiturarako: iraganaldian mugaondoko edo perfektu batena +POST<sup>LF</sup>; oraingunean defokalizaturiko mugaondoko-ohi batena, +POST<sup>NF</sup>, +INTRA itemei oposatua eta -INTRA gisa ulertua.
2. Eta +AD itemen kasuan, harreman desberdin bi markatzen zituelako M gertaera muga eta morfologikoki markaturiko  $O^{1S}$  eta  $O^{2P}$  orientazio puntuen artean: iraganaldian ikuspegia  $\hat{O}^{2P}$ -an kokatzen zen M-rekin bat etorritz (aoristoa); oraingunean  $O^{1S}$  eta  $\hat{O}$ -ren nolabaiteko banaketa eskatzen zen (eta eskatzen da).

Banaketa minimoa GEROKOA predikatuari dagokio, eskematikoki  $O^S \langle \hat{O}$ . Geroratze hau oso egokia zaio “mundua hitzekiko” egokitze norabideko ilokuzio egintzei, hortatiboek kasu. Euskaraz hortatibo guztiei +AD aspektu operatzailea dagokie, eta honek [+t] ekintzazkotasun balioa eskatzen du (horregatik, adibidez, *jakin ezazu = igaro zaitex jakitera, egon! = itxaron!, geldi!*).

XVI. mendeko aspektu sistema era honetan sinplifikatu zen XVII. menderako:  $O^s \langle \hat{O}$  geroratzea +AD operatzailearen agerpen orori egotziz, gai urrunetan ere bai, hots:  $O \langle \hat{O}; -tu \text{ motako partizipioa} + IZAN/*EDUN \text{ laguntzaileria}$  egiturari interpretazio bakarra emanez (-INTRA gisa), iraganaldian aoristo zaharraren lekua hartuz; eta +AD balioko forma guztiak ez-indikatibokotzat joz. Horretarako balio du segidan azalduko ditudan hizkien itsasketak. Horren aurretik, txerta ditzagun azken azalpenak goiko koadroan:

ALDAKUNTZAZKOTASUNA → ADIZKIAK ↓	[-t], [+t]	[+tf]
GAI HURBILEKO SOILAK	Bai: orainaldiko zentzuarekin: +INTRA × [-t] +INTRA × [+t]	Ez erabiliak *+INTRA × [+t, +mom] edo bakarrik aginteran (*edin, *ezan). +AD × [+t, +mom] Bai: orainaldiko zein geroaldiko zentzuarekin: +INTRA × [+t, -mom]
GAI URRUNEKO "SOILAK" (IRAGANEKO -N MARKA BARRU)	Bai: inguruko erdaren inperfektuaren parekoak: +INTRA × [-t] +INTRA × [+t]	Ez erabiliak *+INTRA × [+t, +mom] edo bakarrik aginteran (*edin, *ezan). +AD × [+t, +mom] Bai: inguruko erdaren inperfektuaren parekoak: +INTRA × [+t, -mom]

55. taula Ekintzazkotasun  $[\pm t]$  tasunak adizki soiletan eragiten duen defektibotasuna. (3: Aspektu operatzaileekiko hartu-eman).

## 6.2 Hizkien esanahia.

### 6.2.1 -(te)ke:

Badago aztarna bat zeinen arabera hizki honen jatorrizko zentzua ekintzazkotasun aldaketa bat ekartzea izan zitekeen: XVI. mendeko euskaran *zekarren* moduko adizkien itzulpena [+t] baliokoa da (*be/she/it brought*, gaztelaniaz *trajo*); zentzu gerundiboko *-la* adizkiak [-t] izatera igarotzen da (*bringing, carrying...*) baina (Leizarragaren testuetan) *-ke* hizkiarekin batera salbuespenik gabe (*zekarke...*). Autore horren idazkeran berdina gertatzen da



*ekarri* aditzaren gai hurbilean, eta antzeko zerbait *etorri* aditzarenekin —zeinen adizki soilik ez zerabilen—: *datorke* motakoek “betierako” orainaldi baten zentzua zuten bitartean, [-t] balioko aditz esaerei dagokiokeen bezalaxe. Dena dela, geroztik beste zentzu birekin aurkitzen dugu *-(te)ke* hizki hori, aspektuari dagokiona bat, ilokuzio indarrari dagokiona bestea. Lehena zubereran gorde den geroaldi arkaikoari dagokio, GEROKOA predikatuari, hots O < Ô aldentzeari; bigarrena baldintzapeko ondoreetan aurki daiteke, baita lapurterako eta nafarrera beheerako (baldintza espliziturik gabeko) aierueran ere eta +BARETUA balioaz identifikatu dut, hau da hitzmate neustikoaren baretzearekin (*mitigation*). Balio biak batzen dira +AD balioko adizkietan, zeintzuk ahalerakoak baitira edo (ekialdeko euskalkietan eta gai urrunetarako) baldintzapeko aieruerakoak.

### 6.2.2 Ba-

Aurrizki honek ere hitzmate neustikoaren aldaera bat dakar, gertaera irizpean ipintzearena, +SUB IUDICE. Ondorio bati begira eginez gero baldinera dugu, ondoriorik gabe agertzekotan optatiboa edo botiboa.

### 6.2.3 AI- (> ai-)

Honek ere optatiboa sortzeko balio du. Jokaera trinkoan damu bat zein desira bat adierazteko balio dezake. Soilik lehena IZAN eta \*EDUN laguntzaileekin (+PRO operatzailearekin konbinatu ezean), eta bigarrena salbuespenik gabe gerokotasuna barneratzen duen +AD balioko \*EDIN eta \*EZAN zein EGIN aditzen formekin.

Baldinera eta optatiboa bat datoz +SUB IUDICE aldentze neustikoan; aldea atzemateko ±κDEP balio klistikoaz baliatu naiz. Arazo sintaktikoak alboratzeko era honetan erabili ditut: -κDEP balioa atxikiz inolako testuingurua zehaztu gabe erabil daitezkeen esapideei (*out of the blue*); besteei +κDEP balioa emanez.

Bai +BARETUA, bai +*SUB IUDICE* balio neustikoez eragiten dute gertaeraren gaineko ikuspegia jatorrizko orientazio puntutik alden dadin, irrealtasunean kokatuz.

#### 6.2.4 -n

Zer ote dute komun atzizki honen funtzio anitzek (iraganaren marka, hortatiboarena, menderatzaile gisa)? Nire proposamenean aditz esaldiaren bidez adierazitako gertaerari *seinalatzea*, +SO ERAGILEA balioaz atzeman dudana. So eragitea bada berez hitzemande neustiko bat adieraztea, aurreuposatzen/proposatzen denarekikoa. Horrek azaltzen du bestelako markatzaile neustikoen orde ager dadin.

+κDEP balioarekin batera ematen denean, menderatzaile gisa funtzionatzen du (eta bateraezina da bestelako menderatzaileekin, *ba-* eta *-la*). Konjuntiboen barruan, modu subjuntiboa bereizten da GEROKOA etiketa dagokiolako, baina aspektu ikuspegia gertaera barruan edo hari lotuta kokaturik.

-κDEP balioarekin eta gai hurbilean gertaerari so eragitea berai inbokatzea bezalakoa dateke: bigarren pertsonari ez zuzendutako hortatiboak adierazteko bide bat.

Gai urrunetan, aldiz, +SO ERAGILEA errealtasun marka dugu, \**nintz* agramatikala *nintzen* bihurtuz, errealtzat jotako iragana adieraztekoa, alegiazko *banintz* eta *nintzateke*-etatik bereizita; bigarren urrats batean iraganaldiko marka dugu, eta hortik *banintzen* eta *nintzatekeen* modukoak, baita *nintzen* konjuntiboa ere. Berdina gertatzen da +AD balioaren *nendin* eta antzekoekin: +κDEP balioa, eta ondorioz modu subjuntiboa, derrigorrezkoa dute indarrean jarri zenetik herstura bat zeinen arabera +AD balioari, bestelako aldentze neustikorik gabe agertuz gero, hauekiko bat egokitu behar zaion: mundua hitzekiko balio tropikoa edo +κDEP balio klistikoa.

### 6.2.5 *Bait-*

Aurrizki hau funtzio so eragilea duen menderatzaile bat da. +SO ERAGILEA eta +κDEP balioak egotzi dizkiot. Horrek ezinbidetzen dizkio hortatiboaren zein iraganaren marka gisa aritzea, bestalde *-n* menderatzailearen parekoa izanik (zehar galderetan izan ezik, nolabaiteko baiespena gehitzen baitu).

### 6.2.6 *-la*

Jatorriz berdina datekeen arren, analisitik kanpo laga dut zentzu gerundiboko *-la(rik)* atzizkia, ez baitu gramatikal bihurtzen *\*dadi* eta antzeko adizkirik (logikoa denez, +INTRA balioko adizki jokatua behar du eta).

Horretaz aparte, *-la* atzizkiak balio du ez gertaerari seinaltzeko baizik eta aipatzeko esapide hura zeinen bidez gertaera adieraz daitekeen. Hori jaso nahi izan dut +AIPAMENA balioaren bidez. +κDEP denean konjuntibo mota bat da. Forma hortatiboetan, aldiz, -κDEP balioa dagokio.

## 6.3 Euskararen modu-aspektu-*tempus* sistema

Zenbait inplikazio eta koinplikazioen bidez atzeman daitezke aspektu operatzaileek eta aspektu-modu hizkiek erakusten dituzten konbinagarritasuna eta konbinaezintasuna, hala nola adizkien agramatikaltasuna/gramatikaltasuna eta esanahia. Proposaturiko inplikazio eta koinplikazio sistema guztiz esplizitua da, hots, guztiak betetzen dira salbuespenik gabe. Hizkuntzen arteko erkaketari begira, sistema hori berridatzi ahalko litzateke era minimoan bortxa daitezkeen herstura gisa, *Optimality Theory* delakoaren ildotik. Urrats hori lan honen helmugetatik kanpo laga dut.

Bestalde, hizkuntzalaritza eta gramatikagintzan erabili ohi diren modu, aspektu eta *tempus*ari dagozkien kontzeptuak esandako balio semantikoen arabera definitu dira. Modu indikatiboa bat dator [-*irrealis*] balioarekin, honela ezaugarritua:

- (561) [= (459)] TAM sistemako postulatua 103.  
 $[-irrealis] \leftrightarrow (-BARETUA \wedge -SUB\ IUDICE \wedge [-ahal] \wedge [-asmozkoa] \wedge [+deskr] \wedge (-FAR \vee (+FAR \wedge -\kappa DEP +SO\ ERAGILEA)))$

[+irrealis] balioa alderantziz ezaugarritzen da:

- (562) [= (460)] TAM sistemako ondorioztatuturiko teorema 54.  
 $[+irrealis] \leftrightarrow (+BARETUA \vee +SUB\ IUDICE \vee [+asmozkoa] \vee [+ahal] \vee [-deskr] \vee (+FAR \wedge \neg(\kappa^{DEP} +SO\ ERAGILEA)))$

+AD ez diren bitartean, gai hurbileko adizki soilak indikatibokoak dira, baina beste kategorietara (baldinera, aieruera, “geroaldi arkaikoa”) igarotzen dira hizkiren bat edo beste gehitu ahala. Kasu berezi bat dugu *bait-*, *-la*, *-n* eta hauen eratorriekin gertatzen dena: arrazoi pragmatikoengatik ageri bada gertaera ez dagoela indarrean O orientazio puntuan, gerokotasun zentzua eskuratzen da eta adizkiek zentzu subjuntiboa dute (*hiltzen naizenean* esapidea *hil nadinean* arkaikoa bezain subjuntiboa da).

Hona hemen euskal moduak laburbiltzen dituen koadro bat:

BALIO NEUSTIKOA →	-SUB IUDICE				+ SUB IUDICE	
	-BARETUA		+BARETUA (BALDINTZAPEKOA EDO EZ)		-κDEP	+κDEP
BALIO KLISTIKOA → TROIKOAREN BALIOA ↓	-κDEP	+κDEP	-κDEP	+κDEP		
[+deskr]	Indikatiboa	Indikatiboaren konjuntiboa	Aieruera Ahalera (+AD ∨ <+ahal>)	Aierueraren eta ahaleraren konjuntiboak	Optatiboa (edo “botiboa”)	Baldinera
[-deskr] (+AD)	Hortatiboa		Hortatibo baretua			

56. taula [=49. taula] Aditz moduen sailkapena dagozkien balio neustiko, klistiko eta tropikoen arabera.

Bestelako bereizketak hemendik datoz: GEROKO predikatuaren eta [+irrealis] eta ±FAR balioen konbinaketatik.

		[- <i>irrealis</i> ]	[+ <i>irrealis</i> ]			
			Aldaera neustikoak		[+ahal]	[+asmozkoa]
			+ <i>SUB IUDICE</i>	+BARETUA (BALDINTZA- PEKOA EDO EZ)		
-FAR ORAINGUNEAN(Ó)	-GEROKOA	Orainguneko indikatiboa	Orainguneko baldinera, optatiboa <sup>352</sup>	Orainguneko aieruera		
	GEROKOA	Orainguneko indikatiboko ondorengoa (“geroaldia”) eta subjuntibo erreala		Orainguneko aieruera, ‘geroaldi arkaikoa’	Orainguneko ahalera	Orainguneko subjuntiboa, agintera
+FAR IRAGANALDIAN(Ó) ALEGIGUNEAN(Ó)	-GEROKOA	Iraganaldiko indikatiboa	Alegiazko baldinera, optatiboa	Alegiazko aieruera		
	GEROKOA	Iraganaldiko ondorengoa (“geroaldia”) eta subjuntibo erreala		Alegiazko aieruera	Alegiazko ahalera	Alegiazko subjuntiboa

57. taula [=50. taula] Aditz modu-aldi sailkapena.

Gelaxka bakoitzeko itemei dagozkien adizki jokatuena bidez adierazitako gertaerek beren kokagunea dute gertaera gaineko ikuspegi sistemaren koadro orokorrean:

<sup>352</sup> Tentagarria da banatzea gelaxka hau eta honen azpikoa modu honetan: desira betegarrien adierazpena gerokotasunari lotuz. Kontu hori guztia, hala ere, implikaturen mendekoa dateke.

		A L E G I G U N E A		
		KONTRAFAKTUALA	OV MODU-MODALITATE ALDAERAK	GERTAGARRIA
Irrealtasunaren eremua	I R A G	KONTRAFAKTUALA	MODU-MODALITATE ALDAERAK	GERTAGARRIA
↕	A N A L D I A	OP IRAGANEKO URRUNA	ON G U N E A (iraganeko hurbila) < <b>(ORAINEKOA)</b>	ONDORENGOA
Errealtasunaren eremua				
↑ Modua				
Denbora →		Aurrekoa «		↳ Gerokoa

58. taula Morfologikoki markaturiko hirn eremuak eta modu-denbora barremanak

Besteak beste, alegiazkotasunaren kontzeptuak —iraganaldiaren eta alegigunearen artean kokaturik— balio du ikusteko nola ez dagoen inolako urraketa gramatikalik *etorri balitz* *egingo zuen* bezalako protasi-apodosi periodoetan.

Bestalde, aspektu kontuak era egokiagoan jaso daitezke Johansonen operatzaileen bitartez ohiko gramatiken terminoetan baino. Ulertze on baterako beharrezkoa dugu euskal aspektuan ematen den oposaketa bikoitza (+AD alde batetik, ±INTRA, ±POST, ±PRO bestetik) onartzea. Bestelako izendapenak (aspektu “jarraikorra”, “mugagabea”... aspektu eta ekintzazkotasun konbinaketei dagozkie). “Puntukaria”/“iraunkaria” dikotomia terminologia eta kontzepzio oker bati dagokio, besterik gabe. Edonola ere, gramatika ofizialetan proposaturiko [±burutu] eta [±gero] tasunak ez dira nahikoak.

Bide batez, eztabaidatua izan den *ahal dut/ahal dezaket* bereizketa argitua izan da testuinguru zabalago batean, ahaleraren bilakaera diakronikoa —euskalkietan dibergentea— besarkatzeko gai izan dena.

Lan nekeza izan da, baina merezi izan duelakoan nago. Euskararen TAM sistemaren ikuspegi orokor koherente bat lortuz gain, haren xehetasun

diatopiko eta diakroniko ugari azaldu ahal izan dira. Halaber, euskal aditzaren berezitasunari esker identifikatu ahal izan da primitibo semantiko bakoitzaren aportazioa goiko eskeman agertzen den mapa semantikoaren eraikuntzarako. Interes filosofiko bezikoa deritzot honi: berez aktuala ez den iraganaldiaren eremuak, alegigunetik bereiztuko bada, eskatzen du hitzmate neustiko esplizitu baten marka ager dadin (eta horretarako balio du da *-n* atzizkiak, horren zentzu anitzekoa izanik ere).

Ezinbesteko atsedenen ondoren, ekin beharko zaio emaitzok beste hizkuntzetakoekin erkatzeari. Horrek ahalbidetzen diguke nolabaiteko sinplifikatze baterako postulatu eta teoremen formulazioan: inplizitu laga litezke haietako zenbait, optimotasunaren araberako sailkatze baten ondorio gisa, *Optimality Theory* delakoaren eskemak aplikatuz. Eremu hurbilagoan, euskararen denborazko eta moduzko egitura anitzei aplika dakizkieke ikerketa eta txosten honetan zehar garaturiko kontzeptuak, orain artekoak baino azalpen argiago eta ulergarriagoak lortzearren.

## 1 ERANSKINA. DEFINIZIOEN ZERRENDA

1.  $\beta < \alpha$ :  $\beta$  eta  $\alpha$  (dena delako) itemak (gertaerak, gertaera faseak, orientazio puntuak...) aurkezten dira denborazko ordena honetan:  $\beta$  lehenago,  $\alpha$  ondoren.
2.  $\beta \not> \alpha$  (edo  $\alpha \not< \beta$ ):  $\beta$ -ren  $\alpha$ -tiko (dena delako) aldentzea ez dagokio denboraren lerroari, baizik eta izari modal bati.
3. (a1)  $[\pm irrealis]$ : gertaerak irreal edo errealtzat aurkeztearen adierazpena  
 (a2)  $[+irrealis] =_{\text{def}} (G \not> O^n)$   
 (a3) Definizio esplizitua (tartean ager daitezkeen beste orientazio puntuak kontuan hartuta):  
 $[+irrealis] =_{\text{def}} ((\hat{O}^{n+m} (- \dots) (- O^{n+k}) \not> O^n) \vee ((\hat{O}^{n+m} \not> (\dots -) (O^{n+k} -) O^n))$   
 (a4) Definizio laburtua (tartean ager daitezkeen beste orientazio puntuak kontuan hartu gabe):  
 $[+irrealis] =_{\text{def}} (\hat{O}^{n+m} \not> O^n)$
4.  $[\pm ahal]$ : gertaerak errotiko ahalezkotzat (*as a root possibility*) aurkeztearen edo ez aurkeztearen adierazpena
5.  $[\pm asmozkoa]$ : gertaerak asmoaren eremukoak izatearen edo ez izatearen adierazpena
6.  $\pm \kappa \text{DEP}$ : adizkia dagoen klausularen erabilera dependentea edo independentea izatearen adierazpena, eta balio klistikoa, hurrenez hurren, zatikoa edo ez-zatikoa (osoa)
7. **N-OPERATZAILEA**: TAM sistemako zenbait operatzailei (operatzaile “neustikoei”) erreferitzeko metaetiketa
8.  $\pm \kappa \text{DEP} + \text{N-OPERATZAILEA}$ : halako operatzaileak  $+\kappa \text{DEP}$  balio klistikoa dakarrela edo ez dakarrela adierazteko notazioa
9.  $\text{XOR}(A, B, C) =_{\text{def}} (A \vee B \vee C) \wedge \neg(A \wedge B) \wedge \neg(A \wedge C) \wedge \neg(B \wedge C)$



10.  $\neg(+^{\text{KDEP}} +\text{N-OPERATZAILEA}) =_{\text{def}}$   
 $(^{-\text{KDEP}} +\text{N-OPERATZAILEA} \vee -\text{N-OPERATZAILEA})$
11.  $\neg(-^{\text{KDEP}} +\text{N-OPERATZAILEA1}) =_{\text{def}}$   
 $\neg(+\text{N-OPERATZAILEA2}(+\text{N-OPERATZAILEA1})) \wedge$   
 $(+^{\text{KDEP}} +\text{N-OPERATZAILEA1} \vee -\text{N-OPERATZAILEA1})$
12. Tropikoari dagokion tasun bitarra:  $[\pm\text{deskr}]$
- $[\text{+deskr}]$ : ilokuzio indarraren lehen indikatzaileek linguistikoki kodeturiko “frastikoa munduarekiko” egokitzapen norabidea
- $[\text{-deskr}]$ : ilokuzio indarraren lehen indikatzaileek linguistikoki kodeturiko “mundua frastikoarekiko” egokitzapen norabidea
13.  $\pm\text{BARETUA}$  : emandako hitzmate neustiko baretuaren edota arruntaren adierazpena
14.  $\pm\text{SUB IUDICE}$  : frastikoaren asetzearekiko hitzmate neustikoa gorde (edo ez) eta irizpean jartzearen (edo ez jartzearen) adierazpena
15.  $[\pm\text{t}]$  : aldakuntzazkotasunaren edo haren gabeziaren adierazpena
16.  $[\pm\text{ti}]$  : aldakuntza hasierako mugan izanaren edo ez izanaren adierazpena
17.  $[\pm\text{tf}]$  : aldakuntza bukaerako mugan izanaren edo ez izanaren adierazpena
18.  $[\pm\text{mom}]$  : gertaeraren mementozkotasunaren (edo kontrakoaren) adierazpena
19.  $[\pm\text{dyn}]$  : gertaeraren dinamismoaren (edo kontrakoaren) adierazpena
20.  $[\pm\text{ser}]$  : gertaera sorta batean sartzen den/ez den adierazpena
21.  $[\pm\text{hom}]$  : gertaeraren muga erauzi dela (edo ez dela) adierazteko tasuna
22.  $\pm\text{INTRA}$  : mugetatik barruko ikuspegia (intraterminal) zein haren kontrakoa adierazten duen operatzailea, (balio negatiboa ez-markatua denean)

23.  $\pm\text{POST}$  : gertaeraren ondoko ikuspegia (*postterminal*) zein haren kontrakoa adierazten duen operatzailea
24.  $\pm\text{AD}$  : gertaeraren mugako ikuspegia (*adterminal*) zein haren kontrakoa adierazten duen operatzailea
25. (a1) G : aditz esaldiaren (*verbal phrase*) bidez adierazitako gertaeraren kokagunea edo lokalizazioa  
 (a2)  $G =_{\text{def}} I \cup M$
26. O : orientazio puntua
27. M : gertaeraren funtsezko zein intereseko mugaren kokagunea
28. I: gertaera ibilbidearen kokagunea
29. L : gertaeraren lokalizazio puntua Johansonek erabiltzen duen zentzu zabalean, hemengo G, M edo I-rekin identifikagarria
30.  $\alpha, \beta, \gamma \dots$  : edozein G, O, M, I edo L-ren ordezeko metaetiketak
31.  $\alpha^n$  :  $\alpha$  itema bere kategoriako  $n$ -garrena da,  $n$  goi-indizea zenbaki bat izanik
32.  $\alpha^S$  :  $\alpha$  itema S hizketagune bat da
33.  $\hat{\alpha}$  : aspektu ikuspegia  $\alpha$  itemean dago kokaturik
34.  $\hat{\alpha}$  :  $\alpha$  itemean ikuspegia kokaturik dagoen zein ez dagoen kasuetarako aplikagarria den notazioa
35.  $M < I$  : gertaera mugaren ondoko egoera
36.  $O^{nS} =_{\text{def}} O^n \wedge O^S$ : ( $O^n = O^S$ )

37.  $\alpha = \beta$  :  $\alpha$  eta  $\beta$  bat datoz, hots kokagune berdina adierazten dute (eta baldin kategoria bereko itemak badira, biak orientazio puntuak, edo biak gertaera zein gertaera faseak, orduan kontzeptu identifikagarriak ere badira)
38.  $\alpha \neq \beta$  :  $\alpha$  eta  $\beta$  desberdinak dira
39.  $\alpha >< \beta$  :  $\alpha$  eta  $\beta$  elkarrengandik disoziatuak edo aldentuta daude, nola edo hala (grafikoki esplizitatzen da honela haien artean ez dagoela inolako kointzidentziarik)
40.  $\alpha - \beta$  : ez da zehazten  $\alpha$  eta  $\beta$  disoziatuak dauden, desberdinak izanik, ala ez
41.  $(\alpha -) \beta - \gamma =_{\text{def}} (\alpha - \beta) \wedge (\beta - \gamma)$
42.  $\text{AURREKOA}(\beta, \alpha) =_{\text{def}} (\beta < \alpha) \wedge ((\beta \neq O) \vee (\hat{\beta}^{n+m} \wedge \alpha^n))$
43.  $\text{GEROKOA}(\alpha, \beta) =_{\text{def}} (\beta < \alpha) \wedge ((\alpha \neq O) \vee (\hat{\alpha}^{n+m} \wedge \beta^n))$
44.  $\beta \ll \alpha =_{\text{def}} \text{AURREKOA}(\beta, \alpha)$
45. (a1)  $\beta \langle \alpha$  :  $\alpha$  gerokoagoa da  $\beta$  baino, eta zehaztu gabe gelditzen da aldi berean  $\alpha$  modalki ere aldentzen den  $\beta$ -tik.  
 (a2)  $\beta \langle \alpha =_{\text{def}} \text{GEROKOA}(\alpha, \beta)$
46.  $\langle \pm \text{urruna} \rangle$  : adizkia gai urrunekoa edo hurbilekoa izatearen adierazpena
47.  $O^M$  : gai hurbil eta urrunaren bidez morfologikoki adierazitako orientazio puntuak ( $O^{1S}$ , eta segidan definituko diren  $O^P$  eta  $O^V$ ). Gertaeren gaineko ikuspegi ororen funtsezko hiru ainguratze gune desberdin osatzen dituzte
48. (c1)  $O^{(2)P}$  : iraganaldiaren orientazio puntua. Identifikatzen da gai urruneko adizki baten bidez adierazitako gertaeraren gaineko aspektu ikuspegiaren 2garren orientazio puntuarekin,  $O^2$ , baldin denborazko harreman linealean badago lehen orientazio puntuarekin; honelaxe zehazki:  $O^2 \ll O^{1S}$   
 (c2)  $(\hat{O} -) O^{(2)P} =_{\text{def}} (\hat{O} -) O^{(2)M} \ll O^{1S}$

49. (d1)  $O^{(2)V}$  : alegigunearen orientazio puntua. Identifikatzen da gai urruneko adizki baten bidez adierazitako gertaeraren gaineko aspektu ikuspegiaren 2garren orientazio puntuarekin,  $O^2$ , baldin ez badago denborazko harreman linealean lehen orientazio puntuarekin,  $O^2 \not\prec O^{1S}$   
(d2)  $(\hat{O} \rightarrow) O^{(2)V} =_{\text{def}} (\hat{O} \rightarrow) O^{(2)M} \not\prec O^{1S}$
50. (e1)  $O^{1S}$  : lehen orientazio puntua, hizketa egintzarena  
(e2)  $(\hat{O} \rightarrow) O^{1S} =_{\text{def}} (\hat{O} \rightarrow) O^M : \neg(O^M \ll O^{1S}) \wedge \neg(O^M \not\prec O^{1S})$
51. (a1)  $\pm\text{FAR}$  : gertaeraren gaineko aspektu ikuspegia  $O^P$  edo  $O^V$  orientazio puntuei ainguratuta dagoela edo ez (baizik eta  $O^{1S}$ -ri ainguratuta dagoela) adierazten duen operatzailea  
(a2)  $+\text{FAR} =_{\text{def}} (\hat{O} \rightarrow) O^P \vee (\hat{O} \rightarrow) O^V$   
(a3)  $-\text{FAR} =_{\text{def}} \hat{O}^{1S} \vee (\hat{O} \rightarrow) O^{1S}$
52.  $\text{AURREKO\_ABSOLUTUA}(\alpha) =_{\text{def}} \text{AURREKOA}(\alpha, O^{1S})$
53.  $\text{GEROKO\_ABSOLUTUA}(\alpha) =_{\text{def}} \text{GEROKOA}(\alpha, O^{1S})$
54.  $\text{GERTAGARRIA}(\alpha, \beta) =_{\text{def}} \text{GEROKOA}(\alpha, \beta) \wedge [+irrealis]$
55.  $\beta \not\prec \alpha =_{\text{def}} \text{GERTAGARRIA}(\alpha, \beta)$
56.  $\text{ONDORENGOA}(\alpha, \beta) =_{\text{def}} \text{GEROKOA}(\alpha, \beta) \wedge [-irrealis]$
57.  $\beta \langle \alpha =_{\text{def}} \text{ONDORENGOA}(\alpha, \beta)$
58.  $\pm\text{PRO}$  : gertaeraren gaineko ikuspegia aurreikusia (*prospective*) dela zein ez dela adierazten duen operatzailea
59.  $\pm\text{INTRA}$  : mugetatik barruko ikuspegia (*intraterminal*) zein haren kontrakoa adierazten duen operatzailea, balio positiboa ez-markatua denean
60.  $F$  : ikuspegi fokalizatuaren adierazpena
61.  $NF$  : ikuspegi ez fokalizatuaren adierazpena

62. LF : gutxi fokalizaturiko ikuspegiaren adierazpena
63. HF : oso fokalizaturiko ikuspegiaren adierazpena
64. ( $\pm$ FOC) : ikuspegi fokalizatuaren/ez fokalizatuaren adierazpena
65. +INTRA<sup>o</sup> : -INTRA item baten oposaketarik ez duten +INTRA itemak; baldin +INTRA<sup>NF</sup> badira, orduan mugabarruko ohiak (*extraterminals*) ditugu
66. +POST<sup>o</sup> : -POST item baten oposaketarik ez duten +POST itemak; baldin +POST<sup>NF</sup> badira, orduan mugaondoko ohiak (*postterminals*) ditugu
67. < $\pm$ \*EDIN> : adizkia \*EDIN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
68. < $\pm$ \*EZAN (EGIN)> : adizkia \*EZAN (EGIN) aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
69. < $\pm$ \*IRON> : adizkia \*IRON aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
70. < $\pm$ IZAN> : adizkia IZAN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
71. < $\pm$ \*EDUN> : adizkia \*EDUN aditzekoa izatearen/ez izatearen indikazioa
72. < $\pm$ ahal> : gertaerak errotiko ahalezkotzat (*as a root possibility*) aurkeztearen edo ez aurkeztearen adierazpen lexikala (*ahal, ezin*, baita garai batetik aurkeztearen hona \*IRON eta EGIN aditzen formak ere)
73. (a1) IRAGANALDIAN( $\hat{O}$ ) :  $\hat{O}$  orientazio puntua iraganaldian kokatuta dagoela adierazteko predikatua, hots (artezago edo zeharrago) O<sup>2P</sup>-ri lotuta  
 (a2) IRAGANALDIAN( $\hat{O}$ ) =<sub>def</sub> ( $\hat{O}$  -) O<sup>2P</sup>
74. [INDIKATIBOA] : gertaerak errealtzat aurkezteko aditz modua
75. [EG-INDIKATIBOA] : +AD aspektu operatzaileaz kanpoko adizkien ezaugarria

76.  $\langle \pm(te)ke \rangle$  :  $-(te)ke$  hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena
77.  $\langle \pm n \rangle$  :  $-n$  hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena
78.  $\langle \pm la \rangle$  :  $-la$  hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena
79.  $\langle \pm ba \rangle$  :  $ba$ - hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena
80.  $\langle \pm al \rangle$  :  $al$ - ( $>ai$ -) hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena
81.  $\langle \pm bait \rangle$  :  $bait$ - hizkiaren agerpenaren edo agerpen ezaren adierazpena
82. (a)  $\langle \pm hizkiduna \rangle$  : hizkiren bat edo besteren agerpena edo agerpen ezaren adierazpena  
 (b)  $\langle -hizkiduna \rangle =_{\text{def}} (\langle -(te)ke \rangle \wedge \langle -n \rangle \wedge \langle -la \rangle \wedge \langle -ba \rangle \wedge \langle -al \rangle \wedge \langle -bait \rangle)$   
 (c)  $\langle +hizkiduna \rangle =_{\text{def}} (\langle +(te)ke \rangle \vee \langle +n \rangle \vee \langle +la \rangle \vee \langle +ba \rangle \vee \langle +al \rangle \vee \langle +bait \rangle)$
83.  $\langle \pm t(z)en \rangle$  : adizki jokatuan  $-t(z)en$  motako partizipio bat barruraturik egotearen/ez egotearen adierazpena
84.  $\langle \pm tu \rangle$  : adizki jokatuan  $-tu$  motako partizipio bat barruraturik egotearen/ez egotearen adierazpena
85.  $\langle \pm (tu)ko \rangle$  : adizki jokatuan  $-(tu)ko$  motako bat barruraturik egotearen/ez egotearen adierazpena
86.  $\langle \pm tua(k) \rangle$  : adizki jokatuan  $-tua(k)$ ,  $-turik$  edo  $-tuta$  motako partizipio bat barruraturik egotearen/ez egotearen adierazpena
87.  $\langle \pm ari \rangle$  : adizki jokatua  $-t(z)en$  motako partizipioa +  $ari$  +  $\langle +IZAN \rangle$  perifrasiaren barruraturik egotearen/ez egotearen indikazioa
88. **ADIZKIA**: edozein adizkiri erreferitzeko metaetiketa.
89. (a1)  $\text{ORAINGUNEAN}(\hat{O})$  :  $\hat{O}$  orientazio puntua hizketaguneari lotuta dagoela adierazteko predikatua  
 (a2)  $\text{ORAINGUNEAN}(\hat{O}) =_{\text{def}} \hat{O}^{1S} \vee ((\hat{O} \rightarrow) O^M \rightarrow (\hat{O} \rightarrow) O^{1S})$   
 (a3)  $\text{ORAINGUNEAN}(\hat{O}) =_{\text{def}} \neg \text{FAR}$

90. ORAINEKOA(G) : oraineko gertaera kokaguneei esateko etiketa  
 ORAINEKOA(G) =<sub>def</sub> G:  $\hat{O}^{1S} \wedge +INTRA$
91. [HORTATIBOA] : zuzenkarizko hizketa egintzak linguistikoki kodetzen dituen aditz modua
92.  $\langle \pm b \rangle$  : gai urruneko hirugarren pertsonako aginte adizkien marka morfologikoa agertzen den/ez den adierazpena
93.  $\pm AIPAMENA$  : adizkiaren bidez beste esaera bat errepikatu edo hori sortzeko jarraibideak eman edo ez ematearen adierazpena
94.  $\langle \pm e_{\mathcal{Z}} \rangle$  : adizkia ezezkoa (“ez” partikulari lotutakoa) izan edo ez izatearen adierazpena
95.  $\pm SO$  ERAGILEA : aditz esapideak adierazitako gertaera erreferentzialki seinalatua edo identifikatua izan edo ez izatearen adierazpena
96. [SUBJUNTIBOA] : GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}, O^n$ ) balioko eta aspektu ikuspegia gertaera barruan kokatzen edo gertaerari lotuta duten dependentzia eragileen modua
97. (a1) [KONJUNTIBOA] : hitzmate neustikoa periferiara edo klistiko ez osoko esapideetara eramatearen eragiketaren (edo haren gabeziaren) adierazpena  
 (a2) [KONJUNTIBOA] =<sub>def</sub>  $(+^{KDEP} +SO ERAGILEA \vee +^{KDEP} +AIPAMENA)$
98. (a1) ALEGIGUNEAN( $\hat{O}$ ) :  $\hat{O}$  orientazio puntua alegigunean kokatuta dagoela adierazteko predikatua, hots (artezago edo zeharrago)  $O^{2V}$ -ri lotuta  
 (a2) ALEGIGUNEAN( $\hat{O}$ ) =<sub>def</sub> ( $\hat{O} -$ )  $O^{2V}$
99. (a1) [ALEGIAZKOA] :  $O^{1S}$  ez den (gai urrunaren bidez morfologikoki markaturiko)  $O^{2M}$  bigarren orientazio puntu bati ainguraturik eta irrealizat aurkeztutako gertaeren ezaugarria  
 (a2) [ALEGIAZKOA] =<sub>def</sub>  $+FAR \wedge [+irrealis]$
100.  $\langle \pm / \rangle$  : gai urruneko hirugarren pertsonako alegiguneko adizki ez hortatiboen marka morfologikoa agertzen den/ez den adierazpena

101. (a1) [BALDINERA] : hitzmate neustikoa ondorio bati begira irizpean jartzen dela adierazteko aditz modu edo modalitatea

(a2) [BALDINERA] =<sub>def</sub> +<sup>K</sup>DEP + SUB IUDICE

102. (a1) [OPTATIBOA] : hitzmate neustikoa inolako ondoriori begiratu gabe irizpean jartzen dela adierazteko aditz modua

(a2) [OPTATIBOA] =<sub>def</sub> -<sup>K</sup>DEP + SUB IUDICE

103. L<sub>A</sub> : ahalaren zein ezinaren lokalizazio puntua

104. (a) [AIERUERA] : [+deskr] balio tropikoko frastikoa erabateko ziurtasunik gabe adierazteko modua

(b) [AIERUERA] =<sub>def</sub> +BARETUA ∧ [+deskr] ∧ [-ahal]

105. [AHALERA] : gertaera errotiko ahalezkotzat (*as a root possibility*) adierazteko aditz modua/modalitatea



## 2. Eranskina

### 2 ERANSKINA. PROPOSATURIKO POSTULATUEN ZERRENDA

1.  $\neg(\alpha < \alpha)$
2.  $((\alpha < \beta) \wedge (\beta < \gamma)) \rightarrow (\alpha < \gamma)$
3.  $[+ahal] \rightarrow [+irrealis]$
4.  $[+asmozkoa] \rightarrow [+irrealis]$
5.  $+^{\kappa\text{DEP}} \text{+N-OPERATZAILEA} \rightarrow +\kappa\text{DEP}$
6.  $\pm^{\kappa\text{DEP}} \text{+N-OPERATZAILEA} \rightarrow \text{+N-OPERATZAILEA}$
7.  $+^{\kappa\text{DEP}} \leftrightarrow$   
 $(+^{\kappa\text{DEP}} \text{+SUB IUDICE} \vee +^{\kappa\text{DEP}} \text{+AIPAMENA} \vee +^{\kappa\text{DEP}} \text{+SO ERAGILEA})$
8.  $\neg(+^{\kappa\text{DEP}} \text{+N-OPERATZAILEA1} \wedge +^{\kappa\text{DEP}} \text{+N-OPERATZAILEA2})$
9.  $\text{+N-OPERATZAILEA1}(\text{+N-OPERATZAILEA2}(\dots)) \rightarrow$   
 $\pm^{\kappa\text{DEP}} \text{+N-OPERATZAILEA1}(\neg^{\kappa\text{DEP}} \text{+N-OPERATZAILEA2}(\dots))$
10.  $(\text{+N-OPERATZAILEA1} \wedge \text{+N-OPERATZAILEA2}) \leftrightarrow$   
 $(\text{+N-OPERATZAILEA1}(\text{+N-OPERATZAILEA2}(\dots)) \vee$   
 $\text{+N-OPERATZAILEA2}(\text{+N-OPERATZAILEA1}(\dots)))$
11.  $[-deskr] \rightarrow [+asmozkoa]$
12.  $[+asmozkoa] \rightarrow ([-deskr] \vee +\kappa\text{DEP})$

13.  $+N\text{-OPERATZAILEA} \leftrightarrow$   
 $(\neg^{+KDEP} +N\text{-OPERATZAILEA} \vee +^{+KDEP} +N\text{-OPERATZAILEA})$
14.  $\neg(\neg^{+KDEP} +SUB\ IUDICE(+N\text{-OPERATZAILEA}))$
15.  $(+BARETUA \vee +SUB\ IUDICE) \rightarrow [+irrealis]$
16.  $+AD \mid [-t]$
17.  $+AD \times *[-t] > [+ti]$
18.  $\hat{\alpha} \rightarrow \hat{O}$
19.  $(\alpha < \beta) \rightarrow (\alpha \cap \beta = \emptyset)$
20.  $\alpha \cap \alpha \neq \emptyset$
21.  $(\alpha \cap \beta \neq \emptyset) \rightarrow (\beta \cap \alpha \neq \emptyset)$
22.  $(\alpha \cap \beta = \emptyset) \rightarrow (\beta \cap \alpha = \emptyset)$
23.  $(\alpha \subset \beta) \rightarrow (\beta \cap \alpha \neq \emptyset)$
24.  $\alpha \not\subset \alpha$
25.  $(\alpha \subset \beta) \wedge (\beta \subset \gamma) \rightarrow (\alpha \subset \gamma)$
26.  $((\alpha \cap \beta \neq \emptyset) \wedge (\beta \subset \gamma)) \rightarrow (\alpha \cap \gamma \neq \emptyset)$
27.  $((\alpha \cap \beta = \emptyset) \wedge (\gamma \subset \beta)) \rightarrow (\alpha \cap \gamma = \emptyset)$
28.  $(\alpha \subset (\alpha \cup \beta)) \vee (\alpha = (\alpha \cup \beta))$
29.  $(\hat{O} \cap M \neq \emptyset) \leftrightarrow +AD$

30. +INTRA  $\rightarrow$  ( $\hat{O} \subset I$ )
31.  $M \cap I = \emptyset$
32. +POST  $\rightarrow$  ( $\hat{O} \subset_{M \subset I}$ )
33.  $O^1 \rightarrow O^S$
34.  $O^S \cap M = \emptyset$
35. ( $\alpha > \beta$ )  $\rightarrow$  ( $\alpha \neq \beta$ )
36. ( $O^{n+m} \neq O^n$ )  $\rightarrow$  ( $O^{n+m} > O^n$ )
37. ( $O^{n+m} \neq O^n$ )
38. ( $\hat{O}^n = O^n$ )
39. ( $(O^{n+m} - O^n) \wedge (\hat{O}^{n+m} \vee \hat{O}^n)$ )  $\rightarrow$   $\hat{O}^{n+m}$
40. +POST  $\rightarrow$  ( $M \ll \hat{O}$ )
41. +INTRA  $\times$  [+tf]  $\rightarrow$  ( $\hat{O} \langle M$ )
42. ( $\beta \not> \alpha$ )  $\rightarrow$  ( $(\beta \neq O) \vee (\hat{\beta}^{n+m} \wedge \alpha^n)$ )
43. [+irrealis]  $\leftrightarrow$  (+BARETUA  $\vee$  +SUB IUDICE  $\vee$  [+asmozkoa]  $\vee$  [-deskr]  $\vee$  [+ahal])
44. XOR( $(\hat{O} -) O^{2M} \ll O^{1S}$ ,  $(\hat{O} -) O^{2M} \not> O^{1S}$ ,  $(\hat{O} -) O^{1S}$ )
45. (AURREKOA( $\alpha$ ,  $O^{2V}$ )  $\rightarrow$  AURREKOA( $\alpha$ ,  $O^{1S}$ ))
46. (GEROKOA( $\alpha$ ,  $O^{2V}$ )  $\rightarrow$  GEROKOA( $\alpha$ ,  $O^{1S}$ ))

47. <+urruna> ↔ +FAR
48.  $(O^n \langle O^{n+m} \rangle \rightarrow (O^{n+m} \neq O^M)$
49.  $(O^n \rangle \langle O^{n+m} \rangle \leftrightarrow ((O^{n+m} \ll O^n) \vee (O^{n+m} \not\prec O^n) \vee (O^n \langle O^{n+m} \rangle))$
50. +PRO → (GEROKOA( $\hat{O}^{n+m}$ ,  $O^n$ ) ∨ +BARETUA)
51.  $(+AD \wedge (O^{nS} - \hat{O}^{n+1})) \rightarrow (O^{nS} \langle \hat{O}^{n+1} \rangle)$
52.  $((O^{nS} \cap G = \emptyset) \wedge (\hat{O}^{n+1} \cap G \neq \emptyset)) \rightarrow (O^{nS} \neq \hat{O}^{n+1})$
53.  $((\hat{O} -)O^{1S}) \wedge \neg(\hat{O} \not\prec O^{1S}) \wedge (+INTRA \vee +INTRA) \wedge (O^{1S} \cap G = \emptyset) \rightarrow (O^{1S} \langle \hat{O} \rangle)$
54. +κDEP([-deskr]) → +AD
55. (a)  $(\langle +*EDIN \rangle \vee \langle +*EZAN (EGIN) \rangle \vee \langle +*IRON \rangle) \rightarrow +AD$   
 (b)  $(\langle +IZAN \rangle \vee \langle +*EDUN \rangle) \rightarrow (+AD \leftrightarrow [HORTATIBOA])$   
 (c)  $(\langle -*EDIN \rangle \wedge \langle -*EZAN (EGIN) \rangle \wedge \langle -*IRON \rangle \wedge \langle -IZAN \rangle \wedge \langle -*EDUN \rangle) \rightarrow (+AD \leftrightarrow ([HORTATIBOA] \vee [AHALERA]))$
56. (XVII. mendetik honako euskara.)  
 $(O^M \cap G \neq \emptyset) \rightarrow ((\hat{O} \cap I \neq \emptyset) \vee (M \ll \hat{O}))$
57. (XVII. mendetik honako euskara.)  
 $+AD \rightarrow ((O^{Mn} \langle \hat{O}^{n+1} \rangle) \vee (O^M (-O^n) \langle \hat{O}^{n+1} \rangle))$
58. <+ahal> → [+ahal]
59. (XVII. mendetik honako euskara.)  
 $(+AD \wedge IRAGANALDIAN(\hat{O})) \rightarrow (+\kappa DEP \vee [+ahal] \vee [-deskr])$

60. (XVII. mendetik honako euskara.)  
 $+AD \rightarrow (+\kappa DEP \vee [+ahal] \vee +BARETUA \vee [-deskri])$
61.  $[-irrealis] \leftrightarrow [INDIKATIBOA]$
62.  $[EG-INDIKATIBOA] \not\leftrightarrow +AD$
63.  $\langle +tu \rangle \rightarrow (+POST^{NF} /) -INTRA$
64.  $\langle +tua(k) \rangle \rightarrow +POST^{HF}$
65.  $\langle +t(z)en \rangle \rightarrow +INTRA$
66.  $\langle +ari \rangle \rightarrow +INTRA^{HF}$
67.  $*ADIZKIA \rightarrow *(\langle \pm t(z)en \rangle \vee \langle \pm tu \rangle \vee \langle \pm (tu)ko \rangle \vee \langle \pm tua(k) \rangle) \circ *ADIZKIA$
68.  $[-deskri] \rightarrow -\kappa DEP$
